

EGĀN



5-6

1956

Suplemento de Literatura del Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País
Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Palacio de la Diputación de Guipúzcoa

SUMARIO

Pags.

<i>Adiskide Berri</i> : Berriketan, Santiago Carrero'k esan digu.....	1
<i>Jean Barbier</i> : Betlem'eko estalpean.....	6
Eguberri-Kanta Zarrak.....	7
<i>M. Lekuona</i> : Gabon-Kantak.....	9
<i>Domingo Agirre, Pierre Loti</i> : Gabon Eskalerrian.....	45
<i>Urruzula'tar Estantista</i> : «Jaiotz» Txapelketa.....	47
<i>J. M. Lojendio</i> : Aingeruak eta Izarrak.....	54
<i>M. Lekuona</i> : Jesus'en Jaiotza Edertian.....	56
<i>Urrea</i> : Ai, au gaubaren zoragarria.....	60
<i>Arrugaín</i> : Ene aitonatxo maitea.....	63
<i>M. L.</i> : «Ai zan egiazki asto ta iririk belengo estalpean?».....	66
Olerkiak.....	71
<i>A. Irigaray - Aldaratsailea</i> : IV.—Euskal Literatura-ren Bilduma Laburra.....	76
<i>Erkiaga Eusebio</i> : Ames—Larreko maitagarria.....	79
<i>I. Ajerbe</i> : Iñere Zuria.....	82
<i>Zeleta</i> : «Orixe» Eta Bedayo'ko Txistularia.....	87
«Txillardegi»: Mendeurren oargarri bat.....	94
<i>M. D. Agirre</i> : Bear—Bearra.....	99
<i>Dunxi</i> : «Jaiotza» baten aurrean.....	103
Munduz—Mundu.....	105
<i>Barandiaran'dar Salvador S. J.</i> : IMFC'en Bederatzigarren Urtero'ko Batzarra.....	110
<i>M. I.</i> : Aita Jose Antonio Donosti.....	119
<i>B.</i> : Arantzazu'ko Batzarrak.....	123
Arantzazu'ko Euskal—Sariketa.....	128
<i>Eusebio Maria Azkue</i> : Gabon Afari bat.....	130
<i>A. A.</i> : Jan—Edanak.....	133
<i>Apat—Etxebarne</i> : Naas Maas.....	137
Adabakiak.....	139
<i>L. Mitxelena</i> : Liburuak.....	142
Barandiaran'go J. M. Oientzaro, Kalerre ta subilaro.....	162
<i>L. Mitxelena</i> : Pio Baroja.....	173
<i>L. M.</i> : Zinema.....	179
<i>Ayalde</i> : Mari Beltza.....	183
Juan Ramon Jimenez.....	185
Sariketa.....	189
Eguberri—Aizeak.....	191

DIRECCION Y REDACCION:

A. Arrúe, A. Irigaray y L. Michelena.

COLABORADORES:

Cruz Ansola.
 Gabriel Aristi.
 P. J. Antonio Donostia.
 «Dunxi».
 Echaide (J.).
 Nemesio Echániz.
 P. Echeberría
 E. Erquiaga.
 P. Goicoechea.
 Alfonso Irigoyen.
 P. Carmelo Iturria.
 José Iturria.
 Antonio María Labayen.
 Pierre Lafitte.
 Manuel Lekuona.
 José María Lojendio.
 Mirande (J.).
 Norbert Taner.
 P. Villasante Cortabitarte.
 Aniceto Zugasti.
 Etcétera.

H. A. B. E.
Liburutegia



1871

1872

1873

1874

1875

1876

1877

1878

1879

1880

1881

1882

1883

1884

1885

1886

1887

1888

1889

1890

1891

1892

1893

1894

1895

1896

1897

1898

1899

1900

Berriketan

Santiago Carrero'k esan digu

Eguerri-zaleak gera, baiña zaletasuna eta jakitea, maiz gertatzen dena, eztabiltza elkarrekin. Gure ezjakiña, orratik, etzen Sokrates'enaren parekoa. Gauzatxo bat bagenekien: norengana jo, argieske. Gertu askoan geneukan Santiago Carrero jauna, Madrid eta Donostia'ko Jaiotzen aldeko elkartasunen sortzailleetakoa, Tolosa'n jaio eta Donostia'n bizi dena.

—Noiz asten dira Jesús'en Jaiotzaren irudiak?

—Leenbizikoak, agi denean, Erroma'koak dira, Priscila'ren kaktakumbetakoak. Kristau-artistek, sinboloak utzi eta gertaerak artu zituzten ezkerreko gaiztat, Eguerri-Epifaniak izan dituzte ezer baiño begikoako. Urrengo aldietan nonnai arkitzen ditugu orrelako irudiak: zillargiñen lanetan, meza eta ordu-liburuetan. Esan diteke, batere gezurrik gabe, irudi orien katea ezteela eten asi IV'garren mendetik eta gaurdaino. Naximentuak elizetan egiten ziren teatro-jaietatik sortuak omen dira, zenbaitzuren ustez. Aita Santu batek, Inozentzio III'garrenak, debekatu zituen jaialdi oriek, zomorro-festa bihurtu zirelako edo. Eta Aita Santu orrek berberak eman zion baimena San Frantzisko'ri onen asmo ederra betetzeko. San Frantzisko'ri bururatu baitzitzaion egiatzko jaiotza antolatzea: aska ipiñi zuen leze-zulo batean, idia eta astoa inguruan zituelarik, eta aldarea askaren gainean. Aldare-gaiñean eman zen meza gau-erdian. Arrezkero, Frantziskotarren gisara egiten ziren Belen'go portalearen irudiak, Pizkunde-aldira arte beintzat. Garai onetan. askatasuna nagusi, nork bere gogora irudiratu zituen Eguerritako gertariak.

E. B. A. N.
—Baiña noiztikakoak dira oraingoen antzeko naximentuak?

—Naximentu jatorretan zaarrena, dakidanez, Napoles'ko bat da, 1478'koa. XVI'garren mendekoak osoak dira, zurezko irudi arrigarritz ornituak. Irudiak ugaritzen dijoaz XVII'garren mendean barrena, baiña jaiotzak ez tira gaillurreraño XVIII'garren mendera arte eltzen. Errege bera izan zuten eragille, gero Espaiña'ko Karlos III'garrena izango zena, bere adiskide Aita Rocco dominikoa zuela lagun. Erregeren ondotik, Napoles'ko andizkiak eta erria asi ziren elkarren leian naximentuak antolatzen. Ain zuzen ere, Urre-aro delako arekin zebiltzan ametsetan ordukoak, baso-mendi eta jartzai txistulariekin. Nola etzituen gogoko izango jende orrek Belen'go estalpea ta artzalak?

—Eta Italia'tik kanpora?

—Espaiña'k jakin izan du batzuetan gai arrotzak bereganatzen eta bere gisara itzultzen: orixe gertatu zen Napoles'ko "aska"-rekin, Catalonia'n batez ere. Gero, joan den mendearen erdi-aldera, jaiotzak zeoro zarplidu ziren, zuten jainkozko kutsua galdurik. 1863'an sortu zuen oitura zaarren aldeko katalan talde batek jaiotza-zaleen leenbiziko elkartasuna: etzuten alere askorik aurreratu. Oraingoa, 1921'an sortua da, eta asko zor diote jaiotzek Espaiña'n. Olako elkartasunak badira orain nonnai, erri larri ta kokorretan. Badira alaz ere zenbait ergel umekeriak besterik ez tirela-ta ari direnak.

—Naximentu zaar errikoiak gorde bear aal genituzke?

—Noski, ba. Kortxo eta oroldiozko naximentua, irudi merkez jantzia, edozeinek antola dezake. Etxe bakoitzean bear litzake olako bat. Biotzak trebetzen ditu eskuak eta ezta biotza bezalako artistarik. Eta gure Gipuzkoa'ko oitura begiragarria gorde bear genduke batipat: aurrek, artzai-jantzian eta kantari, etxerik etxe daramazkiten jaiotzak.

—Ortara jo nai genduen. Zer derizkiozu, Euskal-erriari buruz?

—Bizirik dago oraindik gure artean, erdalkeriak zerbait kutsatu bagaitu ere, Jesus'en Jaiotza kristaukiro ospatzeko oitura. Benetako jaiotza-zaleak ziren Donostia'n, esate baterako, Mons. Irazusta eta Toribio Altzaga. Ezagutu nuen, San Juan kaleko etxean, onek jartzan zuen jaiotza: irudiak oso ugariak ziren eta andiak gaiñera. Berebiziko entzutea zuen Aita Jesuitenak: etzuten berrogei urtez batere aldatu. Nork esan neri orduan, lilluraturik begira nengoenean, neronek antolatu bear nuenik beste gisako bat aren orde? Ez nik uste oberik asmazitekeanik! Gogoan ere daukat Tolosa'ko Frantzisko-tarrek aur nintzala ipintzen zuten jaiotza: arzaiak eta artzai-andreak emengoak ziren, euskaldun itxurakoak. Orain bi urte gerta-

tu nintzan berriz an, Eguerrietan. eta nere naigabea! Gure artzaien lekuan, Olot'en egindako judu-antzeko artzaiak ageri... Beste aur-tzaroko oroitzapen au ere Tolosa'koa da. Mixerikordi zaarrear, Errege-egunez, txistu ta guzti joaten ziren aurrak arratsaldeko eliz-kizunetara txorien antzera txorrotxioka aritzeko, eta aurrak ziren, errege-jantzi dotorez apainduak, aldarera aurreratzen zirenak Jesus jaio-berria gurtzera. Bizij' ote da oraindik oitura au?

—Eguerri-kantak?

—An ikasi nituen euskera argi ta garbizko gabon-kanta ederrak etzaizkit berealakoan aaztuko. Urtero egiten dut bat neronek: musi-ka Enrike Perez Egea adiskideak jartzen die. A.uxe duzute aur-tengoa:

Aingeru txistularia

Zeruko urdiñak iriki dira...
Ate-txokoan, aingerutxo bat
Ari da txistu ta danbolin jotzen,
Jesus'en jaiotza iragarriaz.
Mendiko artzaiak esnatu dira;
Alderatu dira Belen'era.
Portaltxo batean arki dituzte
San Jose, Jesus ta Ama Birjiña.
Ago ixillikan, Mikel, ixillik,
Zeru ederreko aingerutxo!
Aurra ez dezala esnatu, ez ba,
Ire txistu-danbolin soñuak.
Ik eztakik, eta nik bai, bazekit
Gure Manueltxo laztanari
Zeñen eder zaion Euskalerriko
Txistu-soñua eta danbolin.
Ara nola iriki ditun begiak,
Ara zer par polit egiten dun;
Pozez bete zaio biotz santua
Entzunaz txistu eta ttunttun.
Nola egon, ba, danboliñik gabe?
Poztu zaitzete kristau jendeak,
Gau eder ontan jaio baitzaigu
Manueltxo, Zeruko Erregetxo.

—Gelditzen aal da Donostia'n jaotz-irudi zaar ederrik?

—Badira zenbait: museo ttiki bat egiten asteko lain, bai. Mari-anistek badituzte bi, andre andizki batek emanak: Karlos III'garrenaren semearen jaiotzatik datoz, Toribio Alzaga'k bazituen, berak esanda dakit, bi edo iru etxe, atso xar batek “31 de Agosto” kallean, Donostia erre baiño leen, egiten zuen naximentukoak. Lastagarai'ren andreak urtero ipintzen du bere jaiotzan Joxe Mari Usandizaga musikoak egindako “Herodes'en gaztelua”. Or-emen dabil-tza sakabanaturik zenbait irudi miragarri Mons. Irazusta'ren naximentukoak, Napoles'koak batzu eta besteak Uribesalgo'k eginaik.

—Jaiotzak garai eta errialde artako modura egin bear aal lirake?

—Ez. Nere ustez, jaiotzak gurea bear du izan, oraingoa. Kristaumisterioak ez dira gure gogoan bakarrik bizi; aurrean dauzkagu be-ti. Eliz-urtearen barruan, Kristo urtero jaiotzen da, urtero guru-tziltzatzen dute, urtero piztutzen da: Jainko denez, ezin dezake denborak muga. Urtero adoratu nai genduke Gabon-gauean, artzajek inoiz aska-gaiñean adoratu zuten bezalaxe, eta adora dezakegu aurrean baitaukagu, izkutaturik bada ere, Aldareko Sakramentu Santuan. Aldi eta alde orotako kristauek beren lurrean eta beren denboran berritu nai izan dute Jesus'en jaiotza: lekuko dira jaiotz-irudi guztiak. Eta aurtan, Donostia'ko Aurrezki Kutxa'rentzat egiten ari naizen naximentuan, mamitu nai dut nere aspaldiko gogoa: Jesus Aurrari Euskal-erriak eskeintzen dion gorazarrea izango da. Buztifiez egin-erazi ditut, irudi bakoitza 18 bat zentimetroko, Anso-rena'ren txistulariak eta Korputz-egunean Jaunaren aurrean dan-tza egiten duten ezpatadantzariak: auek auzpez, leenengo dantzal-dian. Gero, nekazariak, arrantzaleak, langilleak eta aurrak, begira edo belauniko. Etxarte batean daude; atze-aldean, gorapea ageri da, eta gorapeko leioetan barrena Euskal-erriko lurra.

—Zer iruditzen zaizu *Egan*?

—Ezin-obeia iruditzen zait Mintegi ori egiten ari den lana, Gi-puzkoa'ko Diputazioari eskerrak. Aldizkari ontan nolanaiko gaiak erabiltzean, euskera egoairatu egiten da; etxe-zokotik atera, or ego-teak lizundu eta erdoitu egingo bailuke nai-ta-ez. Erderatik sartu diren itzak, luzaroko oiturak guretu dituenak, erabat onetsi bear lirakeala derizkiot, orien ordeztu itz berriak asmatzen ari gabe. Ori bai, orain baiño gelago saiatu bear genduke itz zaar jatorrak gor-detzen eta zabaltzen. Min ematen dit neri beinzat euskaldunen aotan maiz asko entzuten diren zenbait mordoillokeri entzuteak.

—Zer egin genezake aldizkari au obetzeko?

—Galdera bihurria bada ere, ausartuko naiz erantzuten. Premiaz-koa iruditzen zait euskal-irakurgaien ezaguera zabaltzea. Elitzake

orretarako txarra izango edozeiñek uler lezakean izkera erabilitzea. Asko gera, izan ere, euskeraz dakigunak aurtzarroan irakatsi zigutelako, baiña gai ortan beste eskolarik ez tugunak. Olakoentzat beste sail bat sor liteke: elkar-izketa moduan egiña, gai ugari ta oraingoak ukitzen direla. Irakurtzen jende asko zaletu eta trebetuko litzakeala derizkiot.

Eskerrik asko, Carrero jauna. Ez gera gu umekeriei, edo umekeri diruditenei, parre egingo diotenetakoak. Urteak joan eta urteak etorri, gauza asko bil ditzakegu: aberastasunak, jakitea, eza-guerak... Asko preziazten baditugu ere, zer dira ondasun oriek aurtzaroko zeinbat oroitzapenen ondoan? Eta aurtzaroko oritzapenik bizienak eta gozoenak Eguerri-jaietara itsatsiak daude. Biziak are geiago elkortuko bagindu, ez geundeke zearo illik, barne-muin ori eze duguiño. Orrek piztuko ginduzke, Dickens'en "Christmas Carol" ederrean —Luzear'ek euskeraz eman zigun artan— Scrooge agure zekena Gabon-iratoek piztutzen duten bezala.

ADISKIDE BERRI

Betlem'eko estalpean

Betlem'eko estalpean,
lasto hutsaren gainean
Jesus tikia etzana,
—zoin maite zaitudan!—
doi-doietan jina.
heia txar batean.

Gau-erdi da, negu mina
horma ari du samina...
Bi aberien erdian
—zoin maite zaitudan!—
hotzez ikaretan
heia txar batean.

Horra belhaunka emanak,
bihotza sutan, artzainak
otoitz kartsuetan ari...
—Zoin maite zaitudan!—
zu irriz heieri
heia txar batean.

Ama Birjiña gaixoa
Eta San Josep maitea
lorietan zuri beha...
Zoin maite zaitudan,
o gaurko loria,
heia txar batean!

Izarrak zuri begira
horra dantzan hasi dira:
taula artetarik zuri
—zoin maite zaitudan!—
oro irriz ari
heia txar batean.

Aingeruek gaur zerua
trumilka dute hustua:
hauxe da hegal burrunba!
—Zoin maite zaitudan!—
zerua gaur hor da
heia txar batean!

Iguzki ederra baiño
zarelakotz ederrago,
besoetan harturik, Jesus,
—zoin maite zaitudan!—
jaten zaitut musuz
heia txar batean!

Jesus tikia, gau huntan
huna gu bozkariotan!
Bihotzez "Ongi etorri",
—zoin maite zaitudan!—
bai "ongi etorri"
heia txar batean!

EGUBERRI-KANTA ZARRAK

I

Zeruko aingeruak artzaiai
esan die gaurko gabean,
Jesus Belenen jaio zaigula
estalpe pobre batean.

Artzaiak entzun bezin laister
berri zerutar ain gozoa,
bertatik artu dute
Belenako asmoa.

Arturik arkume,
taloak gaztakin,
esne ta ezta,
gustora Jesuseri
eraman diote
billatu al guzia.

Gloria, gloria Jaungoikoari
goien, goien, goienean,
eta pakea gizonai
beti betiko lurrean.

Aita San Jose aurretik
Ama asto gañean,
urrikarri dabilta
Belengo kalean,
ate batean galde,
gelditu bestean,

iñon artu nai ezik
ostatuz etxean.

Gloria, gloria Jaungoikoari
goien, goien, goienean,
eta pakea gizonai
beti betiko lurrean (1).

II

Nork orain esan lezake
gure Jaun egillea,
Adanen eta Ebaren
dela jatorkidea?

Jesus maitea, neure maitea,
ongi etorria zerala,
gure Bereroslea (2).

III

Aingeru batek dio
goi-gora basoan,
Aurtxo bat jaio dala
bart gure auzoan.

Berari zorionak
al deigun eskatu,
Aur oni biar diogu

(1) Kanta au, Arantzazuko artxibu zarretik artua da, ta beraren letrári Aita Larramendi sonatuak jarri zion doñua.

(2) Bigarren kanta onek emezortzi-mendéko doñua du.

ederki kantatu.

Erraguzu, Maria,
bazen erregerik!
Zure Seme Jainkoa
ikusiz zuenik!

Iru errege ziren
urrundik etorri,
eta beren emaitzez
zuten ederretsi.

Aingeru batek dio
goi-gora basoan,
Aurtxo bat jaio dala
bart gure auzoan.

Berari zorionak

ai deigun eskatu,
Aur oni biar diogu
ederki kantatu (3).

IV

Gaur da nere kristauak
goi ta lurren jaia,
guazen bai Belenera
Jesus jaio da-ta.

Aingeruak dabilta
kantatzen egazka,
pozaz zoraturikan
artzaia janzika (4).

(3) Irugarren au, Gasteizko Seminarioko kanta-sortatik artua da.

(4) Au ere, kanta-sorta berberatik artua da.

GABON - KANTAK

M. LEKUONA'K

Gabon-kantak gure artean, beste gauza guztiak bezela, aldaketa aundiak izan dituzte. Eta oraindik ere aldaketan bizi dira. Eguzkia bezela; ez daude egote batean egon; ibillian dabilta beti. Gauza guztiak bezela. Gure Gabon-kantaen ibilli au —evolucio au— aztertu nai det gaur.

Gure Gabon-kanta batzuek, zahar-zaharrak dira. Beste batzuek berriagoak. Beste batzuek, berriz, oso berri. Olakoxe zahar-berritze izan dute gure Gabon-kantak.

Lau bat mallatara bilduko nituzke nik guztiak: zaharrenak, Gabon-agurrak; berriagoak, Misterio-kantak; urren, artzai-kantak, billantzikoak; eta berrien-berrienak, gaurkok.

Usarioa, Legea.

Usarioa eta Legea aipatu oi dute gure kantaen batzuek. Beste-lako kantak ez bezela, zaharrenak dira “usarioa eta legea” aipatzen dutenak.

Dios te salve! Ongi etorri!
Gabon Jainkuak diyela!
Legiarekin konpli dezagun
Urte-berriren sarrera.

Legiarekin konpli. Euskalerrian Lege zan, Gabon-kantariak ibilli zitezela, Erria poztutzen Gabon-bezperan... eta berdin baita San Juanetan ere, eta Iñauterietan... Oyartzun'en oitura ta lege zan Iñau-

terietan (Iyotietan) Elizako ofrenda Mozorroentzat izatea, Mozorroai oso-osorik ematea... "erria pozten ibiltzen ziralako, eta ola, guztion arteko pake ta armoni onari laguntzen ziotelako", dio orduko paper batek. "Erria poztu", gaur txistulariak bezela.

Usarioa aipatzen du baita, beste koplak zahar batek ere, tobera-tako koplak batek, eztaietan kantatzen ziran toberatako koplak batek:

...toberak jotzera gatoz
bost edo sei lagun.

Toberak jotzera eta
libertittutzera,
ez uztiagatikan
usariyua galtzera...

Usarioa esta Legea: Euskalerrian biok bat bait-dira. Lege zahar-rak, usariotik dato; eta usarioa bera ere lege da; usarioa zan Lege, Legea eskribitu baño len.

Kopla Zaharrak deritzaie legezko ta usariozko kanta oiei. Eta oietxek dira Gabon-kantarik zaharrenak ere. Gabonetan eta Urte-berriz kantatzen diran Kopla zaharrak. Benetako zaharrak. Orain bosteun urte ta geiagoko usai sendoa darioten koplak zaharrak.

Benetan jakingarri bait-da koplak oien kanta-gaia. "Gabon-kantak" dira; bañan ez dute kantatzen Gabonetako Misterioa. Gabonak diosaltzeko, Gabon-agurrak emateko kantatu ori dira. Etxerik etxe. Bañan Misterioa geienez ere aipatu bakarrik egiten dute. Asieran aipatu. Eta gero, egunari dagokion diosal kristautarra eman etxeko bakoitzari, ondorengo beste koplak guztietan. Diosal etxeko-januari, diosal etxeko-andreari, diosal etxeko seme ta alabai... bakoitzari loretxo bat edo beste egokitxo botarez...

Ori zan koplak zahar oien guna ta mamia.

Misterio-kantari.

Goroztikakoak dira, asi ta buka, Jaiotzako-ta Misterio gozoak kantatzen dituzten koplak. Gernika-ingurukoak ezagunenak, bear bada gure artean. Gernika-inguruko *Marijesiak*. (Politak berak ere. Bañan erri-kutsu gutxiagodunak.) ...Bizkaiko *Marijesiak* gure artean; eta mendiz bestaldean, *Noelak*. Dotrina sainduz ondo anpatutako Noelak. Erri-kutsu gutxitxodun ezik oiek ere...

Billantzikoak.

Ba'liteke billantzikoak eta Marijesi-noelak, gutxi gora bera elkarrekin sortu zirana gure artean. Billantzikoak. Artzai-kantak. Bukolika-zati politak askotan. Askotan irri-antzean —irri xamur eragiteko— sortuak. Erderaz ere berdin bait-dira. Izkuntza guztietako olerkaririk bikañenak erantsi izan bait-diate eskutadaren bat Artzai-kanta-sail oni.

Marijesi ta billantziko, ba'litezke elkarrekin batean sortu izanak. Bañan mamja oso elkarrengandik bestelakoa bait-dute. Marijesi-noelak elizakoiak —kalean kantatzen diran arren, elizakoiak benetan—; eta billantzikoak Elizan ere kantatu izan diran arren, kalekoak, oso kalekoak...

Parragarriak.

Billantzikotik zuzen-zuzen sortuak dira, berriz, beste oek. Billantzikoen artzai-kutsua nabarmenki ustelikatuz. Oroi arako donostiarren Erregeen bizkarretikako itsusikeri parreragille ura:

Iru Errege datoz
kale nagusitik,
tripak ardoz beteta
ezin egon zutik...

Oien antzeko bat arkitzen degu Azkue Jauna zanaren "Cancionero"-n, Ermuako Tomas Abadearen aipamena egiten duana —karta-jokatzalle ona bide-zan eta ardo-edale ez txarra, zalako Tomas Abade ori—; aipamen parragarri ori —ez Donostikoa bezain zarpatzu baño— Marijesi baten barruan egiten bait-zan.

Ez oiek bezain parragarri, bañan bai Elizatik oso kanpora kantatzekoak ziran baita, guk txikitan pozik asko Oyartzun'go korutik entzuten genituan batzuek ere. Ona, adibidez, zatixka bat:

Oyartzun'go maxterrak
nagusiyetara; (kapoyak eramatera, alegia)
kontentu obez datoz
gaur Tenplo Santura.

Salto, brinko, konpañerua;
salto, brinko, ene seme:
zankuak arin eta
bera juan firme.

Parragarriak ziranez, Elizan kantatzeko erreberentzi-gabeak ziran. Gañerakoan etzuten beste akiakularik eta aitzakirik. Parragarriak izatea. Aldiz-aldiz, gatz-piper-puntta bat ere bai bait-zizuten lerro-artean.

Aipa ditzagun orain Gabon-kanta-mota guztiak, banan-banan.

KOPLA ZAHARRAK

Ezagun-ezagunak diranez, bizpairu besterik ez ditugu aipatuko Koplak Zaharretatik.

Bedeinkatua, alabatua
Aldareko Sakramentu Santua,
pekatuaren mantxarik gabe
zeña dan kontzebitua.

Kopla oiek, esan degun bezela, zaharrenetakoak diran arren, ba'dute zenbait eraxkun geroztiko. Emen ikusten degun au, adibidez; XVII gizaldikoa, zalantzarik gabe. Oargarri da, benetan, nola bigarren erdian nahasten dituan bi Sorkundeak, Jesus'ena eta Aren Amarena. Ez pentsa, ordea, nahaste au ain gauza bakana danik. Edonungo erri xumek ba'daki beste orrenbeste egiten. Jarrai dezagun:

Au aiziaren epela!
airian dabil orbela...
Etxe ontako jende leyalak,
gabon Jainkuak diyela.

Au bai benetan koplak errikoia! Errikoia, ta literaturaz izan ditekenerrenetakoak. Ezin bait-diteke diosal politagorik izan. "Gabon" bat emateko, lenengo, olako pinturaki bixi ta garbia, bi lerrotan:

Au aizearen epela! (arako "sagardoaren gozoa" bezela)
airean dabil orbela...

(Iru itzetan ez bait-diteke evocacio biziagorik eta osoagorik egin).
Jarrai dezagun:

Lezo ta Errenteriya,
irugarrena Oyartzun...

Nere lagunak, *Diostesalbe*
garbuarekin erantzun.

(Olako kopla bat, erriak bestek ez daki sortzen: "Lezo ta Erren-
teriya".)

Jarrai dezagun:

Diostesalbe! Ongi etorri!
Gabon Jainkuak diyela!
Legiarekin konpli dezagun
Urteberriren bezpera.

Iñoz "Eguberriren bezpera" esango zuten. Emen egiten da ga-
ñera len esan degun arako *Legearen* aipamen ura. Lege zan, Eguerri
ta Urteberriren bezpera jendeari olaxe agurtzea. Koplak kantari.
Koplari ta koro. Amar-amabi gizaseme...

Ez bait-zan, ordea, —ta ez bait-da gaur ere, Jaunari eskerrak—
agurtzea bakarrik; izaten bait-zan eskupeko-jasotze polita ere etxe
bakoitzean, diosal ta agurtze-truka ta sari... Oitura zan olaxe. Mo-
zorroak ere olaxe egiten zuten Oyartzun'en Iñauteritan Elizako
Ofrendarekin... Eskupekkoa jaso.

Eskupekua jaso degu ta
orain abia gaitian;
"Adiós-ikan" ez degu eta
agur, urrengo artian.

(Auskalo zer ezkutapen ezkututzen dan "Adiós" eta "agur" olen ar-
teko nahaskillo-joku orretan...).

Bañan gatozen, berriz ere, arira. Begira, eguneko Misterioaren
aipamen xume bat onako beste kopla onetan:

Urteberriren bezpera da ta
eskian gatoz atera,
Birjin Amaren Seme garbiya
dijualako Pontera.

(Erri xumeak ez daki, Lege Zaharreko Erdaiña zer zan; Bataioa
zala uste du. Anacronismo txoragarria!)

Eta ondotik etorriko da, etxeko bakoitza koplatzeko baimen-
eskea. Bene-benetako errikoia kopla auxe!

Zapata txuri, paperez;
eudi denian baterez...
Nagusi Jauna, esan bizaigu
asiko geran ala ez.

Eta onen ondotik, bakoitzaren laudorioak. Ez goaz danak aipazera. Naikoa izango da bat edo beste egitea. Adibidez:

Esku txuritan papera,
erreberentzi lurrera...
Lotsa gogorrez etorri gera,
Jauna, berorren atera.

Orroko or goyen izarra;
errekaldian lizarra...
Etxe ontako Nagusi Jaunak
urre gorritz du bizarra. (1)

(Bai, bada. Aldareko Santuak berak bezelaxe, "urregorritzko bizarra".)

Urregorritzko bizarra eta
zillar zurizko sorbalda.
Errealbikoz egiña dauka
Elizarako galtzada.

(Al-da esan-bearrik, olako koplak bat erriak beste inork ezin asmatu dezakeanik? Eta nolako antziña-kutsua daukatela gero koplak oiek! Orain bosteun-seireun urte izaten zuten urrezko bizarra Aldaretako Santuak: gotiko-garaiak. Eta Elizarako galtzada errealbikoz kaltzatua izatea? noiz ta nungo ipuia ote-da? Nork esan?)

Eta olaxe beste koplakuetan ere. Etxeko-andrearen Pazku-eguneko soñeko zazpi gonak dirala... eta etxeko-eme zaldunak bere kapa motxaren ertzetik zintzillik daramazkian zazpi urre-txintxarriak... eta irrikitzen begira dagozkion zazpi damaen eguzkiak... eta etxeko alaba ederraren kutzako dote ederra... eta Apaiz Jaunaren esku zurietako kaliza, ta soñeko superpeliza... etab. etab.

Olaxe dana. Erdiaro-erdiaro jator.

Egia, erri-kopla oiek Oyartzun-inguruan egon izan dirala gaur arte sendotxoengi finkaturik; bañan egia, baita, gutxi edo geiago

(1) Kopla onen erdi-aldeko etzen-itxurari buruz, ikus nere «Poésia oral euskérica»—1935—Donostia—or. 41 et seq.

Santa Agedaz Bizkairañoako guztian ere kanta izan dirala beti. **Eus-**kalerri guztian.

Esan bear degu, baita, beti kantuz ematen dirala ere. Eta kantuz dutela —beren melodi ederrez jantzita, dutela, alegia— duten bezelako izaera ta grazi jator.

* * *

Ez goaz orain *Olentzaro* bereziki aipatzera. Oitura bezela ba'dan arren, koplaz ta kantuz ez bait-da ain aipagarri izan ere.

Ala ere, bi koplaxo ipiñiko ditugu emen. Eta biotatik auxe aterako degu: 1) berri-antzekoak dirala, XIX gizaldiko bertsolariren batek atereak kopla olek; eta 2) parragarri bezela pentsatuak dau-dela —Donostiko Erregenetakoen antzera; jan-komentu alegia, etxeetan eman oi dan sari ta eskupeko-zurrian lotsagabe pentsatuak—. Ona:

Olentzero juan zaigu
mendira, lanera,
intentziyuarekin
ikatz-egitera
Adittu duenian
Jesus jayo dela,
korrika etorri da
parte ematera.

Olentzero inondik
ezin dugu ase;
osorik jan dizkigu
amar zerri gazte,
sayeski ta solomo,
makiña bat este...
Jesus jayo da eta
kontsola zaitezte.

Beste itz bat. Gaur uste degunez, *Olentzaro* au, *Noeltzaro* da —inoizko *Noeltzaro*'ren metatesis, atzekoz-aurre bat, erderazko *aguinaldo*, *aguilando*'ren metatesis dan bezelaxe—. Eta "Noel'en aroa edo garaia" esan nai du, ots *Olen*'en aroa.

Beraz, gure Olen au, iparraldeko Noel (papa Noel) bera da. Beste *Zanpantzar Jauna*, Saint Panssard dan bezelaxe. Iparraldeko norki batzuek bait-dira biok. Iparraldekoak, gure arteko beste zenbait

norki ta zerki bezela. Bañan —goazen gure arira, ta— bi norki oiek, gure artean parragarrituak ikusten ditugu, jateko ta edateko aitzaki biurtuak. Donostiko Erregeak bezela. Berez olakorik merezi etzutenak, eta *ab initio* ola etziranak. Noel beneragarria, Olen parragarri biurtua. Koplak ere berdin. Ori da esan nai nuana... Izan ote-zuan antziña iñoiz gure Olen onek orain baño koplak egokiagorik? *Auskalo!*

MARIJESIAK

Jo dezagun orain. Koplak Zaharrak baño geroxeagoko beste kanta-mota onetara.

Merijesiak Misterioa kantatzen dute. Ez dira Koplak Zaharrak bezela, Misterio-egunez kanta oi diran agurrak soilik. Misterioa bera dute kanta-gai.

Gizon-egitea, Jaiotza, Erregena...

Eta aundikiro gañera. Bederatzi egun erreskadan, egunero-egunero, mutil-aldra etxerik etxe, erriko ate-ondo guztietan kantari. Leningo lau egunetan kanta-sail bat bere-eresi bereziarekin; eta urrengo lau egunetan beste salla, bere erisiz ura ere; eta azkeneko egunean, Gabon-egunean, irugarren salla, eresirik ariñenean... Eta orduan, sari-jasotzea. Sari ederra. Baita merezi ere. Bederatziurren ederragorik! Amabi bat mutiko aurpegi-gorri-biribil, kalerik kale, baserririk baserri, bat bakarrik ere utzi gabe, Jaunaren Jaiotzako berri ona kantari... Ohore aundizat artzen bait-da bixita ori etxe guztietan. Bedeinka-señale. Eskupeko ederra, beraz. Ala dagokion bezela. Eta pozik etxeakoak eta pozik mutiko bipillak.

Agurraren ordezkariak Misterioa kantatzeko oitura au, Elizatik sortu zan nunbait. Komenturen batetik nunbait. Gernika-inguruan an bait-dago aspaldidanik Bermeo'ko Praidetegi Prantziskotarra... Anditxik atera ote-zan iduritzen neri. Koplak Zaharren koka-leku berezia Oyartzun esan degun bezela, Marijesien koka-leku, Gernika-ingurua bait-da iñolaz ere. Antxe bizi izan bait-da Marijesien oitura au bizien eta sendoen... Eta Bermeo'ko Prantziskotegi zaharretik sortua ere ote-dan degu guk susmo.

Ori bai, beste esku asko ere saia izan dirala, zalantza gabe, Praidetak egindako lanaren gañean. Zenbait ereji ere arkitu bait-lezake, zenbait koplatan, teologo zorrotzen batek. Bañan, nun ez dago olako zerbait?

Dala dala, ona orain iru sail aietako zenbait koplak. Aogozorik gelentxuen dutenak:

I

Abendu Santu onetan
Kristo'ren Jayotzian,
kontentuaren andiz
guztijok poz gaitian.

María y José,
José y María,
María y José.

(Kopla bakoitza, bi puntuko da; eta ondotik, beti ere, estribillo
—estribillo arrotz— lenengo bi kantuetan.) (“María y José” ortatik
bait-dator *Marijesi* izena ere.)

Eguzki dibinala
gabaren gaberdijan
etorri zan mundura
gizonaren jantzijan.

María y...

Trinidad altuko
bigarren personia
trasformadurik dago
Belen'go estalpian.

María y...

Au dala jayo, jayo,
au dala jayotzia;
semia jayo ta be
ama da dontzella.

María y...

Kristalian argija
bezela pasatu;
eginda gero bere
dontzella gelditu.

María y...

—Josepe, zer ordu da?
—María, gaberdija;
zeruko izar ederra
laster dogu parian.

María y...

.....

Otzaren ikaraz dabil
jayo dan infantia;
bere amak dirautzo:
—Ixi, ene semia.

María y...

Astua ta idija
daukaz aldamenian,
arnasaz berotzeko
otzittuten danian.

María y...

Astuaak arrantzia,
idijak arnasia;
alan berotzen dabe
jayo dan infantia.

María y...

—Ea bada, Josepe,
arotza zara zu;
aurtxo txiki onentzak
seaska egizu.

María y...

.....

Iru Errege Maguek
ain bide luzian
mirari andi batez
alkartu zirian.

María y...

Iru Errege Maguek
ain bide luzian
bakotxak eroyela
bere presentia.

María y...

Iru Errege Maguek
ain bide luzian
ostatu artu eben
ain etxe pobrian.

María y...

Erregaluek bere
ekarri zittuen:
urria, intzentsua,
mirra irugarren.
María y...

Erode'k esan eutsen
Erregei gablan;
Emendik etozela
"Ni be juen naitian".
María y...

Erodes Erregia,
faltsu, traidoria,
zeren damu zenduen
Kristo'ren jayotzia.
María y José,
José y María,
María y José.

Ez goaz ezer esatera kopla oien Eleiz-usaiez. Eleiztarren baten eskua agiri dute (lengo Gabon-oitura ederra oraindik ederragotu bearrez —ederra ederragotu bearrez— ibillitako esku, ez baldarra, bañan ez lenengo mallakoa ere). Grazia darion koplaren bat ba'da tartean: "Au dala jaio, jaio" dion ura, adibidez. Ez da ain gabea, ezta, arako beste, Erregeai buruzko kopla irukote ura ere: "Iru Errege Maguek ain bide luzian...". Iru aldiz asiera bera, ta bakoi-tzak bestelako bukaera. Ez dago galzki. Ba'du grazi.

Ahaztu ez dakigun, beste gauzatxo bat ere ba'degu emen zorrik eta esan-bearrik. Erderakadai buruzko itz bat. Ez dedilla iflor, oi bezela, eskandaliza.

Nik erriaren aotik jasotzen ditudan olerki ta koplaetan, beti ere etsita eukitzen det erderakadak entzun bear izango ditudana. Ain nago oitua. Bañan oitua ez ba nengo ere, beti uste izan det kopla oietako poesi-pitxiak biotz-barruan eragiten diguten pilpira, erderakadak belarrietan ematen diguten miña baño askotaz ere geiagotzat euki ta ixtimatu bear degula. Eta berdin poesi ez danean ere, itz lauaren "argitasuna", beste zenbait "garbitasun" baño geiagotzat euki ta ixtimatu bear degula. Mariajesiak erderakada-artean, oitura eder-eder bat ekarri digute, orain irureun, lareun urtetik asita gaur arteraño. Oitura eder bat, oitura euskaldun-euskaldun bat. Poesi-pitxiak eta guzti bere baitatik aldiz-aldiz dariozkian oitu-

ra beneragarri, itzal aundiko bat. Ez degu zergatik muzin egiñik
olako oitura jator bati, erderakada batzuek dituala ta beste gabe...
Barkakizun dira. Barkatzeko dira olako erderakadak.

II

Txit egun ditxosua
dogu Egubarri;
zegaitikan dan Jesus
gugana etorri.
Jesucristo!
Ay! qué bonito buen Niño
Jesucristo! (1).

Erakutsi biosku
zer egin biogun.
Beraren alabantza
gaur kantatu daigun.
Jesucristo...

Josepe emon deutsoe
Maria'ri esposo,
bijok izan daitezán
Aurraren guraso (?).
Jesucristo...

—Agur, dontzella,
graziaz betia;
zeure izena dozu
Birjiña Maria.
Jesucristo...

—Arkanjel San Gabriel
anuntziadoria:

(1) Estribillo-erara edo bestela. kantu batean erderazko edo bestelako itzak sartzeko oitura, naiko zabaldua arkitzen degu, naiz euskerazko olerkietan naiz bestelakoetan. Gabon-kantaetan batez erè. Par eragiteko-edo. Orol, arako Mexikotar olerkari emakume Sor Ines'ek bere erderazko olerki ederretan aldiz euskeraz ipintzen dituan eraxkun aipatu-aipatuak. Euskerazko zenbait beste kantaetan arkitzen ditugu, baita, latinezko zaitixuak ere. Adibidez, Otxagabia'ko arako *Kristo sortzen duzu'ren Verbum caro factum est eta Deus caro natus est* ura. Gernika'ko *Jesucristo, Ay qué bonito buen niño, Jesucristo!* norbaitzuek *Jesukristo, adoretan zaituguz Jesukristo!* kanta oi dute.

ez gaizuz espantadu
ain jente umildia.

Jesucristo...

Josepe'k dirautso
Maria Birjiñiari:
—Noz deklaratuko da
geure esperantza ori?

Jesucristo...

Biok Beleren'era
daude kaminatu;
an eldu diranian
ostatuaren itandu.

Jesucristo...

Eskepe-etxetxu baten
dagoz atiak joten;
gizonak bentanara
txito nekez urteten.

Jesucristo...

Gizonak bentanatik
onelan erantzuten:
—Nor da ordu onetan
geure atiak joten?

Jesucristo...

—Nor ta nortzuk bizi dira
etxetxu zar orretan?

—Nor ta zer gura zenduke
Jaunaren ordu onetan?

Jesucristo...

—Ara or etxetxu zar bat
uriaren kabuan;
ganaduak-eta baño
ez dira sartzen barruan.

Jesucristo...

Arrano galant bat (1)

(1) Gaurko umetxuen Zikoniaren ipuia?

zerutikan lurrera;
sujetadu izan (da?)
zeruko Erregea.

Jesucristo...

Ameak artu eban
semia besuetan;
Seme ta Jaungoikua
zituzan adoretan.

Jesucristo...

Seiña billosik dago
lur otzaren ganian;
Amea beleuniko
negarrez an, urrian.

Jesucristo...

—Billoisik bazagoz bere,
etzara zeu pobria;
zeruan josirik dago
zeuretzako erropia.

Jesucristo...

—Nor ete-da? zein ete-da
erropiaren joskiña?

—Amandre Santa Isabela
Birjiñaren lengusiña.

Jesucristo!

Ay! qué bonito buen Niño

Jesucristo!

Irakurri utsez igertzen zaio bigarren kantu-sail oni, alakoxe triste-antza zenbait. "Belen'go Odisea" dei genezaioke. San Josepe ta bere Emaztearen Belen'go Odisea tristea. Etxerik ez, aurra billoisik... Nazaret'eko espantuz gañera, orixe da kantaldi onen gaia. Gai tristea. Kantatzen dan eresia, melodia, bera ere alakoxea du, illauna, illa, bere lenengo zatian beintzat. Estribilluan da pixka bat arintzen. Ta, arritzeko gauza, estribillua oso-osorik erderazkoa. Nundik nor'a sortua ote-da kantaldi au?

Ereji-antza ere ba'lukeala zenbait teologo inkisidorerentzat kanta onen zenbait koplak, esan det goratxuago. Ikus, arako "Josepe emon deutse" djon ura, bukaeran. Bañan euki bait-lezake, euki, zentzu onik ere; utzagun bere ortan. .

III

Eta onenbestez goazen orain, Marijesien irugarren goallera. Dana alai da sail ontan. Bigarren goalla "naigabezko Misterioa" litzaken bezela, au, irugarren au, "aintzazkoa" litzake. Aintzazkoa. Gloriazkoa. Dana: doñu ta itzak, eresia eta kanta-gaia. Eta beste gauza: Estribilloa euskera garbian. Polita benetan.

Nazaret'eko tenpluan dago
dama eder bat jarririk;
izena bere Maria dau ta,
ondo graziaz beterik.

*Bai, Belen'en, eta bart Belen'en
jayo da Jesus Nazaren!*

—Pastore santu, birtuosuak;
balia zakiguz gaur emen,
bart arratsian zer pasatu dan
kanta dagigun Belen'en.

Bai, Belen'en...

—Jesus dibiño! gabaren otza!
jausten da iñetasije;
erleju bijen jarraitten badau,
il da ganadu guztije.

Bai, Belen'en...

—Ortixik gora niñolela,
ospiteletxu zar baten
Aita San Jose topadu neban
astotxuaren txalmatzen.

Bai, Belen'en...

—Beleren'go Urijan
Gabon-gabaren erdijan
Ama Birjiña topadu neban
kontsolaziño andijan.

Bai, Belen'en...

—Korraletako ardiak bere
yantzan ebizen orduan,
Jesus deritxon Salbadoria

jayo dalako munduan.

Bai, Belen'en...

Birjin Andriak bere Semia
pozez yantzan erabillen...
"Au da Gabon eta au da Belen!
Jayo da Jesus Nazaren!"

*Bai, Belen'en, eta bart Belen'en
jayo da Jesus Nazaren.*

Ez det uste, gauza biziagorik izan ditekeanik; zazpi kopla oiek baño ezer biziagorik. Etzan makala oiek sortu zituan Praidea! San Prantzisko'ren semea benetan!

Lenenko strophek, Aldareko zati bat iduri, arako *Maria* izenaren etimologi artan, Eleiz-jakindurizko erakutsi bat dakarkigu xume-xume. Ori bait-diote zenbait etimologi-zalek esan nai duala izen zeturar *Maria* orrek: "graziaz betea", ondo graziaz betea...

Bañan bigarren strophetik aurrera —Eleiz-jakinduriak alde batera utzirik— artzai-usaia artzen digu kanta guztiak bete-betea. Eta zorionean. Artzaiak lau ahapalditan esaten dizkigutenak, benetan dira ukigarri ta bixi ta irudipenti... "Jesus dibiño! gabaren otza!"... "Ortixik gora niñoiela"... "Beleren'go Urijan"... "Korraltetako ardijak bere"... eta bukatzeko, "Birjin Andriak bere Semia pozez yantzan"... Guzti au benetako polit arkitzen degu. Benetako polit, eta benetako billantziko, artzai-kanta...

Bañan billantziko ta artzai-kanta xoragarriak, beste sail batean azaldu bearrak bait-ditugu, gauden ixillik orain.

NOELAK

Eta aipa ditzagun Noelak, Bidasoaz beste aldeko Noelak —Eleiz-jakinduriz anpatu-Noelak.

Eta beste guztien gañetik neretzat "Oi! Betlehen!". Urteak dira lenengo aldiz entzun nuala. Eta ordurako neroni ere clako saio txo batzuek egiten asia nintzan —saio utsak baño—. Eta egia esan bear badet, inbiri aundi bat sentitu nuan Gabon-kanta arrigarri aren aurrean: ez nintzala, alegia, ni sekulan ere elduko beste alako bat egitera nere bizi guztian. Alaxe dan bezela. Ez ni, ez beste iñor. Euskerak duan Gabon-kantarik ornituena, "Oi! Betlehen!" da, ta baita izango ere neretzat. Euskal-melodirik ederrena, "Oñazez". Euskal-Gabon-kantarik ederrena, "Oi! Betlehen!"

Neurri bikaña, ez-oitua... berria. Melodiak diola ematen? Ala biz.

Bañan, dana dala, ederra benetan. Itzak, biotz-aundidunak, xentimentukeri gabe sentituak, giza-sentimendunak. Bizkarrezurrean gorako zirrara-egilleak. Apalak, bañan jasoerazleak. Gizonki sentituak dianak. "Oi! Betlehen! Oi, Betlehen!". Lenengo aldiz sentierazitako zirrara ura, bein ere galtzen ez dezun Gabon-kanta indartsua... Nor izan litekean zure egile, zure aita!...

Begira:

Oi! Betlehen!
Ala egun zure gloriak,
Oi! Betlehen!
Ongi bait-du distratzen
zugandik eldu den argiak;
betetzen ttu bazter guztiak,
oi! Betlehen!
oi! Betlehen!

Zer ohore!
Ala bait-zare goratua!
Zer ohore!
Zer grazia! zer fagore!
Zeruaz zare hautatua,
Jesus'en zare sor-lekua...
Zer ohore! (bis).

Azkeneko
hor eldu da Jesus justua
azkeneko.
Gu dohatsu egiteko
hertsi nahi du ifernua,
guretzat zabaldu zerua,
azkeneko (bis).

Guregatik
Jainko bat botherez bethea
guregatik
jausten da zeru-goratik,
bai, sortzen da Jesus maitea,
biktima notharik gabea,
guregatik (bis).

Mañateran
datza haurrik aberatsena,

mañateran!

Nork zuken sekulan erran
zeru-lurren Jabea dana
ikusiren zela etzana
mañateran?... (bis).

Artzainekin

heldu naiz Zugana lehiaz,
artzainekin.
Hek egina nai dut egin,
ta adoratzen zaitut, Mesias,
eta maite bihotz guztiaz
artzainekin (bis).

Ez dut deusik,

oh Jesus, Zuri eskaintzeko
ez dut deusik
bihotz hobendun bat baizik;
eskerren Zuri bihurtzeko,
hanbat emaitzen pagatzeko
ez dut deusik,
ez dut deusik.

Kopla guztiak ederrak benetan; bañan iru azkenak batez ere, ederrak eta bikainki bilduak eta biribilduak... "Mañateran", "Artzainekin" eta "Ez dut deusik".

ARTZAI-KANTAK

Goazen orain beste soro batera. Artzai-kantak.

Erderaz *Villancico* deritzate. Eta izen au, *villano*'tk artua da. *Villancico* ta *Villanesca*. "Erri-xume-kanta" alegia. Erri-ezjakin-kanta. Kanta oietan olerkariak —Olerkaririk jakintsuenak ere— ezjakin-papera egiten du; eta bere esan-bearrak ezjakin-itxuran ditu esaten. Olerkari ez baño artzai izaki alegia. Eta artzai batek Jesus'en jaiotzaren aurrean jelkiko lituzkean itz eta sentiera ber-berak jelki berak ere... Orixe da *Villancicoa*. Orixe da Artzai-kanta.

Marijesiak in batetsuan sortuak ote-ditugun: ori genion goratuago. Nolanai dala, Kopla Zaharrak baño berriago ditugula, ezin ukatu. Eta gero Gabon-kanta (?) parragarriai sortzea berak eman ziotela ere, ezin uka.

Zorion aundi batez ba'degu esku-artean XVIII gizaldi-aslerako bat, polit askoa. Orain ogeitamar urtetsu Laurgain'go ganbara be-tean arkitua bera. Bere melodi ta guzti —melodia, gizaldi artan sor-tua bezela, ez ain errikoj polit—. Segura'ko Lardizabaltarren etxe bateko ganbaran zegon, beste musika-paper askoren artean —musi-kak, asko, geienak, klasikoak, ezagunak; bañan aien artean, antxe gure bitxi au.

Begira:

Estríbillo (1705)

Eder dek olaan gabia;
larre onean ardia...
Nafar (sic) baño obe diagu
Zaragoza'ko zuria.
Brindatzen diat, Zeledon;
onixek egiten dik on;
sekulako onezkero
izango gaituk gu gizon.

Koplak

Belen'eko portalepean
omen-zeagok Jaungoikoa;
ura ekusten an omen-dek
Paskoal gure aldekoa.

Goazen gu ere, Petiri;
Paskoal ez dek agiri;
ardiaz kontu dadukala
esan zeagot Gatxi'ri.

Tenporau egon arren oz,
ba'natxeak ni gogoz;
alako Jauna ekustekoz
zer erur da zer izoz?

Portalepean omen-zeagok
aurtxoa narru-gorrian,
dama eder bat dadukala
aldean bere adian.

Gizon bat ere omen-dek
dirudiana santua,

bere izenez derizena
San Joseph justua.

Aur gazte onen oea
gutziz omen-dek pobrea,
lastoz debana koznea,
otez oa betea.

Bere aldean omen-zeatuk
astoarekin idia;
oetxek biok jango zegoe
oeko lasto gutzia.

Astoak on dik oloa;
idiak arto-lastoa...
Festa onetan edan dezagun,
Petiri, ekar ardoa.

Umore oneko gizona zala Artzai-kanta onen egillea, ez da esan bearrik. Umore onekoa alde batetik, eta kantagiñan ez bertsolari motza beste aldetik. Iraizean eta nola-nai eginak diruditelarik, oso ederki antolatuak dirudizkigu guri bertso oiek. Errikoi, alde batetik; eta naiko letradun, bestetik. Oso 1705'gn. urteko. Gerotxuagoko Azkoitiko "zalduntxo" antzekoa agiri zaigu oien egillea. Kantak Segura'ko Lardizabaltarren etxe batean arkitu genituan, Laurgain'en. Lardizabaltarrak beti ere zalduntxo agiri izan baitdira Gipuzkoa'ko edestian. Aien "gaubellatan" kantatzen ote-ziran olako kanta politik? Ba'liteke. Azkoitiko "zalduntxoak" etziran, perretxi-koak bezela, gabetik goizera sortu izango Gipuzkoan. Geroxeago etorri zitzaikigun, gure kanta oiek baño gerotxuago. Bañan izango zuten aiek ere nun ikasi. Kanta onen antzekoetan ez gutxi.

Dana dala, artzai-kanta onekin zerbait zer-ikusi duan beste kantaren bat ere arkitzen degu Azkue Jauna zanaren *Cancionero*'an. *Olaako gabia* aipatzen du Laurgain'goak. *Olagizonak* aipatzen ditu beste Altzola-Elgoibar'ko onek. Biok garaitsu bateko diran señale: XVIII gizaldikoak alegia.

Ai! au gabaren preziosoa!
Jesus jalo da Balen'en.
Etxe onetan sartu ote-dan,
billa gabiltza beraren.

Erdiok gera olagizonak,
beste erdiok arotzak;
limosnatxo bat egitekotzat
bigundu bitez biotzak.

Belaunbikoka juañ giñaden
Nazaretikan, Belena,
geuk adoratu bear gendula
Jesus Maixua lenena.

Ama geureak geure beñari
kaikua-esne bildurik,
aurtxo onentzat ekarri degu
artu baleio gusturik.

Or goitik eta berañokoan
artzain zarraren saltoak!
bildots andia lepoan eta
altxa eziñik orpoak...

Puskallo txiki batzuek besterik ez badira ere, ez dira ezestekoak
beste onako oiek ere.

Ernani'koa au:

Txamarra tzartxo bat, Jauna, zuri,
gorputz eder orren estalgarri
emango nizuke gusto aundiz,
luze laburrean ongi balitz.
Ai, oi! gabaren on!
Jaio-berri ori non degu, non?

Lagunak ere ba'ditugu, bai:
lau artzaiak eta bost unai:
Santxo, Peru, eta Martin, Anton,
Prantzisko, Paulo, Beltxior, Simon.
Ai, oi! gabaren on!
Jaio-berri ori non degu, non?

Eta Tolosa'koak beste bi oiek:

Txomin ta Patxi, Anton ta Peru
datoz or goiko menditik,
aditurikan aurtxo eder bat

dagola estalpe batean, ai! ori!
lasto-gañean,
umildadean,
Jaun ta Jabea izanik. (Neurri polita benetan!)

Ikullun dago astoa,
ganbelan dauka lastoa...
Arkakusoak itoko al-du
etxe ontako atsoa.

Bañan or azaltzen du muturra beste kanta-mota batek: Gabonkanta "parragarriak". Ez bait-diogu, ordea, kanta-mota oni lekurik eman nai gure azterketa ontan, bego gauza bere ortan.

Ala ere, ez degu bukatuko sail au, beste bi artzai-kanta aipatu gabe; txikitan ain amesgarri zitzaizkigun bi artzai-kanta: "Artzai buru-txuri bi" ta "Aur eder baten billa". Biok doñu berean ematen diranak ain ezaguna dan, ta gelago izatea merezi lukean euskal-kutsu aundi dun zortziko txukun artan... "Artzai buru-txuri bi"-ren doñuan...

Artzai buru-txuri bi [aiek?]
Anton eta Peru (zein ote-ziran artzai buru-txuri
Belen'go portalera
etorri zaizkigu.
Sartu dira barrena,
Manueltxo'gana;
presente egin diyote
arkumetxo bana.

Eta bestea, Erreganari dagokiona, zortziko jatorra —zein artzai-operetaren zati ote-genduan, berriz, zortzikotxo au?

Aur eder baten billa
gabiltza zorutzen.
Izarrak esan digu
galdetzeko emen.
Jaungoikuaren erri
maite Jerusalem,
esan zaiguzu laster
Jesus non jayo den.

Orra bete gure kutizia. Eta goazen orain aurrera. Azkoiti'ko "Gabon-sariak" ikustera.

GABON-SARIAK

Opereta pastoril —ots, Artzai-operatxoa— deitzen dio A Arana'k Azkoitiko Gabon-kanta-sorta oni. Ez dago gaizki ipiñia izena: "Artzai-operatxoa".

Iru zati ditu. Ta zati bakoitzak, bi edo iru kanta.

Lana, teatorako egiña dala edota teatro-antzean, ez da esan bearrik. *Aria* ta *Rezitatu* ta *Aria txiki* dionean, ederkitxo ematen du aditzera. Ala ere, Azkoiti'ko Eliza Nagusian kantatu bide-zan iñoiz. Berak dio ori ere. Alako oiturarik izan oi bait-zan XVIII gizaldian.

Dana dala, Gabon-kanta-sorta ederra da benetan "Gabon-sariak" deritzon au. Eta argitaltzea merezi zuana.

1762'gn, urtean argitaldu zan lenengoz —liburutxo txukunean—, eta Azkoiti bertako Inprimategi batean, dirudianez: Miserikordiako Inprimategian.

1889'gnean, egin zan bigarren argitaltzea; "Euskal-erria" zeritzan, Donostia'ko Aldizkarian. Iñolaz ere A. Juan Ignazio Arana Jesulagun zanarena da bigarren argitaltze onek asieran daraman Itz-aurre txukuna.

Zein izan zan ordea "Gabon-sari" irakurgarri oien egille?

Liburutxuak berak dionez, Azkoiti'ko "Luisa Miserikordiako" izan zan ia kanta guztien egille. Jose Manterola'k, orratik, bere Aldizkari "Euskal-errian", Peñaforida Kondea izan zala uste du. Miserikordiako Luisa ura estalgarri ta pseudonimo bat besterik ez dala; estalgarri aren babesean Jabier Munibe ezkatuzen zaigula.

A. Arana, bere aldetik, liburutxoak dionari datxikio gogor ta itzez itz. Miserikordiako Luisa izan zala egille. Liburuak berak ala diola, ta kito... Loyola'ko ta Azkoiti'ko AA. Josulagunen batzuek laguntzalle edo zirala baño.

A. Onandia ere iritzi ontakoa azaltzen zaigu bere "Milla euskal-olerki eder"—etako itz-aurrean; eta zalako Luisa ura lekaime egiten digu gañera, Karidadeko monjatzoreen bat bailitzean. (Al-zan, artean, Karidadeko monjatzorik emen? Nik ez uste. Gure errietako txiro- ta gaxotegietan, serora edo emakume on batzuek izan oi ziran "etxeko-andre" ta kargudun).

Nik, egia esan, Loyola'ko eskua ikusten det argi ta garbi kantu polit oietan. Loyola'ko esku jakintsua. Eta esku ezagun-ezagun bat gañera. A. Larramendi'ren esku bipil ta alai, eta maltzur ta desairatsua.

Estilo ezaguna du A. Larramendi'k. Bere *Corografía de Guipúzcoa*'n agiri duan estilo jatorra: jolastun ta, berak liokean bezela, alberdani-zalea. Doaire aundidun estiloa.

Doaire au, gure Liburutxuaren itzaurrean agiri du batez ere. Benetan irakurgarria Itzaurre auxe. Bere laburrean, "humore oneko zati maisu" esango genduke. Humorista bortitza genduan gure A. Andoaindarra.

Zenbait kantetan zerbait eliz-jakinduri ikusten zualako, zeri-tzaion A. Arana'ri, Loyola'ko Altaren batzuek ote-zebiltzan "Gabon-sari" aien saltsa goxo artan. Egia da olako jakinduria dariona liburutxuak alde guztietatik. Bañan ba'du beste zenbait usai ere Loyola'ko edo inguruko. Esan dedan Itzaurrearen "doairea" beintzat bat. Eta ibilli ere, ez bait-zan inguru aietatik urruti ibiltzen gure A. Larramendi bere humore onarekin. Bañan baita A. Meagher bat ere ibilli zitekean antsu bere ardo-kantakin. Eta zer esanik ez A. Mendiburu ta Kardaberatz ta Basterretxea bat, beren eliz-kanta jator-jatorrakin. Jesus'en Eriotza bezelaxe, ederkitxo kanta bait-zezakean olerkari bizkaitar bikain onek batez ere Jesus'en Jaiotza ere... Bañan Itzaurreak ba'dakar gai oni buruz zerbait argitasun geiago. Itzaurre-egilleak berak dionez, bera da kanta guztien egille—*Aria ta Rezitatu*a ez beste guztien egille. Beraz, Itzaurrearen egillea A. Larramendi bada, A. Larramendi'k berak izan bear du liburu guztia-
ren egille. Ez bait-zan, bestalde, maingu ta beso-bakar, gure A. euskaltzale-euskaltzalea, Gramatika ta Iztegiez gain, bestelako lan ta arazo pin oietarako ere.

—Zergatik ezartzen ta egozten dion, ba, bere lana, zalako Luisa Miserikordiakoari? —Berak esango liguke ederkitxo ori ere... Alako *inkisizioa* egiten bide-zuten urte aietan, praideek praideen kontra idaz-lan kontuan... A. andoaindar berak esaten zuanez, askok eta askok —praide-jendeak, alegia (A. Isla batek, adibidez, bere *Fray Gerundio*'rekin)—, beren lanak, bearrik bazuten, ezizenez, pseudonimoz izenpetzeko moda artu zuten. Eta bestalde, Azkoitia'ri dago-kionez, gañera, alako "andra famosia" izango zan orduko gure "Miserikordiako Luisa"... aren izena pseudonimo ta babes-izentzat arzteko aukera-aukerakoa izango bait-zan...

Bañan —ori ere bai— Manterola'k susmo zuan bezela, saltsa gozo guzti artan Peñafiorida Kondea etzala urruti ibilliko. Liburuaren argitaltze-kontuan batez ere. Mezenas antzo.

Orra nere iritzia. Bañan nor-berak beza berea. Nik ez diot galaziko.

Eta igaro gaitezen beste gabe Azkoitiko kanta-sorta politera.

AZKOITIA'KO GABON-SARIAK

GABON-SARIAK EDO AURTENGO GABONETAN AZKOYTI-KO ELIZA NAGUSSIAN KANTATUKO DIRAN GABON-KANTAK EDO OTSALDIAK.—*Puer natus est nobis, venite adoremus.*—Azkoytyn-Misericordian-MDCCLXII.—AZKOYTIKO MISERIKORDIAKO AMA BIRJINA SOLEDADEKOARI-Andrea: Zure mende gozoan bitzeko zoriona degunok, zure mendean eta egapean ipiñi ere bear ditugu gure gauza guztiak. Argatik, gaur argierarotzen degun papeltxo au, zure mendean ipintzen degu, ta ala artu ere bear dezu zuk; bada batetik gurea da, ta bestetik guk gure ongiñai, erak egiten diskuen ongiteakgatik eman nai diegun sari bat da; ta arek zure eskue-tatik bialtzen diskuen-azkero beren ongiteak ta ondassunak, esku orietatik biurtu ere nai diegu sari au. Artzazu bada, gure Ama gozoa, nai oi dezun ongiroarekin papeltxo au; eman egiozu zure grazia, ta adierazo egiezu gure ongin guziari gure borondate ona, ta ezin beste modus paga gitzakeala, ezpada arekin, ta zuri otoiztzeak (sic) zure Seme Jaunagandik erdietsi dessazula aientzak guzientzat ossassuna, bakea, ondassunak mundu onetan, zure umesurtxoetan gasta ditzaten, ta bestean sekulako bizitza; ala eskatzen dizu, Andrea, zure onetan umilki auspez etziñik — Misericordiako etxeak.

LUISA MISERIKORDIAKOAK ONGIN GUZIAI GABON, URTE ON TA BERRI ON.—Nere biotzeko ongintxo maiteak: Igaroko urtean gabon-saria pranko eman badidazue ere, orra aurtan, aurrea artuta, nun neuk ematen dizuedan. Ta nolakoa, ala ere? Zuek geie-nean Gabon egiteko aza-buru bat edo bakallao-bustan batekin askidatu ta kunplitu dezue nerekin; baña nik zuentzat berariaz inprimierazo ditudan kantatxo edo otsaldi eder auekin erregalaten zaituet.

Orañ zuek essango dezue, zer apetek edo eroaldik eman didan onetarako? Ara bada, adiesazue.

Igazko Gabonetan ekussi nituan gure etxean makina bat Gabonkanta inprimitu: batzuek Bilbao'koak zirala, besteak Madril'koak, Kariz'koak ta eztakit nun añ urrutietako batzuek; ta, "adios" nun berealaje gogoak eman zidan: "Zer! Beste iñun diran Eleizeak inprimerazotzen ditue, ateratzen dituen kantaak (azkenik, Bilbao'ko San Praisku'ko Praile gajoetaraño), ta gure Azkoitiko Eliza ederrean kantatzen diranak, illunpean gelditu bear debe? Nundik nora? Ez debe beste erdera mordollosko abek ainbat merezi? Ez bada; Jaungoikoak nai badeu, ta datorren urtean bizi banaiz, soñean daramadana gona au salduko badet ere, inprimitu beariko debe, demutxoe-tan. Orra bada, essan da egin, nun inprimierazo ditudan aurtan,

gure Askoitiko musika aingeruskoak kantatuko dituan iru kanta-aldia.

Jakin ere naiko dezue, norzaz balliatu naizan koplak eta beren soñua ateratzeko; ta, jakin-gura gelegitxo bada ere, ez dizuet ezer ijildu nai. Koprarik (sic) geienak nere burukoak dira ;ta bost gaubela ta izerdj gozo kosta bazaitzit ere, ondo empleatutzat ematen ditut diranak. Egia da (ez diot iñori ezer kendu nai) Martin Beltz gissagajoak messederik asko egiñiz (sic) lagun eginda batez ere seguidilla ta arako *aria* edo *kopra* andi aetan, bada sekula alakorik nola ekussi ere ez neban, ezin asmatu neban; ta ark, berriz, nola iñunziak egiten ere dakian, asko daki ta gizon jakintzu bat da. Soñua edo Soplea, ez da nerea; ez dakit orrenbeste; baña Probinzian diran maissurik pamatuena eragin diet. Melon, antxiñako organista buapo ark ta Lorentxo dantxariak, biak alkar arturik, atera debe.

Ala ere, ez dide kantatzen bentajarik eramango, ez batak ez bezteak; ta ala, ikassi nai deban guzia (sic) ez dauka nigana etortzea baño, ta nik berealaje erakussiko diot; bada, eztarri garbigarbia ez badet ere, belarriak galantak ditut.

Onenbesterekin, agur; bada kanpeak ba'darauntza ya, Gabon egiteko, gure deiez.

LENENGO OTSALDIA

Tonadillea

Sekulako ikaraturik
nago ikussi dedanaz;
ez bait-du iñork sinistuko
bakarrik nere essanaz,

bada ni ere
neure ikusirik (1)
egon naiz ezin
sinisturik.

Gure erriko sartzayeran
dagoan abel-etxe ura
ain dago argia ta ederra,
zer dirudi zerua.

Bañan au ez da ezer ere

beste gauzen aldean;
ez da, ez, ainbeste mirari
ekussi iñoz lurrean.

Bada ni ere...

Aditu nai dituztenak
jar bite (sic) nere aldean;
essango ditut diranak
segidillatxo auetan.

Baña utzi bulla
alde batera;
txit, txit, ya noa
abiatzera.

(1) Ba'dirudi *neure* ori sobera duan, bertsuaren neurrirako.

Segidillak

Aurtxo zoragarri bat
or, portalean,
otzak kil, kil, kil datza
lasto-gañean...

Ai! Aur ederra!
ai! Aur guria!
ai! Aur gozoa!
ai! Aur ezta!

Otzak, kil, kil, kil datza
lasto-gañean.

Belen guztian
eztute ifun aurkitu
ostaturikan...

Ai! Aur ederra!...

Asto, idi batzuek
etziñik auspaz,
zerbait berotzen dute
beren arnassaz...

Ai! Aur ederra...

Errukiago
dira abereak berak
gizonak baño...

Ai! Aur ederra!...

Txit emakume eder bat
alboan jarrita
zoro biurturik dago
ari begira...

Ai! Aur ederra!...

Bai, biek ere
ederrean, alkarren
antza ba debe.

Ai! Aur ederra!...

Andre eder aur, Aur onen
ama andre izanik,
jaio zanean bezela
dago orregatik.

Ai! Aur ederra!...

Zer miraria!

ama izanik, donzella
bait-da garbia.

Ai! Aur ederra!...

Aur eder onen Aita
ez da gizona;
da Espiritu garbi bat,
da Jaungoikoa.

Ai! Aur ederra!...

Argatik bada,
mirari ain andi au
gertatu bait-da.

Ai! Aur ederra!...

Maiz ekussi dezute
kristal garbian
nola sartu ta erten
oi dan argia,

Ai! Aur ederra!...

aussirik gabe
ta loirikan batere
utzirik gabe;

Ai! Aur ederra!...

gissa artan Andre onen
sabel garbian

sartu ta erten izan da

Jainkoaren Itza,

Ai! Aur ederra!...

aren gissara

mantxa gabe ta ossorik
gelditzen dala.

Ai! Aur ederra!...

Aguretxo bat ere
an dago Aurtxoaz;
ezin dauka negarra
pozaren pozaz....

Ai! Aur ederra!...

Iñoiz malkoak

oi dira farra baño
gozoagoak.
Ai! Aur ederra!...

Jaunak esleiturik
bere ordekoztat,
Aurrak aita ez badu ere,
dauka artakotzat.
Ai! Aur ederra!...
Sorionekoa

izatea alako aurraren
Aita Ordekoa!
Ai! Aur ederra!...

Beste gizakumerik
aurkitzen ez da
Aurtxo onen konpañia
eztitsu onetan.
Ai! Aur ederra!...
Mundu zoroa!

Ez du sekula jakin
zer dan gauza ona.
Ai! Aur ederra!...

Bañan ez zaio palta,
ez, konpañia;
bada Berekin dauka
zeru guzia.
Ai! Aur ederra!...
Argatik, naski,
dabil mundua igassi
toki artatik.
Ai! Aur ederra!...

Aingeruak kantatzen
diote Aurrari:
"Gloria zeruetan
Jaungoikuari,
Ai! Aur ederra!...
eta bakea
gizon on guzientzat,

berriz, lurrean".
Ai! Aur ederra!...
Nai dutenek etorri
betoz lasterka
musika zeruko au
aditutzera
Ai! Aur ederra!...
ta aekin batera
gure borondate ona
erakustera.
Ai! Aur ederra!...

Goazen, ta bere oñetan
umilki etziñik,
alabatuko degu
biotz guztik.
Ai! Aur ederra!...
Modu onetan
ez digu, ez, ukatuko
deus ere ezertan.
Ai! Aur ederra!...

Eska zaioGUN, bada,
lendabizian,
ez gaitzala, arren, utzi
gure bizian.
Ai! Aur ederra!...
Gurekin dela,
ez gera ezeren bildur,
naiz dena dela.
Ai! Aur ederra!...

Orain Aur maite onekin
ongi bagera,
gero eramango gaitu
beraz batera,
Ai! Aur ederra!...
bere Aitagana,
sekulako bizitza
ta gloriara.

Alabiz.

BIGAREN OTSALDIA

Aria

Karidadearen edo egiazko amorio-
aren auan.

Au egun zoratzekoa!
Zer poz andia!
zer atsegiña! (1)
Ain da poz nere gogo,
zein da ez dakit zer egin.

Errezitatua

Jaungoiko andiaren
esku indarzuak sortutako guziak:
eguzki eder, illargi ta izar argiak,
zeruak, lurra, ta itxasso zabalak:
atozte, atozte nigana zeranak.
Kanta dezañun guzion artean (1)
Jaungoikoaren gloriak (sic) gaurko gabeen.

Mendi portizak, aariak bezela, danza;
munotxoak salto bildotztxoan gisara (2)
ibai ta madura lau, basso ta txara,
atozte, atozte nigana, zeranak.
Kanta dezagun guzion artean
Jaungoikoaren gloria gaurko gabeen.

Arbola orritzu berde, trebola fiñak,
larrosa, klaveliña ta jazmiñak,
ibai zabal ossiñez betetakoa,
erreka berritxutxo itz-jarioa,
itz batean, zerua bere argiak,
lurra itxassoaz ta ur guziakin,
ibaiak, arbolak, mendiak eta izarrak.
atozte, atozte nigana zeranak.

(1) Ez ote-da «Zer poz andi! zer atsegin!»? Ola egin dezake «puntu»,
ta ez beztela, koplaren bukaerarekin.

(1) Psalm. 18.

(2) Psalm. 113.

*Kanta dezagun guzien artean
Jaungoikoaren gloria gaurko gabean.*

Ariatxo

Eguzki andia,
izar argia:
lastotan dautzan
Aurtxo orrek
sortuak zera, (sic)
ta orren mendera
bizi artean
zaude zuek.

Ur asserrea,
mendi eskerkea:
lastotan dautzan
Aurtxo onek,
ain geldirikan
zuen tokian
leku batean
zauska zuek.

Au alá izanik,
aur biurturik
gaurko gabean
dadukat nik,
gizon tristèa,
penaz betèa,
libratu dezan
pekatutik.

Nik ekarririk
gizon egiñik,
nik gaur bear det
kantatu
bere etorrera
gizon artera;
eta àla zuek
lagundu.

IRUGARREN OTSALDIA

ARZAI-KANTA

Adirakia

Guziak dakite nola aingeruak gaztigatu zieten Belen-inguruko arzaia, munduaren Salbatzaillea jaio zala estrabi batean (1). Ebanjelioko passarte onetatik ta beste toki askotatik, nun J. K. gureak bere burua, arzaizat izendatzen duen, artu izan da otsaldi edo kanta onen irudidea; zeñean asmatzen dan Belen-inguruko arzaia, jakinik Arzai berri bat eldu dala abel-etxera, alkar arturik diazela ongi-etorria ematera. Onetarako Tirsis ta Filis, lagun gustietatik gasteenai ta bozik onenak dituztenai enkargatzen diete ongi-etorria guzien izenean ematea, zeintzuek au egiten duten kanta berri onetan; nun arzayaren egokikilde edo metaphoraren azpian estaltzen diran Jesu-Kristoren bizitza ta gure Fedeko Misteriorik nagussienak.

(1) S. Luc. Cap. 20.

Artzai-korua: Ola, goazen, arzaiak,
abel-etxera,
lagun berri bat
essagutzera;
ta ongi-etorri on bat
ematekotzat
guzien partez,
Tersis, zuk eta Filis'ek
kanta kanta berri bat.

Tersis ta Filis'ek biak: Baña kontu zuek ere laguntzeas
estribillo batez guzien artean.

Guziak: Ordu onean.

Tersis ta Filis'ek: Arzay zoragarria!
Ona, emen gerà,
ongi-etorri on bat
zuri ematera.
Ez da arzayrik gelditu
inguru guzian;
diranak emen datoz
bada elkarren leyan.

Eranzuera: Eranzun, bada, lagunak,
essan dezun bezela, (sic)
jakin dezan etortze onez
nola gu poztu geran.
Ea bada, kanta laster:

Guziak: Bai, bai, bai, bai, bai, bai, bai...

Biak: Ea bada, kanta laster.

Guziak: Bai, bai; bai, bai; bai, bai; bai...
Ongi etorri zerala,
Arzay paregabea;
gurekin bearko dezu
beti sekularean.

Tersis ta Filis: Artaldeak, bakarrik,
txabolak, zai gabe
utzirik gatoz, baña

ardurarik gabe;
pistietatik dala
naiz lapurretatik
zuk gordeko dituzu
ór zautzan lekutik.
Eranzun bada, laġunak...

Tersis ta Filis: Etsaya alferrik dabil
leoia bezela
inguruka, ustez zerbait
artuko duela (2)
Juda'ko leoiaren (3)
begiratzun batek
utzierassoko diska
laster bazter abek.
Eranzun bada, lagunak...

Tersis ta Filis: Zu agertuarekin
egingo dute igez
gure etsay guztiak
emendik bildurrez;
euren damu gaistoan
ujatuko dira,
ta infernuetaraño
ondatuko dira.
Eranzun bada, lagunak...

Tersis ta Filis: Arzayzat zendozena
ainziña gengian,
lenagoko gizonay
maiz aditurikan;
ta ain maite artaldea
izango dezula,
non-ta azkenik bizitza
kastako zaitzula.
Eranzun, bada, lagunak...

Tersis ta Filis: Ardiak duten sarna
kentzeko jakiñik
ez dala Arzayaren

(2) Pedro. Cp. II. Cap. 50.

(3) Apoc. Cap. V.

odola lakorik,
etorrita egun asko
passatu baño len,
assiko zeradela
ugariro issurtzen.
Eranzun, bada, lagunak...

Tersis ta Filis: Amorio andi onek
parerikan ez du;
Arzay Ona zerala
erraz desakezu; (4)
orrek ardiak zaitzen
ipiñiko zaitu,
ta orrek, aien ondoren
ekarriko zaitu.
Eranzun, bada, lagunak...

Tersis ta Filis: Bost bider ekustean,
lagunak utzirik
ardiren bat diala
bide okerretik,
galdu dedin bildurrak
osta antxiturik,
biurtuko dezu atzera
lepoan arturik (5).
Eranzun, bada, lagunak...

Tersis ta Filis: Ogei ta amairu urte,
pena andiz beteak,
emango ditzu, abek
ondo gordetzeak;
ta, aien kabuan gero
esker ematea
izango da gogorki
bizitza kentzea (Passioa).
Eranzun, bada, lagunak...

Tersis ta Filis: Orduan kunpli dedin
ainzinako itza,
"arzaya jo ta ardiak
banatuko dira" (6);

(4) S. Joan. Cap. 10.

(5) S. Luc. Cap. 25.

(6) S. Marc. Cap. 24.

baña, iru egun barru
zu pistuko zera
ta bilduko dituzu
elkargana ostera.
Eranzun, bada, lagunak...

Tersis ta Filis: Ala ere Aitagana
biurtu beariko dezu,
ta artalde maite ori
utzi naiko ez dezu;
baña zure amoreak
asmatuko bait-du
nola, joanagatik,
aiekin gelditu,
Eranzun, bada, lagunak...

Tersis ta Filis: *Mirariatikan*
mirari andiena (7)
izango da, artarako
ikusiko dena:
bada ogiaren antsez
ostia batean
geldituko zerade
zure artaldean (Eucharistia).
Eranzun, bada, lagunak...

Tersis ta Filis: Emen zerutik iñoiz
alde egin bagerik,
egongo zera, ardien
janari egiñik (8);
orrela izango zera
beñi aien aldean
arik-eta munduak
dirauen artean (9).
Eranzun, bada, lagunak...

Tersis ta Filis: Asko ez baliz bezela
mirari ain andia,
ipiñiko ere dezu
ordeazko Artzaya (sic),

(7) S. Tom. Serm.

(8) S. Joan. Cap. 12.

(9) S. Mat. Cap. 28.

zure ardiak ongi
governatu ditzan: (10)
ta bide onetatik
erabilli ditzan.

Eranzun, bada, lagunak...

Tersis ta Filis:

Arzay onen mendean
arkitze ez diranak
izan bearko dute
galduak diranak;
ta, ala, Arzay maitea,
zurekin nai degu,
ta argan zure Ordea
esagutzen degu.

Eranzun, bada, lagunak...

Tersis ta Filis:

Arzay onen mendean
bizi ta ilko gera
joateko zurekin
aitaren aldera.

Arren, lagun zakizgu
au ala kunplitzen,
gero goza zaitzagun
zeruetan. Amen.

Eranzun, bada, lagunak...

KOPLA JOSTALLUAK

Essagun du munduak
Jesus jayo dena;
ain dago mudatua,
ez dirudi lena.
Len guzia zan pena,
negar naibageak;
ta orain atzegin, gusto,
algara, farreak.

Gorroto, errierta,
auziak ta gerra,
gaitzak, gosse, gezur ta
intenzio okerrak

juanik, ya ez dago
ezerren bildurrik,
ta ala dago mundua
zeru bat egifik.

Abogadu, eskribau
eta merioak,
mediku, barberò ta
botikarioak.
ez dira bear; ta argatik
izango da sarri
Hipokrates gajoa
saguen janari.

(10) S. Joan, Cap. 21.

Ezpatak, lanzaak eta
beste arma guziak
erossitzen dituste
errementariak;
ta alperrikan ez dedin
galdü burnia ura,
enpleatzera diaz
gure probetxura.

Atxur, burdiñara ta
golde biurturik,
nekazari langiñak
ongi giaturik,
emango digu lurrak
garia ta artoa,
gastaña, sagardoa
ta ardoa naikoa.

Garia eta artoa
merke ta ugariro,
gastaña ta sagarra,
berriz, urte-oro;
ta ardoak, galdurikan
lengo malizia,
ez gaitu moskortuko;
edan zia-zia.

Ez da oneskero essango
gezurrik batere;
egia essango dute (sic)
dendariak ere.
Juan da emendik tranpa
ta fede gaistoa...
ya ur gabe saltzen da
tabernan ardoa.

Orra, bada, Azkoitia'ko "Gabon-sariak". Eta Gabon-sariakin guk
Gabon-kantai buruz gaur esan nai genduana.
Eta onenbestez, guztioi GABON!

Bassa-arteko pistiak
malso-malso egiñik,
ez dute ya alkar jaten,
ta ain gitxi gizonik;
bat egiñik guziak
alkarren artean,
bizi dira etzai gabe
kontentuz bakean.

Otssoa eta ardia
zelai zabalean
sarri ekusten dira
biak jolassean;
alberdian txita
alzariarekin...
portugesak lastanga
gastelaubarekin.

Aujen bai dala egiaz
denbora urreskoa,
ta ez len koplari zarrak
eraussitakoa;
oraiñ aien amessak
egia sorturik
ekusten adi gera,
pozez zoraturik.

Bañan kanta berri au
geitxo luzatu da;
nere eztarri tristea
i a urratu da.
Nalago det issildu
katarratu baño...
Agur, nere jenteak,
urrengo urteraño.

Gabonak Euskalerrian

Gabona, bertsolari ta idazlariak era guztietara goratu duten gaba, gau alaia, gau gozoa, oroitzaz beteritako gaba da; pake bigun, jolas garbi ta eresi samurren gaba, umeak ainbeste aldiz ames egin duten gaba, gizonik zarrenak gaztetzen dituan gaba, illuntasunik ez-tuan gaba, egunik ederrena baño ederrago dan gaba, Jaungoikoaren gaba; itz batean esateko, lurbirako alderdi guztietan gaurik andiena ta Euskalerrian, eztaukagu zer esanik, inun baño ere andiagoa.

Eztago euskaldun semerik, euskalduntasuna galdu ezpadu, edozein tokitik, gau orretarako makilla bat sorbaldan, pardeltxoia makillan, bakallaoa pardelan, gurasoen irudia buruan ta pozik neurri-gabiena biotzean duala, bere lur maitea joko ez-tuanik, eta bere lurrean jaioterria ta jaioterrian sortetxeko ate kutuna. Eztago euskaldun etxekoandrarik, estuen ta larrien bizi dana bada ere, seme senar gurasoentzat ortik edo emendik, janari gozo ugaria lortuko ez-tuanik gau orretarako, naiz ta beste gau asko baratsuri salda utsez igaro.

Errukarria Gabon gabeen bere etxetik urruti dagoan euskal semea! Kupida zazute gau orretan bere maitientzat nai aña janari idoro ez-tuan euskaldun etxekoandrea!

Domingo AGIRRE

* * *

Argi dago dana illargi-argi urdiñetan —euskaldunak “argi illa” esaten bait-diate argi oni—; argi-kurpil orexka ageri da ibai ta men-

digañean. Zenbatez atsegiñago dan kanpoko aize garbia, etxe-barru beroko aize beroa baño! Nolako aizez anpatzea auxe! Aizea, bigun gozoa. Aldiz-aldiz ego bafadatxo bat, Afrika-ko arratsen gogoangarri.

Gabon-gau goxo askoak ikusi ditut nik Euskal-errian; bañan batxo ere ez gaurko onen parekorik. Ez otzik, ez neguko ezetasunik. Intzik ere ez lur-gañean.

Gure baratza-azpian ortxe dago gure zai Inazio bere txanela-rekin. Eta bagoaz. Ordu-laurden bat, arraunean ez, txirristan, iza-rrezko ispillu dirudian itxas-axal-ean; eta gure ondotik illargi-argiko palastak, "argi illezko" palasta luzeak.

.....
Ibaiak, zabala dirudi illargi-argitan, eta ditzizari ta loti. Egiazki Gabon onek, Apirilkeko gaua dirudi.

U rte batzuek ba'dira Gabon gabeen ibai au igarotzen dedala ordutsu ontan. Batzuetan, gaur bezela, gozo, beste batzuetan, izotze-tan, eta baita ekaitzetan ere. Batzuetan neroni bakarrik, gaur bezela. Beste batzuetan lagunartean, gaur urruti dauden edo-ta bizi ez diran lagunekin. Eta beti ere Gaberdiko mezetara joateko, Gaberdiko meza entzutera Bidasoa-bazterreko Kaputxinoen Konbentuan, Irun'dik Ondarribi'rako bidean. Tristura aundi bat arkitzen degu, urteoro al baldin bada gauza bera ikustean, betiko leku beretan, urte-sasoi beretan, ordu beretsuetan.

Pierre LOTI



«JAIOTZ» TXAPELKETA

URRUZULA'TAR ESTANISLA

Azkeneko aldiz Gabon zortzikoa gau artan kantarazi ondoren, Iñakitxo'ren amak, Ibarre'n "Zubiondo" baserriko etxeoandreak, esan zion:

—Guztiz ederki kanta dezute. Zuen gaurko kanta-ibillera luzea zuen eztarri itxiak garbi dagerte... Pozik bai emango dizuet bost laurleko zillarra. Len-lenengo bañan, zuen "poltsa" ao-zabaletik iren-tsiak erakutsi beariko dizkidatzute...

—Ez dugu gauz aundirik bildu, ama—esan zion Iñakitxo'k, bere seme zarrenak.

—Iñaki orrek...! Ez dio egi, ama! Gauz asko bildu ditugu —Ta Xabierto'k amari au esatean poltsa estutzen zuan, seme gaztena ta taldean ere ala izanik "poltsero" izendatutakoa bait-zan.

—Ia, ia ikus dezagun —mintzatu zan ama— ara, ollasko-parea, iru lukainka, dozena bi arrautz, intxaurrek, urrak eta ogei bat duro bai begiratu batean ikusten ditut zillar utsetan. Naikoa egin dezute gaurkoan. Atsegin izan al zaie zuen jaiotza jendeei?

—Guztiak ao-zabalka egonak ditugu, oso dala polita esanaz —erantzun zioten Joseba'k eta Deunoro'k etxeoandreakaren illobatxoak eta jaiotza eramaten lengusuekin laukoa egiten zutenak.

—Orduan, biar ba-zoazteke Tolosa'ko "Jaiotz Txapelketara".

Iñakitxo'k moztu zuan amaren izketa, esanaz:

—Zertara? Zertarako onenbe-te neke? Ez du konturik kantetan eztarria urratzen ta ibilleretan oñak nekatzen ibiltzia, utsaren urren-go a biltzeko. Ni, beintzat, ez naiz joango...

—Ai Iñaki, betiko ergel beariko duk izan! Poltsa bakarrik ikusten al duk? Ez al duk ikusten gure asabek utzitako oitura eder orren jarraitzalle izan zeratela? Ez duk ikusten zeruan dauden ire aitonen poza! Ez duk ikusten begira egon zaizkitzuen ainbeste aur ta zarren atsegiña! Ez dituk ikusten gure ondorengoak joko dizkiguten

txaloak! Ez, ik poltsa bakarrik duk aurrean! Erriko apaizak, zuen jaiotza ta zuen abestiak tajutzen ari izan dan apaizak artutako nekeak ez dituk ikusi nai. Biar joaten ez ba-zerate artuko duan nalgabea ere ez. Ene, gozoa jarriko duk...!

—Berdinxamar zait. Ez naizela joango esan dut...

—Nik ba-dut gogo, ama —esan zion leiatu Xabiartxo'k.

—Bai guk ere —zuzendu zioten illobatxoak.

—Bañan jaiotza nerea da... —zapuzkeriz mintzatu zan Iñakitxo.

—Ik bai-al-duk ezer irerik, petral orrek! —moztu zuan asarrez gogor "Zubiondo"ko etxeoandreak.

Ta jarraitu zuan:

—Biar Eguarri. Atozte irurak eta ikusiko dugu ezer egiterik izango ote dugun. Beste lagunen bat edo billatu ere azkar egin dezakegu. Zoazte orain txintxo etxera bildu dezuten erdia artuta... ta biar arte, gabon. Gaur bai Gabon!

* * *

Loak artu berria zun, lelatillan kix-kix jo zutenean. Iñakitxo esnatu zan ta naiko lanez ba-zebillen begiak zabaldu al izateko. Bañan aize purrustada bat etorri ta leioa ezezik bere begiak zabaldu arazi zizkion leiatil eta kristalen zalapartaz.

Leio irikitik Abendu'ko aize otzaz batera berealdiko argi eder lilluragarria sartu zan gela guzia argi bikañez suntsituaz. Ta ia ein batez argi ura sortzen zuan eguzkia, aingeru eder zoragarri baten irudi zorabiotzallean...

—Gabon Iñakitxo! Ez omen duk jaiotzik ibili nai... —esan zion aingeruak irripar goxo batez.

Zekusanaz arrituta zegoan mutilla itzik ere egin eziñik. Ozta-ozta gogoratu zan oira aurretik amari esandakoaz ta kaxkalluxamar zonetik ez nai atzeraka jo. Indar guztiak baturik bere mingañetik irrist egiñaz itzok irten zitzaizkion:

—Ez dut nekatze gogo. Emaidazu bada gau on emendik aldegiñaz...

—Bai, aldegiñaz... irekin, Gabon gabaren ederra erorren begiz ikus dezaken. Edertasun orrek erakutsiko dik ire kaxkallukeriaren okerra. Ikusten al duk ire "jaiotza"?

Mai baten gañean ta oera alde begira zegoan, arratsaldean ibillitako bere jaiotza. Mutikoak begiratu zion oro begiz aingeruaren argiz lilluraz jantzita eun bider ederrago arkitzen zan jaiotzari.

—Ara, begitu... —otsegin zion aingeruak aurreko zapia zabalzabal egiñik.

Orduan ikusi zuanaz arrituaren-arritutuz zearo txundituta gelditu

zan, gau guzirako itzgabe ta indarge. Berak egin bezela zegoan jaiotza. Lur-irudi guztiak jarritako toki-tokitan zeuden, bañan orain egizkoak ziruditen, aragizkoak bizirik ikusten ditugunen antzo. Auetatik bat altxa ta ibilian asi zan. Olentzaro ber-bera zan. Au igitu zanean, bere atzetik lau artzai ere urratsak aurrera eramanz jaiotzetik at irten ziran.

Arriturik ba-zegoan gero ta arrituago. Bostak, Olentzaro ta artzaiak azitzen joan ziran, aunditzen, zabaltzen egizko gizonen neurria artu arte. Olentzaro bizkarrean artuta aingeruaren orpotik irten ziran leio zabaletik kanpo.

Oraindik beste lau artzai irten ta gizondu ziran ta "jaiotza" bizkarrean arturik antxen joan ziran Olentzaro pipadunari jarraika. Ta auen atzetik Inakitxo kaxkallua jarraika ere ametsetan gauz bat arrapatu eziñik dabillenenaren gixara.

Izazkun mendian laister ziran gora-bide.

Ermitatxoaren torrean izugarritzko izar eder bat geldirik ikusten zan, ta aruntz zijoazten mendibide guztietatik zear albo errietako "Jaiotzale" oro. Euren argiontzi ta lastargiak orratz ibilkariak ziran urrez ozkatzen gabaren zapi beltz bukaerik gabea.

Elizatxoaren inguruak jendez beteak zeuden.

Pajeak, artzaiak, gudariak, artzaiandreak eta abar guztiak naasian. Bederatzi-bederatzieta gain-beraka asi ziran, Tolosa alderuntz.

Beetatik begiratuta, ura ikusmenaren ederra! Eten gabeko izarren ibillera zirudian jeixten ziradenian arrizko exkalleretatik beruntz ainbeste lastargi jiratuaz mendi illunean, zugaitz artean, sasi aurre ta atzekaldeetan.

Aingerua buru zutela sartu ziran urian. Bigarren mallan txistulariak jaletako jantzi apañaz. Gudariak, pajeak eta erregeak urren, ta auen atzetik jende xeea, artzai, artzaiandre ta abar. Apaiz kristau ta euskal oitura zale bat gero, ta azkenik "jaiotzak" errenkada luzean, konta eziñala, apaizaren poza egiñaz, ereslarien doñuaz ibilka. Inakitxo geroago zetorren bere zankoak aurrera eramane eziñik agure baten antzo, txontxongilloaren gixara... Beartuta zihoan gaxoa. Nai zuan aien tarteko izan, bañan ez zan gauz ez. Ez itzegiteko ta arean gutxiago lorrean zeraman izkutuko indarrari gogor egiteko.

Ikuskizunak arritu-txoraturik lagatzen ba-zuten, arrituago geldituko zan Andra Mari eleiz atadira eldu ziradenian ikusitakoaz.

Belen'go estalpea ber-bera zan eleiz aurreko arkupea. Antxen zegoan Josu Aurra astoa ta iriaren artean. Antxen, guraso deunak. Argizaizkoak ez ziran ez eta lurrezkoak; aragizkoak ziran, gizonen neurri berekoak eta garbi zekusan igitzen zirala bere Semetxoari aintza emanaz.

Enparantza ondora irixtean "jaiotzaleak" aurreratu ziran bi

aldamenetara egiñaz eta beren "jaiotzaz" katerik gabeko bilkura bat egin zuten, erdian artzen zituztela menditik zetozen gudari, serbitzari, artzai ta gañeran zekoak.

Bañan arrigarrien Iñakitxo'rentzat, "jaiotz" guztiak bere leio zabalduetatik ageriki agertzen zutela berearen berdin-berdiñak zirala, bai irudiz bai jar-tankeraz. Eta menditik zetozenak toki-tokitan gelditzen zirala bere jaiotzean bezelaxe, ango itxura ta apainduri ber-bera arturik.

Iñakitxo eziñegonez zegoan. Saminduta zegoan joskera ura bere jaiotzetik artua zutelakoz, bañan geienbat Aurraren jarraitzalle ta aintzalari izan naia izan ta ezin zezakealako. Ura zan bere zigorra.

Ein batean txistulariak eta eresbatza Gabon zortzikoa zeruetan zabalka ziran. Enparantzako jaiotz osalariak beroiekin abesten ekin zioten ta orobat plazan gañezka zeuden ikusle guztiak. Jaiotz barronetako irudiak kanta zegiten ere batera, "radio" edo "telebisio" kutzak bai liran:

"Abenduko illaren
ogeita laubean
umil jaio da Jesus
Belen'go estalpean.
Astua ta iriya
dauzka aldamenean
arnasaz berotzeko
ostutzen danean."

Au amaituz berialaxe Olentzaro zeramaten artzaiak aurreratu ziran estalperaño joanaz. Ikusle guztiak txaloka asi zitzaizkion oles egiñaz eta kantari:

"Orra, orra, orra Olentzaro
pipa ortzetan dula
exerita dago.
Kapoyak ba-ditu
arrauzatxuekin
biyar meriendatzeko
sagardoarekin,
sagardoarekin."

Olentzaro bere tokira itzuliaz-gero artzai bi aurreratu, abesten ziotela:

"Aiton buru txuri bi
Anton eta Peru"

Belen'go estalpera
etorri zaizkigu;
sartu dira barrena
Manueltxo'rengana
eskeintza egin diyote
arkumetxo bana."

Ez zan abestirik gabe gelditu geroz joan zan artzaiandrea. Beste batzuen artean auxe zloten kanta:

"Soñu jota dantzan dabil
pozik jendia
bidian erori zaigu
artzaiandria.
Auxen da nekia
orrela ibiltzia
xextua ere galdu zaio
kapoiz betia."

Umetxo poxpolin batzuk urreratu ziran urren ta bere arpegi bo-bobilletan par zegioten españak egiten zutenean kanta:

"Aurtxo txikia askan dago
Ama'k esan du lo egiteko
bañan Aurtxoak begiekin
esaten dio: Ama ezin!"

Josu Aurra pozez lertzen zegoan. Urruti-mendietatik Aurra ikus-teko etorriak, zoratu bearrean. Eta itxaropen ederrez, atsegiñezko asmoz, ikuskizunaren ederrez zorabiatuta plaza betetzen zuten notin guztiak. Iñakitxo, berriz, gero ta saminduago, gero ta atsekabetuago arkitzen zan mingañoak itzik ematen ez ziolako, soin-aztalak berunez-koak biurtu zitzaizkiolako urratsik emateok eragotziaz. Entzumenan ta ikusmena zeuzkan erne, ta auxek geiago minberatzeko. Onegatik, geroz eldu ziradenian errotaria, okiña, mandazaia, nekazaria, ur-ar-tzallea, auntsaia, errekan zapi-garbitzallea, abar eta abar, biotz-mi-ñez entun zitun auen abesti txit alaiak. Ara bat egin zituztenetik kanta:

"Pozaren pozez kantari
ate atzean ollar bi
etxe ontako etxeoandreak
Ama Birjiña dirudi.
Ama Birjiña, Ama Birjiña
Zu zera zeruko Erregiña."

Iru Erregeak etorri ziran azkenik arkupera, bere zaldi ta kame-
luak Aurtxoarentzako edergarriz betiak eta ume guztientzat jostallu
bikañez zampa-zamatuak. Ura poza umetxoena! Uraxe atseginiaren
irriparra Josu Aurrarena! Ta urteetan sartuta egonagatik lerdea
zeriotela zeudenak zer? Ba-zuten agertzen bere arpegieta poza,
atsegina, lasaitasuna, pakea ta itxaropena. San Juan bera ere bere
arritzko irudian poz-parrez zegoan ta bere arkumetxoa beeka...

Iñakitxo'rentzat oñaze arrunt latza zan. Ixilik egon bear ao guz-
tiak pozaren-poz abesten zutenean goitara:

“Iru Errege datoz,
Iru Errege datoz
plazan barrena...
.....”

Bein Erregeak agur eta aintza egin ziotenean, txistulariak aurre-
tik zituztela ta lenagoko jarrera berdiñian uriko kaleetatik barna
jo zuten.

Leio, balkoi ta eskaratz guztietara jendea irtetzen zan pozaren-
pozez oiukatuz: “Gora gure Gaizkatzallia!” Aurrek bere beso txi-
kiak altxatzen zituzten euren amen buru gaindik. Emakumezkoak
otoi-kantak zituzten españetan ta gizonezkoak agur-kantak. Ondo-
tik, albotik igarotzean guzti-guztiak burutsik jarririk, txapela es-
kuan artuaz oles egiten zioten alaitasunez beterik Belen'go Aurtxo
aragizkoari. Ardandegitik ateratzen ziran ere ardozaleak bere opa-
ritxoa eskeintzera! Pekatariek ere, urte guztian ez ta, ba-zituzten
bere opariak otoi-kanta biotzkorretan!

Penatzen zijoan gure Iñakitxo. Iñoz ez ta bera geldituko zan
Aurra'ri agur egin gaberik. Iñor ez ta bera bakarrik izango zan
Estalpera bertaratu gabea, Aurraren itz goxoak entzun gabea, bere
Guraso Deunei zorionak azaldu gabea. Erri guztia pozetan gar-gar
zegoanian, bera bakarrik bereziki biotz-erdian ezten zorrotza sartu-
ta. Dan-dana galerazia zeukan, geiago naigabetzeko. Ez, aiotsik ezin
zezakean jaurti. Ezin zezakean ere negarrik egin. Ezin biotzeko
damutasunik ager. Ura gelegi zan! Zerbait merezi zun, bañan ez
ainbeste! Noiz arte ibili bear ote jarraika ametsetan dabillenen
gixan? Noiz arte bear zun txontxongillo izan?

Bukaera-ordua ba-zetorkion. Gaua amaitzen ba-zijoan ta, noski,
bere naigabeak bukatuko ziran. Bere etxe-alderauntz pixkanaka-
pixkanaka ba-zijoazten...

Bere auzo-auzoko etxean kanta zuten azken aldiz:

“Gabon! eskarrikasko!
gabon, etxeokoak;
gabon pasa bezate
etxe ontakoak.
Nalkoa eman digute
oraindañokoan
aurrera jarraitzeko
asmoetan goaz.”

Irten bezela etxera sartu ziran zabal-zabal zegoan leiotik. Mai gañian utzi zuten “jaiotza” ta artzai eramalleak eta Olentzaro txikitzen asi ziran, urritzen, ta lurrezko irudien neurrira biurtu zira-denian Aingeruak zabaldutako oialen tartetik sartu ziran jaiotz barrura ta lengo toki-tokitan ipiñi. Orduan, ego ariñian aingerua joan zan ortze zabalean barna...

Iñakitxo oera sartu, ta laister zan Loa'rekin txutxu-mutxuan...

Aize purrustada aundi bat etorri zan ta leio ta leiatillak eten bearrian ibili ziran danbaka orma gogorrean...

* * *

Tolosa'ko Pelota-Lekuan berreun bat “jaiotz” bai ikusten ziran, bertako ta albo errietatik etorriak. Mutil koxkor guztiak jakin-miñez zeuden irrikatzen txapeldun nor irten zan jakiteko.

Kalerik-kale ezagutu degun apaiz ber-bera izan zan oledira igota, txalo artean adierazi zuna:

“Jaiotzetan lenen-saria: Erruki-Etxeko jaiotzak. Ibarre'ko “Zubiondo” baserrikoak: bigarren “jaiotzetan” ta lenengo kantu-lanean...”

Apaiz jaunak banatu zitun sariak bere eskuz. Zorion bete ager-tzen zuan orduan jai jator ura obeki baño obekiago atera zitzaiolako, naiz txanpon batzuez bere sakela ust. Onelako jai ederrak merezi zun ainbeste.

Iñakitxo'k ere jendea onela pozik jartzen duan jaia galdu gabe bizi zedin Euzkal-Errian, “jaiotza” antolatzen ta kantuz ikasten artutako nekeak ontzat artzen zituan.

Bai bada. Aizeak eta leioak ateratako danbatekoaz esnatu zanean bere ametsa ikaskizun eder bat bezela artu bait-zun. Amari otseginda, arriturik entzun zion amak Jaiotzaz ateratzeko asmoa, ulertu ezifñik nolaz eta zertaz aldatu zan gau baten luzaroan.

Gaur Iñakitxo lau aur eder mazalen aita da. Ta saiatzen da jatorki euskal oiturak eta batezere gure eguarritako oitura eder ta xuxpergarriak bere ondorengoei biotz-biotzera sartzen.

Asabek utzi, semei eman.

AINGERUAK ETA IZARRAK

Aingeruen deia, laister zabaldu zan Belenen, eta bertako gizon eta emakume guztiak, azkar baño azkarrago abiatu ziran, artzaiak esandako tokira, Jangoikoaren seme jayo berria, ikusi ta gurtu naiaz.

Guztiak ez. Mateo Zakar ez zan jua. Berak zionez, artzaien amets zoroak ziran ayek. Jangoikoaren semea jayo, nun? eta ukullu batean; Aingeruak berriz, ez al zuten artzaiak baño bitarteko oberik onelako berri bat munduari emateko? Umekeriak! Bera Betsaidan eta itxasoz beste aldeko errietan ibilli zan gaztetan, liburu zarrak ikasten. Aingeruak zeru goyan izaten dira, baño Belenera jetxi bear izatekotan, lenago azalduko zitzaizkion berari, eskola gabeko artzai kaikuzar ayei baño. Gañera, ba al zekiten artzaiak, aingeruen izkera igartzen? Aingeruak, gogo garbi utsak diran aldetik, naiz Belengo izkuntzaz itz egin, garbi itz egingo zuten, aingeruak oi duten tankera garbi uts bereziaz. Eta orren garbi itz egiten danean, nork ulertu?

Onelako asmaketak zerabilzkien Mateo Zakar gizaioak, bere barruko arra ito nairik. Alperrik! Zorioneko jayotza ura ezkeru, ba ziran lau egun eta or zebiltzan oraindik auzokoak, erotuta bezela, etxetik ukullura, ukullutik etxera, danok alkarren leyan, umeari, olloak, arrautzak, gazta ta arkumeak eramaten. Soro lanetan, inor ez. Etxeko andrerik zintzoenak, etxeko bearrak aztuta, goizetik arrasteraño, kanpotar ayen umeari begira. Egundaño olakorik!

Zalaparta ayek min ematen zioten Mateo Zakarrari. Miña ta bai alako isildu eziñeko kezka garratza. Bera bakarrik geldituko ote zan ba, umea ikusi gabe? Bai! Egin zitzatela besteak nai aña zalaparta ta zorakeri. Bera ez zan joango. Naiko par egingo zuten Matiassek eta, ikusiko balute orain, ukullu atarian, burua makurtuta, ollo pare bat eskuan zintzilik. Ez inholaz ere!

Illunabarra zan; eta egun osoan, erreta, ezin egonda zeukaten asmakizun ayek burutik kendu naiean, atera zan kanpora. Atzera gelditzen ziran gero ta geyago, Belengo etxe ta baratzak. Gabaren ixiltasunak eta pakeak lasaitu zuten zerbait gure gizonaren barrena. Bere gaztetako urteaz gogorutzen ari zan orain. Jeriko, Kaparnaun, ayek bai leku ederrak! Ango gizon jakintsuak! Ango aberastasunak! Emakumeak ez zioten Mateo Zakarrari ardura aundirik ematen, baña ezkondu bear izan ezkerero, ba zan an aukera: Langilleak, begiratuak, ixillak. Asto batek ez zien eramango lanean.

Baña, zer zan ura? Sorkaldeko bidetik gizatalde aundi bat zetorren. Ura gizon pilla! Irurogeitik gora bai. Eta kameluak. Eta zaldiak. Nundik ote zetozen gizon ayek? Nora ote zijoazen? Mateo Zakar bide bazterrean ezkutatu zan, ayek eldu ta igaro arte. Gauza arrigarriagorik! Kamelu baten gañean, bizar urdiñezko Errege musu gorri bat. Eta beste batean, beste Errege bat, gazteagoa au. Eta irugarren bat oraindik eta au beltza arrayua! Gero, zaldunak, morroyak, zamariak. Erregeen urre zillarrezko jantziak diztiratzen zuten illargitan. Ametsetan ere, ez zuen iñoiz onelako gauza ederrik ikusi.

Danen atzetik zijoan mandazai gazte bati alderatu zitzaion bildurti. “Zer dala ta —galdetu zion— Erregeak onera etortzeko?” “Nora zoazte?” “Aurra ikustera —erantzun zion besteak— izarra degu gidari”. Berak ez zuen alako izarririk ikusten. Izarrak bai, erruz, baña betikoak. An zeru sapayari josiak betiko tokian eta beti bezela, geldi, mutututa.

Erregeak Jesusen aurrean auzpeztu ziranean, erdi lotan omen zegon umea, baña bere begitxuak idekita, maitasunez begiratu zien. Ez Erregeai bakarrik. Illunpean, zoko batean ezkutatua, ba zan an ere, guk ondo ezagutzen degun gizon bat. Erregeen ondotik, bertaraño elduta, antxe zegon bai, Mateo Zakar, kameluen ankaen tartetik, aurrari begira...

Aurrak begiratu zion. Mateo Zakar erori zan belauniko, nega zotinka. Urre, mirra ta lurruna Jesusi eskeñi ondoren, alde egin zuten Erregeak. Gizon taldearen oju ta deadarren soñuak, itzali ziran urruti, ta Belengo gau ixillean, bera —Mateo Zakar— gelditu zan, Andra Mari, San Josepe ta Jesus aurraen lagun bakarra.

Arpegia lur jota, luzaro egon ta gero, altxatu zituen begiak zerura. Izarrak —len mutu ta geldi zeuden izarrak berak— arrigarrizko argi bizi ta ederra ematen zuten. Argi ura bere biotz barreneraño zabaldu zitzaion eta Mateo Zakar poztu zan. Poz ederra ederrik ba da. Eziñ esan alakoa.

JESUS'EN JAIOTZA EDERTIAN

Jesus'en Jaiotza Edertian, ots, Artean. Geldi-edertian, plastikan.

EGAN'go beste zati batean ikusi degu zerbait, Jaiotzako Olerkiei buruz. Zerbait geiago esan dezagun orain, Jaiotzari buruz beste gainerako Edertietan, Pintura ta Eskulturan batez ere. Euskal-erriari —Euskal-erriko edertikiak atxikiko gatzazkie ontan ere, beti bezela.

Nola agiri da Jesus'en Jaiotza gure Elizetako pinturaki ta eskulturakietan?

Ez goaz gauza aundirik esatera pinturakiei buruz, margo-erti-lanai buruz. Aipatu oxta-oxta bai. Jaiotzako quadro bikain bat: Bergara'n Bergara'ko San Pedro Elizan. Soil-xoillik aipatu.

Ezkerretako Aldare batean dago quadroa, laukia, bera bakarrik retablo oso. Jaiotza. "Artzai ta aingeruen agurra" obeto. Ribera'ren estilo-estilokoa... Baztarrak illun; argi bakar bat, aurpegiak eta gorputz-ertzak argitzen... batean. Oso riberaki. Argia, nundik?-eta. Jesus txikiaren gorputzño txikitik... illunbetan dagon sukalde surtako brasa goritik oi dan bezela... Argi gozo aretxek argitzen ditu inguruko guztien aurpegi ta gorputz-ertzak: Amarena lenengo —ta zeñen goxo!— aingeru gazteak aldean; eta artzaienak gero... San Jose, oi bezela, itzal-antzean... Artzaiak, alako lots eta maite-egoke-ra xamurrean, auspez Aurraren aurre-inguruan... aingeruak Amarekin, irripar gozoan Aurrari begira-begira...

Ikusgai xamur ta ukigarria benetan! Eta artez, Ribera'ren ur-urreko; ant-antzeko, beintzat.

Bañan goazen eskulturakietara. Aldareetako "historietara", "re-lichebetara".

* * *

Nola agiri oi da gure Elizetako aldareetan Jesus'en Jaiotzako Ezkutukia, Misterioa?

Esan dezagun lenengo, Eliza askotan arkitzen degula gai au, Jaiotzako tema au. Batzuetan Andre Maria'ren Jaiotza —Ah! Irun'go Aldare Nagusiko Jaiotza ura, Bazkardo'ren esku-lan bikain ura!—; Semearen Jaiotza besteetan... beste histori askoren artean.

Bañan Jaiotza bera bakarrik Aldare bateko Retablo oso, Oltza oso bezela? bat besterik ez det gogoan nik; eta polita benetan. Gazteiz'ko Katedralean. Sartuta eskuitarako lenengo Kapillatxuan. Maurizio de Valdibiels, ots, "Payueta'ko Santugille" arabarraren esku-lana. Txukuna. Polita benetan. Gertakaria, ez dago "histori-modura", reliebean. Personak, estatuan, bakoitza bereiz. Andre Maria, belauniko Aurraren askaren aurrean, apal, polita benetan. San Jose erdi-zutik, "gizon on bezela". Artzaitan bat, besoak gora, arrituaren gisa, Correggio'ren arako beste artzai zoratu arren antzeko. Beste artzai bat, apal-apal, eskuarekin buruko kapela arrotzen... Ta idia ta astoa, antxe aiek ere beren paperean ondotxo...

Olakoxea da, nik Gazteiz'en ezagutzen dedan ta iñoiz ainbeste aldiz ikustera joaten'nintzan Payueta'ko Santugillearen Jaiotza. Ondo tratatua, eszena ta gertakizun bezela. Ederki, oso ederki sentitua. Irudi bakoitza maiteki landua... Irudiak, ez bait-dira aundi-aundi ere; txiki ere ez bañan...

Bañan orain "reliebe etara" igaro gaitezen-eta, ba'da gauza ugariagorik malla ontan. Euskal-erriko Elizetan. Bear bada, Andre Maria'ren Jaiotzak ugariago aurkituko ditugu. Andre-Mari-Elizetan, alegia. Bañan Jesus'enik ere ba'dakigu; politik eta ukigarririk.

Gure Errikoa daukagu gogoan orain. Gure Oyartzun'go Aldare Nagusikoa. Alde batetik "Erregeen Misterioa"; bestetik, Jaiotza. Jaiotza bañon obeki "Artzaien agurra". Andre Maria erdi-erdian, "Andre Gora", Aurra magalean; San José, beti bezela, goratxuago ta baztertxuago; bi-iru artzai, bisai ederdun benetan, aldamenetan —aurpegi-luxe; ez aurpegi-motz, artzai itsusi, zenbait lekutan bezela... Eta, zeru-goian illargi-erdia zugatz baten gañean... Gaba izaki, alegia.

* * *

Illargia aipatu degun ezker, aipa dezagun orain, beste zerbait gabaren señaile beste aldare batzuetan: San Jose'ren parol-argia edo kandela piztua.

Oñati'ko Eliza Nagusian ikusten da olako zerbait. "Unibersidadeko Kapilla" deritzan Kapilla apañeko Aldare-oltzan. Historio ta Misterio asko daude, ederkitxo ta txukun labraturik —euskaldun-
eskuz labraturik— Retablo artantxe. Eta besteen artean auxe, Jesus'en Jaiotza. Jesus Aurra narru-gorrian lurrean etziñik; Ama,

Aurrari begira, belauniko; atzeratxuago, alde batean, artzai bi —Anton eta Peru ote?—; goratxuan, beste aldean, artzai-andre bat... eta andre onen aurrean, San Jose, zutik, "parol-argia" eskuan.

Aita Lizarraide zanari —Euskalerriko Aldareetan ainbeste gauza ikusitako Aita Frantziskotar maitagarri arri— etzitzaion oartzeke igaro San Jose'ren parolatxu ori. Eta, guk illargiari eman diogun esan-nai ber-bera eman zion ark argi-ontzi bitxi orri: gaba izaki, alegia. Eta guk ere, inoiz orixe uste izan degu. Bañan gaur gure irakurtzallerei beste zerbait esan bearrean arkitzen gera. Beste azalpen bat, beste explikazio bat eman bearrean.

San Jose'ren parol-argiak, gaba ezik, beste zerbait ere esan nai digu.

Kristau zintzoen zintzotasunak, Jesus'en Jaiotzaren inguruan beti ere Misterio egin izan du —Aren Amaren birjintasunari dago-kion Misterio ederra—. "Misterio" itzak, "ezkutua" esan nai du. Kristauen iritzian, Jesus'en Jaiotza, ezkutuan gertatu bearra zan. San Jose'k berak ere ikusteke. Gure Kristau zintzoen iritzian, San Jose'k berak ere etzuan ikusi Jesus jaiotzen. Illunbetan jaio zan, zerutikako Aur Ezkutu ura. *Jaio-ta gero* ikusi zuan San Jose'k ere. Berak lenengo ikusi. Ori bai. Bañan berak ere jaio-ta gero. Orre-gatik agiri da, bere argia eskuan. Ez orduan gaba zala aditzera emateagatik. Berak ere jaio-ta gero ikusi zuala grafikoki aditzera emateagatik baizik. Parol-argitan ikusi zuala... (1).

Esan-nai sakonagoa bait-da azkeneko au, beste ura baño. Ez dira berdin Oyartzun'go illargia, ta Oñati'ko parol argia. Arek, gaba soillik esan nai du; onek "Misterioa" gañera.

* * *

Bukatzeko, nere azalpen onen sendogarri bezela, koplaxo bat aipatuko degu orain emen. Erderazkoa kopla, bañan Euskal-errian ere asko ta asko kanta izandakoa. Koplaxo ontan agiri da eder-kitxo, Oñati'ko Jaiotzaren mamia oso-osorik, bizi-bizirik.

Oyartzun'go nexkak, soka-saltuan zebiltzanean, onela kantatzen zuten gure txikitan:

(1) Gernika'ko Marijesietan ere gauza bera dator, gutxi gora bera: San Jose «astotxuaren txalmatzen» ari izan zala. Ama Birjiña «kontsolazifio andijan» zegon artean, ots, Jesus jaio zanean. Olaxe, «kontsolazifio andija» esaten bait-dio koplari erdi-arotarrak, oru zerutar ezkutu arri. Beste Marijesi batek, berriz, «arrano galant bat-zerutikan lurpera» aipatzen digu, itzal aundiko une artan. Dana misterio. (Ikus EGAN ontako «Gabon-kantak» goratxuago.)

Chilin-chilin-drón (2),
 San Salvador...
 Cuando la Virgen
 parió sin dolor:
 —Levántate, José;
 ENCIENDE EL CANDEL;
 mira cómo andan
 a nuestro cabecel
 los ángeles, los ángeles,
 NIÑO JESUS...

Erderazko kantatxo au guk euskeraz olaxe esango bait-genduke:

Txilin-txilin-dan,
 goiko Elizan...
 Andre Mari, birjin
 erditu bait-zan.
 —Piztu zazu, Jose,
 parolatu ori;
 begira zerutik
 nor dan etorri:
 aingeru ta aingeru,
 Jesus Aur polit...

Dana Oñati'ko Misterioan dagon bezela-bezelaxe... astoa ta idia-
 ren gañeko aldean, antxe bait-daude —egan— aingeru ta aingeruak,
 "Gloria in excelsis" dion kartela bat eskuetan... Bañan batez ere
 antxe, gaurko nere azalpen onen "San Jose'ren parol-argia" Santu
 arrituaren eskuetan.

Ez bait-diteke esan, benetan, nor nundik dagon artua: nexkaen
 kanta Aldareko historiotik, ala Aldareko historia nexkaen kantatik.

M. LEKUONA

(2) Ezer ez dakigun arren, kantatxo au Naparrua tik sortua ote-gen-
 duan gure Oyartzun'en degu susmo guk. Oroit, bestela, oraindik ere Napa-
 rrua n esan oi dan arako tomate-saltsako «cordero en *chilindrón*» ura;
chilin-drón orrek, kanpai-otsa (jai aundietako kanpai-otsa) esan nai bait-du
 inundikan ere; Gabonetako kanpai-otsa gure kantatxuan.

Ai, au gaubaren zoragarria

Nere ama zanaren oroimenez.

Zenbat urte izango genituan, gutxi-gorabera, garai artan? Amasei, emezortzi?

Erri txiki batean bizi giñan. Tolosa-aldeko erri txiki batean. Gure jaioterrian.

Arri-landuzko eleiz buru-tente bat. Inguruan, pillatuta ta eleizari erantsita bezala, etxe batzuek. Ta, sakabanatuta, ia lurreraño jaitxitzen ziran tellatu-saietsekiko baserri aundi-zabalak. Onelakoa zan orduan gure jaioterria.

Gaur, sasoi artan baño geixeago dakigu. Ta, orrela, badakigu, adibidez, norbaitek esan duala, jaioterria gure animako frutuaren azala bezala dala, ta jaioterriko eleiza berriz, frutu orren pipita...

Baña, goazen arira.

Eguberri aietan, urtero bezala, bildu zitzaizkigun erriko jaiotexera kanpoetan bizi ziran aide guziak: anai-arreba zarrenak beren ezkontideekin, Donostia'ko osaba-izebak...

Guziak ekarri zizkiguten eskuerakutsi eder-aukeratuak. Donostia'ko osaba-izebak, beti bezala, goxozko aingira aundi bat.

Eguraldi otza egin zuan Eguberri-bezperan. Oso otza ere. Egun guzian elurra goien-beian mara-mara etengabe aritu zan. Orduan negua, negua izaten baizan, eta Eguberrietan elurra egiten zuan beti...

Eldu zitzaizkigun illuntzean, bata bestearen atzetik, kanpoko aideak. Etxe barrunbean atsegin zegon. Su ederra piztuta balgendukan arratsalde erditik. Eta txingar-ontzi bat edo beste ere bai.

Afal-aurretik asi zitzaizkigun eskean zebiltzan gazte-taldeak atejoka ta kantari:

“Ai, au gaubaren zoragarria,
Jesus jaio da Belen'en...”

Talde batzuek oso goitik jotzen zuten; beste batzuek berriz beexaxeagotik, eta bat edo bestek, be-beetik.

Bitartean, inguruko etxeetako zakurrak, aldizka, zaunka-saio bat edo beste egiten zuten. Sarritan, larri-samar gañera. Bear bada, eskale-kantariak berak xaxatuta-edo.

Afaria, gutxi-gorabera, urterokoa izan genuen: bixigu erriak olio-ozpiñarekin, kapoiak eta Donostia'ko osaba-izebak ekarritako goxozko aingiraren zati bana. Edariak berriz, jakiña, ardoa ta sagardoa, kafe beroa ta likurak.

Afariko garaian eta ondoren, gauerdiko mezara joan bitartean, kontu kontari alaiki jardun giñan guziok. Kontu geienak, zarrak izandu ziran. Beste batzuek, berriak: alegia, orrelako iltzala, onelako ia zearo zartu zala ta abar. Bat edo beste, berriz, betikoak: bizimodua garestitzen ari zala, euskera galtzen zijoala...

Amabiak baño lentxeago mezara abiatu giñan, buru-soñak ondo estalita. Ordurako elurra atertu zan. Ozkarbi zegoan. Urrutietan, eta an-emenka, parol batzuen argiak. Baita lasta-bala bat edo bes-teren garrak...

Ixillez betetako gauerdian —ordurako zearo aitu ziran eskale-taldeen abestiak—, eleiz-ekzilla kaxkariñen soñuak, beste mundu alaiago batetik zetorren dei-eresia zirudian.

Eleizako zimitorioan, aize zurrunbillo otza. Burruntziak, tellatutik zintzilika. Eleiz-barrunbean, orratik, atseginxeago. Ta argi asko. Batez ere, Jaiotzan. Aldiz-aldiz, goiko leio borobilletako zirrikituetatik sartzen zan aize-izpi bat, alako aingeru-ega antzeko ots biguin batez nasturik...

Txit alaija izan zan meza. Abesti zar-xamurrak ere kantatu ziran, kriskitin eta guzti. “Artzai buru zuri bi...”, “Antxen dago, antxen dago, antxen dago...” Azkenean, guziok Jesus'i muñ-ematera joan giñan.

Gero, presaka-presaka, etxera. Gazte-jende geiena zimitorioan gelditu zan ijiji-ta-ajaja. Gu, unore on baña urdail pisuarekin, bereala oeratu egin giñan. Ta lo lasai ta etengabe egin genuen ia Eguberri-eguardi arteraño.

... ..

Eguberri atsegin aietako oroipen guzien artean, bi auek bizi-bizirik eta nabarmenkiro jaikitzen zaizkigu: gure ama zanaren irudi-itzala ta kantari-taldean abesti zarren oiarzuna.

Orduko gure aide batzuek, Jaungoikoa'k eraman zizkigun betiko Beregan, eta gañontzekoak, eta berdin guk ere, aldegin genduan erritik, eta gaur guziok sakabanatuta bizi gera.

Beraz, aurtengo Gabon-gabeian gure jaiotetxea itxita egongo da.

Dana dala, Eguberri-bezpera ontan ere abestuko dira gure errian betiko kanta zarrak:

“Ai, au gaubaren zoragarria,
Jesus jaio da Belen'en...”

Baña gure jaiotetxean ezta inortxo ere entzuten egongo...

Ezin genezake, ordea, gau ontan geren biotzetan illuntasunari iekueman. Ezta igarotako aldiei gelegi begiratu ere. Igarotako aldien oroipenak —berdin da onak edo txarrak izan— goibeldu egiten baigaituzte geienetan.


Bestalde, ezpaigenezake gure gaurko biziera gaitzetsi. Bizileku goxo bat badegu. Baita emazte on bat eta seme-alaba maitekorrak. Osasuna —munduko osasuna— etzaigu palta, Jaungoikoari esker-rrak. Jateko gogoa ere ez. Ezta zer-jan ere. Gaun ontan, esate baterako, lengo urtetan bezala, ornituko dute gure maia bixigu-kapoiak, noski.

Gora, bada, biotzak!

“Ai, au gaubaren zoragarria,
Jesus jaio da Belen'en...”

Donostia'n, 1956'-gko. Abendua

URREA



ENE AITONATXO MAITEA!

Aitonatxo gaiso zegoen; oso gaizki gizajoa! Oean ezin egonik, bular estua bazuen ba, sukaldeko zizaillu zaharrean eserita egoten zan neguko gau gogor luzeetan.

Gu, aur koxkorrak giñan eta, sukaldean bertan egoten giñan sarri, aitonari lagun egiten edo elkarrekin olgetan.

Gau hartan, adala ondoko leioaren beirinetan kanpo aldeko kas-kabarrak ozenki jotzen zuen. Bildugarritzko gaua gau hura; barne guztia illuntzen zait oraindik, hura gogoratzean.

Astiro-astiro asi zitzaigun aitonatxo mintzatzen. "Enetxoak, erran zuen arnasa estu artean, enetxoak, gaur amabietan Josu Jinko Aurra Belen'en jaiko zaigu, estalpe zahar batean..."

Urriñetik zetorren argi ta garbi abesti baten, olentzaro baten ots samur-samurra...

"Estalpe zar batean
Belen'go urian..."

—Zer da hori?, galdetu genion aitonatxori arrituta.

—Zeruko aingerutxo-abesti goxoa da, erantzun zigun aitonak, eta gero jarraitu zion:

Gaur bezela orduan ere, askoren ustez beintzat, eguraldi gordiña omen zan; Josu'ren Ama Maria, eta bere ezkon zintzoa Jose, Nazaret'etik Belen'a etorparriak, Kaisar Augustaren agindu gogorren bat betetzeko edo, aterpe edo ostatu-billa ibilli omen ziran egun osoan, eta azkenean, ainbeste neke ta ezbear askoren buruan aurkitu zuten-estalpetxoan, etorri zan mundura gure Salbatzaillea.

Jainko Semea izanarren, mundua eta munduan diran gauza guz-

tien Jaun eta Jaube bakar-bakarra izanarren, etzuen garai hartan nun etzanik; edozein gizasemek duena, mens zaion Josu Aurrari garai hartan, eta ukullu zahar batean, aitzarteko zulo batean obeto esateko, bi abere lagun zituelarik, munduratu zitzaigun geure Jaun eta Jaubea.

Hau arrigarria, enetxoak! Eta mirari aundi hori, gaur, amabietan, ospatzen dugu urtean-urtean alaikiro kristiñauak, mundu guztiko kristiñauak gero.

Kanpo aldeko kaskabarrak gero ta ozenkiago jotzen zuen sukaldeko leioaren beirinetan eta olentzaro abestia urrintzen-urrintzen zijoan...

“goazen, goazen; artzaiñak,
goazen Belen'era...”

Oiñaztargi baten dirdira izugarria ikusi genuen orduantxe, eta berealakoan trumoi ikaragarri baten durundu ots itzala entzun ere bai.

“Santa Barbara, Santa Kruz;
Jauna balio zakiguz”

egin genuen giñianok aitarenka, eta izillune luze xamarra gero...

Unetxo baten aitona arnas-estuka asi zitzaigun, eta estulez ito bearrez, larrialdi bat izan zuen.

—Ni ere, erran zigun gero, pizkat lasaitu zanean; ni ere, zuek orain bezalaxe, noizpaiten aurra izan nintzan, eta ene aitonak ordun, nik gaur zueri erraiten dizudana bera, erraiten zidan, eta orretaraxe zuek biar, zuen billobai berdin erranen diozute... Nork eten lezake, oiñorderik-oiñorde, belaunik-belaun datorren irudimen zoragarritzko kate hunen ou bakartxo bat?

Aingeru taldeak etorri omen ziran gero, enetxoak, Belen'go estalpetxora, eta Josu Aurrari onela agur egin zioten.

“Aintza Goietan Jauna'ri...”

Heien ondoren gero, artzaiñak eta guztitariko erri-lagunak abaiatu zitzaizkion Jainko Semeari bere estalpe hartara, ta guztiok batera, buruak makurtuz, gur egin zioten maitekiro eta itzaltasun aundiz gaiñera.

Gau zoragarria, enetxoak, ekin zion bular-estuka oraindik aitonatxok, gau zoragarria Josu mundura etorri zan gau hura! Lurrean pakea zan garai hartan, zeruan berriz poza eta atsegiña; toki guztie-

tan alaitasuna. Bazirudian mundutik pekatuaren lorratzak betiko alde egin zuela...

Aitonatxok azkenengo itz hoik erran eta batpatean, erloiak ama-
biak jotzen ekin zion; aitonatxo izildu egin zan... burua eskubi al-
deko sorbalda gaiñera makurtuz, aurpegia zurbiltzen asi zitzaion...

—Aitonatxo, aitonatxo! egin genuen guztiok deadar garrazika oso
urduri eta bildurkor; baiña aitonak etzigun erantzunik ematen... eta
bere espain zurbilletan irribarrearen kiñua ikusten genuen... bai ba,
aitona aingerutxoekin mintzatzen ari zan noski...

Josu aurrarengana etorritako aingerutxoek berek, artu zuten
one aitonaren arima, eta berekin batean eraman zuten betiko atse-
dena dan toki hartara...

Bazidurian bai, pekatuaren lorratzak mundutik betiko alde egin
zuela...

ARRUGAIN

Bilbo'n 1956'gko. Abendua'n



PRANTZIA'KO IDAZLE KATOLIKU BATEK
GALDE BAT EGIN DU:

«AL ZAN EGIAZKI ASTO TA IDIRIK
BELENGO ESTALPEAN?»

«Académie Française»-ko Daniel Rops'ek.

Nere adiskide emakume bat zearo arrituta utzi det lengo batean, Belen'go astoa ta idia Ebanjelioetan agiri ez dirala esan diodanean. "Ba'litekeala", bai, ala zana; bañan ez dezakegula esan ao batez "ala zanik". Egia, nere adiskide au oso da kristau ona, bañan ez oso trebatua Ebanjelioetan. Eta gajoak herejetzat ere artu nau, eta ia-ia Inkisiziora salatu ere bai, batik-bat ondoren esan diodanagatik: ez dala, alegia, Fedeko Siniskai, Jesus'en jaiotza arkaizpe batean izan zanik (1); ezta ez dala sinisgarri, Magoak Erregeak izan ziranik; ezta aien izarra, benetako izarra izan zanik ere; eta, dana dala, aien izenak ez zirala Meltxor, Gaspar eta Baltasar... Hereje biurtu naizela uste izan du gaizoak, olakoak nere aotik entzutean.

Alaxe izan, ordea.

Egia da, Ebanjelioak diotena sinistu bear deguna. Bañan Ebanjelioak auxe diote soil-soillik: Jesus, Birjin garbi batengadik sortu zala, Belen'en jaio zala —ta beartsurik asko jaio ere—, ta izarra zalako baten argiari jarraituz, Sorkaldeko gizon arrotz batzuek etorri zitzaizkiola gañera (2).

Bañan aitor bearra dago, lerro its arrigari oien inguruan edergarri askotxo erantsi ta pillatu izan dirala, noizpait "ala omen-dalako" zerbaiten babesean. Nundik sortu da, ordea, "ala omen-da" ori? Nundik, sortu dira beren arnas beroz Jesus berotzen dauden bi abere maitagarri oiek? nundik Jesus'en joiot-lekua ain xuxen "arkaizpe" bat zalakoa? nundik, Sortaldeko Magoen buru-gañean Errege-koroiak ipintzeko oitura?

(1) Frantzia n ala esan oi bait-da; emen geienean «portalean» esan oi degun bezela, an arkaizpean.

(2) Beste zertzelada geiago ere Ebanjelioan agiri dira, baño guztien schema orixe da.

Galde oien erantzuna, Ebanjelioetan ez baño, beste nunbait bilatu bearke degu, bearrik badegu. Ez Ebanjelioetan, ez Testamentu Berriko beste Liburuetan. Liburu oiek Elizak bere "Kanon" deritzaion Izendegi batean dauzka izendaturik. Bañan, ori bai, Kanon'eko Liburuaz gañera, lenengo gizalditik eta seigarrenera arte, "Apokrypho" izeneko beste liburu asko ta asko ere idatzi izan ziran Ebanjelioetako gaiaren inguruan, Ebanjelioak diotenari apaingarri batzuek erantsi bearrez, "ala omen-dalako" ondakin ta pizar guztiak ortarako bildurik. Erria —erri xumea— beti ere olakoxea izan da; eta lenengo gizaldi aietako kristau-erria ere bai: Ebanjelioak dioten gauza its eta soil arri gutxi etsita, zerbait geiago jakin-nai ta erantsi-naia sortu bide-zitzaion erri xumearen irudimen eder-zaleari. Eta ola, eder-gale orrekin idatzitako liburuetan, an arkituko dituzu, amonaxoen ipui-iduriko zenbait bezela, baita aldiz-aldiz gaur Siniskai jator diran zenbait beste gauza ere. Andre Maria'ren Zerueta Jasotzea, adibidez. Siniskai onetaz ez bait-dioe ezertxo ere Testamentu berriko Liburuak. Lenengo gizaldietako kristau xume aiek Jesus'en inguruko gauza guztiak jakiteko jakin-nai ezin-ase ta kuzkuzeri izugarria zuten gaxoak inolaz ere. Aren bizitza ez-kutua, Aren etxea, Aren Sendia... Gaur periodikuak diralako, ta orduan periodikurik etzalako, beti ere gizadia olakoxea izan da, jakin-zale zoro beti.

Oraindik berririo argitaldu dira Frantzia'n "Evangiles apocryphes" diralakoak. Antxe aurkituko ditugu, len aipatutako galde jakingarri aien erantzunak: "Nundik sortu dira?"...

* * *

Gure Jaiotzetan ainbeste ikusten dan *arkaizpea*, nundik sortua da? Ondotxo sortu zitekean "Santiago'ren lenen-Ebanjelioa" deritzan Apokryphotik. Bigarren gizaldian idatzia da liburu au; eta bere XVIII kapituluan, ola dio: Mariak bere semea egin zuanean, San Jose'k ikullu-arkaizpe batean ipiñi zuala. Eta, izan ere, olako arkaizpeak ugari dira, gaur oraindik ere, Judea-alde aietan. Bañan, esan, zergatik esaten du ori Apokrypho orrek? Bear bada, antziña-antziñako "ala omen-dalakoren" batetik jasota. San Justino Palestinan bizi izan zan; eta arek ere gauza bera dio. Eta Origenes'ek, berriz, 248'garren urtean ola idatzi zuan: "Gaur oraindik ere antxe erakutsi oi da, Jesus jaio zan arkaizpea". Arkaizpe onen iturria arkitu liteke, baita, beste leku batean ere: "Irurogeitamarrena" deritzan Bibliaren greko-biurketan —Egipto'ko 70 jakintsu alexendriatarrek egin bait-zuten biurketa ori—; antxe irakurtzen da, arkaiz-

kontu ori aipatzen duan Isaias'en bertso txo au: "Mesias, arkaizpean egindako egoitzean biziko da".

* * *

Astoa ta *idia* ere iturri beretik sortuak izan ditezke. Nolanai da-
la, abere maitagarri oiek ikullu-arkaizpean arkitu izatea ez litzake bat
ere arritzeko. Ala berean Maria'k Nazaret'etik Belen'erako bidea
egingo bazuan, aberetxoren bat bearko bait-zuan; eta jakina da,
an-aletako jende beartsuen abere jatorra, astoa izan oi zana. Beste
iturri bat: "Pseudo-Mateo" deritzan Apokryphoa; liburu onek, idia
ta astoa Jesus adoratzen ipintzen ditu ta onela dio berak ere oiko
Isaias aotan artuaz: Guzti au ez da, Isaias'ek ziona besterik: "Idiak
ezagutu du bere nagusia, ta baita astoak ere bere jabearen maña-
tera". Onek ere ezagun bait-du, nundik nora dabillen bere esaki-
zuetan. Bañan batez ere beste itz batzuetan agiri da, Apokrypho
onen bereustekotasun nabarmenegia; Abakuk'en itz oiek aipatzean,
alegia: "Abere biren erdian azalduko zera". "Abere"-kontu ori
Grekoan agiri bada ere, ez bait-da agiri Hebreoan, sakonagoko
beste au baizik: "Aldien biotzean azalduko zera". Pseudo-Mateo'k
Greko-biurketatik artu zuan bere ur-txorta, Hebreo jatorrari jara-
monik egin gabe. Eta ola, gure asto ta idi maiteak Greko-biur-
ketaren oker txiki batetik litezke sortuak.

* * *

Eta *Magoak*?

Iñor orain arte ziaz jakitera eldu ez dan jakingarri asko dira
notin arrotz oien inguruan. Ba'da Frantzia'n, jakingarri au azter-
tzen urteak eta urteak daramazkian jakintsu bat: Emile Mâle. Ba-
da, Emile Mâle'k berak, Magoen irudiai buruzko asko ta asko ja-
kingarri ditu oraindik jakin gabarik eta aztarrenik atera gabarik,
eta ateratzeko itxaropena galdurik. Sortaldeko ipui askotan nahas-
tua bide-dago Magoen iruditza guztia. Arabia'ko ta Armenia'ko
Apokryphoen ipuian batez ere.

Erregeak zirana ez da egia, alderatzeko ere. Itxura duanez, Per-
sia'ko erlijioaren bateko apaizak ziran. Ori bai, Persia'n Mago-jen-
deak errege-odolekoak izan io ziran askotan eta aldiz-aldiz batzu-
ren batzuek baita erregeak izatera eldu ere ziran; bañan Jesus'en
garaian, ez. Geienaz ere, orixe ziran, izar-gauzetan trebatutako
apaiz jakintsuren batzuek. Zergatik, orduan, esan oi da Apokry-
phoetan Erregeak zirana? Testamentu Zaharreko XXI Psalmoan
irakurtzen danagatik: "Tarxix'ko ta ugarteetako erregeak, erre-

galiak ekarriko dizkiote; eta Saba'ko ta Meroe'ko Erregeak egingo dizkiote esku-agertuak". Iru zirala, berriz, ta Meltxor, Gaspar ta Baltasar zeritzatela, Arabia'ko Apokryphoak dio; bañan gai onetan ez da gauza jakiniik; auxe bakarrik: iru izen oiek Sorkaldekoak dirala, eta Meltxor ta Baltasar izenak Biblian ezagunak dirala. Ikusten danez, inñolaz ere ez dago argitasun aundirik Magoen gai onetan.

* * *

Eta *izarra?*

Au ere illun agiri da, zer ta nolakoa zan. Eztabaida asko sortu izan dira, Magoak Jesus'engana zuzendu zituan argi orren inguruan. Ibilli zebilela, ta ez beti zuzenean, aruntz eta onuntz baizik; eta gorde ere gorde zala... Eztabaida asko sortu dituzte, gauza oiek azaldu bearrak, jakin-zaleen artean. Magoen argi orri Grekoz, *aster* deritzaio. Aster, berriz, guk geienean "izar" esaten degun arren, beti ez da izar; izan diteke izarbel, ots, planeta, edo-ta adats-izar, ots, kometa, edo izar-its, ots, meteor. Eta ola, Magoen izar au zer zan adierazteko, beste orrenbeste azalpen eman izan dira. Aipatu izan da kometarik — Halley sonatu aren antzeko kometaren bat, alegia. Esan ere izan da, ez ote-zan, aldiz-aldiz, zeru illunean furrunda izugarrian batetik bestera igaro oi diran meteor oietakoren bat Batzuren batzuek galde izan dute baita ez ote-zan, Jupiter ta Saturno izarbelaen alkartzeren bat, noiz edo noiz *Arraia (Piscis)* ize-neko konstelazio-barruan gerta oi dana bezelakoa... Agiri danez, guzti ori, Astrologia deritzan jakintzaren illunbean, illunbe itsuan dago. Bi milla urteko azterketa ta ikasi-bearrak argitu ez duten illunbe itsu sakonean.

* * *

Esan dezagun, beraz, Jesus'en Jaiotzako arazo ukigarri ontan, kristau zintzoen jakin-nai xamurrak alde batetik, eta erri xumearen arrigarri-galeak bestetik, asko zabaldu ta luzatu dutela Ebanjelo Jatorrak Jaiotza arrigarri aren inguruan dakarten ele xume ta soilla. Guzti orrek ez bait-dio ezertxo ere kentzen, ezik, gure Sinismen jatorrari.

* * *

Aurten ere, beste bein, eldu zaigu Noel, Gabon, Olentzaro. Eta beste bein, ume-artean gure biotzak amar urteko ume-biotz egi-

ñik topatuko ditugu, unetxo baterako. Eta guk geurok egingo degu beti bezela, paper gogorrez, arako betiko arkaizpea; eta zabalduko geure beatzez ikullu-gaňaldean elurra dalako irin txuria; eta betiko errenkadan eta lekutan ipiňiko, Proventza'tik ekarritako Santutxuak. Eta, aizkenik, goiko sapaletik beera elektrika-aritik zintzillikatutako izar ditzizariak pizten ditugunean eta aingeruak egan ipintzen, auxe besterik ez degu izango geiago egin-bearrik: antziňako aleluyazko eresi xamurrak kantatzea etxeko ume guztiekin batean.

Guzti ori ez bait-da izango gure zeru-galearen agiri xamur bat baizik, eta gure Sinismenaren astindu bat; jakintsuak gora bera, maite-bidetik dabillen gure Sinismenaren astindu sendoa.

M. L. labur ta euskeratzalle.



OLERKIAK

ITUN

*Lekuona'tar Imanol
apaiz jaunari
adiskidetasun-ezaugarritzat.*

Utsaren utsaz ustuta,
uts-utsik daukak biotza.
Mingostasunen arantza!
odol dariztan gomuta.

Gogaien zidor latzean
urrunen zoruna babes...
Baso-gentza dakust minez
eun margoren kadenean (1)

Eresitxu bati iarrai
munduaz aantzi-ta zoro,
—iaretsi gaitzetan giro—
ixilan daurkit sendagai.

Maitasun-zaurietatik
galdu ziran nere pozak...
Min damaite orain gauzak
zauriok irristaturik.

Izadi-ikutuz ots dagin
ioarea baino enaz;
kantari nabil goiz ta arrats
pozkida galduen zelain.

AURRAITZ

(1) Kaden==melankolia.

AURTXOA TROXATZEN

Aurtxoa troxatzen
Ama Maria...
Zer dion kantatzen
entzun zugun:

“Ez egin negarrik,
nere maitea;
ez egin negarrik,
nere kutun”.

Troxatu du, eta
seaskaratzen...
Orduko eleta
entzun zugun.

“Lo egizu, maite;
lotan geldi zaitte.
Lo egiten badezu,
ama poztuko dezu.

Lotan zaude, maite...
Naiz, esnatu zaitte.

Esnarik bazaude zu,
ama txoratzen dezu.

Belen'go Arrosa!
Gaur, amaren poza;
bigar nere samina...
Ai! beti aur bazifia!
Ai! beti aur bazifia!"

M. LECUONA

KORTA

(Gabriela Mistral)

Gauerdia allegatzean,
Haurrak negar egitean,
eun bestiak itzartu ziren
ta korta bizi egin zen.

Eta urbiltzen ziren danak:
lepoak eta joranak,
oihana aizean bezala,
Haurragana luzatzen.

Idi batek areistian
jarri zion aurpegian
musturra: Bere begiak
ihintz biguna ziren.

Ardi baten artileak
berotuz Hari hesteak,
ta eskua bi ahuntzamek
milikatu zioten.

Faisanak eta oiloak,
antzarak eta zozoak,
kortako paret guztiak
estaldu zizkiguten.

Faisanak ziren bajatu,
Haurra gainean pasatu

zituzten bere buztanak;
eta antzarek atontzen,

zizkiotela lastoak,
hantxe zebiltzan zozoak
jaio-berriarentzako
estalki bat izaten.

Ta Birjina adar-arteon,
hasnasa zuri tartean,
bere Seme hartu ezinik
zohan eta zetorren.

Laguntzan dator Senarra,
ezpainetan irriparra.
Oihana aizean bezala
korta pozgarria zan.

G. ARESTI'k euskeratua.

OSTATURIK BA-DA?

Astotxu fiña, taka-taka,
Gabon bezperan, Belenera.
Bidea, bide da.

Gabon bezperan lore bat.
Gabon bezperan lore bi,
Gabon bezperan iru lore ta
Asto txiki bat bidari.
Jesus, Mari, Jose,
Iru lore garbi.
Platero lako asto goxo bat
Bizkor eta zoli. [ran'
Gabon bezperan, Gabon bezpe-
Gabona ostatu-larri.

Eguzkia yoan da
Mugako erriz-erri.
Gaba, baltzik, mozolo.
Sagu-zar ta guzti.

Zeruko farra orrek,
Izarrak izeki.
Gabon-muñia bidean
Nekez, abail, gorri.

Astotxu fiña, taka-taka.
Belen errira eldu da.
Elburuko poza!

Gabon bezperan Gabon guztia
Belen yatorrean.
Gabon bezperan Gabon guztia
Asi da ostatu eskean.
Ate bat yo eta eskatu,
Ate bat yo eta ukatu.
Aterik ate ukatzen deutse
Gabon-lorari ostatu.

Astotxu fiña, taka-taka.
Gabon guztia eskekoka.
Eskea apala da.

Gizonak zikotz. Zerua
Izar brintza bat bakua.
Zeruetako izar guztiak
Estali dabe burua,
Aitaren BERBA zartatsuari
Yarri daitean mundua.
Illunbeari dago, alan be
Mundu sorgor, itxutua.

Astotxu fiña, taka-taka.
Gabon guztia, ate-yoka.
Ostaturik ez-ta.

Aterik-ate, eskeko,
Ardia baiño apalago.
Asierarik izan gabeko
Asierako Yaun-Goiko.
Maitasun-dirdai goienarentzat
Lurrak sentirik ez dauko.
Astotxu fiña, taka-taka,

Etxe batetik bestera.
Ostatu ezetza miña da.

Aterik-ate, Gabon bezperan,
Aterik-ate yaurtia,
Gauza guztiak sortu ebazan
BERBA Egille, garbia.
Illun erdian dabil, esetsi,
Betiko su-gar bizia,
Eguzki ta izar-begi bakoitza

Biztu ebazan zuzia.
Asto txikia, taka-taka,
Ainbeste bidez apurtuta.
Berreun Igarle aldarrika:
"Aldia eldu da!"
Gizonaren gorra.

Gabon bezperan lore bat,
Gabon bezperan lore bi.
Ostatu billa Gabon guztia
Portal batera otzanki.

Munduan dago ARGIA,
Argi zin eta garbia.
Baiña munduak ez dau nai artu
Argi herbizlegarria.

Lengo portal zar batean
Astotxua geldi.
Lore bat, lore bi,
Eguzki ta itargi,
Argiaren ARGÍ,
Biziaren BIZI,
Idi bioztsuaren
Aterpeko sari.

Eta Aitaren BERBEA
Aragi egin da.
Yainko Yauna, GIZON.
Gabon gaba, GABON.
Ganbelan seintxua

Besoak urduri,
Yainko Seme Bakar,
Maitasun gar-mendi.
Bada Maitale au
Onartzeko garai,
Baiña ondiño askoganako
Bidean dabil, eskeko.

Eske dabil larri
Gizaldiz-gizaldi,
Atez-ate deika
Ixil ta bakoizki,
Betiko ibiltari
Ostatu-nai ori.

Ostatu ezetza
Ezetz samiña da.
Gabon bat, Gabon bi.

Gabon, eske beti.
Munduan nok daki
Biotzen zenbaki?
Biotz ainbat daiteke
Gabona ugari.

Astotxua, zoli,
Taka-taka zuri.
Ate, nor, biotzez,
San Jose ta Mari
Ume Jesusentzako
Yaio-leku-larri,
Arima bakoitzeko
Gabon bat gurari.

Taka, taka, taka.
—Etxeko yaube ona,
Ostatu rik ba-da?

Gandiaga'tar Biktoriano
Praillea



IAINKO-ARGI

I

Iainko-argi,
Izar urdin,
Nir-ñir zeru-aldean;
Argi zazu
Iaungoikoa
Umeturik
Dun txokoa.

II

Iauzi bitez
Zeru-lurрак
Mirari onen aurren...
Seaskatxo
Zar batean
Goiko-Iauna
Ikustean.

III

Irri goxo
Bat dagiri
Bere lore-ezpañetan...
Arrats oztin
Begi zoli
Ninietan
Egalari.

IV

Frutu mardul
Parekorik
Ezta sortu munduan...
Lore bikain,
Usaiz lili,
Arros eder
Bat dirudi.

V

Zer dezu zuk,
Sorgin polit,
Irri barre orretan?...
"MUNDUAREN
EGUBERRI,
PAKEAREN
EGUNSENTI"...

Berasaluze'tar Sabin
Arantzazu

IV.-EUSKAL LITERATURA-ren BILDUMA LABURRA

ATSOTITZAK eta ERREFRAUAK

Euskaldunen atsotitzetan badira zaar demboretako 8 bilko edo sall. Emen emango ditugu aldian aldiko zenbeit, bilko bakoitxetik: GARIBAI-enetik, 1596 garren urteko-tatik, Voltaire, Bela, Zalgize (Sauguis), Oihenart eta Lope de ISASTI-renetatik. Oraikoak Garibai-en eta 1596 urtetakoak dira.

Mondragoeko seme Iztebe Garibai, historioegille ezagunak (1533-99) bildu zituen leen euskal atsotitzak. Bi izkiribu zaar edo Codex utzi zituen, bata (G. 139) Madrileko Nacional Liburutegian dagoena; erdal itzulpenak, esan bear dugu, ez dira beti zuzen. Una ale batzu;

Adin onari akio = Emprende lo razonable.

Atzean ñagonak utsean diago = Los que hieren detrás hieren en vano.

Aita gurea bein eleizara eta orduan nekez = Nuestro padre una vez a la iglesia y entonces con trabajo.

Ederra ba liz ona ez eiliz = Fuese hermosa y no buena.

Nork bere gogoeta, moeta = Cada uno piensa a su modo.

Urta akio, bai al ba akio = Deshazte de él [el mal] si puedes.

Bilbao an bere dongeak birao = Bilbao, allí también el malo maldición.

Bigarren Codex Cc. 79-tik; auek;

Andra ederra etxean gerra = Mujer hermosa, en casa guerra.

Edrigo de Villandran, egun eben eta biar an = Rodrigo de Villandrandro, hoy aquí y mañana allí.

Gonzalo Moro tati tati, gaxtoa gaxtigaetan ba daki = Cuidado con Gonzalo Moro, sabe castigar al malo.

Edozeinek edat ostein dio bere gardia = Cada cual después de beber dice su parecer.

Albia, donga gustien abia = Albia nido de todos los malos.

* * *

1596-garren urtean argitaratu ziran Iruñean 500 baiño geiago atsotitz "*Refranes y Sentencias*" izenburuarekin; eztakarra egillearen izena. Iyeki edo etsemplario bakarra Alemaniako Liburutegi batean zagoen (Hesse-ko Landgrave-nekoan, Darmstadt-en) baiña azken gerlan suntsitu da ondikotz. Una emen batzu:

Ezka ez akio daukanari ta bai on derextenari = No pidas al q tiene y sí al que bien te quiere.

Laster emaiten duenak birritan emaiten du = Quien prestó da dos veces lo q. tiene da.

Il eikek ta il aie ta ire erallea il daie = Matar le has y matar te han y a tu matador matarán.

Oa laster *baracheje* = Vete presto de pasito.

Erioak erezan Butroeko alabea Plenzian = El tártago mató a la hija de Butron en Plencia.

Ire etsaien emaste eukek ik adiskide = La muger de tu enemigo tenla tu por amiga.

Ukaondoa ur da baia mun egiten eskerga = Cerca está el codo más difícil de besar.

Onuarik ez dau iñok beretzat ta bai bestentzat = Consejo no tiene nadie para sí y sí para otro.

Gal bedi gizona ta ez aren ospe ona = Piérdase el hombre y no su buena fama.

Autso Txordon artz orri ta nik iñes daida = Ten Ordoño a ese oso y yo haré la huida.

Neure etxeko kea lagun-eneko sua baño obeda = Humo de mi casa mejor q. el fuego de la del ajeno.

Zegik ezer endorea entzun artean bestea = No hagas nada al calde hasta oír al otro.

Lotsabageak erria bere = El desvergonzado, la patria es suya.

Atean uso etxean otso ala bizikidea gaiso = Fuera de casa paloma en casa lobo tal manera de vivir malo.

Ardura enok iregura = Cuydado, no soy ganoso de ti.

Andrea ederta aberatsa edo ero edofarata = La mujer rica y hermosa o loca o presuntuosa.

Eskaratz bako etxea ta andra lotsagea ta ipurdiko putza guztia onez hutsa = Casa sin hogar y muger sin vergüenza y soplo de culo todo vacío de bien.

Hurak dakarrena hurak daroa = El agua lo que trae el agua lo lleva.

Zekena-en bizian kaltea oasuna aen heriotzea = En la vida del avaro daño en su muerte bienes.

Txoria, gaztetegian ezpadagik abia zaarza gatxen eldu dok hire bizia = Paxaro sino hizieres en mocedad nido en mala vejez ha llegado tu vida.

Loka jabilt agina ta gogoa dot arina = Temblante me anda el diente y el pensamiento tengo liviano.

Ardura enok iregura = Cuydado, no soy ganoso de ti.

Hotsailean hurteiten daroartzak lezerean = En febrero salir suele el oso de la cueva.

Hugatzean edaten dana zerraldoetan essuro = Lo que en la teta se bebe en las andas se vierte.

Leusindu buztanaz ta esugi ahoaz = Halagar con la cola y morder con la boca.

Neguan hokin hudan txiribogin = En invierno panadero en verano tabernero.

Neskeak iru hitz egunean ta biak bere kaltean = La moza tres palabras al día y las dos en su daño.

Sua dan lekurean keeak hurten eban = Del lugar doay fuego salió el humo.

Otu ze egiok ohean andreari ez urtan zaldiari = No le ruegues en la cama a la muger ni en el agua al caballo.

A. IRIGARAY.=ALDARATZAILLEA

Ames - Larreko maitagarria

(Lilura - elhea)

Eldu nintzan ainbat bidar izandako toki-tokira. Zenbat aldiz nik nire buruari esan ere: "Aurrera, ioan adi aurrera!"

Baiñan ezin.

Nor ausartu maitagarri-mugako arri borobil eta zabala zapaltzen? Nork arri aren gainean oiñik ipiñi?

Burutik beazetara dardaraka asi oi nintzan. Eztakit nungo aize xume batek inarosten ninduan bein eta berriro.

Egun artan, ordea...

Ortzia argi-garbi zegoan. Noizik beiñean, odei arre-txuri zoranga batzuek agertu, estutu, medartu, edota edatu ta mee luze egiñik, eze-rezten eta suntsitzen ziran zeru-barna.

Birigarro baten atzean nenbillen, aren kantuen iarraika ninioan landetan zear eta zugaztietatik.

Arizti narroan sartu nintzan. Goiaren zale, an zegozten gerri eder, lepo luze, burutxutak, irmo ta zuzen, aritz tantai aiek. Udazken-giroaren zirrikaz, ezkur zimel banakak kok-kik lurrera zetozten.

Ezkur eder, mardul, legun borobillak, abarretan goxoki kokatuak begien ikusgarri, ikusmenaren atsegingarri, izadiaren indar eta esne-odolen erakusburu, etorkizunaren xinta isil-isilak...

Iratzeak erdi eze, erdi urrexka, gizon nagiaeren etzin leku merke ta oatze biguin bai lirean, zuzaz ta perretxikoz apainduak or emenka.

Goroldio emez josia, ur axaleko uin kixkurrak antzo, lur gaina guri zegoan, katu garbiaren bizkarra iduri.

Etzin nintzan etzin, geldiro, Ames-muga ez zapalduko bai zapalduko, bizkarrez lurra, aurpegiz zeru, besoak zabal, luze zangoak.

Osto tartetik goiaren urdiñak agur egiten zidan, bere kolore bakar berdinbagean nire izena idatzi nezala esanaz bezela.

Eta orrelatxo asti naro, aldi lasai, bertanbera ezti, egote atsegin.

Bapatean, ots motela entzun nuan, xir-xir isila, arrigarrizko edo misteriozko arnas-aldi soñua iduri. Zirkin egin nuan, akulu batek eragiña bezela, eta burua eskui-alderatuaz, sasi legor artetik kee mee xurixka nabari zuten nire begiok, laiñoaren gisa.

Lanbro ura anditzen, anpatzen ari zan eta zeruko odeiren bat adarean naasi eta urratutzer zegoala zirudian.

Sua ote zan? Laiñoa ote zan? Odei galduren bat ote?

Zart-egiñik pikoa erdibitzen dan anizera, urratu ta bitu zan lanbroa.

Ta begien zorapen ta liluramendua!...

¡¡Neskatxa eder zoragarria neñukan nire aurrean!!

Ez ninduten, inñolaz, saldu ez atzipetu begiok! Ene ba, ango Maitagarri berbera ez zan bada?... Bai, zalantzik gabe; berbera zan, arranotan!

Ni zurbil, beluri, odol-geldi lotu nintzan, lurrari atxikia. Mingaiña askatu nai, eta mingaiña lokartua izaki. Jeiki nai, ta gorputza sorgor, nagi, igimenak iges egin bai lion. Mintza nai, ta mintza ezin, egoera larria...

Ontan, irudi urdiñezko neskatxaren ezpaiñak ideki ziran eta —ezkilen jai-bezperako dilinda goxoa ote?— doiñu samur beratz eta eztiz mintza zitzaidan, bere begiak irriño emez izetuz.

Itz auek bakarrik ditut gogoan, eta oraintxen esango.

—‘Ioriñe nauzu, Ioriñe —esan zidan emaztegai baten aots karatsu biguiñez—; Ames-larre ontako Maitagarrien erregiña’.

“Mendeak mende, ementxe bizi naiz, gizasemeetaz urbil eta urrun, bertan-xamar eta bereixi. Amar urtetik amar urtera mutil gazte bat galdetzen dut, eta onekin mintzaldi luze ta egonaldì gozo egin ondorean, aske ta iare ioaten utzi oi diot. Aske, taiuren batean; baiñan nire oroiak, ordea, egun eta eguzki iraunen dio, eta nahiz eta onera berriz eldu nire billa, leen ikusi nauanak ez nau ez, iñoiz berriro ikusiko.”

“Ez zaitetz bildurtu, bada, eztizut kalterik egingo-ta”.

“Nire ames-larre bikain ontara etorri nai ezik ibilia bait-zara zu ere, besteen zori eta besteen ioera ta jokabidea merezi zenuke. Bai! Gaurgeroz alperrik datorke bigarrenez bere gogara, leen nai ez-ta etorria, ni berriro ikusteko irritsez. Alperrik!”

“Esker gaiztoentzat eztut nik ere ezer onik. Nire izena entzun ordukoxe niregana orde z nigandik urrundugogo duzutenok, zagozte bai ametsik gabe, lluragabe, beti lurrari lotuak, biotzak legor, aztun begiak, ogi soilaren zale abere araura.”

Nire bularra ler-zorian zegoan, arnas itoaren mende. Izerdi otza

tantaka nuan bekokian beera. Begiak zabal, oso zabal nituan; orobat aoa.

—“Parkatu —esan nuen agin-artetik mintzo epel utsa aize-putza bezela kanporatuaz— bein ta berriz ikusi nai zinduzket, alegia...”

—“Ederki, bada —erantzun zidan irriparrez. Olerkari zaranez gero, zatozke urtean bein, udaberriko eguzkiaren lendabiziko arratsaldean”.

Ta nireganatuaz, pa bero goxoa egin zidan kopeta erdian.

* * *

Bigaramon goizean, iguzkia bere larre urdiñera zanean, konortik gabe aurkitu ninduten inguruko baserritarrak, eta gurdian iratze-artean Ames-larre mugako basetxe txuri garbiraiño eramanik, oe txukunean eduki ninduten nire senera nintzano...

1956

ERKIAGA Eusebio



IÑERE ⁽¹⁾ ZURIA

(Iruzki aldeko Ipui bat Uarte Araki'go euskeraz)

Zakurrak bere tokian lotzetik zetorrela, ondoratu zakion arrotz ez-ezagun ura Pello izeneko gure gizonari. Zakurretara itzuli, bizpiru loxintx egin, eta bekoz-beko arrotzari begira jarri zakion. Pellok belaxen igarri zion etzetorkiola geiagokorik bage, kezka edo arrankuraren batek zekarrela.

Begitu batean arrotzak ipar-aldeko baserritar arrote bat zirudin, bere korotillo (2) gorri-urdiñak erakusten zuenez. Gizaki azkarra ta itxura onekoa zan, baño nabari zuen beartsua ta txiroa ere zela, edo jatorriz apala beintzat: atorra eragabe jositako adabakiz estalia zeukan; gerriko ubala, luzaro erabilliz, igatua; galtzak edo prakak anemenka zirpildurik, azpiko ertzetatik batez ere. Oñuts zebillen. Mendi bat añako gizasemea ematen zuen, baño gure Pello'k bereala antz eman zion kemen gutxiko gizon ezti otzan batekin ikusteko zeukala.

—“Egun on, adixkide, zer modu?” —esan zuen arrotzak, zerbait esan bear eta. Baño ezin uka beste zerbait bazerabilela buruan.

Aurrera begira ta eskuekin ikurka, galdetu zuen ia “Mandoeta” erria aruntz zegon eta zenbatsu bide ziteken araño. Pello'k xeetasun guziak eman zitien zeatz-meatz, eta ikusi zuen ostean zaldi bakarreko zalgurdi bat bide ertzean gelditurik. Baserritarrak berak utzia zan Pello'rengana etortzeko.

Gurdiaren aurrekoaldean emakume bat zegon kukubiko, besoak bular gañean. Etzeukan, oi bezela, buruko zapi edo mottoa okotzpean koropilloturik, muturrak zein bere alde zintzilikan baizik, lasaiago bearrez. Bero zapa zegon ba, bero zegonez! Gurdi atzealdean berriz beste emakume bat zetzan estalki batean bildurik, burua buruko

(1) Iñere, enara, ainara, inare.

(2) Korotillo=chaleco.

gorritxa zatar baten gañean. Bestea baño txikixagoa, neskato bat ematen zuen, zear etzanik zegolako aurpegia ikusten ezpazakion ere.

—“Gaixoren bat al dakarzu?” —galdetu zion Pellok xakingale.

—“Bai; alabatxo bat gaizki dauket”.

Oyan bazterrean itzalpean abaro zeuden ardiai begiak bota zitien baserritar arloreak; baño aren begiratzea, naiz begiak tinki, galdu egiten zan nunbait biotz miñaren miñez.

—“Zu etzara emengoa. Nungoa zaitugu?” —galde egin zion Pello'k berriz ere.

—“Uribas'tarra naiz ta nere jaloterritik nator, buztñe salduz bi-denabar. Oso buztñi ona da gure errikoa, buztinzurie bera beziñ ona, ta emakumiek gogotik artzen digube. Itxasaldera jeixten naizenien berriz, arreak edo matsa erosten ditut datorren arabera, atzera saltzekotan alegie. Jainkoari eskerrak, burue ateratzen dugu. Ez-bier au ezpagendu...!”

Lurrean pikotx exeri zan ta larruzko toxa edo petaka bat kolko-tik atera ta zigarro bat egiten asi. Pello ere alboan xarri zakion eta ikusi zuen zeñen errax biltzen zuten zigarroa beatz lodi makortsu aiek.

—“Eztugu alderdi onik gure umiekin —jarraiki zion minbera baserritarrak—; baditugu iru oso gaztetan illik eta au bakarrik gelditzen dakigu orain. (Zalgurdiari begi-xixta bat egin zion zearka.) Gure begi niniai bezela begiratzen diogu. Ameike aldiz nere aoari ogiye kendu nion berarentzat zer edo zer erosteko, soñeko egokiye izan zezan, bestiek ez bezela izan etzedin. Zor edo lor, orain artio iraun digu, Jainkoari eskerrak. Baño aspalditto ontan ez-toye ongi; deusik ez baño beti aultzen-aultzen... Frankotan aitu izan diot bere amari esaten nolako miñe ematen zion, bera ezkongai gelditzen zen artien, bere lagunek txandaka ezkontzen zoaztela ikustiek. “Zergatik ago ain illun? —esaten nion nik—. Etorriko dakinaldiye iri ere. Zer dela ta begiratzen dien bestiei bekaixti, aberats direlako edo? Olaxekoak ditun ba gaurko egunien mutillek, beti diruaren usaira. Baño ezkonduko aiz i ere, Jainkoa lagun. Ez aiz oraiño muxurdin!”

—“Zenbat urte ditu?”.

—“Eldu den Andra Mari egunien iñen ditu ogei”.

—“Oo, gaztie oraiño!”.

—“Bai apike!”.

Ixildu zan ta berriz ere ardiai begira jarri deus ikusi bage. Andik urbil gari soroan ebaiketean zebillen segalari batek frixt, frixt, frixt, egiñarazten zion bere segari. Onen fixtuak baserritarrari zerbait gogoraazi zion nunbaitean...

—“Aurtengo uztaroan uztara joateko baimena eskatu zidan. Bier-

tsubek gara oso: bierrak eta gosiek ozka itten digube maizegi, itxeak beko erreka jo ezpadu ere. Baño ain aul eta gaixo ikusirik, ezetzkoa eman nion. "Utzi nazazu, aitte, utzi nazazu arren! Beste neskatoeekin joan nai dut nik ere!". "Ots, joan adi ba, joan bier ba dun!" —esan nion azkenien ain tenkor eta setatsu ikustien. Joan ba zen joan, arrezkero eztu egun onik izan. Zer gertatu zakion? Ni e-nengon an ta eztakit berak esan zidanez baizik. Kanpoan itten omen zuben lan; kanpoan xan da lo ere. Bein batien, ezpaltzen, balak lotzen ta galizpi-buruak biltzen bete zuben egune. Illunabarrien, afari lege bat in ondorien, naiko irri ta dantza in omen zuben neska pinpirin ayek. Gero, ler inik, etzin ziren noizbait. Joxpa (izen au dakio nere alabari) etzin zen bera ere. "Ezpal artien etzin nintzen ni, aitte, bal meta baten gerizpien ongi xantzirik, eta belaxen loak artu nindun. Alako batien, esnatu ta gauz pixu, otz, likits bat nabaritu nuen bular gañien. BegiyeK zabaldu ta, ene...! sube nazkagarri bat!".

— "Arraio!"

— "Bai, gizona! Subetzar bat. Neskaren bular gañien zizuru ta etziñik etzegokion ba? Gaixoak garraxi in zuen ikararen ikaraz; baño begi-ixte batien buztanetik eldu ta fidirikan bota zuen al beziñ uruti."

— "Ta ez al zion ozkarik in?"

— "Ez, ez; ori esan zuen berak beintzet. Ametsa? Egiye? Batek baleki...! Dena dela, arrezkeroz ez-toye ongi. Arbezta iyer bat bezela iyertzen ari dakigu ezarien-ezarien. Bularrak miñ ematen dio. "Emen, aitte, emen; suberen bat edo...! Miñe dauket!!"

— "Demontre, demontre! —zion Pello'k areago arriturik—. Ta nora daramazu orain, sendagille batengana edo?"

— "Sendagilleagana? Zenbat ez ditugu ikusi gaurgero? Orain... ejem...! Nola esanen dizut pa...? Egiye esan, nik eztut siñestatzen, ez; baño zorioneko emakume oyek...! Gañera oso gaizki dago... aur bat oraiño!!"

Zintzurra koropilloturik, itzak eztarrian dar dar zegioten ta ixildu in zan, inguruari begira, urduri, ezin igurika, batean sudurpeko illeak biur, bestean okotzekoai tenk. Ez bide zuen gure baserritarrak an-emenka zuritzen asitako bizar usu gogor ura aspalditxoan egin. Pello'ri esan bearrik ez naski aren ille zuri bakoitzak biotz-miñ garratz bat adierazten zuela.

— "Atsalde batien —jarraitu zuen arrotzak aixetu zanean— gutar itxasgizon batzuek itxasaldetik etorri zazkigun, arraintz bikaiñ-bikaiñ bat in da gero, ta denak elegura ta berriketari zetorzen. Irri gayen bille bierbada! Dena-dela, Ixtebeni gure alabautxiye itxera datorkigu bapatien, ele-mele, itz jario, ezin ixil: Izan ere, itzontzi tartar bat da

berez, sasi jakintzu bat besterik ez. "Aitautxi, amautxi! —oyu egin zigun atondora eltziekin batio— zorionekoak zarie oraintxe, zorionekoak siñez! Zorionekoa Joxpa ere! Zorionekoak denak!! Arrongillenekoa Martiox eta Etxexuriko Felix aixtiantxe etorri dire itxasaldetik esanez Mandoetan iñere zuri bat ikusi dubela, oso zuriye, elurre baño zuriago!" "Demoni kalaka, alain kalaka! Ta guri zer?" "Baño aitautxi! Ez al dakizu zer esan nai duen iñere zuri batek? Eun urtetik bein bakarrik agertzen omen da, ta orduen ikusten dubenak, edozein miñ edo eritasun izanik ere, denak sendatzen omen dire uts bage. Goazen, aitautxi, goazen eta eraman dezagun Joxpa!!"

—“Ori ala izan al baledi...!” —esan zuen neskato gaixoak negar ta negar. Bere amak ere beste orrenbeste bat egin zuen ta... ona gu emen!!”

—“Egiye ote? Ta nun zegon olako iñere ori?”

—“Esan dizut pa Mandoetan ikusi zubela.”

—“Baño zuriye al zan?”

—“Zuri-zuriye!”

Pello'k inguru osoa begiztatu zuen ta azkenean zalgurdiari begiz gelditu zan. Egun osoa oyan bazterrako itzalpean bere artaldea zaintzen egin bazuen ere, oarkabeen joan zakion orduan bereziki oartzen zion au: nolako iñereketa zegon telefonoko ariai loturik. Etzan arri-tzeko. Jesu-Kristo gure Jaunaren Antzaldatze edo Transfigurazioko jaia etortzer zan, ta aro ortan gutxiz gora bera bildu oi dira iñereak eta burioak beste norabait alde egiteko. Ainbeste zegon eta ain urru, iduri bai zuen aria la:o gelditu zala errosario bat antzo dilindin; erruz zegon iñerea, baiki; baño zein baño zein beltzagoak.

—“Orra ba zerk ekarri nauen zugana —esan zuen baserritarrak ausarkixeago—, iñere zuriren bat ikusi ote duzun, edo beintzat zer-baiten berri ba-ote duzun xakiteko etorri nakizu.”

—“Iñere zuri bat? Ez, gizona, ez! Nundik nora?”

Baño bereala gogoratu zakion gizon gizagajo ura etsiazi zezakeala bearbada, ta zuzendu bearrez esan zion:

—“Baliteke ori ala izatea, baliteke! Basa-idi zuri bat, sagu zuri bat, kapelats zuri bat, ikusi oi dire noizbeinka ta nunbaitka;; iñere zuri bat ere... Esaten daneko zerbait izanen da!”

—“Auskalo...! —auen egin zuen arrotzak—. Nik beintzat ez-tut siñestatzen. Baño... emakume oyek...!”

Zutitu zan abitzeko. Pello ere, biotza ikuturik, zutitu zan alaber besteari lagundu ta bidenabar neskatoa ikusteko asmotan. Bidera eldu ziraneke, ama (oñazeak ausitako emakume orixka aurpegi zimur bat) gurdian jarri ta zai zegon, senarrak zer edo zer jakindu ote zuen aurpegitik igarri naiean. Neskatoa berriz, oraiño zear etzani, telefonoko ari gañeko iñereai begira ta begira iraunkiro.

—“Gizonak esan dit erriye eztagola emendik urruti.”

Itz auek entzutean itzul erdi bat egin zuen neskatoak. Nagi ta zilimindrin zegon. Aren gorputz ziztriñ igartua doi-doi nabaritzen zan estalkipean; baño argizagizko aurpegi legun ori-zuri artan begi beltz ederrak dir-dir zegioten, irri-murritto bat artean. Pello ta bere aita, biak begiratzen zituen aldizka.

—“Joxpa! Jaun onek iñerie ikusi omen din —diotsa aitak Pello'ri begia ñikatur, gexurra egi eman zezan—. Erri ontara ere etorri omen da, bai? Suerte pixka batekin ikusiko diñagu guk ere!”

—“Ikusiko al dugu, aitte?” Eta begi beltz aundi maitagarri ayek dir-dir egin zioten areago.

Pello'ri zerbait igitu zakion goien-barren: biotza estutu zakion ta begiak lausotu.

—“Bai, enetxoa, bai! —asi zakion auenka—. Nik ikusi dut eta zuk ere ikusiko duzu! Neronen begiz ikusi dut txuri-txuriye! Jainkoak dezala zuk ere ikus dezazun, maitetto! Eta senda zaitzala lenbailen! Oo! gaztie zara oraiño! Ikusiko duzu! Nik esaten dizut eta segur bazaudeke! Eta sendatuko zara, bai, alajañetan!”

Amaren begiak bir-bir ñikatu ta negarrari eman zioten naro-naro, kupel bete malko. Aita berriz, eztulkan asi, zaldiari ago-ubeletik eldu ta abitu zan, iñalean tiraka ta arreka.

—“Agur! —ots egin zien Pello'k— Eztago urruti erriye! Zoazte telefonoko ariai segi!”

An gelditu zan luzaro, bide ertzean, zalgurdiari begiz, irurak orobat zekuskila; ama aspaldi-aspaldian mutsututako (3) xaka beltzean estalirik; neskatoa amaren magalean etzanik; aita zaldittoaren aurrean kuzkurturik. Auen gañetik, telefonoko abe tentekoen inguru, iñereak zebiltzen egaka, txio-txioka, gurgurika, bira aruntz, bira onuntz, atzera berriz lengo aritara jaixteko.

Pello bere artaldera itzuli zan buru abal ta gogoetatsu, ta len utzitako lanari lotu zakion: ondu gabeko idi larru batekin umeendako zatak egiten ziardun.

“Iñere zuri bat? —zion berebaitan ez ta bai. Ba-ote da iñun? Bai-ote?”

I. AYERBE

(3) Mutsutu, mustu=estrenar.

«ORIXE» ETA BEDAYO'KO TXISTULARIA

“Ze gauza ederra dan *automovil*'dun bat adiskide izatea...!”, norbaitek esan zun eta egoki esan ere; bada esan ori egiztu aal-izateko aukera ona izan degu ain adiskide begikoa degun Valverde, “Ayalde” margolari saiatuaren amabi zaldiko “Morris” zoragarrian gipuzko-napar mugan aurkitzen dan Bedayo uritxora Donostia'tik jun-etorria egiteko zori aundia izan degunok.

“Corpus Christi” ondorengo igandea da.

“Orixe”, gure idazle aundia, Bedayo'ko Sarasola txistulari zaar ospetsuarengana degu eraman-bearra, orain idazten ari zaigun “DANTZAK” izeneko liburu berrirako *solfa*'rik ezagutzen ez duan menditar txistulariari bere “ttun-ttun” *konpas-puntuak* artzeko.

Gure idazle andietsia, Tolosa'n, Labaien adiskidearen etxean daukagu zai, andik Bedayo'ra belbillean eramateko. Eta esan eta egin: ezin obeki bete aal-izan degu gure egin bear edo zeregiña.

Jaungoikoa'k ala nai'ta, aurtengo urtean oraindano egin duan egualdirik disdiratsuena gure alde degula, eta meza santua entzun ondoren, goizeko amarretan irten gera, egundoko abiada bizian, aita-turiko adiskide ongillearen “Morris” bizkorrean, Donostia'tik Tolosa'runtz... eta “aitaren” egiteko betarik gabe gera Lasarte'n...

Lasarte'n! Biotz-biotzetiko jaioterri maitean! Baña, —zergatik ez esan?— biotz-minbera anketaraño jetxi zaigu, oartu degunean oraingo Lasarte au, ez dala guk “Goiko Kale”-ko “Bernarda”-nean *bixentimoko* txanpon txikiarekin esku-bete “patxintxi” goxo erosi izan gendun garaiko Lasarte...

Baña gogapen biozkoi-mingarri abek geure baitan ditugun bitar-

tean, aurrera ta aurrera dijoa, tximistaren gisa, gure "Morris" arinkorra, ta bereala gera Andoain'en; laister, Villabona'n, gero Irura'n, eta amarterditan... Tolosa'n...!

Tolosar adiskidearen bizitetxea, ez dakigu ordea, ziur, zein dan; eta nor edo nori galdezka asi bear...

—Aizu, gizon: esango aldiguzu Labaien jauna emen zein etxetan bizi dan? —galdetu diogu kale-ertz baten aurkitu degun lur-koloredun lenengo gizonari, eta onek...

—*Ustedes perdonen; no soy de aquí*—erantzun digu.

—Ederrak eman zizkigut onetxek—geure kolkorako esanaz, aurrerratu gera piskabat, eta antxe, jauregi itxurako etxe eder bateko leiotik guri begira nabaitu degun begi ederdun andera apain bati, galdetu diogu, euskeraz:

—Labaien jaunaren bizitetxea?

—Aurreko lorategidun arrizko etxe ori dezute —erantzun digu. Eta ain euskaldun andera naigarriari eskerrak eman ondoren, arinkada baten igaro ditugu etxe atariko arrizko eskallerak, eta sarre-rako atean:

—Tirrin, tirrin, tirrin...! —txirriña jo degu.

—O...! Jainkoak diela egun on. Beok altziran? Etorri, etorri aurrera— esanaz, euskaldun neskatxa jatorrak eraman gaitu etxeko liburutegi ikusgarria dun gela zabalera. Eta gure begiak... —jakiña!— liburu-errenkada begiragarrian tinkatu diran orduko:

—Emen eltzerate? "Orixe" emen daukazute zai, goizian-goiz Lazkanotik etorrira— esan digu, bat-batean azaldu zaigun *zirauna* bezin *liraña* eta *sugandilla* bezin *pizkorra* dan Etxekoandre atségiñak.

—Eta Andoni? —galdetu diogu, bere senarra an ez aurkitzean.

—O, Andoni! Ura aspaldi atera zan Bedayo'ra...

—Nola, oñez?

—Bai zera! Bizikletan...!

—Daukan edadeakin, bizikletan? Bejundaiola. Ori sasoia gizonarena!

—Beti olaxe da gure gizona —dio, emazte argiak. Egualdi ona izan ezker... nork bera euki etxean?

—Eta Orixe?

—Itxoin zazute pixkabatean. Gizajoa, ezda oso ongi aurkitzen gaur, eta zerbait bixigarri artzen ari da...

Bitartean, gu ez gaude denbora alperrik galtzeko; ta Ayalde'k bere begi argiak ezarri ditu idazti-gelako orma zabaletan esegirik aurkitzen diran margodun laurkietan, eta izperkariak, idaztietan...

Ontan, txirriki-txarraka, esku batean makilla eta bestean "block"-a dituala, azaldu zaigu, *lapitzik ote degun galdezka*, ain gogo aundiz ikusi ta besarkatu nai degun Orixe elbarria. Baña egin

digun galderaz, zerbait arriturik bezela, eta ille-artze antzean, esan diogu:

—Baña, Orixe: nola liteke au? Euskalerriko idazlerik aundiena, *lumarik ez lapitzik* gabe? Eta besoak uztarturik aurrekaldean daukagun etxeakoandre pizkorrak, zast!, beriala gure galderari erantzun dio, esanaz:

—O...! Ezdakizute au nolakoa dan: “block”-a ere neonek eman biar izan diot, Bedayo'ko txistulariari “ttun-ttun” konpas-notak artu biar dizkala-ta.

Guziok parrez jarri gaitu etxeakoandre jostariaren ateraldiak, eta baketu geranean, galde diogu idazle zabarrari:

—Zer modu, Orixe?

Baña ura izan zan une larria!

—Ai, ai...! —min-antsika erantzun dio gure agurrari oñazedun adiskide errukarriak. Eta min ori zertatik datorkion galdetzean, erantzun digu:

—“*Gota reumática*” edo Axular'ek “ezueri” deitzen dion gaitzital mingarri onek nauka, *eskubiko beso, gerri ta meakezurretik belounetaraño*, miñik. Ezdakit gaur nola iritxi naizen Lazkano'tik onaraño. Beasain'en iru gizonek trenian sartu naute...

—Eta emen, jetxi?

—Jainkoak daki.

Oraindik ere luzaroago izketaldiari jarraitzea, gogoko zitzaigun; baña orduak aurrera... eta Bedayo'runtz abia bear, izketaldiari beste une baten berriz erasotzeko.

Belbileratzeko etxetik irteterakoan, Orixe'gan oartu degu beste alako gauza arrigarri bat: etxe-atariko arrizko eskallerak, *aurreraka* ordez, *atzeraka* jetxi ditu gure gizonak.

—Zergatik ori? —galdetu diogunean, ara zer erantzun digun:

—Leendik dut eskarmentua. Eskailerak aurreraka jeistean, iru alditan zilipurdikatua nazu, muturrez aurrera...

Gerri-makurka, polliki-polliki, nola edo ala belbillean sartu degunean, eta patxaran jarri, abia gera, laisterki, Bedayo'runtz, atzean utziaz egualdi ederrari, amore egiñaz mendiruntz dijoazen gizatalde alaiel, Lete'tar Juan Jose zanaren mendi-abesti zoragarri au gogorutzen zitzaigula:

“Bizkarrian pardela,
eskuan makilla;
aldatzen gora dua
gizatalde pilla,
kaliari utzita
aiziaren billa:

zaletasun eder au
zabaldu dedilla!"

Ontan, zozo, birigarro ta eskillasuen karraskada ots eta karnaba begiragarrien abesti alai-arteon, esker aldetik Altzo eta eskubitik Orendain utzia, igaro degu Ugarte uritxoa; eta Fernando zanaren Amezketari uri ospetsua alde bat utzirik, eten-gabeko zuaitz-itzaitsu errenkada lilluratsua igaro ondorik, iritxi gera, lentxuago Belarmoa deritzaion inguruan Labaien txingalariari aurea artuz, Bedayo-malda-barrenean aurkitzen dan "San Inazio Sagastia" deritzaion leku zoragarria.

Eta gerrimakurka, trikilli-trakala belbilletik jeisterakoan, ala dio gure Orixe'k, Azkarate gainera begiratzuz:

—“Azkarate ta Bedayo, elkar ezin erayo”, esan oi-dute inguru ontako biztanleak.

Alde batetik, egundoko sagasti ikusgarria, eta bestaldetik, erreka garbi ederra. Goruntz begiraturik, Aralar, Murumendi, Balerdi erpiña eta Azkarate mendia. Au lekuaren zoragarria!

Orain elkartu zaigu, izardi-patsetan, Labaien; eta bere traman-kulu nekegarria bertako "San Inazio" jatetxe eder eta ospetsuan utzirik, an dijoakigu, Ayalde lagun arturik, mutil-koskor baten gisa, maldan gora, oñez, Bedayo uri tontorreraño jua nai-dula-ta.

Bitartean, beste biok, jatetxean gelditu gera, eguardiraño, txistularia, onara degu etortzeko-ta. Jatetxeko etxekoandre gazte bizkorrak, berialaxe ongi-etorri anaikorra egiñaz batera, ekarri digu exeri geran mai-garbira, ollo-salda ederra, ta berau gozartzen ari geran bitartean, ara: "ttun-ttun" otsa atarian...

—Emen da, emen da Sarasola txistularia...! —esanaz laisterka bizian ataritik jatetxe barrura sartu da bertako mutil-koskor azkarra.

Txistularia, urtetsu izanagatik, arin eta gartsu bere txistu luze ta ttuntun zarra biziro joaz, garaitu azaldu zaigu aurrekaldera, eta txaloka artu degu ongi merezi bezela.

Bera ikustean, gure Orixe'k bere "EUSKALDUNA" poeman azal-tzen digun Zubieta'ko "Pantxo" txistulari zaar ospetsuaz oroitu gera.

"Danbolin soñua da,
Amezkar'en bera;
Zubieta'ko Pantxo
urteroz errira.
Kabia aizatzen duen
txorien antzera

etxe-barna garbituz
aurrak atarira.”

Eta geiagoko *protocolo*,rik gabe, Orixe'k, *lapitza batuta'tzat* dua-la, lanean jarri du Bedayo'ko txistulari zarra, *musikarik* edo *solfarik* ezagutzen ez duan txistulari ospetsua.

Tan, tan; tan, tan, tan. Bi-iru aldiz baizik ez du jo txistulariak, gure Orixe'k txistulariari bizkarra emanaz bere lana bukatu duala itz abekin adierazi digunean:

—Aski dut; ez dut biar geiago nere *nota*'etan artzeko.

Orra, bereala “planto” egiñik utzi, gutxienez ordubeteko saioa egin bear izango zuala uste izan duan txistulari gogotsua. Erdi-lo-tsaz bezela geldituda gizarajoa, berari entzuteko edo saio au ikus-teko ain zaletasun bereziaz jatetxeratu diran erritarren aurrean; baña Orixe'k etzuañ geiagoren bearrik. Duda zuan “Ingurutxo” de-ritzan dantza-soñuaren *puntu*a ta *konpasa* artu zizkion berialakoan, eta kito. Bere zeregiña, onekin bukatu zan.

Bedayo urira igo diran adiskide biak, ez dira oraindik ageri... eta bigarren aldiz etxeoandre ongilleak, Orixe ain ongi ezdala aur-kitzen oarturik, ollo-salda beroa ekarri digu. Bitartean, ardo zuri ta beltz ederki berdoztu diran baserritarrak, dantzan asi dira, txistu-lariaren eten-gabeko soñuketari amore egiñaz. Onela sortu zaigu, egundoko pesta, “San Inazio” jatetxeko gela zabalean.

Baña etxeoandre bizkorra, ez dago geldi. Besteok berriketan eta dantzan ari geran bitartean, ark jarri du dotore, etxeko gelarik apa-ñenean, bazkaitarako mai-txukuna. Baña alperrik...

Labayen eta Ayalde elkartu zaizkigunean, etxeoandreak uxatu gaitu bazkari mairuntz, baña Orixe egualdi eguzkitsua egonagatik, ozkiritz lotu da, eta bazkari-maia jatetxe-atariko ate-ondoan berrfro jarri bearra izan du etxeoandre langilleak, antxe erdi-eguzkitan bazkaldu dezan idazle gaxoak.

Bazkaria, —zer esanik ez—, ezin obea, ta anaitasuna oraindik areagoa; izketa, bertsoketa eta soñuketa alai-artean berebiziko ondoen bukatu degu dana.

Sarasola txistularia, txistulariz gaiñera, erdi-bertsolaria ere bada; eta bere kolkotiko ainbat bertso eder abestu ondoren, bere osaba zar baten beste bi abek ere jator abestu zizkigun:

“Nik Azpiroz'ko erri noblian,
umore ona det jaso:
Alkate jaunak gauzak kendu-ta
an sartu ninduan preso.
Nere egirik sinistu nai ez,

ta besten gezurak bai, oso...
Bertan itoko ote ninduan
sobra nenguan kezko.

* * *

“Erri onetan pasatu ditut
amaika pena ta lotsa;
Kartzela artan txit alegrere
ez det iduki biotza.
Aldamenetik gonbite gutxi,
ta... begirakun zorrotza:
tankera ontan bizitzen baño
obe kasik eriotza...!”

Gu ontan ari giñan bitartean, gure Ayalde ere ezdago geldi. Margolaria (pintorea) izanik, egoki asko marraskitu ditu Orixe ta Sarasola'ren aurpegi ezberdiñak, aldizkariren batean noizpaik argitaltzeko. asmoaz. Tarteka, baita ere, bere “ROLEIFLEX” argazki-tramankulu ikusgarriarekin atera ditu ainbat argazki eder, beti gogoan izan dezagun gaurko egun oroigarria.

Orixe'ri arratsalde erdian, berriz ere egon-eziña ta naieza sortu zaio, eta:

—Oia artuko nuke oraintxe pozik... Ai etxean ba'nengo! —dio, egon-ezin minkorrari eutsi eziñik; eta unerik atsegiñenean, erriko ta inguruetakoko gazteak txistu-soñuan dantzatzeko urbiltzen asi diran garaian, irten bearra izan degu etxeruntz...

Bitarte au ez degu alperrik galdu nai, ordea; eta bidean bera Orixe'kiko izketaldiari berriro eraso diogu, galdetuz:

—Zenbat euskal-liburu argitara dituzu oraindaño?

—Zuk zure “EUSKERA'REN IRAUPENA ETA EUSKAL-LITERATURA'REN AURRERAPENA” izenaz argiratu dezun liburu-txoan aitatzen dituzun “Santa Kurutz Apaiza”, “Tormesko Itsu-Mutilla”, “Mireio”, “Barne-Muinetan”, “Urte-Guziko Meza-Bezperak”, “Euskaldunak” poema eta orain azkenik argitaratzeko: “AGUSTIN GURENA'REN AITORKIZUNAK”.

—Laister argitalduko?

—Bukaturik izan bear du Itxaropena'k.

—Zenbat orri, gutxi-gora-bera?

—Bosteun inguru...

—Ta bere antz edo tankera?

—Axular'en “Gero” antzekoa; zerbait txikerragoa, sakelean eramateko aukerakoa.

—Saneurria?

—Berrogeita zortzi peseta inguru, uste dut.

—Apaizen artean zaletasun izugarria omen dago zure liburu berri
au irakurtzeko?

—Ala jakin dut; baño prakadunak ere aunitzek irakurriko dute-
lakoan nuzu.

—Orain, besterik eskuartean?


—Bat: "DANTZAK".

—Iztueta'renan antzekoa?

—Ori... gero ikusiko.

Ontan, nai baño len iritxi gera Tolosa'ra; eta bere arrebaren
etxeko oge-goxoan eroso utzi ondoren, agur egin diogu, maiteki,
Jaungoikoa'k oraindik ere urte on askotako osasuna eman daiola
biotz-biotzez opa diogun euskal-;dazle goretsiari.

ZELETA



Mendeurren oargarri bat

Buda Sakiamuni ta bere gaurkotasuna

Bi milla ta bosteun urteak betetzen dira aurtan Buda'ren jaiotzatik. Au dela ta, jai aundiak antolatu dira Asia'ko erresuma guzietan, "Txit Agurgarria"-ren ogei ta bostgarren eunurrena ospatzeko. Ta Europa berean, edonungo aldizkarietan argitaratzen ari dira eten gabe Buda'ri buruzko artikuluak.

Buda'ren gaurkotasuna ez da izen baten oroitzapen utsa, Lege ta Fede baten iraupen eta bizitasuna baizik. Orain bertan, orrenbeste urte igarota, millaka arki ditezke Asia osoan Buda'ren arauak betetzen dituzten pralleak eta monastioak. Zer esan nai du onek? Zer adierazten digu gaurkotasun onek gizonaren ezaguerari buruz? Orra or azaltzen saiatuko naizena.

Buda ta bere jarraileak

Erljio guziak bezela, bereizte ta zatiketa larriak izan ditu budismoak; eta gizonaren izana ezagutzeko egingarria ba-da Buda'ren azterketa, jakin egin bear da aurretik zein den egiazko budismoa, asko bait-~~dira~~ budatar sektak eta alkarren artean oso diferenteak.

"Hinayana"-tarrak bide-dira ortodoxoak, eta auen dotriña sustraizkoa artu bear omen da budismo jatortzat. Izan ere auek dira jarraile ukakorrak, Buda bera izan zan bezelakoak; eta "mahayana"-tarrak dira, jatorrizko bidetik baztertirik, zabaltze ta berrikeriak sartu ta ontzat eman dituztenak.

Buda'ren iru egia nagusiak

Zorroztu egin bear da adimena budismoa ondo ulertzeko. Oso eza-gunak dira budismoak darabilzkien itzak (Karma, Nirvana, Kal-

pa...), bañan nekez aditzen da aiei ditxezkon sustrai benetako ta jatorra.

Jaungoiko'rik ez Buda'renean

Naspil ederra dago oni buruz: ba-dago Jaungoikoa batzuen ustez, ez dago besteenaz. Urrutirago jo bearrik gabe, "Indice" illabetekarian esan da berriki: "Se ha dicho que Buda, en suma, predicó una filosofía atea. Esto no parece cierto." (1956 Uztaillekoan).

"Himayana"n, ots, Buda'ren dotriña jatorrean, ez dago ordea Jaungoikorik: garbi egizta diteke au.

Ta onela izanik, Buda erlijio baten sortzallea ez-baña filosofia baten sortzaillea izan dela esan diteke egiaz. Bera ez zan Jaungoikoa, ez Jaungoikoaren mandatari bat ere, egia batzuen billatzailea baizik. Geroago sortu zan Buda-Jaungoikoa, "mahayana"-tarren artean.

"Karma"ren teoria

Au da gutxien ulertu den Buda'ren irakaspena. Aspaldikoa zan Asia'n "matempsikosis" delakoa siñistea, au da, sorkariz sorkari arimak ibiltzearena. Buda aurretik, ba-zegoen arima bakoitzuaren sinistea: norik berea omen zuen. Obra onak egiten zituena, sorkari bikañago batean jaioko zan il ondoren, eta zatarragoan gaiztoa zana.

Buda'k ordea, etzuen au erakusten, gaur budismoaren sekta batzuk defenditzen ba-dute ere. Buda'ren ustez ez dago arimarik. Ortaz, ez dago metempsikosirik. Alere, trasmigrazio modu bat dago bere filosofian. Nola konpreni diteke ukaera au?

Guk "nortasuna" deritzaguna ez da "ego"-a. Buda'ren ustez ez dago "ni"-rik. Gure buruaz ezagutzen dugun guzia, ots, adimentua, sentazioak, eta abar, igarokorra da, ta ez da gure burua bera, ez da "ego"-a, zeren besteak igarotzen ba-dira, "zerbait" gelditzen den beti, mugikaitz: guk kontzientzia edo arima esango genukena, gutxi gora bera.

Entzun dezaiogun Chao-Kung'i: "Ba-dakit nik, eta ezagutzen dut, ezagugarria dela oraingo nere nortasuna (gorputza, sentazioak, pertzepzioak, adimenaren egimenak eta kontzientzia), eta sortu ta igaro egiten dela; igarokortasun orregatik artzen dut nik miña. Ortaz, nere nortasun ori ez da nere "ego"-a. Beraz, nere nortasunaren asiera ez zan neure "ego"-aren asiera, eta bere azkena ere ez da neurea izango". Azkenez, bada: gure buruaz ezagutzen dugun guzia, gauza bat da; eta "ego"-a, "ni"-a, beste bat."

Ortaz, eta auxe da Buda'ren erakutsia, ez naiz ni gorputzez gor-

putz dabillena, nere egipenak baizik. Auek sortuko dute, ni ildakoan, beste sorkari bat eta nere egiteen arauz izango du etorkizuna.

Sortu egiten gaituzte ezerezatik leen ildakoen obrak; eta auek nolako, gure izatea ta etorkizuna alako. Zenbat-eta gaizkiago guk munduan jokatu, ainbat eta okerrago biziko da gure egite moralak sortu duten izakia (presuna izan diteke, ala ez).

Gure aurrekoen jopu jaiotzen gera, bada (ez gurasoenak, noski), ta lotu egiten gaitu guztiz tokatu zaigun nortasunak.

“Ez dago sortzallerik, ezta sorkaririk ere; gizonak ez dira egiazkoak, “ego” iraukorrik ez dute. Egiteak dira aro egokietan sortu dituztenak”.

Buda'ren dotriñan bada ez dago inñundik arimaren illezkorta-sunik.

Buda Jaregillea

Zertan datza Buda'ren itxaropidea?

Ezjakiña da, bere ustez, gizonaren zoritxarraren iturburua. “Ego”-a ta “nortasuna” bereizten ez dakigu. Bi auek naasiz, berez igarokorra dena arrapatu ta gorde nai dugu, “nortasunaren” joerak eraginda; ta naste onetatik datorkigu larrimiña. Betirako bizi naiean, gudan dagoena irauñ-erazi nai dugu: ona gure okerra. Buda etorri arte ez genekien egia au, eta alperrik saiatzan giñan eziñezko zorion baten billa.

Alabaña, “Karma”-k lotuta jaiotzen gera; ezin aldegin gure etorkizunari.

Une onetan agertzen da Buda'ren arkikundea: “ego”-a ta “nortasuna” bereizten ez dugulako jaiotzen gera katigu. Bere Egia ikasita bertatik uzten gaitu “Karma”-k, eta geure esku biurtzen gera. Gure burua bitan zatitzea lortu ezkeru, ez dago guretzako katerik, eta “Nirvana”-ra pasatzeko prest gaude.

“Nirvana” Jamatua

Orain arte azaldutakoak zearo ulertu ez dituenak gaizki uler dezake Nirvana.

Nirvana ez da zeru bat, edo atsegin-toki bat, edo orrelakorik. Ektasi-modu bat da Nirvana; bañan ez dago onetan Jaungoikoa ikusterik, Jaungoikorik ez dago-ta. Zer “ikusten” da Nirvana'n? Ez Iza-na, ezta Ezdeusa ere. Dena pasatzen da munduan; alere, izakiak sortu ta itzaliagatik ere, ba-dago zerbait nolabait ere dirauena: “Continuum” orixe da Nirvana'n betetsia. (“Betetsi”itz au berau ez da zearo egokia, atsegiña gogoratzen duelako.)

Jaregin egiten da beraz, Nirvana lortzen duena. Ez, alabaña, obe-to, argiago ta alaiago bizitzeko, bere burua itzaltzeko baizik. Atsegiña nabaitzen duenak, esate baterako ez du Nirvana lortu: atsegiña nabaitzen du, pasako zaion atsegiña; ta pasata gero, galdutakoaren larrimiñak astinduko du berriz. Ez, ez; askatasun osoa da Nirvana, ta, leen esan dudanez, itxurakeriak dira "nortasunak" agertzen dizkigun gauzak oro. Aiek lotzen gaituzte, aiek dakarkigute galera.

Jaregite osoa da Nirvana: "lillura guzien etendura, izatearen oñarri guzien ezespena, gurari guzien suntsiera, griña guzien eza, biotzaren pake osoa: auxe da Nirvana" (Buda).

Nirvana ez da eriotzondoko lorkizuna, bizitza onetan bertan atzeman dezakegun gauza baizik. Buda'k bidea ikusi arte etzegoen "Karma"-tik ateratzerik, eta Miña zan ezin-bestezko gure legea. Buda jajo ezkerero, berriz, argituta dago Nirvana'rako bidea: "nortasunak" maite dituen gauza guziak ukatzekoa.

Buda'ren Etika

Gerez, bidea ikusten ez dugulako, munduko gauzei itsasten gatzazkie: gurasoak andrea ta seme-alabak maite ditugu, ta dirua ta atsegiña opa; erosotasun billa gabiltz, adimena lantzen dugu, ta abar. Bañan, igarokorrak dira gauza oiek guziak. Iges egin bear dugu alien-gandik, zeren biotza ta burua itxurakerietatik askatu artean, Nirvana lortzerik ez dugun.

Zer da ortaz bere Morala? Ukatzeko Moral utsa: ez egin au, ez egin ori, ez miñik eman, ez... Onetara biltzen da dena; ez egin ezer biotza, atsegiñez ala miñez, lotu dezakenik.

Buda'ri buruz zalantzan ipiñi ezin ditekena

Ukakorra da budismoa ukakorrik ba-da: etorkizun beltz eta ikaragarria da Buda'tarrarena. Zer eskeintzen die-ta Buda'k beitaizat bere jarrailleei? Nirvana zirrargarria. Ez beste mundurik, ez Jainkoaren laguntzarik, ez illezkortasunik, ez buruaren ala biotzaren atsegiñik. Ukaera osoa alde guzietatik. Zer du ba-da Buda'k mendeetan zear jarrailleak ugari izateko?

Egia esan, indar geiago du gaur "Mahayanismoak" (Jainko du-na, illezkortasunaren defenditzaillea, ta abar) "Hinayana" jatorrak baño. Alere asko dira budatar utsak oraindik, eta erruz arki ditezke bere komentuak Ceylan'en eta beste toki askotan.

Zalantzik gabe, adore ta fede aundi baño aundiagoak izan bear dira budismo utsa onartzeko. Zer itxaropen dute pralle argal eta

errumes aiek? Uko egin guziari, ta besterik ez. Nola izan ditzake jarrailleak? Koxka ez da, nere ustez, txikietakoa, ta sakon azter dedilla merezi du.

“Auto-zigorra”-ren azalpidea eman oi dutenak zerbait azaltzen dute: gogorra ta tristea ba-da bizitza, naita egiten du budatarrak berez dan baño gogorrago ta tristeagoa. Ta onek nolabait kontsolatzen du tristura. Bañan ez dut uste aski denik.


Beste zio bat ikusten dut nik: nolabait bederik, larri-miña maite duela gizonak. Arimaren oñarri bat da, alegia, betikotasun-egarria; baña, guri ulerkaitza irudituagatik ere, larrimiñerako joera bat du-gu erraietan finkatuta, masokismo-gioren bat bezelakoa.

Auxe omen da Dostoiewky'ren ezkutuki nagusia, ta bere novela illezkorra egin duena; auxe askoren melodrama ikusi ta senti-naia, ta eriotzaz itzegiteko joera garbia; auxe da ere Sartre, S. de Beauvoir eta Camus'en arrakasta ta entzutearen zioa; ta onetxek azalduko luke, nere ustez, Buda'ren gaurkotasun bizia.

Gizonak negar egin nai duela jakin zuen Buda'k. Gutxi al da jakintza au?

1956-eko Dagonillak

“TXILLARDEGI”



BEAR-BEARRA

Egonak eta arretaz erabili ezak erdoitzen dizkigu burni-tresnak; orretxek itxuragabetu oi ditu mintzairak ere; orrek berak zarpildu dezaiguke gure euskera orratik.

Ez degu guk, emakumeok beintzat, euskal izkuntzaren oguzpen ta eusteari dagokion ajolarik. Erbestera ta erbeste-izkuntzei begira bizi gera beti. Gaurko leloa auxe: Gure seme alabak ikasi ditzatela bi edo iru izkuntza, zenbat eta geyago obe; ingelesa, pantzera, dotxera ta abar, baña etxekoa, zokoratu. Ludi zear Unibersidadetan, gure izkera zaarra goratu ta aitpazen ari diran bitartean, gu gureaz nutututa. Burubide orretan, arritzekoa al da ba gure ele maitearen tximukatze negargarria?

Esango dezute ortxe ari dirala mintzaera txukuntzen eta orrazten. Aurrerakuntza aundiak egin ditula euskerak. Egia diozute. Edozein barrutitan txairo ibiltzeko gaitasun erreza erakutsi digu oraingo aldian; jakintza-sallean, elerti-bidean, olerkietan...

Oraindik ordea, zerbait geyago ezi bearra ba digu. Baita norainaira nagusiago zabaldu bearra ere. Daramagun gure elea goragoko sotiltasun apañera. Orretarako, sukaldeko txokotik atera ta eraman dezagun tokirik gallurrenetara, ezpain tartean noiz-nai ta nun-nai erabilliaz.

Gizartean dan jolasik gozoena ba da alkar-izketa. Stael, andre cspetsuak zjon, ez zala beretzat iztun egokiakin jardutea bezelakorik. Ez dute izan ere, pantzetarrak gai onetan berdiñik. Are gutxiango ango emakumezkoak. Edozein ezerezko leloari apain-ikurra ta adimen kutsua itsasten dakienak ditugu. Izkera-joera ikasiaren maitaleak. Gure euskerak ere, bear digu orrelako zerbait, gela nagusietara arro arro azaltzeko.

Ez da nor-nai iztun jatorra. Izaerak eman bear dizkio lendabizi, esale onari, adur bereziak. Biotz igi-erraza beintzat. Edozein idazlan bear bezela aztertu ta oguzteko, gogayak nabaitu ta, norberek bai-

lira artzea dagokio esaleari. Gogai itun urratuak diranian, begiai negar-malkoak ugari ixuriazteko. Alayak eta jostariak diranean berriz, entzulearen biotza irri goxora ta bideko dalarik, algarara zirikazteko.

Entzule aurrean zerbait oguztean, baita ere zaitu bear da arpegiaren kiñua ta soñaren eta besoen erabillia. Zorigaitz izugarrien berrria jalkitzean, ez iñolaz irriparreka ta josta antzean oguzi. Biotzaren jokada biziak agertzean, berriz, ez bare ta kemenik gabe irakurri.

Gure eguneroko joera izango degu eredurik onena egin bear ontarako. Adiskidekin jokutzen geranez, jokatu gaitzen norbaitzun aurrean idazlanak irakurtzean. Adiskide bati albista pozgarriaz gingoazkionean, alaj ta kiñu bizikoak izaten gera. Naigaberen baten berrria eramatean. itzetan zur. Baita soñaren igikunetan ere. Begiak lauso ta arpegia illun azaldu bear dira olakoetan. Abots dardakorra, biguna ta igikorra.

Bein eginbear au buruzkatu ezker, jarduna da irakaslerik onena. Jaulki dezadan emen Demostenes'i gertatu zitzalona. Gaztetan igarri nunbait bere buruari izlari izateko doai bereziak zekarkila izaeratik. Asi zan ikas-lanetan. Mingain lotua izaki ordea. Eragozpen aundia da izlari batentzat. Ez zan ala ere, kokildu Demostenes, izlari gerkarra. Ara nolako ekiñaldiak egiten zitun egunero. Mingain ezikaitza oitu nai. Antxintzarrez aboa bete ta, aldapa-gora lasterka erasoaz, garai ayetako izlari aipatuen itzaldi ikasiak oguzten zizkizun. Ez da gero izan iñoiz Demostenes'en pareko izlaririk. Ez izango ere, noski. Ez da nai zeatzak eta jarraikoak lortu ezin lezaken gauzik. Ara noraño garamazkian eguneroko jardunak.

Esale ona izatea baño idazle ona izatea oraindik gaitzago da. Onek egindako idazlanak oguzten ditu ba arrek. Izaeratik dakarzki doaiak idazleak ere. Arau-bidez gero ezta soltzen ditu doai itxuak.

Ara emen idazle ona izateko bear diran gogo-ondasunak. Adimen zorrotza; irudipen bizi ugaria; biotz kilikakorra ta gogayen etorri erreza. Sabel urratu ditzagun banaka doai oyek.

Zertarako bear du idazleak adimen zorrotza? Idaztietan era askotako gayak eta gai sakonak erabilli bear ditulako. Gai jakingarriak gañera. Ez bitez izan erabillaren buruz xeetuak. Jakinmiña zertxobait zirikatzeko laingoak bear dute izan beintzat.

Gaya aukeratu ondoren, ekin ausnartzeari. Tolestatu gogayak, dagokion unean bakoitza ixuritzeko. Asiera, erdia ta azkena bear ditu edozein idazlanek. Ortarako idazten asi baño len, burubarrenean txetu gogayak eta mallatu. Buruari dagozkionak, asieran jaulki, soñarenak, erdian egotzi eta be-adarretakoak azkenean ezarri.

Ez nastu orratik gogayak. Era berdiñeko gauzak alkartu bear dira. Ez beltzak zuriakin, itzalak irrigarriakin ezta sakonak ariñakin. Ez al da orretarako izadia irakaslerik zintzoena? Alkarren antzekoak bata bestearen ondoan ipintzen ditu. Ikusi aldituzute iñoiz, suge gorriak usoakin eta kata-motzak arkumetxoakin jolasten? Ez nastu egundo, alkarrekin zer ikusirik ez duten gauzik. Antziñako idazle-rik aipatuenak ala erakutsi ziguten, beintzat.

Irudipen bizia, berriz, dagokien jantziz gogayak estaltzeko, bear digu idazleak. Mamia ta azala senide bitez idaztietan. Gai ariñak azaltzean irrilari ta jostari. Gai sakonak margoztean berriz, itz zurrak eta zulagarriak. Lan zurbilla irtengo litzaioke bestela. Sukaldeko txulo batetik sagutxoaren irten dala esateko, ez arpegia itunki zimurtu. Orrela jokatzeko bidea degu berriz, gure senideren bat izugarritzko gudaketan il zaigunean. Ez algaraz ta irriparreka. Idazkera asko ditugu ta bakoitzari eman dazaiogun jantzi berezia.

Idazlanak biziki margoztatzeko ondo datozkigunak dira irudiak eta antzak ere. Irakurlearen gogoari zastada atseginkorra damaioke antzirudiak. Ara ba or ere irudipenarentzat lana. Baditeke noizbait idazleak gai legorra ta zekena zabaldu bear izatea. Ala ere, irudipen malatsa badu, garaille irtengo zaigu. Bizitasunez edertuko du idazlana.

Idazle onak gañera biotz kilikagarriaren jabe izan bear digu. Izaerako edertasunak ez dira egoten biotzari kiñuka ta oska. Bere lana, nun-nai edertasunak salatzea da. Izaeran; gizonen joeran, egiñetan eta abar. Edertasun oyeke oartu orduko, idazle jatorraren biotza kilikatu bear dute. Sarritan gizon antzuak itxuskeri utsa ikusi arren, idazleak edertasun paregabeak somatu dezaizkiguke; gero, adimenaren eta irudipenaren bidez, biotzean nabaitutako kilikak, agertuko dizkigu.

Ez bedi ordea, idazlea kokildu gogo-barrenean ikusi ditun edertasunak lumaz azaldu eziñik. Oitu lenengo luma. Jardunaren buruz oituko da. Gainbera juango zaió gero elerti-sallean nagusi. Itz bidezkoenak irtengo zaizkio, bigurritasunik gabe.

Idazle asiberrien jardunetarako eredurik onenak, aurreko idazle aipatuak izan oi dira. Noren orpotik jarrai oraingo idazleak? Gaurko idazle bidera datorkien oztopoa. Zein idazleren antzera luma ezi? Ba-dira orratik, oraingo elerti-barrutian trebe ibilli diran idazleak. Baita ere izan ditezke oyeke zenbaitzun jarraibide. Baña ara. Erria degu gaurkoz eredurik onena. Erriaren arrobotik eraman bear ditugu elerti-sallera, esaerak eta joskera.

Esale ta idazle ikasien bear aundia du gaur Euskalerriak. Ez diogu eman orain arte arazo oni bear-izan zayon ardurarik. Idazle onak eta esale trebeak gaizkatuko digute ba gure izkuntza zaar eta ederra.

M. D. AGIRRE



“Jayotza” baten aurrean

Elizaren urte-bira'ko liturgiak dituen aroetatik samurrena, gañean degu. Gabona. Samurrena, eta, bertatik, umetiyena, umien jaya. Danok, nagusj ta gazte, zaar ta mutiko, nolabait umetu oi-gera egun zoragarri oetan, Jaungoiko Aurraren aurrean, eta bide batez, geren gogo barrungo gogaldi eta nayak umaldutzen zaizkigu: “*Amen dico vobis, nisi conversi fueritis, et efficiámini sicut párvuli, non intrábitis in regnun caelórum.*” (Mat. 18, 1-4). “Benetan diotsuet, umetxo au bezelakoak bigurtzen ez-bazerate, eta onetxen antzera yardun, zeruetako jauterrian etzeratela sartuko.”

Jayotza baten aurrean nago, ni naizen agure zarra, eta iges egin-dako urtien zear begira, nere aurtzaroko egunak datorzkit gogora. Nere illobatxoan lanak dira onek, ;nolako egin-nayakin burutuak! Belen'go portalean, lasto izpiaren gañean, Jesus jayo berria, besotxoak zabalik, izketan bezela; Birjiña Maria, Jose Donea, astoa eta idia, krixtal gorrizko izarra portal buruan; buztinezko artzaya belauluniko, beste artzaya, bildotsa lepoan dakarrena, artzai geiago laisterka, kartoizko gurdibidetik beera. Zumitzezko zubiya osiñaren gañean; estañu-paperezko erreka, eta erreka basterrean errota, eta errotaria atadian (kapelu'dun eta bizardun errotaria). Ostatu eske Jose eta Mariya (portalean ere antxe daude, bañon ez dio ajolik, ume legean gabiltz), Jose eta Mariya, etxe zuri baten aurrean, gauaren erdian, eta etxedunak, txano-gorri-dun agure ankerrak, “ezetzi!” Iriñezko elurra, elurra nunai; izotza, boriko printzezkoa, diz-diz; amona zarra goruetan, agure zarra sutaurrean, mandazaya mandoarekin; aateak igari, izpillu pusKaren gañean; gooldiyoa oparo, kartoizko arkaitzak, ezel abarrak zugaizti; iru Erregeak, zaldizka, an, mendj gañean, urruti. Elurra, izotza, gaberdiko ixiltasun ezkutua, bildurra ta itxaropena. Portalean bakarrik Argia eta Pakea.

Ni naizen agureak, txikitán, nere oraingo illobatxoak dagitena, ber-bera, egin oi-nuen, aintziña, *jayotza* moldatzen atsegiñez zoratuarik asten nintzanean. Gaur, illobaekin batean, ludi inguru guzia ase-

re bizian, kezkaz eta bildurrez nabaitzen degun garayan, inoiz ba-
ñon geiago datorkit gogora ume izateko egarria, "sicut párvuli"
jayotza trakets ontako Portalearen aurrean...

* * *

Bai, bañon... buruak-aizeak eta burruka-oiturak geiegi zabaldu
dira ludian. Umietaraño sartu zaizkigu. Kontu izan. Nere illoba-
txoak, jayotza antolatzeke tresnak gorde oi-dituen kutxako ezkerre-
ko mallan, bestelako tresna eta pigurak ere gordetzen dituzte, eta
Gabonak eta Iru-erregeak igaro ezkerre, ortik sortuko dira Arizo-
na'ko indio pillak, *bakeruak*, gudariak eta txinelak, su-ta-gar, be-
rebiziko triskantzak armaturik. Mutikoak berak, *bakeruen* kapela
eta narruzko gerrikoa jantziko dute, eta bear bada, beretako bakoi-
tzak, aitak edo aitona Santo Tomas'etan erositako pistolakin sar-
tuko dira saltsan.

Au egia da, eta aitortu bearrean gera ez dagola egoki.

DUNIXI



MUNDUZ - MUNDU

PRAGA-TIK

Nere familiako seaska aitaren aldetik Bohemia'ko sarkaldeko mugaldean datza. Baviera'ko mugan zabaltzen den eskualde menditsu cnek "Chodsko" izena du eta ango erritarren eginbearrik nagusiena izan zan aurreko eunkietan gure aintzineko erreinua mugaren beste aldean bizi diren alemandarren oldarretatik begiratzea. Eskualde cnen erdian Klenci izeneko erri eder bat dago; an errota zar batean nere arbasoak 16'garren mendetik aurrera bizi ziran.

* * *

GABON-itz zoragarri onek, zer oroimen gozo gogorazitzen dizkit! Oroitzen naiz nere aurtzaroaren denbora ederraz eta nere gogoan ikusten dut gure sendi guzia mai aundi baten inguruan, Gabon-arbola bat argiekin eta arbola-pean maitasunezko bezuzak guzientzat. Nere belarrietan entzuten ditut oraindik Gabon-kanta alalak, eta nere begi-aurrean agertzen dira Gabon-oitura zarrak eta Belen bat...

Ikusi dtiudan Belen'en artean nere ustez ederrena ta aundiena zan nere aitasabak egiña.

Belen eder onek mai aundi bat betetzen zuen eta anfiteatro baten itxuran, gelaren gaineraño igoten zan. Ezkerrean, gelaren ate-onduan, uri bat arkitzen zan gaztelu ta jauregiekin, dena arresiek in ingurutua. Uriaren atzean menditxo baten gaiñean eliza bat "Barroko" izeneko egikeran eraikia. Uriko enparantzaren erdian, iturri baten ondoan zutik zegoen erromes batek txapelaz ura ateratzen

zuen. Uriko atearen aurrean eskale bat belaunikatzen zan diru-eske. Belen'a ikusten eldu ziranak eskalearen txapelean ardit bat ipintzen oi zuten sar-diru bezela. Nunnai palmondoak eta beste zugatzak agertzen ziran.

Erdialdean Belen'en zati ederrena ikusten zan. Gaztelu zar baten ondakinen barnean ganbela batean, lasto-gaiñean, AURTXO DIBINOA zegoen, oialez bildua, eta aren ondoan Andre Maria ta Josepe Santua baita Belen bakoitzaren abere biak: idia ta astoa. Belen'en gaiñean dilindaka zegoen aingeru bat, bere eskuetan "*Sláva na vysostech Bohu.*" (Aintza Jainkoari gaindegietan) idazkuna zeukana. Azkeneko zatian, eskubian, baso zabal bat edatzen zan, eta barnean mendiko mota guzietako abereak eta eiztariak beren zakurrekin. Belen'en azpian leze aundi batek aurkeztutzen zuen ifernua pekatari ta deabruekin.

Nere aitasabaren urte askotako lan nekegarriaren frutua zan Belen paregabe au. Lan arrigarri bat, ezezik bere antolaketarengatik, bainan bere mekanismoarengatik ere. Area botatzearekin erabiltzen den errota baten bidez igitzen zan dena. Irudi guziak igikorrak ziran.

Belen zar au orain erriko erakustokian arkitzen da.

N. TAUER



VALENCIA-TIK

Lo Rat-Penat, balentziar izkeraren alde

Beti izan oi da jakingarri ta ernagarri erri txikietako izkera dabilkienentzat, eta erabilliaz gañera maite ta bere alde lan dagitenentzat, beren antzean dabiltzan beste erriak berea gorde nairik zer neketan, lan da burruketan diarduten jakitea.

Onelaxe deritzaidalarik, ba-natorkizue emen euzkeraz zerbait esan nairik balentziarren beren izkuntzaren aldeko ekiketaz.

Auek, guk euskeldunok bezela, izkera bat dakuste nagusitzen. Au utz litzake gurea iltzen ikusiko ez ba-genu. Onela izaki ordea. Ikusi-ikusiaz dakuskegunetan joan gindezke ikasiaz -ikasi, esan nai dut, artu-eman zerbait dugun erriei begiratu genezalekegula jakin gogoz, ikasteko asmoz, eta baita ere berritzeko leia biziz gure euzkeraren alde onuragarri ba-deritzaigunean.

Aspaldi ontan ez dabiltz alper balentzieraren goraiptazalleak. Esan dezakegu, baño, esan-bide ontan erren aundirik egin gaberik, Balentzi uri nagusian etxea dun Lo Rat-Penat bazkuna dabillela elburu ontaz gallen. Bera da etxe zabal illunean alako edanontzi olioiz betearen gañean igari dabillen argizaitxo sutua, bere argi suspargarria inguruetakoa areto ta geletara eldu nairik...

Izanak dituzte izan bai bost itzaldi bere izkerari buruz, aspaldi ontan. Balentzieraz eta gazteleraz. Itztunen artean, erbestekoak nabaitu ditut bat baño geiago. Emen, gerta oi ez dana, alako gobernadore, erri agintari, langille zuzendari ta beste edozein agintariek, jantziago ikusten dituzte beren buruak Lo Rat-Penat'en beren izenak emanaz, gañera, bere diruz eta itzez balentziar izkuntzaren alde ba-diardute.

Itzak ez dirala pitzetan gelditzen ta olio-ontziak argia ba-dariola, begiratu batean garbi dakusgu. Izkerari buruz ari galararik, esan bearrean gera ez dirala nolanaikoak beren lanak, zabalkundeak, itzaldiak eta abar izkera zabaldu, landu, txukundu, garbitu ta itz zarrak izkuntzaren soro berrian mamitzeko.

Gai onetzaz, bi ikastaldi sail edo motak eratzen ditu. Mota ba-

tekoak, beintzat, irakasle berriak antolatzeko izan oi dira. Irakasle-gai oiek saiatu ta ikasten joan ditezten ta gerora errietan barratu ditezten ikasitakoa beste ikastaldietan zabaltzeko, eratzen dituzte erti-lan-saiaketa bereziak.

Oraindik-orain idazkiz ere beren eskeintza egiña dute erri aundienetara. Uri guzietan ba-dira noski balentzieraren aldezeak. Oietatik jantzienak eratu bear dituzte Ikastaldi saioak, eta astean bi bider Lo Rat-Penat'ek bidaliko ditu bere sakeletik bi motako irakasle-zuzendariak.

Bost urte ba-dira ere idazkiz edo "korrespondentziz" ikasketa ari dala ematen. Betiro irureunetik gora omen dabilzkie esku artean.

Ba-dakusgu, beraz, kanpoan ere bere argia. Berak argituta, piztuta izan oi dira Balentzi'ko Erreino'ko uri nagusietako Aldundegi ta Udaletxetan zenbait itzaldi ta batzar. Itzaldi ta batzar auetan leiatu dira gogotik balentziar, balear, ta katalandar iru izkeraz itztegi bat antolatzeko. Ta gauza aurrera dijoa. Ama baten senideak diran ezkeroz, batasunaren aldeko aurrerakada makala ez da au. Agintarien laguntza ere izana dute, ta puzketan bederik argitaratzen ari zaizkigu itztegi irukoa, onela txiroen eskuetara eldu al izan dedin.

Bere etxetik kanpo beste alerti-lan sariketak ere antola oi dira aspaldi ontan uri aundienetan. Emen ere, axalean nabari ez arren, muñetan ba-dakuskegu Lo Rat-Penat'en eskua ta zuzendaritza. Geienetan Udaletxeak eratuak izan oi dira ta zenbait gai erabili dituzte, batzuek balentzieraz, batzuek gazteleraz. Lerro auek idazten ari naizelarik, Benikarlo'ko Udaletxeak antolatutako elerti norgeia-gorako deia dut aurrean. Amazaspi aña sari ba-dira, beste ainbeste gaiztzaz; olerki, erriko etorkizun, lurgintza, langintza, itxasgintza ta abar.

Bai olerkari ederrik sortzeko sariketak oietxek. Elerti lanean as-mamen aundikoak ditugu balentziarrak, bañan goi mallan dabil-tzazkigunak Teodoro Llorente ta Artola Tomas jaunak ditugu. Onoko onek Pepe Artola donostiar olerkari ospetsua dakarkit bu-rura. Onek bere aldian egin zuan euzkel izkuntzaren alde; ark oraingo aldian. Bakoitzak, naiz abizen berdiñekoak izan, bere erria dute olerki-gogoetan. Ta odolean dakarkie biak, olerkari sua...

Beraz nabaitzen da alako zaletasuna elertiaren alde, ta liburue-tan gañera nabaitu. Aldi ontan argitara emana dutenetan auetxek dituzu, irakurle, aipatuenak: Kondairari buruz "Historia del Regne de Valencia", Mosen Moscardo'k egiña, ta alerti saillean "Contes del Pla y de la Muntanya" ("Zelai ta mendiko ipuiak") arrera txit ona izana du.

Antzerti lanak ere idatzi dira batzun batzuk. Ospe aundina darrabilkina gaur-gaurkoz "Se cambia moto per sogra" deritzan antzerti irritsua da. Iru illabete oso-osoan, ta egunero-egunero antzertu dute Balentzi'ko uri nagusiko antzoki aundienetakoa beteaz. Ez da ez xoxoaren ziriña. Ber-berak poz damait, ta bidebatez min gure errira begiratuki. Auen izkuntza badabilhela diotsa. Gurea berriz... Ta euzkal antzerkirik onenak Donostia'n ez lukeala aste osoa iraungo gogoratzek ba-dakarzkigu zenbait burutapen.

Azkenik, asierako matatsari azken muturra emanaz aitor dezagun ba-dugula, noski, zer ikasi. Izkuntzen bizitza gogoen bizitza dugu. Ta gure gogoa ez dala il, euzkera maite dugula oraindik, ager dezagun guk ere plazara gogotsu jalgiaz...

Estanislao URRUZOLA

IMFC' EN BEDERATZIGARREN URTEROKO BATZARRA

Aurten Doitxerri'ko (Alemania'ko) Trossingen Württemberg eta Stuttgart uri aundian bildu izan da International Folk Music Council'en (IFMC'en) Bederatzigarren Batzarra. Orrela, Basa Beltzaren egalean edonundiko larogei ta amar batzartide, Erri Abesti ta Dantza ikastun, elkar egon izan dira. Guziek, eguneroko elkar izketa ta itzaldietan aste batez bakoitzak norberaren azterkizunak adierazteko ta beste lagunenak ontzat artu edo inardutzeko, ekin zioten lanari an.

IFMC'en Bederatzigarren Urteroko Batzarrean inarduka ari izan diranak, alegia, nunaiko Laterrietatik, Europa'ko bezain Ameriketako ta Asia urrundiko erri aldetatik etorri dira.

Izen aundiko gizakumien artean norbaitzuek aitatu daitezke, lehengo L. H. Correa de Azevedo, UNESCO'ren Kultura Batzako Ordezkaritza ta Rio de Janeiro'ko Ikastetxe Nagusiko Erri Folklore Irakaslea dalarik. Urrengo, berriz, oraintsuko Pakistan Laterri ta Irlanda'ko (Eire'ko) Gobernuak norberaen Ordezkaritzat igorri zitutenak. Gero, orobat, Europa'ko ta Ipar Ameriketako Ikastol Nagusietan diran Irakasle Jakitunak, Erri Kanta ta Dantza jakingai azterketan diardutenak, Folklore biltzaille ta idazle ta beste zenbait Folklorezale ta oarkari nundik nora beti dabiltzanak. Oriekiko gizakume ta emakumiek, guziek batera artuta, larogei ta amar izan ziran. Geyenak doixtarak eta engelandarrak ziran, eta, urrengo, berriz, beste alderdietako banaka batzuek.

Batzar lagun guziek, zeatz esan daitekena da, gure Euzko Folklo-

re, naiz Kanta, naiz Dantza, nolabait, beintzat, ezagun zutela. Ango batzartidiekin nerau elkar jarri nintzaneko, gizakume gazte doixtar ikastun batek galde zidan, nola oguzten zan "untzia", itz ori euzkel olerkietan irakurri zula-ta. Bereala, beste agure agurgarri doixtar folklorezale ta biltzaille batek, izenez Adolf Konig, berebat, euzko kanta zoragarria dan "argizagi ederra" abestu zidan. Urrengo, beste Berlin'go Doktor Reinhardt'ek galdetu zidan A. Donostia'ren berri, beronekin eskutitez ziardulata. Beste anderaño engelandar piano jotzale batek, berebat, Donostia Abaren musika abestiak ba-zekizkila ta jotzen zitula. Beste emakume beltzantz ele jakitun batek, berebat, gure Dantza askatua dantzatzen ba-zekila, ta abar. Orrenbestez, ba, ez da gutxi, noski, aurrerago esan dudana, gaur Euzko Folklore edonun ospatsu baita.

Aurtengo IFMC'en Urteroko Batzarra Trossingen'en, igan zan uztailaren 25'etik 29'ra, gertatu zan, leenbizi Basa Beltzaren tokialde bereziaren barreneko errixka ortan. Ta, gero, berriz, illaren 31 arte Suabia'ko Stuttgart uri zabalean luzetu zan.

Egunero, goizean eta arratsaldean, elkar aurkitze bi izaten ziran, aurkitze bakoitzean iru ordu batzu itzaldika ta iñarduka egoten giñala. Izlariak ogeitik gora izan ziran, eta iru izkuntzaz, prantzeraz, engeleraz eta doitxeraz itz egin ziteken.

Aurtengo Batzarrerako onenbesteko iru jakingai aurretik autatu ta aginduak izan ziran itzaldietan erabiltzeko, ara:

- 1) Erri Abesti ta Dantzaekiko ziñiskeri ta zeremoniak,
- 2) Soñuen erri egazketak, eta
- 3) Gaur bizirik ari diran Erri Kanta ta Dantza edozelako, ta Folklore orrek batera dakarzkin *irauteko, berpizteko ta egoki jaritzeko* problemak (ebaskunak).

Aurretik autaturiko iru azterkizun orietatik, ba, batzartide bakoitzak oldezko jardungai berezi bat aukeratu zun, norberaren itzaldirako. An jalki ziran itzaldiak, berriz, beste iru sorta oneitan banatu daitezke, gai zabalagotik asi ta estuagora doazela:

A) Leenbiziko sortan jarri daitezke danendako diran erabateko aztergayak. Gutxi izan ziran, ordea, orrelakoaz mintzatu ziranak. Emen *dira* adierazita, berealakoan, berayen jardunaldiak, laburki ba'da ere.

I. Abitza, bere Itzulketa ta Alditaitzea. A. Marinus (Bruxelles)

Ortan bat A. Marinus izan zan. Berorrek Erri Kantaen eta Dantzaen Abitza, Aldakuntzaz eta Egokieraz itz egin zun. Bere eretziz, dena, naiz Abesti izan, naiz Dantza izan, geroago ta laisterrago gal-

tzera omendoa. Oriekiko zerbait geratzen ba'da, berriz, "edulcore" omen da. Ez omen da jatorrizkoaren abitzik. Beraz, oso zailla zaigu orreitan "abitz" egiazkorik ezer argi ta garbi arkitzea. Ori orrela izanda, beste onelako galdekizunei erantzuteko bearra sortzen zaigu, diño Marinus'ek.

Leenbizi, gure lana bear litzake izan, Abitzez edozelan datorrigun Erri Kanta ta Dantza "jatorriz eta egiz" alakotzat artzeko, zelako tasunetan ertsi (definir) bearko litzaken, aztertzea. Ortan, ba, irizpideren bat autatzea gurekiko dala, deritzayot.

Bigarren, egunero begi aurrean ikusten dugu, "Abitz" Kanta ta Dantzak oarkabez suntzituaz doazela. Zer da, berriz, sunztitze jazonkun orren argibidea?

Irugarren, beste Kanta ta Dantza batzuek, alere, irauten dute. Iraute ori, berriz, ez da guztizkoa, erdizkakoa baizik. Beraz, geldigabeko Itzulketaren usin indarpean irauten dute zenbait Kanta ta Dantzaek. Zergaitik, baña, batzuek orrela irauten eta beste batzuek betiko galtzen?

Laugarren errenbait Kanta ta Dantzaek itzulketaren bidez gaurko gizarte bizitz tankerari *egoki* taiutzen zaizkio. *Egoki taiutzeari* zor dizkiote beuren iraukunea. Orrela, berriz, Kanta ta Dantza oriek beuren jayotz aldian izan zituten baño bestelako ondorengoetan irauten dute. Zer litzake, baña, obe: Orien betiko galera? Ala antxiñako Folklore ori, geldigabeko Aldakuntzaren gurpillari lotuta, edo noizko osterantzean datorken aldiari egoki taiuan ezkondata, ola gizaldiz gizaldi irauteko gai biurtzen dala, ez galtzea?

Ez da nire arloa, diño Marinus'ek, orren bestekoen gorapillorik askatzea. Aunitzen arloa bai-da ori. Emengo eskualdetik andikaldeko beste eskualderaño bitartean, noiznaiko aldi batetik beste bateraño koan, orobat, gorabera aundiak aurkitzen dira erdian. Baldintzak ez dira berdiñak, gizaldien nayera, gurari ta egoera askotariko diranez. Baldintz oriek elkar aurkez begiratu ez ezen, ez diogu galderari osotoro erantzungo.

Nire itzaldiaren azkena, ba, diño A. Marinus'ek, onelako bedi: Ez da beste iñor Batzaldi ontan dauden lagun arteko edonor baño ohea arkituko litzakenik, alegia, ebaskun edo problema auxe esku artean erabiltzeko. Bearko ba'litz, baita beste Batzaldi batzuen bidez ere guziok batera lanean gai ontaz, berorren gorapilloa askatzeko alegiñez, itz egin bear genuke. IMC Batzarrak iduki bear dun etengabeko "agenda" edo egiñasmoetan, ondo legoke sendo irarrita ebaskun edo problema auxe. Ori, gañera, baita ebaskuna edo problemaren azken aterakuna erdizka ta aldirakoa bakarrik izango ba'genu ere, ta ez betikoa ta ezpaigabea.

II. *Irrati Zabalkundea Folklore eresaren ondatzalle, biltzaile ta indartzallea.* Wilhelm Kutter. (Ego Alemania'ko (Doitxerriko) Irratia, Stuttgart.)

Wilhelm Kutter (Ego Alemania'ko (Doitxerriko) Irratia, Stuttgart) asi zan, "Irrati Zabalkundea" zer zan adierazten. Itz orren esangura onelakoa da emen, "edozelako mekanikazko birregintza". Orain, ba, askotara gertatu daiteke birregintz ori: soñu irarkiñez, doñuariaz. Musika automataz edo Irrati Zabalkundez. Bide oriek, berriz, edozeiñek erabili aal ditzake, bai bere asmabideak yomuga batera zuzentzen ditun gizon adimen landuak, bai beste erri xeeke gizon ezika-siak, beronek bere jaiegunak ospatzeko bearrean jartzten danean, susmoaren bultzaldiz musikagintzan lan egiten dunean.

Norañoko indarra artu dun mekanikazko birregintza onek Ego aldeko Alemania'n (edo Doitxerrian) berrogeitamar urte azkenetan, bere neurrian esateko, naiko izango da zenbait jazokun azaltzea.

Igazko 19garren eunkada erditik osterantzean, landola- ta industrigintza igikun zurrumbillotsuz ugaritzen asten danean, leen aitaturiko Erri ortan zera ikusten dugu: dantzatzeko sortu izan ziran kanta zaarren esangura ta aurpegia galtzera zoazela. Aldi ortan, gañera, oraindik ez zan musikaren mekanikazko birregintzik agertu. Orrela, berebat, antxiña alabearrez Dantza musikaren eta bere kanta neurtitzen artean sortu zan bateratasuna galtzera zijoan. Orrezkero, kanta bertsuen atsegiñik ez da geyago; kanta eresaren neurriak eta ritmoak bakarrik dakarren atsegiña artzen da dantzaetan. Neurtitza guztiz erdeñatzen da. Esaten dudanaren alde, adibide bat ekarriko dut. Basa Beltzeko auzo batean, ba-dira oraindio neurtitz gabeko dantzak. Baña, dantza orien izenari begiratu ezker, bereala atera daiteke, dantza oriek leenago dantza kantak zirala. Oraingo urtean, berriz, 1956'ean, ezta auzotar bat ere ez da gai, dantza orien ahapaldirik buruz esateko. Alabañan, larogei urteko iru atso aguriek 1937'an neroni erakutsi zizkidaten.

"Irrati Zabalkundea", ba, folklozeale ta erri kanta biltzallendako langallu onarutsua izan daiteke, bere teknika doñuan errezkadak sortarazteko gai dalako. Oraindaño edozeiñ biltzallek antxiñako azterbide ori zan bezela, uste onezko erri kantariei notak idatziz jasotzen zizkiñeten beuren abestiak. Bañan azterbide orrek bere gaitza zerroan berakin. Askotan okerbide izan ziteken. Askotan, ba, erriko kantariak bere ulertarazte berezia izaten du, neurri erabide edo ritmoa aldatzen du, ta bere oguzkera berekoya derabil. Orratio, orrelakorik ezer eziñ zun gaurdaño biltzailleak zeatz ingira (paperera)

idaztez jaso. Dan ori, ba, doñuarak bakarrik zeatz jaso dezake. Irratiaren bidez erri ekanduak edarazten ari dan biltzaillea, noski, bere autogurdiaz lekutaraño sartu daiteke, ta atso aguriei, beroyek dakizkiten leenagoko abestiak, kantatzen dituten bezaiñ zeatz eta banan jaso aal ditzakete. Nerekiko, diño Kutter'ek, erri abesti oriek irartzea, folklorezalearen moral bearkuna da, "Irrati Zabalkundearen" lanean bera ari ba'da, bere bilkuntzik "Irratirako" jaso ez arren ere. Baña, geyenetan, abots batez edo aunitzez Irrati Zabalkunde bidez abesti oriek kantaeraziko dizkie berriz. Gaurko Folklore berpizkunde bide ontan, ba, leenagoko abesti ta dantzak jasotzea bakarrik ez da esku arteko zeregiña, errilan gogoargi orrek iraun dezala ta besterik ez. Ori ez litzake, ba, "jatorrizko abitza", ta beraz, ezta "abitzza" ere. Ori ez ezen, beuren aldiko gogo atsez, gogo argiz, eta egikeraz ere berriz sortaraztea ba-da. Ori da, ba, "abitzza", ta, beraz, "egiazko abitzza".

III. *Etengabeko Folklore'ren eta beñola etenik berriz piztu danaren artean bereizi daitezken estilo joera kidegaitzak.* Dr. Ernst Klusen. (Viersen, Alemania (Doitxerria)

Doktor Ernst Klusen'ek bi eratako Folklore bereizten ditu: bata beñola etenik, gero berriz piztu izan dana; ta bestea, berriz, beñola eten aldirik izan ez duna.

Lenengo: Antxiñako oiturak berriz piztuarazteko, ekiten d'o Klusen'ek, Jakintzaren aldetik izan daitezken zergatiaz gañera, ba-dira beste begiratzeko alde bi ere:

a) Bata, antxiñatasunak beti berakin dakarren "zorabioa". Museo (Erakust etxe) bat iraukitzen dan antzera, antxiñako edozer, gogoangarri dalako, gogoz idukitzen da.

b) Bestea, berriz, antxiñako oiturak oraingoekin ezkontzeko nayera.

Bigarrenez: Folklore bi oriek, etena ta etengabea, berez garbi bereizten ez ba'dira ere, ez dira beuren egiazko ta barneko asmo muiñetan bat egin bear.

Iruugarrenez: Folklore bi oriek dituten elkar kidetasunak, Folklore etengabeari begira jarri ezker, onenbestekoak dira. (Gero kidegabetasunaz itz egingo dugu):

a) Folklore etengabeak ez du yomugatzat bere teknika osoagotzerik, edo Teknika'ren Osokuntzarik.

Gañera, apalagoa da bere bideetan, beste "berriz piztua" baño.

Gañera, berez ez du jotzen atal askoitz eukitzera, berebateko saillean geratzen baizik.

Gañera, bere musika gaiak 18garren eunkadako azken alditik

eta 19garrenaren aurren alditik aututa dakarzki, baña leenagokoaz eta gerokoaz naasirik.

b) Beste Folklore "berriz piztuak", ostera, Teknika'ren osokuntza billatzen du bere yomugatzat.

Gañera, sail askoitzak agertzen ditu bere esakunetan, berebatekoan geratzeke.

Gañera, beste erromantiko ta gaurko gaiak ere jaso ta naasten ditu.

Laugarrenez: Ze bereizkunak banatu daitezke Abitz "egonaren" eta Folklore "bizidanaren" estiloetan.

a) Eres Folklore'ren Abitz "egona" *bakarrik* aurrean jartzen ba'da, "egona edo iraukia" dan neurrian, ez du aurrerakuntzik egiteko aalik.

Olakoa beingoan "gertatua" da, nun eta nolz batez ertsi daitekena.

Olakoak "antzerki" antza du, geyagoko gabe. Orrenbestez, ostera, gaurko giza jardutzeaz ez du inolako loturarik.

Olakoak beregan bakarrik naiko du zertarakoa.

Olakoa ikusjende "geldoarentzat" bakarrik agertarazten da.

b) Orratiño, beste Folklore "berriz piztua" beti bere aurrerakuntzaren billa dabil. Leendaniko oitura geroagoko gai ta adabaki berriaz aberatsago biurtzen da egunero, ta betiereko aldaketa biziari lotuta ari da.

Beste onelakoa "bizi" diran oituraekin elkartzen da, ta aldi ba-koitzeko gizaldiakin batera ari da. Beste oitura "bizi" bat geyago da bera.

Beste onelakoa ez da "antzerki" ikusjendearendako, baita ikustari guzien elkar lana ere bear du-eta.

Beste onelakoari, azkenez, ez-datorchio bere baliorik, gizonak gogonbearrez daritenetik edota giza estetikatik, gizarte beraren errotik baizik.

Bosgarren: Eres Folklore'ren Abitzak dun zertarakoa.

Oñarritzat jarri dezagun, ba, leenbizi, ekiñaleko Abitz bizidana beste Museo egona, iraukitzeko bakarrik dagona, baño garrantzi aundiagokoa dala. Alabañan, orrek ezdu nai esan, beste bigarren onek ez dula leenak bezañeko izanoña.

Erri ekanduak etxeko zurontziak bezela dira: batzuek ez dira ezertarako, bañan etxe edergallu onak dira, ta antxiñakoen gorantzia ernarazteko egokiro datorz. Beste batzuek, ostera, adibidez maia, isuskia, jartokia, ta abar, orretaz gañera artarakoxeak dira. Ala dira, ba, gaurdaño iraun duten oiturak, beuren esangurarik guganaño galdu ez-bai dute.

Folklore Jakintza'k begi aurrean iduki bear dun itua da, erri oituraetan alegiñez lanean diardutenen elkartasuna alde batera utzi

gabe, argibidezko leen oñarriak jartzea, ortik datorken berpizkundea egundano eten ez dediñ.

IV Europa'ko Folklore'ren oraingo egoera. Dr. Fritz Bose. (Ints. fur Musikforschung, Berlin).

Doktor Bose'k berekiko diñonez, uri aundiak eraikitzen asi zioten ezkeroz, egiazko Eres Folklore'a gutxituaz etorri dala. Orratio, eldu zan Folklore Jakintzaren saiaketa ta orrezkeroz, Erri musikari eusten indarrez alegindu da. Olako batuketa ta ardurak itu bi izan ditu begi aurrean: batetik Folklore'ren jakingai ta problemak (ebasgunak) argitu ez ezen, bestetik beñola etendako erri musika berriz piztuten sayatu zan. Orrek, ordea, ez zun erri musikaren pizkunde berririk ekarri. Geroago irarkoletatik jayo ziran bilkuntzak, Erri kantak, Dantzak, Ipuia, eta abar, ta olakoen sortak eskuz esku edatu ziranean, bereala edozelako gizarte mallak, artaraño erri erro ontatik urrundurik ari izan ziran arren, Folklore lanetan kezka jar-duten asi ziran.

Gaur Alemania'n (Doitxerrian), beintzat, eta beste zenbait Late-rrietan ari dan Folklore, igan zan 19'garren eunkadako lehen aurrean bildu ziran sortaetatik dator jatorriz, aldi artan oriek ugari agertu ziran-eta. Aberats eta beste ukandunen eskuetaraño sorta oriek eldu ziranean, sendietan, ikastoletan irakasten eta abes batzetan ekin zioten. Batez ere, "Wandervogel bewegung" edo "Txoribidarien Igiku nak" asko egin zun Folklore pizkundearen alde. Ori, baña, oraindik azaletiko Folklore pizkundea izan zan. Egiazko ta errayetatiko dan Folklore'renik ez zan garai artan zenitaraño eldu, bertan Erri Ertia falta zalako.

Nun, ba, izango da Erri Ertia ezagutzeko aztarrena? Gurekiko, beintzat egiazko Erri Folklore aozko Abitza bizi dan edotokian garatua da, ez biltzailiek bat egindako sortaetan. Folklore garak gorantz aizea urratu du, kantatzeko ta musika gogoa oraindio gizarte batean bere eguneroko bizi jardukizunetan ernetzen dan edonun-goan. Ta batez ere, geyenen aurki da, Musika ta kanta gogoa erriaren oituraetan aiñ sakonki ernemindua da izan, biyok ilburuko bat egiten bai-duten edonun. Irugarren baldintz ori, berriz, Europa'ko ta Alemania'ko (Doitxerriko) teknika aurerrakuntzik oraindik sartu ez dan zoko bazter batzuetan gertatzen da, bertan Industrigintza ta uri aundien jabegoa oien aurka jarri ez diralako. Alabaña, baita orrelako zoko bazterretan ere Erri ogasun edo Folklore'ren beera-kundea asi dala ikusten dugu. Orrezkeroz, ba, Erri ilburuko ori sortaetan biltzen asi gaitezten, berorren udazkenean sartu geralakoan gaude-ta. Bestela, alegia, Folklore ori ez dala aurrerantzean galduko,

ondo ziurki ba'geunde ez genuke ezta biltzeko larritasunik ere izango.

Beraz, Erri abestien eta Dantzaen bilketan aritzea bakarrik, Abitzakin bear ez bezela oldarka jartzea da, ori berez eta oarkabez datorren oitura bat goganbearrez artzea da-eta. Ta, ori gañera, kanta edo dantza bat bere jatorrizko oitura sortatik banakatzea ta ateratzea da, ta berezko egoeratik bapateko birregintzara ekartzea.

Orrenbeste esanda, ondoren egin daiteken galdera onenbesteko da: ba aal da, gero, eskubiderik Folklore biltzeko ta Erri oitura oriek billakatzen jarduteko? Jarduketa orrek, gero, ez aal du Folklore zaindu baño geyago galeraziko?

Gaur, diño Fritz Bose'k erantzuki, Kultura edozelako leku izkutuetañaño igotzen dan ezkerero, Irrati ta Urrutikuskiñ eta turista ibiltzaliek eta landola ekintzak zoko barreneko erritxo ta auzoetañaño eltzen diran ezkerero, oraudio bizi dan Abitza zatika moteltzen eta indargetzen dun ezkerero, folklozezalien ardura egokiena zera da, azkenengo erri oituraen aztarrenak billakatu, bildu ta banan aztertzea. Gaurko folklore'ren egoera orrenbestekoa izanik, alabea'rreko gertakuna da, lehenagoko Abitz bizia geroko idazlan motel biurtzea. Orregatik, ba, oldezko ta oarkabezko oitura sasi oituran aldatzen da. Bañan aldaketa ori gaurko ondorengo gaitzak dakarrena da, ta orren erru erantzuerarik ez dute erri ertilan biltzailliek. Orien arduragatik izango ez ba'litz, ba, Folklore dena gaitzeko zori-ra bideratuta legoke, ta tamelez, Europa'ko zenbait alderdietan guttiz itxungi da.

V *Brasil'ko Erri musikak J., S. Bach'en estiloakin daukan uzardura, Villa-Lobos'en irizpidez. Ikastexe Nagusiko Irakasle Antoine E. Cherbuliez (Zurich, Schweiz).*

Zurich'eko Irakasle Cherbuliez Jauna zera esaten asten da, zer ulertarazten den "Erri musikaz edota Musika Folklore'az" jarduten dugunean, gogai orien erstura askotara artzen oi dalako. Askotara ez ezen, baita batzuetan elkar aitzu ere. Orratio, gogai orren erstura gayenetan onelakotzat zuzenki erabilli daiteke:

Eres Folklore, ba, Musika landu gabeko abesti sorta da, Erti lanak ukitu gabea, laguntzaz edo laguntza gabe sortua, monodiko, melodi bateko edo aunitzeko izan daitekela. Dan orrek, aozko, izen gabeko, gizarte bati loturiko, ta onelako ta alako abendarena izanik, Abitzeko musika taldea egiten du. Musika Folklore Jakintzak bere azterketan onenbesteko galdera erabiltzen du, eresi oriek jayotaldian iduki izan zituten baldintzak, ustari (teori) oñarriak, giza sikologiaren erro biziak, giza edertiaren eta gizartearenak. Baita aztertzen ditu bilkuntz orren lehen gaikiak, eresi oriek muiñez eta aza-

lez artzen dituten aldakizunak, erriz erri egazkatzen diran batera gizaki bakoitzaren eta bestelako lagun artearen berezitasunak ematen dizkietenak. Ikasbatzak, adb., IFMC'ek osterantzean erabakiak artzeko, leenbizi Jakintzak egiten dun billaketan begiratzen dio, orrela datortzen aterakizunak gogoz onartzen ditularik. Orretaz gañera baita arduratzen da beste Folklore problemagatik ere, ara, berorrek iraun dezan, berpiztu dediñ, eta beste bizitz edo erti yomugaren bat jadesteko bide egokia izan dediñ.

Edonungo Musika Kulturetan edo erri eresietan, diño Cherbuliez Jaunak, erabateko jazokun bat oarkarazi daitekena da, folklo-re eresietan eta eresi landuetan aurkitzen dan elkar uztardura, ikastea. Eresi landua, jakintsua, berriz, izan daiteke, naiz erriko errayetatik sorturiko abesti xee baten armonigintza, naiz eres sinfoni, drama, edo liturgigintza. Beti, baña, leengaya folkloretikoa izan ez arren, nolabait bere gogoargizko indarrez eta ekitez sortarazia sarritan izan oi da. Ta orrelako gogoargizko senidetasuna, ostera, eres estilo biyotan jatorriz jartzen ba'da onelako galdera alabarrez begi aurrera datorrigu: norañoiko elkar uztardura aurki daiteke ezerezetik sortua izan diran Ereslan bi orien estiloan edo jardukeran. Nola elkartu daitezke, esatez, atalez eta idaztez aiiñ bestelako diran asmaketa bi oriek?

Orrezkero, ba, Brasil'go eresgille Heitor Villa-Lobos'en gertakuna aztertu dezagun. (1888'an jayoa). Ereslari orren nordasuna Ego Ameriketean goenetariko da, ta bere musikalanen atsa berekoi ta indartsua. Gertakun ontan, ba, eresbide bi orien bakuntzak aurpegi bi derakuski. Alde batetik onenbeste gura du Villa-Lobos'ek, zera, Brasil'go Folklorea berorren izakera indiar, afirka-amerikar eta europarrakin J. S. Bach'en aurkapunto idazkerakin elkar estu lotzea. Orrela, berriz, lenengoz dirudinez, ereslan bi orien arteko jardukeraren elkar eziñdasuna zorrotzera da, geografi- (lutelezti-), abendagrafi-, ta edesti-(Istori-) argibideari begira jarrita. Beste aldetik, berriz, diño berak, bakuntza onen alde jardutean, oñarriz beti Folklore'ren muga barruan ari dala ta erri musika landugabeari ez diola jeregiten beñola. Villa-Lobos'en ustez, J. S. Bach'ek nunai erabatez egoki jarri daiteken polifoni idazkeraren mamia (zerkuna) emäten du, ta beraz, Bach erri Folklore edozelakoaren erabateko eredu da, "lurbirako" Folklore guzien ikur nagusiena. Orrela diarduala, onela galdetzen du: Zergatik, ba, ez da izango loturarik, olako ta olako erri baten Folklore'ren eta J. S. Bach'ek obenda guzien eredutzat dakarren beste Folkloreren artean? Leipzig'iko kantaria, beraz, erri guzien kantari litzake, alegia.

Oraiiñ, berriz, azkenez, diño Cherbuliez jaunak, ez dut beste zer esanik. Paris'ko UNESCO'ren Eresi lanetan buru dan Heitor

Correa de Azevedo Jaunari eskerrak egitea baizik. Berorren laguntzaz jakingai ontan Irakaslea'ren (Villa-Lobos'en) gogai muiña nik adierazi aal izan dut. Orixe, berebat, diñot, beste idazlan pillo "Bachianas brasileiras" orretaz, onenbesteko lanaldirako asmoen azitegi ugariena ori izan zait-eta.

(Jarraitzeko)

BARANDIARAN'dar Salvador S. J.



Aita Jose Antonio Donostia

(Oroitzatxo batzuek)

Aita Donosti il zaigu. Illetatik etortzea egin degu.

Nork esan bear zigun! EGAN'en lenagoko zenbakian oraindik, aren lan bikain bat argitaltzen genduan. Nork esan bear zigun, urrengo zenbakian aren il-berri samiña eman bear genduanik?

Lan ura argitalduta bereala jakin genduan, bai, gaxo zegona. Gaxotasun sendagaitza gañera. Eta gogoanbear txarrak jo ginduan bereala. Eta guri bururatu bezela gertatu da. Aste batzuen ondoren gorputz zan gure Aita maitagarria.

* * *

Al-da, gure artean, A. Donosti nor zan esan bearrik? Itz bitan esango genduke guk: "Oso-osorik musikari emandako bizitza ain-gerutar bat". Orixe zan. Bere Aita San Franzisko bezela musikari, gure musikari, Euskalerriko ta Euskalerrriaren musikari emandako bizitza. Musikari, ta musikaren ain ondoan dabillen Euskalerrriko Folkloreari.

Urteak dira aren lenengo berriak izan genituala. Ondotxo oroitzen gera. Lendik ere zer-edozer aditze gendualarik, or datorkigu berri aien lenengo lertzea. Bere *Preludios Vascos* diralakoekin egin zuan guretzat A. Donosti'k, musikalari aundien arteko bere sarrera. Uraxe izan zan aren lenengo azaltzea, lenen-Epiphania. Artean an zebiltzen Paris'en Guridi bat eta Usandizaga bat eta. Eta aiek beren arte lirikoan sarturik zebiltzalarik, or datorkigu gure kaputxino txikia beste musika-era batekin: piano-musika txukun ta txairu-txairuarekin.

Nungo pianotan etziran jo orduan A. Donosti'ren *Preludio* zira-

lakoak? Aietxek izan ziran aren musiko-bizitzaren "preludio" egiazko. Sarrera ezagun. Lehen-saio.

* * *

Andik laister izan ziran Bilbao'ko Itzaldi sonatuak. *La Música popular vasca*, gai; ots "Euskalerriko musika errikoia"... Ura izan zan benetako lertzea ta eztanda egitea! Bilbao guztia zoraturik gelditu zan Kaputxino bixi bixkor aren itzaldi txoragarriekin. Berak itz, berak jo. Guztietarako gai. Gai alai. Aingeru. Aingeru.

Bilbaotarrak ondo "portatu" ziran, musika zerutar aren ekartzallearekin. Egundo egin dan argitaltzerik ederrena egin zioten Itzaldi bitxi aiei. Edergarridun liburu bikaña: formato ederra, paper aberatsa, Kabanas Oteiza'ren edergarri ugari, amar-amabi bat musika-ejemplo... Argitalte apaña benetan... bilbaotarki egiña. Oraindik ere Filarmonikako ormak ez dauzkate azturik, A. Donosti'ri orduan jo zitzaizkion txaloak, *de mis soledades vengo; a mis soledades voy* esanaz bere bigarren itzaldia bukatu zuanean. Lekarotz'tik zetorren, eta Lekarotz'a biurtu zan. Antxe bere erlauntza ezkutu artan lan ta lan, euskal-abestien ezti gozoa berriz ere egostera. Erlauntza artatik, erle langille-antzo, lorerik lore bezela, erririk erri ibiltzera zijoan.

Andik laister izan zan A. Donosti'ren gure gogoaneko urrengo berria. Maxiatu-antza. Eibar'ko Itzaldia. Orduan ere berak itz, eta... berak dirigitu Eibarko Banda, Eibarko Plaza Nagusian, Bandak bere Preludioren batzuek jo bear zitualata.. Gogoan degu orduko zenbait espiritu esturen maxioa: "Etzegola ondo, alegia, A. Kaputxino bat, nun? ta Eibar'ko Plaza batean, Eibar'ko Bandaren aurrean, batuta airean, musiko republicano aiek "dirigitzen". Etzegola ondo. Etzekitela nola Lekaroz'ko Aita Nagusiak uzten zioten olako gelegikeririk **praile** gazte arri". Etzan, artean, oraingo konturik. Alare etzan ezer okerrik gertatu. Bakar-bakarrik bai eibartar xelebrenen batek ateraldi xelebre bat izan zuala, A. Donosti, bere batuta airean, kioskoan plantaturik ikusi zuanean: "Bijar tenpora ona; prailatxuak makillatxua gora altzau jok".

* * *

Bilbao'ko Filarmonikan utzitako ao-gozoa etzan alperrik izan. Bizkaï'ko Aldundiak bereala asmo-artu zuan, euskal-musika errikoia biltzeko zer-edo-zer egin bear zala. Batzaldi bat eratu zan ortarako. Sari eder bat, musika errikoizko saillik ederrena Batzaldira ekartzan zuanarentzat.

An zebillen, artean, baita gure Azkue aundia ere. Berak ere, aspalditxo baña, eman izan bait-zuan bere itzaldi ederra Bilbao'n, A. Donosti'ren gai berari buruz. Gizaldiaren sarreran izan zan. Eta arrezkero, bere euskerazko iztegi-bilketak-eta egiten ziardualarik, bide batez euskal-folklore guztia biltzen ziarduan ixil-ixillik eta eten gabe Lekeitio'ko seme langille porrokatuak. Euskalerrri guztian zear. A. Donosti ere berdin zebillen bere aldetik. Etzan izango, beraz, Batzaldia gizon bakarrekoa. Bi gutxienez izango ziran sarizurrian. Eta ola obeto. Eta gertatu ere, alaxe gertatu zan. Epea bete zanean, or azaldu ziran bi bilduma, zein baño zein, ederrak biok. Azkue aundiarena bata; Donosti bixkorrarena bestea. Zein baño zein. Azkue'rena aundiago: "milla ta bat" melodi —berak zionez— Euskalerrri guzitik; A. Donosti'rena txukunagoa, piñagoa, txikiagoa, Napparoa, Laburdi ta Zuberoako melodi zamurrez batez ere.

Uraxe izan zan guretzat eta Euskalerrri guztiarentzat A. Donosti'ren agerkunde nagusia.

* * *

Zer geiago? Artean, ikustez ez genduan ezagutzen guk. Andik laister izan zan aurpegiz ezagutu genduana. "Euskal-esnaleak" Oyarzun'en eraturtako jai gogoangarri batzuetan izan zan. Etzan etorri itz egitera, musika-jai eratzera baizik; eta antxen entzun nion nik, erri guztiaren aurrean, sekulan geroztik aztuko etzaidan aren Pre-ludioetako bat: "Eztai-taldea". Gogoangarria benetan. Pinpiri egalaria, egalduna. Aren beatz-artetik atera oi zan bezela batez ere. Ez bait-diteke esan, nolako grazi apaña zuan musika menditar arek bere egillearen sorgin-beatz-artean. Beste gauza geiago ere jo zituan. Bañan uraxe, batik-bat, txoragarri.

A. Donosti'ren beste Epiphani bat ere gogoan degu: Oñati'ko Eusko-ikaskuntza'ren I Batzar Nagusikoa. Ez degu, egiazki, sekulan ere entzun, A. Donosti'k, Erakusle-antzera, Unibertsidade oñatiar artako Katedra batean emandako Ikasgai eder ta argi ta bete-betea bezelakorik. Euskal-abestia zuan gai, euskal-abestiaren teknika; eta arri-garria izan zan aren maisutasun ta jakinduria, euskal-kantaren asiera, osakera, bukaera eta tonu ta moduaren analisis eder aiek egitean, gure inguruko beste errietako kantaen aldean alegia, iparraldeko ta egoaldeko erri-abestien aldean. Egoaldekoa ez baño iparraldekoa obeto zirudiala gure erri-abestiak erakutsi zigun argi-argi estadistika oparo baten bitartez. Eztaukagu aazturik alako Ikasgai eder-ederra...

* * *

Oyartzun'ko ezaguera ezkeru, gure adiskidetasuna ben-benetakoa izan zan beti. Ala ere, elkar ikusi gabeko urte asko igaro ziran gero. Gerrateko urteak. Gero Lasarte'n ikusten nuan urteoro. Udazkenean beti. Paris'etik edo Londres'etik onuntzakoan. Eta beti ere ba'zirudian, laister egatu-bearreko enaratxo. Bartzelona'ra joan bear izaten zuan. An zuan negurako bere lantegi. Azken-aldera, ordea, be-rriz ere izan zuan Lekarotz'era bildu ahal.

Udazken aietako batean izan zan bere *Requiem*'go Meza jo izan zidana. Bi-biok geunden. (Orduan etzitzaidan buruan pasa ere, ausaz Meza uraxe bere illetakoan berari lenengo kanta bear zitzaionik). Gerotxuago izan zan Meza oso-osorik Tolosa'ko Elizan entzutea iritxi nuana, Eskolania Gorritik kontzierto-orde ederkitxo kantatua. Beste Eresi mistiko bat ere kantatu ziguten... Eliza ez baño zerbait geiago ere ba'zan ura. Zerua zerua berbera zirudian Tolosa'ko Eliza aundi zabalak. Iñor gutxi geunden barruan. Are ta barrukoiaigo, kutunago zeritzaizkigun armoni zerutar aiek guri. Etzan ura armoni-iturri; armoni-eudi gozo-gozo balzik. Meza, melodi gergoritarrean kalkatua. Bañan gergoritar melodiak musiko zerutar arri gogorazten zizkion ta lerrerazten zizkion armoni-bolada guztiez ornitua. Zeru-zerutik buru-gañera darion eudi gozoa...

Perossi'ren *Requiem*'go Mezaz Euskalerrri guztia ok-egiña ta ase-betea —supersaturatua zion berak— zegola, ta euskal-eliz-koruai beste zerbait eskuratzegatik eta eskiñi-bearrez asi omen-zan bera lan artan. Perossi'ri —musiko jakintsua arren— sobera teatro usai arkitzen bait-zion gañera. Berak, gergoritar Meza kutunaren mendean elizakoiagoko beste bat egin nai zuan... Aukeran zail xamarra erten ez balitzaio... gure eliz-koruetan. Perossi'rena bezela edonoiz abesteko zail xamarra alegia...

* * *

Guk, lenengoz entzutean —Lasarte'ko pianoan entzutean— ez genduan asko olako ametsik egin, etzitzagun olakorik gogoratu; bañan aizkenik, bere illetakoan kanta da lenengo aldiz alako musika zerutarra. Egillearen beraren illetakoan. Lekarotz'en... Elizondo'ko Erasoren musika-talde bikaña kantari... Konpas zerutar aiek entzutean, beste armoni ederragoko batzuek entzuten egongo zala ezik une artan egille zoriontsua, zeru-zeruan, aingeru-artean.

M. L.

Arantzazu'ko Batzarrak

Iritzi ta aburu

Arantzazu'ko Eliza berriaren jaiak aurten dirala-ta, Euskaltzaindiak Agor-il onetan ikastaldi-batzar batzuek eratu nai izan ditu Gipuzkoa-ren Zaindari dan Amaren babesean. Antxe, Arantzazu'ko bakardi paketsu-paketsuan; erri aundietako zarata ta ixkamilletatik urruti; gure Erriaren Zaindari zerutar dan Amaren beroan; ainbeste ta ainbeste lan Euskeraren alde egiten duten AA. Prantziskotar aien etxean.

Antxe joan zaizkigu iru egun, senti gabe, erleak erlauntzean bezela lan ta lan, bakoitzak bere iritzia besterenekin kontrastatzen, berdinkatzen batez ere. Guztiok su batean irazekirik, Euskeraganako maitetasunik beroenean irazekirik.

Bakoitza geren gisa, geren kasa, geren aldetik diardugu lanean aspalditxo ontan euskaltzaleok. Bakoitza geren aldetik. Eta ola-ola bakoitza geren iritziari loturik bizi gera.

Guztiok iturri bakar batetik, maitetasun eder batetik sortuak diralarik, bakartasunean lan egiñez, gure iritziak "beren-gisakoegi" biurtu oi dira askotan. Maitetasun bat-berak, ostikada berezia, *reactio* berezia du bakoitzagan.

Ala bear zuan. Eta ola azaldu da Arantzazu'ko Batzarretan. Banañ olako batzarrak ba'dute gaxotasun ortarako sendagarri berezi bat. Bakoitzak bere iritzia besterenekin kontrastatzeko egokitasun eder bat dira. Arantzazu'n (nik uste) orixe izan da, aurten lortu degun gauza on bat, onenetan bat. Geuronak besteri entzunerazi-ta lasatu, ta besterenak entzun eta geuronakin berdinkatu-ta biotza zabaldu, guztion iritziak ein batera etorri ote-litezken, guztiok iturri beretik sortuak diranez.

Lenengo batzarretan iritziak askotaz ere gaziago ziran alkarren-

tzat. Ba'zirudñan elkar-ezin-artuak zirana. Bañan, azkeneko egunean batez ere, ondotxo azaldu zan noraño gozatu ziran asierako bakoitzaren gazitasunak. Asarrerik ez du izan iñork iñorentzat. Ori ez. Biotzak beti ere alkarrentzat zabal egon dira. Gauzak berak ziran alako ertzlatzdunak aldiz-aldiz. Ertz-latz.

* * *

Arlo bi zituan gure egin-bearrak: aztertze-arloa (estudio-arloa) ta ekintza-arloa (praxis-arloa).

Lenengo arloan bi edo iru lan irakurri ziran asiera-asieran, mallarik goienekoak, zenbait erri-aldetako euskera bereziera buruz. Ez al zan irakurri lenengoa, bereala altxa zan norbait, galdera bat egiñaz: Ez ote-litzaken obe, alegia, erri bakoitzeko euskerari-buruzko monographiak alde batera utzi-ta, "Euskera bakar bat" eratzeko, sortzeko, indartzeko lanari eskuak lotzea. Ori zionarentzat, Euskeraren *batasuna* da gaurko Euskeraren bearrik estuena, larriena... eta beste problema guztiak utsak dira edo utsaren urrengoak, denbora alperrik galtzea... Errietako euskerak utzi egin bear dira alde batera, eta guztiok Euskera bakar batera jo.

Orra or iritzi bat (an entzun genituan iritzietan bat). Iritzi leiala. Bañan erdizkakoa. Iritzi orrek bear zuan (eta arkitu zuan) beste iritzi batzuen ukalondo-ukitze apur bat. Iritzi ori zuana, sobera ere, bere baitan gauza bakar bati begira egon da aspaldi ontan (*homo unius libri*). Orixe izan da aspaldi ontan aren leloa. *Batasuna*, *batasuna*. Ortan egin bear da lana. *Caetera tolle*.

Benetan, ona da *batasuna*. Eta gaur obe gendukean guztiok, Euskera bakar bat izan bagendu. Bizkorrago zitekean. Bañan, gure Jaungoikoak ala nairik, urte ta gizaldi askoren buruan era askotako egin zaigu gure Euskera zaharra. Eta gaur guztiok *batasunera* jo bear badegu ere, orrek ez du esan nai, Euskerak dituan berezitasunak "ikasi ta jakin" bear ez ditugunik. Poliki-poliki *batasunera* goazelarik ere, gutako batzuren batzuek erri-aldeetako euskerak nolakoak izan diran aztertzen jardutea, ez da kaltegarri *batasunerako*. Gure Jaungoikoak egindako oro, ikasgarri izan bear du guretzat. Eltxoak zer diran jakiteak, ez dio kalterik egiten, elefanteak zer diran ikasi bear duanari.

Au ere iritzi bat da. Eta au ere entzun bear zan. Eta entzun zan. Lenengo iritzia zuanari jarraitu bagenio, gure Arantzazu'ko Egitarauaren erdia, Programaren erdia, betetzeke utzi bearko genduan. Batzarren eratzalleen aurkako *voto de censura* zitekean bete-betean iritzi ori.

* * *

Ba'zan beste iritzirik ere. Lengoari, batasuna bearren-bearren zeritzon bezela, beste batzueri teknika-iztegia deritzoe bearren-bearren. "Jakintza-gaiak euskeraz esateko eta edatzeko ez daukagula teknika-itzik. Eta iztegi ori egin arte, ez degula ezer egiten. Euskera bee-mallako iritzian uzten degula. Jakindurirako gai ez bailitzean, alegia. Izkuntza bat ezin litekeala bizi jakintzako prestigiorik gabe, jakintzazko itzalik gabe. Euskerak, baserritarren izkuntza bakarrik izateari utzi bear diola. Aristokratia —buruzko aristokratia, alegia— irabazi bear duala. Bestela galdua dala. Teknicismo bat bear-bearra degula. Jakintza guztietarako teknizismo bat. Or dagola Euskaltzaindiaren lana".

* * *

Iritzi onek ba'du bere zain, bere iturri. Ola mintzatzen diranak, naaskillo baten mendea bizi dira, complejo baten mendea. Euskera ez dala baserriarako besterik. Ez dala jakintza-gaietarako gai. Ori senti dute beren barruan. Eta Euskerari dioten maitetasunarren, sentimendu ori kendu nai luteke beren gañetik. Euskera, esan oi-dan bezela, jakinduri guztietarako gai dala, "argi ikusi" nai luteke. Entzun, bai, entzun oi-dute, ta siñetsi ere siñesten bezela dute bear bada... bañan beti ere or gelditzen zaie biotz-biotzean, elorria bezela loturik, mataza madarikatu ori, ezin-kendurikako mataza ori, complejo ori: ez dala gauza, ez dala gai. Eta lenbailen Euskera, jakinduri gaietan garaitzalle sarturik ikusi nai luteke. Eta bitartean lotsor orren mendea larri bizi dira... itotzeko esturan.

"Apoletika-mataza" deritzaio egoera oni, gogo-egoera oni. Euskera goren-gorengo mallan ikusi-bearra. Maitetasunak eragindako egoera, egoera leiala, goragarria benetan au ere; bañan... bere lekutik apur bat aldatua? ez dakit, ba, nik. Bañan, ori bai: gauzak beren lekuan daudela ondo. Ta gauza guztietarako bear dala asti eta egoarri. Izkuntza batek goi oiek iristea ez dala egun biko lana, ezta urte gutxikoa ere. Gizaldietako lana baizik. Euskerak ba'dauka ortarako gaitasunik asko. Euskerak ortarako Griegoak bezain erretasun ona du. Ori egia da. Itz berriak sortzeko Griegoa bezain bizkor dala, alegia. Ala dan bezela. Itzak elkarrekin lotuaz, itz berriak sortzeko. Sortu izan diran bezela. Larramendi ezkerre batez ere. Bañan, "sortu". Ez bait-da berdin sortzea ta euskaldunak itz aiek "berentzakotzea"... Izkuntza, berriz, ez bait-dute osatzen itzak, itz sollak, itz "sortuak", itz "artuak", itz "sartuak" baizik, erriak beretzakotutako itzak baizik. Eta erriak —jakintsuak ere berdin— itzak beretzakotzea, gauza nekeza baitda, urte asko bear dituan lana.

Dana dala, "Euskaltzaindiaren egitekoa dala itz oiek sortzea. Eta

bereala sortu bear lituzkeala". Orra iritzi orren muña. Jakinduriaren itzala nai luke iritzi onek gure Euskerarentzat.

* * *

Bañan iritzi onen, sobera aurkako beste iritzi bat ere bai bait-degu: "Ez digula bat ere mesederik egiten, Unibersidadeetako jakintsuak Euskerari ematen dioten itzal eta prestigioak".

Jakinduriaren itzala bearrezkoa degula, batzuek; eta jakintsuen itzalak ez digula bat ere mesederik egiten, besteak. Liguisten itzalak, alegia. Izenez, ez bide-ziran aipatu Batzarretan. Bañan norbaitek jaso bear izan zuan, zenbaitzuen aopean-edo zebillen aien aurkako mar-marra.

Azpeitiko ta Oñatiko euskera nolakoa dan ikasteak Euskeraren batasunari kalterik egiten ez dion bezela, jakintsuak beren Katedretan eta Unibersidadeetan egiten dituzten Euskerari buruzko azterketak ere, ez diote kalterik egiten Euskeraren bizitzari, mesede baizik, bere itzalaren —jakinduriaren itzalaren— mesedea baizik. Ez da orain-oraingo, gäüza jakintsuak, Europa guztiko jakintsuak, Euskarentzat izan duten ikasi-bearra. Hunmboldt batek, eta Bonaparte'k, Van Eys'ek, Schuchardt'ek, eta Ulhenbeck'ek eta Gavel batek Euskerarentzat izan duten ikasi-naia eta eman diguten itzal ederra, Euskera baserritar-izkuntzat zeukatenen aurrerako oso onuragarri ta goragarri izan zan XIX gizaldia zear.

Orra or beste iritzi bat. Au ere esan bear zan. Eta esan zan.

* * *

Bañan iritzi guztietan ez zan izan gutxienik Arantzazu'ko olo-tegia asaldatu zuana —eta barka adibidearen apala— arako beste pesimista amorratu aren iritzi zorrotza: "Gauzak ola dijoazelarik, Bizkaian erririk askotan berrogei urte barru ez dagola Euskerarik". Ez zan, ba, gogo zitalez ari ori esan zuana. Ez; naigabe ta biotz-urratu batez baizik. Bañan ez bait-dira Bizkaian bertan iritzi ortakoak danak... or zutitzen zaigu bat-batean, larogei urteko aiton bat, euskaldun-berri bera, ama-aldetik eusko-odoldun, bañan aita-aldetik ez; aiton, bañan adore aundikoa benetan bere larogei urtetan; eta burua gögor astindurik, ola dio: "Zer berrogei urte, gero? Berrogei urte? Ara: emeretzi billoba daukadaz neuk. Eta emeretziak aittagandik euskeraz ikasiak. Eta ez dot uste neure emeretzi billobok berrogei urte baño gitxiago biziko direanik. Eta ziur nago, neuk eurai legez, eurek be euren billobai, neuk eurai irakatsia irakatsiko

deutsena. Ez esan niri, berrogei urterako baño ez dagona Euskera-rik Bizkaian''. Bera Bilbao'n bizi da. Ta ez da edozein.

Orra or beste iritzi bat. Biotzetan oiu aundi arkitu zuan iritzi bat. Maiburuko Euskaltzain batek, azkeneko Batzarrean ozenki ta bu-larretako indar guztiez oiukatu zuan iritzi ta irrintzi ederra.

* * *

Asieran esan dedana. Guztion ukondo-ukitze au beßerik lortu ez balitz ere, merezi zuan Batzar oiek egitea. Elkar ezagutzea. Elka-rren leloak entzutea. Elkarren biozkadak bertatik bertara sentitzea. Bear genduan. Eta orra ederkitxo lortu.

Urteoro, urteoro olako bat? Nai lekio Jaunari!

B.



Arantzazu'ko Euskal-Sariketa

Arantzazu'ko urtea dala-ta, bertako prantziskotarrak eratutako euskal-sariketa bukatua degu. Ta egia esan, uste baiño sariketa ederragoa izan da, bai sariz, bai bertara azaldu diran lanak dirala-ta: sariak ederrak ezpaitira askotan alakoak ikusten; lanak ederrak epaimaieko jaunen iritziz. Amazazpi olerki ta lau bertsoberri sorta, amaika itz-lauzko lan eta sei antzerki azaldu dira guzira. Ezta, bada, txantxetako gauza izan. Ona, mai-buruko jaunak eman duten erabakia:

“Arantzazu'ko Andre Maria'ren urtea ospatzeko eratu dan sariketarako epai-maieko autatuak izan diranak, Antonio Arrue, Manuel Lekuona eta Luis Mitxelena jaunak,, agertu diran idaz-lanak banan-banan irakurri eta aztertu ondoren, Agorraren 16'an Arantzazu'n bildurik, onako erabaki auek artu dituzte:

“1. Olerki-saillean, lenengo saria, 1.000 pesetakoa, “Elorriko lorak” deritzanari ematea, eta bigarrena, 500-ekoa, “Tori Arantzazu” izenekoari. Egilleak: Gandiaga'tar Bitoriano Aita, Arantzazu'ko praillea, ta Artola'tar Pernando, “Bordari”.

“2. Artikuluetan, lenengo saria, 1.000 pesetakoa “Zotaletxe'ko arzaia” izena duanari, eta bigarrena 500-ekoa “Euskal sorgiñak eta Arantzazu” deritzanari. Egilleak: Urruzola'tar Estanislao eta Berasaluze'tar Sabin Anaia gertatu dira.

“3. Antzerti-lanetan, bi lanik onenak, berdintsuak izanik 3.000 pesetako sari bakarra bien artean erdibanatzea erabaki dute. Antzerkien izenak, “Gabak zekarren eguna” eta “Mesederik aundiena”. Egilleak: Etxaniz'tar Nemesio eta Albisu'tar Anastasio jaunak, biek apaizak.

“4. Olerkarien artean bertsolariak ere agertu diralako, sari bezirik ezpadago ere orientzat, uste dute maiekoak ongi legokeala

beste bi saritxo ipintzea, 500 eta 250 pesetakoak esate baterako. Lenbizikoa, "Arantzazu'ko Ama'ren edestitxo" deritzanarentzat izango litzake, eta bigarrena "Arantzazu'ko Ama'ri" izenekoarentzat. Egilleak: Juan Basurko eta Graziano Anduaga, "Gezaltza'ko Aitona".

"Atsegin biziz ikusi dute maiekoak zenbat olerki (amazazpi eta ia bertso-berri sorta) eta nolakoak agertu diran norgeiagoka onetara. Aipamen berezia merezi duten guztiak aipatzea luzeegia litzakelako, lau aipatuko ditugu bakarrik, sarituez gaiñera: "Zahar-raren kimu berria", "Bosteun urte ta...", "Elorriko poreia", eta "Kutunki" izenekoak. Egilleak: Bersaluzet'ar Sabin Anaia, Zugasti'tar Anizeto Apaiza, Dorronsoro'tar Lucas, apaizgaia ta Sagarzazu'tar Kauldi, "Satarka". Ederki legoke, benetan, guziak liburutxo batean agertzea, Arantzazu'ko Andre Maria'ren gorazarrez.

"Artikuluetan, beste batzuen artean, aipamen berezia merezi du "Arantzazu Pentekostes berri" deritzanak. Egillea: Aranalde'tar Jose Mari.

"Antzerki-sailean "Arantzazu'ko Anai Patxi" deritzanak elkar-ritzeta bizi ta errikoa agertzen du. Egillea: Arkotxa'tar Jose Antonio.

"Arantzazu'n 1956'ko Agorraren 16án.

"Antonio Arrue, Manuel Lekuona, Luis Mitxelena."

Euskal-sariketa au ez-ezik, Arantzazu'ko prantziskotarrak bazuten beste bat erderazkoa eta bestea oraindik musika-gai sakonei zegokiena. Azkenengo onen berri emango degu labur-labur, Bi gai ziran "Poema Sinfónico" esaten zaienekoa bata eta Arantzazu'ko Ama Birjiñarj eskeiñitako Meza bestea. Sariak ez ziran nolankoa: 15.000 pesetako aurrenengo gaiari zegokiena, 12.000 pesetako bestea. Poema-gaian Eskudero-tar Prantzisko donostiar musikari ezaguna irten da txapeldun, Duo Vital musikariari beste amar milla pesetako saria ematen zitzaioarik. Mezetan berriz beste gipuzkoar batek irabazi du Lezo'tar, Garbizu'tar Tomas jaunak alegia, Araguetar Tomas jaunarekin 12.000 pesetako saria erdi-banaturik.

Gure zorionik beteenak norgeiagoka auetan sariak eta aipamenak merezi izan dituzten guziei.

GABON AFARI BAT

Gabon eguna da egun laburra
erlojuetan bakarrik;
eztot eukiten iluntzerako
belaun bietan indarrik.

*Eta bat, eta bi, eta iru, eta lau
Ardaoak moskortuten dau.*

Neure Maria dabil goizerik
intxaur-saltsea gietan:
iñor eztau nai subil-ondoan
egun guztian berbetan...

Eta bat, eta bi...

Zazpi ta erdiak emoten dituz
etxeko erloju txikerrak;
iezarten gara guztiok maian
Iaunari emoten eskerrak.

Eta bat, eta bi...

Zatituten dot ogi biguna,
eta lenengo kuskurra
sendotuteko da amurruturik
dagoan txakur adurra...

Eta bat, eta bi...

Lenengo dator orio-azea
ondo egosi ta bigunik;
eztago zeian aza ta lora
bere ideko lagunik.

Eta bat, eta bi...

Izan dogu lez Iaunari eskerrak

etxean ugari matsa,
betor txakolin pitxarkadea
ta aren urrengo lebatza...

Eta bat, eta bi...

Ekazu Txomin goiko baldati
txetxu bateko edontzia;
gabon dogu gaur etxeko andrea
etsi lenengo zurruta.

Eta bat, eta bi...

Lebatza dago gozoa, baina
eztot ikusten ardaorik;
ezta euskaldunik egin deutsanik
Erriolari biraorik.

Eta bat, eta bi...

Edan, gazteak, txolindu-artean,
ez itxi ardaorik basuan;
gaur edozeinek itxi bear dau
garbi basua barruan.

Eta bat, eta bi...

Ekazu, Kontze, subil-ondoti
maira makallao-saltsea;
ian sendo neure maite maiteak,
errukia da galtzea.

Eta bat, eta bi...

Eztogu edaten gaur aparitan,
edan, maiteak, ugari;
gabon gaubean egon bear da
apaldu-ezkero kantari.

Eta bat, eta bi...

Jesus! Maritxu, ze besigua
orain dakazun errerik;
naiago neuke ia onezkero
maira ezpaletor besterik.

Eta bat, eta bi...

Ardao gitxi gaur emen edan da,
lau pitxarkada bakarrik;
eztogu egingo dantzarik gero
barruak lagundu barik.

Eta bat, eta bi...

Urre, Maria! Urre guztiok!
Au da-intxaur saltsa gozoa!
Urte guztian eztoz nik euki

gaur baizen pozik gogoaa...

Eta bat, eta bi...

Ea tragu bat, bai ta bi bere
edan, maitea, zia lez;
balitz sarritan gabon eguna,
bein baino urtean eztalez!

Eta bat, eta bi...

Bai ta egin deusku geure Mariak
kafea lapiko baten;
au da edaria gogorra barik
eztana gogoz edaten

Eta bat, eta bi...

Betor kopea bete beterik,
kafetara botateko bat,
beste bat gero neuk edateko
kafea artuta ostekotzat.

Eta bat, eta bi...

Nundi ekarri da neure eskatzera
orain bigarren argia?
Eztogu bear argia geiago
lengoa baino, Maria.

Eta bat, eta bi...

Dantzan asi iat orain eskatza,
eztogu bear besterik;
eztot ikusten ai ze barrea!
gazteak, oera biderik.

Eta bat, eta bi...

Zer da Maria? Eztakit zelan
gaur aurkituten nazan ni,
senar bakar bat len euki dozu
eta daukazuz orain bi.

Eta bat, eta bi...

Eskatu daigun, neure maiteak,
oera goiazan baino len,
batu gaizala Iaungoiko Iaunak
betiko zeruan. Amen.


*Eta bi, eta iru, eta lau, eta bost
ardaoak moskorra emon dost.*

EUSEBIO MARIA AZKUE (1813-1873)



Eguberri on

A. Valverde



JAN-EDANAK

GABON AFARIA

Norbaitek esan du, ta egoki esan ere, eztala ospatzen gorazarre-rik, pake-erabakitzerik, itunik edo jai-aldirik, jan-edanik gabe. Egia utsa ta borobilla!

Ezta beraz arritzekoa, lurbira osoan kristauok Gabon-gaua jan-edan ugariez ospatzen badegu.

Euskalerrri'ko etxadietan beintzat, urtero Gabon-gauean ondo ornitutako mai baten biran aide guziak biltzea, aspalditik datorren oitura jatorra da.

Jakiña, Gabon-afarietan mota askotako jakiak erabiltzen dira, baña Gipuzkoa'n beñepein, eta ia oraintsu arteraño, jaki oriek etxe geienetan auek izaten ziran: aza-loratua, bixigua, kapoiak eta konpota.

Aztertu ditzagun jaki auen Gipuzkoa'ko prestaera ezagunenak.

Aza-loratua.—Aza-loratua, aza-lilia edo koniflora —barkatu, euskera garbi-zaleok!— sortzez eta jatorriz Chipre-ugartekoa da, ta Gipuzkoa'ko lurretan, ez gaur bakarrik, antziñan ere, ta Iztueta'k dionez, barazki ontatik buru txit guri ta ederrak biltzen omen ziran.

Era askotara gertu liteke aza-loratua —Mornay-erara, Polonia-erara ta abar—, baña Gipuzkoa'ko etxe geientsuenetan Gabon-gauean, egosi ta olio-ozpiñarekin maneaten da.

Bixigua.—Bixigua edo errosela oso arrai ezaguna da Euskalrria'n. Aspaldidanik, gañera. *Archipreste de Hita*'k “Libro del Buen Amor” en (1389) aipatzen zituan Bermeo'ko bixiguak. Eta Iztueta berriz, orain egunbat urte, onela mintzatzen zan: “Izaten dira egunak asko ta asko eun ta geiago mando erroselez beteak Donostia,tik ir-

teten diranak, eta Uri au ez dalarik arrainik geiena arrapatzen dan tokia”.

Bixigua ere mota askotara gertu liteke, baña Gipuzkoa'n ezezik Euskalerrri osoan ere arranparrillan erre ta olio-ozpiñarekin edo limoi-zumuaarekin jaten da ia beti.

Orain irurogei-bat urte, donostiar idazle Peña y Goñi ospetsuak, Madrid'eko egunkari batean erderaz argitaratu zuan idazkitxo batean onela zion:

“Beñere baño gelago gogoratzen naiz Madrid'en, Gabon-gaua urreratezen danean, nere erri maite Donostia'z. Inoiz ez bezela berpizten dira orduan nere gogoan aurzaroako *naximentu*, eskupeko ta, batez ere, bixigu-oroitzak.

Etxeko Gabon gaueko afari gogoangarrietan, guraso ta senide guzcion billera atsegin aietan, bixigua izaten baizan jakirik berezi ta gogokoena.

Ezin liteke Madrid'en jan bixigua, Donostia'n bezala, kaleko iparsartalde-aizea ta urruti-antzeko olatu-ots-zantzua entzunaz. Ez eta Donostia'n gertutzen duten bezelako, ausapaiarentzat atsegin eta urdailerako osasungarri dan bixigu presko, gozo, urridun eta itxas-kutsuarerikoa; aragi zuri, ez biguin ez gogor, eta ortzetan kiris-karrask egiten duan azal kiskalduarerikoa...

Onela gertutzen da bixigua Donostia'n:

Garbitzen da arduraz bixigua, erraustatzen da gatzaz eta ipintzen da toki egoki ta otz-samar batean zintzilika.

Maian aurkeztu baño orubete aurretik, eta arranparrilla batean, jartzen da arte-ikatzaz egindako su bizi gañean.

Artzen da orduan kapoi-luma bat, bustitzen da ongi olio gordinetan eta igortzitzen da berarekin leunki bixigua, oneri bira batzuek emanaz, azala ondo kiskaldu arteraño.

Maiara ateratzeko garaian, idikitzen da arraia ta, baratzuri ta limoitan to batzuekin nastutako olio prejitua, busti-aldi bat ematen zaio.

Au da bixigua Donostia-erara. Prestaera ez da berez zailla. Baña baditu bere... “maratillak”.

Onela, ta esate baterako, ongi dakien sukaldari jatorrak, bixigua oño gordinez bustitzeko, kapoiari isatsetik kendutako lumak erabiltzen diduzte, bestelakoak ez omen dute langai ontako balio-ta...

Ez det egundaño lortu Madrid'en aurzaroan eta gaztetan Donostia'n jaten nuan bezelako bixigurik jatea.

Nere irakurlei zori ohea opa diet:”

Kapoiá.—Eldu zan antziñan, Erroma'n, ia jende guzia kaleko etxeetan korta-egaztiak azitzen asi zan garai bat. Egaztiak, jakiña, beren kukurrukuaz eta abar, berebiziko iskanbilla sortzen zuten, ta Cayo Canio Consul'ak, agindu zorrotz batez, oitura ori debakatu egin zuan. Baña erromatar maltzurak arkitu zuten Consul'aren agindua betegabe jarraitzeko bide... txior bat: ollaisko koskortutako guziak ireintzea. Onela, ixildu ziran kale-etxetako kukurruku-zaratak, eta gelditu zan Cayo Cano lasai, Erroma'tik egazti guztiak alienatu zitualako uste osoan.

Auek izan ziran —jakiña, ipuiak gezurrik esaten ezpadigu— lur-bira guziko lenengo kapoiak.

Esan izan oi du gure lagun batek, kapoiak bi motetakoak dirala: doarik maisterrak edo adiskideak etxera ekartzen dizkigutenak, eta... bestelakoak, au da, azokan edo dendan erositakoak. Gure lagun orren iritzia da, lenengo oriek besteak baño osasungarriagoak dirala...

Antziñako oitura da Euskalerría'n, kapoiak Gabon-etan adiskide miñei eskeintzea. Orain irurogei urte Siro Alkain'ek idazten zuan, Donostia'n Eguberri batzuetan kapoi pare bat zazpi aldiz esku-aldatu zala, ta azkenean, iru edo lau egunen buruan eta goseak erdi-erkituta, lendabiziko nagusiarengana itzuli zala...

Beti izan dute Euskalerrí'ko kapoiak izen aundia. Doctor Thebussem'ek orain larogei urte Vergara'koak jotzen zituan onentxoek bezala. Egungo egunean Gazteiz'ekoak moko-fiñen artean oso ederretsiak dira. Aomen aundia dute berriz, kanpoetan, Villalba'koak, Baiona'koak eta Mans'ekoak.

Gaur sukaldari askok, txerri-azpizunez, trufaz, gaztañez, ostraz eta beste orrelako betegarriaz sakatuta gertutzen dituzte kapoiak. Pada *Markesa de Parabere*'k sortutako orrelako prestaera bat, berak "Kapoiak Euskalerrierara" izena ezarri ziona ta talo gañean maiara ateratzen dana.

Baña egia esan, gipuzkoarrak Gabon'etan kapoiak erreta jaten dituzte geienetan. Erreta ta betegarririk eta beste naspillarik gabe. Ona emen, itz bitan, Gipuzkoa'ko errezeta zar bat.

Artzen da lau edo bost egun aurretik ildako kapoi guri bat: ondo garbitu ondoren, ematen zaio kanpotik eta barrendik bear duan gatza; ipintzen da gero erretzen kazuela zokan batean, txerri-koi-petan eta zurezko zalitxo batzuen gañean. Ondo egiteko, iru-bat ordu bear ditu. Su illean erre bear bait-da. Labean aguroxeago erre liteke, baña legorregi gelditzen da.

Konpota.—Gipuzkoa'ko Gabon-gaueko konpotari, *zurrapapote* (?) deitzen diote Domenech eta Bardaji sukaldari ospetsuak.

Begira zer dion Bardaji'k mai-azken onezaz.

“Gipuzkoa'ko etxadi geienetan mai-azken jator onen bidez amaitzen da Gabon-afaria.

Gertutzeko, ipintzen dira arratsaldean uretan beratzen aran eta muxika-zati legor-onduak, erdira; ta guzitara, sei-bat lagunentzako, bosteun gramo gutxi-gorabera.

Afaltzen asi baño ordubete lenago, ta garauak bi ordu daramazkien garaian, ipintzen dira kazuela batean berreun gramo azukre beltzxo, kanela-zotz bat eta limoi-azal bat.

Urreratzen da kazuela surtara, ta guzia irakiten asten danean, kentzen zaio kontuz aparra; gero botatzen dira kazuelara garauak, aurrez ura kendu ondoren; estaltzen da kazuela ta uzten da geldi ordu-laurden batean.

Bero-beroa atera bear da maiara. Ta, ondo izateko, kazuelan bertan. Etxe batzuetan gertatzen da sarritan aran-muxika legor-onduak ez-izatea. Orduan sagarrak eta negu-udareak erabiltzen dira, bakarka edo nastuta. Sagarrei eta udareai, lendabizi, azala kendu bear zaie ta, gero, zati txikietan ebaki. Ta, jakiña, eztira beratzen jarri bear. Aitzitik, irakiten, aranak eta muxikak baño minutu batzuek geiago eduki bear dira.

Konpota-kazuelakada on baten bizigarri ta berotasunarekin, joaten dira euskaldunak gauerdiko mezara, Abuztuan bezain lerdan eta txairo, kanpoan otsoak ere ezin irozo dezateken otza egin arren”.

Gaur, gauean jaioko dan Aurrak, bedeinka ditzala gure jan-edan, gorputz eta animak.

A. A.



Naas - Maas

Literatura: Carlo Coccioli

Carlo COCCIOLI italiar nobela egilleak idatzi du liburu berri bat, frantsesez, "*Manuel le mexicain*". Bernanos, Green eta idazlari katoliko oien antzera, edo bederik gai bertsuetan izkiriatzen du COCCIOLI hunek. LIORNA-n sortua 1920 garren urtean orai Florentzia-n eta Paris-en, aldizka, bizi izaten da.

Iondone Agosti-ren tankera sumatzen diote batzuk, tankera ginartsua, lorekeririk gabekoa duelakotz. Graham GREEN-ek ere idatzi du "*El poder y la gloria*" nobela, Mexico-ko gaia batean zopatu; asko eta ozenki mintzatu bai zen orduan, hor agertzen den "*Mexico-ko azken apez*" protagonista den hortaz.

COCCIOLI horrena den "*El cielo y la tierra*" liburuak ere ele zirimola franko atera arazi zuen agertu zenean. Liburu hunetan dio; "Jainkoa maitatu bear da gizonetan, eta ez gizonak Jainkoa baitan" eta beste alde batean; "Jainkoa ez dago soilik zeru goietan, izarren artean, hemen ere lurrean dago gizonen artean. Gizonak berak dira Jainkoa".

COCCIOLI horrek beti Jainkoa gana naia bere liburuen gaitan, segitzen oi du florentzia-tar bide zaarra, Dante-tik asi eta Pardini-raiñoko urratsa.

MUSIKA. IGOR STRAWINSKY

Strawinsky musikalari ospetsuak bere CANTATA bat gidatu du Venezia-ko Sanmark elizan, *Canticum sacrum* deritzaiona. Alde

batetik elizako kanta, eta bestetik dodekakofoniko tankera bitxi eta berritsi hortan mamitua, izpirituz eta biotz igiduraz franko otza gaiñera, ez omen du alako arrakesta aundirik izan. Iduri luke iñalalak egiten dituela egileak gibel ez gelditzeko, eta leenago bera musika berritze ausart hortan aintzindari trebea izan baita, orai jarraile nekatu baten erronkara jautsi dela ematen du.

Orrekin ez degu esan nai obrak ez duela merezimendurik, eta ez, izan ez duela jakitunen artean ongi etorririk. Ez alabainan, "*El libertino*" beste obra harekin, ikasi eta aundi maundi-en gandik entzun zituen bezenbat esku-zarta.

PEROSI-REN HILTZEA

Vaticano'ko Elizakantarien gidari izana, eta Eliza-ko musika berritzale omen andikoa, Lorenzo PEROSI hil da Erroman lauorgeri baiño geiago urteetan.

Idatzi eta kompondu ditu ogeita amar meza, Dabiden ameka salmo, ehun baiño geiago himno, oratorio, kantata, etc. Erri xumeen-etakoek erè entzun bide dute noizpait, orai zeruan dateken musikolari on horren meza edo kantata-n bat.

ALDIZKARI ANAIK

Berriki agertu da Baionan "GAZTE" izenarekin illabetekari berria, leenagoko baten jarraitzalea. Atseginakin ikusi dugu izpiritu berriakin asi dela. Obe ala, gazte geiago erakartzen oi baita eztiz, ozpinaz baiño. Orai duela ogei ta amar urte denek artzen ginituen euskal paperak batere goganbeharrrik gabe, naiz geienek prediku aire bat ba zuten. Orai berriz gauzak aunitz aldatu dira; gure eskualdun erritarrak ezin dira geiago geldirik egon bere tokian, eta berek bere begiz ikusten ez badute, munduko berriak eltzen dira egunero azken mendi zokoraiño.

Iduri du oraikoez maiteago dutela kristautasuna iastatzea eta asmatzea ikuskizun baten baitarik, lerroen tarteetatik, ageriegi erakutsi gabe obrak norik egin den eta zertara doaien egillea.

Gure goresmenak beraz, GAZTE-aren zuzendari Charritton jaunarendako. Irakurri nai duenak eskatu dezala Baionara, rue des Prebendès, jaun horrerik.

APAT-ETXEBARNE

A D A B A K I A K & GALDERANTZUNAK

Joxemartar bat.—Zure adiskide orrek arrazoi du. Agustin Anabitarte mintzatzen da “Donostia” iragurgaiari Santo Tomas'eko periaz. Onela dio:

“Erle amorratuak bezelatsu zebillen jendea batetik bestera Plaza Berrian. Santomas-egunean baserritar asko etortzen zan Donosti-ra ta, baserritarrak eta kaletarrak, guztiak Plaza Berrian biltzen ziran: an izaten bai-zan iru egungo peria.

Santo Toma-seko periya
txorixua ta ogiya.

Plaza osoa mota askotako saltokiaz betea zegoan. Geienak nolana jarriak zeudela, jendea arraen gisa irabioka zebillen saltokien tartean. Batzuetan baserritar sendokote batek, aurrez-aurre, kaletar nexka mexka baten ondotik joan bear izaten zuan. ¡An izaten ziran karraxi ta algarak! Denda-edo ziralako aiek, ol eta oiaiez erdipurdi eginda itxura besterik ez zuten aiek, maiz bean jo ta gañeko ontziak itzulipurdika erortzen ziran. Saltzalea “asto” ta “kankallu”-ka asten zitzaion; bestea berriz, parrez, “denda arrayua jarri dezutena”. Arkupearen parean zegoan bide erosoia; baldin erosleek guztia ikusi naiez atzeraka batean ibiltzaleekin istillua jartzen ez ba-zuten. Erle amorratuen gisan zebiltzala esan degu ta alaxe zan. Gazteek txibilitoak eta koskabilloak erosi eta geiago eziñean Gorra gatzain-saltzalea “ernegaziko” zuten. Neska lirañak, irria ezañean, jostatzeko besterik jaiok zirala ematen zuten.

Ume eder bat ikusi nuben
Donostiya-ko kalia.

Ettxekoandreak goizean etortzen ziran. Orduan izaten zan —orain ere bai— etxeko neska-mutilleri jostalluak eta goxoak ekartzeko eguna. Neska-mutillek artzen zituzten ardit, kuarto ta txamponak —edo eralgi nai ez zutenak, beintzat— “eltxetxoan” gordetzen zituzten: lau txanpon, zazpi kuarto. Santomas-egunean urte guztiko aurrezkiak eltxetxotik atera ta, zerbait geiagorekin, amak ba-koitzari ekartzen zion peria. Donostiar neska-mutillentzat ez zan urte guztian Santomas-eguna bezin zorioneko egunik.

Ordea, jostalluak ezik, ontziak, oialak eta etxerako bear izaten diran gauz asko saltzen zituzten. Baserritarrak pillan ikusten ziran tokietan, makillak, akuluak, kapusaiak, zamarrak aizkorak, atxurrak-eta aldean egongo ziran. Egaztia —kapoia batez ere— erruz ikusten zan. Gorra zeritzatzen gaztain-saltzale emakumeak, gaztañak ezik, lanpernak, karrakelak eta lapak ojuztatzen zituan. Teresa Boba-k “panpoxo” ta “panpoxa”-eri pastelak eskeintzen zizkien. Bertan prejitzen zuten ainbat kana lukainka: beartzekin artu, aboarekin jan ta esku-atzearekin ezpañetako koipea... zabaldu. ¡Olio-keari, “Txardin-berri”-koek egiten zizkioten muñiak!...”

* * *

S. R.—Esan genezake, lenengo Almanaka Juan Monterregio'k Venecia'n 1476'garren urtean argitaratu zuana, izan zala.

Gero, XVI'garren mendean, asi zan argitaratzen Larrivey, Troyes'en, *Calendrier des Bergers* entzutetsua.

Frantzia'n bertan, Matxinada-garaian, argitara eman ziran Almanaka batzuek ere —*Almanac des Sans Culottes, Calendrier 'du Eere Duchesne* ta abar— entzute aundikoak izan ziran.

Gaur lurbira osoan antolatzen dira Almanakak, eta asko oso ernagarri ta dotoreak.

Jaungoikoa'k nai badu, guk ere, EGAN'en antolatzalleok, gertuko degu, datorren urterako, euskerazko bikain bat.

* * *

Jakin-zale.—Juan Ramon Jiménez'i buruz eta, batez ere, aren omenez bere jaioterri Moguer'en gertutzen ari diran jaialdiaz zerbaitxo jakiteko, Moguer'eko bertako Alkateari idaztea izango dezu

onena. Gañera, Moguer'eko Alkatea *apellidos* beintzat euskalduna da—Gorostidi du lenengo deitura—, ta ziur asko gogoz erantzungo cizu.

* * *

Atxina.—Zuk atera dizkigutzu eltzetik babak... Ea zer derizkiogun, Erljioaren arabera, *rock and roll* dantza berriaren zillegitasunari buruz?

Gu ez gera nor galdera au erantzuteko.

Txirrita'k ziona:

“Aita Santua Erroma'n dago,
Oso gizon seriyua...”



LIBURUAK

AGUSTIN GURENAREN AITORKIZUNAK, *Nikolas Ormaetxea*
«Orixe»-k euskeratua. Itxaropena Argitaldaria. Zarauz, 1956.

Zor berria dugu euskaldunok, leengo askoren gain, Orixe'rekin. Azkenekoa ere ezta nolanaikoa. Itzuli digun San Agustin'ena ezta bakarrik geroztikako arima jainkozaleek irrika biziz irakurri izan duten liburua. San Agustin'engan dute sustrai ageria edo izkutua geroko landare luze-zabal anitzek: filosofia berriak eta baita oraingo gizonak ere. Ark erakutsi baitzigun —“Aitorkizunetako” amargarren jardun orretan, esaterako— gure barrengo zoko illunak aztertzen eta ezagutzen.

Eztago lanaren gaitza goraiatu bearrik, ongi baitaki noraño-koa den edozein izkuntzatan, axaletik bederen, “Aitorkizunak” urratu dituenak. Orain, euskeraz ikusirik, arri eta belarri egiñik geldituko giñakean. Bear adiña arritu ezipagera, Orixe'k itzuli dituelako izan da soil-soillik. Ongiegi oituak gauzka; etsirik gaude zernai gauza eman dezakeala euskera garbian eta, okerrago dena, nolanai eta batere nekerik gabe eman dezakeala. Itzul-lanetan irabazi duen entzute merezia du emen Orixe'k etsairik bizkorrena.

Erabateko iritzia emana dago: aditzaille onak eztu besteren bearrik. Xeetasunetan sartu ezkerok, gaurko auzia da-ta, nolako itzak dabilzkien ikus dezakegu. Eztu gai ontan alderdikeri andirik azaldu Orixe'k, ez leen ez orain. Erderatiko itzak —ez orrenbestez erdal-itzak— kupidarik gabe artzen ditu: animaliak, arma, duda, elefante, engañatu, heresi, heretiku, grazi, kasu, komeni, komerilari, madarikazio, markatu, misterio, mugimentu, musika, numero, se-guru, serbitzu, siñale tentatu, umil, zirku, eta abar.

Baiña, oker ezpanago, be-tetara du ixuria Orixe'k. Trebe baiño trebeagoa izan da beti itz berriak sortzeko —itz elkartuak batez ere— edota itz arrunt ezagunak adiera berri batera egokitzeko. Denboraz ain luze eta sakon diarduen XI'gn. liburuan, adibidez, eztu *denbora*-rik aipatzen. Badu alare *tempus* itzultzeko ordeko-rik aski: noiz, noizaldi, noizko, aldi, orduko. *Tour de force* bezala egin bide du. Eztut uste beintzat *denbora* orren iguin duenik.

Askotan eta askotan miragarriri elkartu edo begiz jo ditu itzak: latiñezko *cogo* eta *cogito*-rekiko itz-jokoa ere biribil emana dago *bil* eta *erabil*-ekin (258 or.). Beste batzuetan, ez ain ederki. Iritzi ortakoak izango dira, noski, gure artean sortu diren *neoteriko*i batzu, eta neroni ere enabil oso urruti. "Agintari" ezta "enperadore"-ren ordain jatorra, ezta "jakinzale" ere "filosofo"-rena, ez gaur eta ez Agustin'en denboran; "ele-zati" askotara —geiegitara— ar diteke, ez "silaba"-tzat bakarrik. Geiago aipa ditezke.

Itzulpena laburra eta trinkoa da, latiña baiño areago. Trinkoegia, ene ustez. Laburtasunak merezi ote du orrenbeste opari? Argitasunak eta erraztasunak balio dute, gutxienez, laburtasunak adiña. Au bezalako liburu batean, batez ere. Inolako oarrrik eztaukalarik, aurkituko du irakurleak franko eragozpen izkuntzaren aldetik oztopo-biderik eztuela ere.

Era askotara ageri da labur-bear ori. Latiñezko zernai, bazter aal bazitekean, baztertua izan da. Itzak motx, otzak kuxkurturik baleude bezala: amaiarreba, atsalde, beratzi, berala, bidetxur, ordun, protxu, ua, balia ziran (65 or.), suntsi dituzu (377), doatsugo, geixago, urrikarrigo. Aditz sintetikoa beti gailen, naiz adizkiak zaartuak edo —dakidanez— inoiz erabilli gabeak izan: legotzidaken, zigurilan, zitxeroken. Aditz laguntzaillea maiz bakarrik, berezko indarra balu bezala. Bereizgarri orietarik gelenak ezagunak genituen leendik ere Orixe'rengan, baiña ezterizkiet besterik gabe onestekoak. Euskal-esaldari buruz aspaldi azaldu zituen iritzietan, aurki ditezke agian labur-bear onen erroak (ikus *RJEV* 9, 9 ta ur.): euskal-esaldiak ez omen du zati berezirik, ez geldi-lekurik; gora ta gora omen dijoa doñu-gaillurreraño, andik gainbeera, arnaserik artu gabe, amiltzeko. Mintzaera lasaiagoa izan dute, ordea, Orixe baño leenago izan ditugun prosa-maisuek. Izketako itobearrari idazkietan ere amor emateak ondore jakiña du: euskalkien arteko bereizkuntzak sakontzea eta zabaltzea.

Bide ibilliak maiz utzi ditu Orixe'k, bai bestetan ("ezaguten", "ezagutzen"-en ordez), baiña adizkietan batez ere: gakion (=gakizkion), nindezaten (=nintzaten), zaida (=zait), etzekizkidan (=etzitzaizki-

dan) obeak iduri “nec... mihi meliora uidebantur” (109 or.), gendin (=gindezen), nenzan (=nezan), nenkusan (=nekusan “uidebam”, 193 or.), nenkarren (=nekarren “trahebam”, 147 or.), nenkartzien (=nekarzkien, 159 or.), eta ainbeste ta ainbeste. Adizki [jator baten orde], *natzai*-oren orde alegia, bi erabiltzen ditu, euskal-literaturan sarrerarik izan ez dutenak: “...ikaritzen, antzeko ez nakionez; su-tzen, antzeko nizaionez” “inhorresco, in quantum dissimilis ei sum; inardesco, in quantum similis ei sum” (312 or.). Orobat *zatzaizkio*-ren orde: “erruki zaitio” “misereris eius” (17 or.) eta “zakio” (*passim*).

Berdintsu gertatzen da *diago* eta bere senideekin. Dakidanez —eta poztuko ninduke biziro oker nagoela jakiteak—, euskal-literatura guztian *bein* agertzen da adizki ori, Garibay'k XVI'gn. mendean jaso zuen esaera batean: “Atzean diagonak utsean diago” Jakin, ezta-kigu ziur “dio” esan nai duenik ere, bitara itzulia ageri baita: “dize” ta “hieren”.

Azkenik esandakoak uskeriak direla badakit. Uskeriak dira, bai-na ongi begiratu ezker, euskal-gaietan ongi ikasiak begiratu ezke-ro, eztira alderatzeko ere liburu eder onen bikaintasunaren ondoan. Baiña izkuntza-gauzetan eztira axaleko, itz eta esaerak izkuntza ber-bera baitira.

Inprenta-utsak badira. Bat edo beste ipiñiko dut emen, irakurlea-rentzat irrixtakorrek izan ditezkealakoan, neretzat bezala: Gorputz-egieraz (igieraz “e motu corporis”, 20), bortatxen (bortxatzen, 28), deabruaren xedea (xedera “laquei diaboli”, 60), entzuten zintzo billa nai (etzuten, 105), berenaga (beregana, 111), etzezakela egirik utzi (atzi, 117), gogoen atean (gogoematean, 118), lagunak (legunak, 121), Ni aientzat niñedukan au (aintzat “quem non parui penderet”, 147), aitortzea zindudan (aitortzen, 158), Itz zula ta edaten (Jaten? “quia manducauit et bibit”, 178, latīña eztago osorik emana), Eliza bete oi zatzaion (zitzaion, 184), txeko (etxeko, 189), Poztitian (Pontitian, 195), ezaliko (ezarriko? “ponitis”, 233), Eudi (Euodi, 236), itzuli zintzan (nintzan, 250), ateratzen dituk (ditut, 254), bera idu-kitzeke (idukitzeko “ad habendum se ipsum”, 255), deudua (den-dua, 264), irrikuz (irriskuz, 289), eten oi zagun (zaigun, 290). Bear bada, nere zuzenketak izango dira bein edo bein zuzen eztaudenak.

Irugarren liburuan, zatitxo batek (3, 4, emen 77-78 orrialdeetan) badirudi eztagoela ongi itzulia. Latīnezko “Itaque illos planos quos mathematicos uocant...”, euskeraz onela emana dago: “...matema-tiku izenekoen azti-karta aiek”. Bestetan ikusi dudanari zuzenago derizkiot: “...matematiku izeneko engañatzaille aiek”. Emengo *plā-nus* au, *a* laburduna, grekozko *plānos* da noski.

L. MITXELENA

DOMINGO AGIRRE. GAROA. Irugarren agerraldi obetua. Aranzazu Argitaldaria, 1956.

Txalo eta laudorio ugari merezi dute bai argitaratze-lana bere gain artu duen Aita Prantziskotarrak —ixilpean gorde du damurik bere burua-bai Arantzazu Argitaldariak. Ongi merezi ere, bai baitakigu neke askoren semea izan dela liburu eder au. Aita A. I.-k ipiñi dion itzaurrea egokia da benetan, bizia eta argitasunez ongi jantzia; Iriondo'ren apaingarriak, azal eta barren, oraingoak eta nere gogorako bizi ederrak. Gaiñerakoan ere, itxura txukun-txukunekoa da liburua, Itxaropena'renean oi den bezalakoa. Irakurgaiak, berriz, Domingo Agirre'ren "Garoa"-k, eztu goresmen bearrik.

"Garoa" berbera —antzeko zerbait baizik— eztelarik ere. Uts bat baitu irugarren agerraldi eder onek, bat bakarra baiña larria, jatorrizko pekatuak bezala edozein izaera garbi kutsa dezakeana: *obetua* izatea, azalean (barrengo bigarren azalean) dionez. Itzak aldatu, bigarren argitaraldia (*obetua* ura ere) artu dute gidari, leenbizikoa, Agirre'rena berarena, artu bearrean.

Itzaurregilleak erakutsi nai liguke eztela uts ori oarkabez egin, ongi jakiñaren gaiñean baizik. Ez omen zuen alegia begi onez ikusi zenbaitek orduan ere *obetze* ori. Oraingo jokabidea zuritu nai luke, gaiñera. Baiña eztu agian lixiba bear adiña jo. Zertarako aipa, aurrena, aipatzen duen edizio kritikorik? Ez ote zen moldezko letretan agertu leen argitaraldia, bigarrena bezalaxe? Batari ala besteari jarrai, lan berbera zen. Badirudi, bestalde, itzaurreko itzei bagagozkio, bigarrenaren gaizki-esaleak etzirela zenbait arroxko lepa-gogor baizik, erri xume jatorrari goitik beera begiratzen dioten orietakoak. Ezta aitzaki txarra izaten edozertarako ezin mintza ditekian erri ixil ori. Bigarren argitaraldia ezagunagoa bada, berriagoa delako da eta errazago aurki ditekialako. Errikoia eta jatorragoa ote orrenbestez? "Illargiaren jira", esate baterako, ezta zaillago gure jendearentzat emen (8'gn. orrialdean) eta bigarrenean irakur ditekian "illargiaren baranoa" baiño.

Ezta galdetu ere bear zein dagoen zabalduago, zein egon bear lukean baizik. Ondar-ondarreraiño bagatoz, eztu emen zer ikusirik ez gramatikak ez estetikak. Etika-auzia dugu. Irakurgai ori ezta sasikoa, badu bere jabea. Eta ezin alda ditekian jabearen baimenik gabe, zenbait uskeritan —grafian, uts nabarietan— izan ezik. Are gutxiago egillea —nolakoa, gero!— ilik dagoenean.

Iñork ikusi ote du, iñoiz eta iñon, erderaz, "Don Quijote" edo "David Copperfield" *obeturik*? Parre egingo luke lasai jendeak orre-

lakorik ikus baleza. Parre... edo okerragoko zerbait. Eta gizona gizon da, eta gizalegea gizalege, erderaz ala euskeraz ari. Erderaz parregarri dena, beraz, ezta apika agitz goragarri izango euskeraz ere.

Oraingo agerraldi onek, gaiñera, *obetua* ez ezik, *obeagotua* deitzea merezi luke. Eztitugu, izan ere, aurrerakada makalak egin 30 urte auetan, eta ongi irabazia dugu gure aldetik zerbait obetzeko esku-bidea. Leen agerralditik bigarrenera, besteak beste, *gauza gauz* biurtu zen, *eleiza eleiz* eta *neskatxa neskax*. Bigarrenetik oraingora, a batzu kentzeari gutxi iritzirik —eskuak ausartzen ari zaizkigu-ta—, esaldi osoak agertzen dira mozturik.

Iñoiz edo bein —gero eta obeto gabiltzala— egiazko “Garoa”-ren oroitzapena bera galduko balitz ere (zer esango lukete orduan kritikoa biurriek?), oraingo inausaldian baztertu diren abarrak jaso nai genituzke *Egan*-en. XIX'gn. atalean ematen da, badakizute, Eibar'en egindako mitin baten berri. Letra larriz ipiñiko ditugu soildu edo aldatu diren itzak eta esaldiak (284'gn or. eta urrengoetan). “Antxen lañoz jantzitako zerupe illunean, suinkiro alkartu dira *eibartarrik* *geienak*, *onenak ez baña*” (Orain, “mitinzale asko”). “*Bego Eibarren* bizar biko gizontxoaren erakastea” (Orain, “Utzi dezagun...”). “Euskalerrri guztia, *Eibar izan ezik*, abadien mendian dago”. “Ugazabak eta lantegien jabiak gure odolez loditu dira... *Zortzi orduko lana gura genduke* (*Moxolok: Askotxo dek, baño, tira, nai duanak egin dezala*) *orain artean baño aloger obia biar dogu. (Denak: Ori, ori! Betor dirua! Venga diñero!)*. Diru-etxeak lapur-etxeak dira...”.

“Zoko-garbitze” au zergatik? Norbait, eibartarra noski, minduko litzakealako? Bai ote? Orren sentikorra ote da oraingo jendea? Ez ote du iñörk marxistarik Eibar'tik kanpora ikusi? Lastima da, benean, orrako zuzentzaille orrek liburua zuzendu duen bezain erraz mundua ezin zuzendu aal izatea. Eztakit alare ez ote nukean naiago gauden mundu traketsean bizi berak zuzendutakoan baiño.

Agerian dago, bestalde, ez tirela nabarmenkeririk gordiñenak baztertu. Badirudi aitzitik gaurko edozeiñek ontzat artuko lituzkean eskabideak direla ain zuzen ere baztertu direnak. Eta ori ezta joko garbia: egia zor diegu orduko eibartar geienei, onenak ezpaziren ere. Etzen erabat okerra, agi denean, aien “ilustraziñoia”.

Beste par bat egin bear zaio zuzentzailleari. Diru etxeei buruz ere, baditu ondorengoak Azkarraga'ko Martin'ek. Madariaga'k nonbait dionez, *ba* omen dute elkarren antza pixka bat gaurko bankuek XVI'gn. mendeko Berberi-aldeko itsas-lapurrekin: batzuekin ala besteekin ar-emanetan asten dena, nolana ere, ariñago irteten omen da sartu den baiño, diru gutxiagorekin alegia.

Condorcet, Comte, Spencer eta olakoen progresismua malda beera omen dabil mundu guzian; zearo lur jota dagoela diotenak ere badira. Ez, orratik, mundu guztian. Bizi da oraindik txoko batean, eta eztago burua makurtzeko. Euskaldunok, noski, iñor baiño obeak eta trebeagoak gera edozein aldetatik: enaiz ni uste kontsolagarri ori iñori kentzen saiatuko. Baiña eztaude orrenbestez euskaldun guztiak mailla berean. Nork berdin gintzazke gaurko euskaldun argi ta aurrerratuok orain berrogeitamar urtekoekin? Orain berrogeitamar urtekoak, berriz, mutillak ziren orain eun urtekoen ondoan. Ikas-kizun gutxi utzi digute aurrekoek, eta utzi diguten gutxia ere aise zuzen eta obe dezakeguna.

Amets xuri-gorri orrek baditu, aatik, zenbait alde txar. Eztute gaizki parre egin bear ondorengoek gure bizkarretik! Izango baititugu ondorengoak, mendeen buruan jaio ezpagera. Eta bitara gerta diteke ori: gure iritzi berekoak direlako ala eztiarelako. Progresismua zokoratu baldinbadute azkenean, gure ximplekeriari egingo diote parre, eskua luzatze utsarekin illargia arrapatu ustean genbiltzan aurak giñalakoan. Eta progresistak badira, okerrago, gu gerok baiño askotaz jakintsuago eta ikasiago izango baitira. Ikustekoa izango da aialexen "ilustraziñoia"! Gaxoak gu eta gaxoak gaurko liburuak! Surtara ezpadijoaz denak, zenbat bider ez ote dituzte murriztuko, soilduko, ankamoztuko, itxuraldatuko eta itz batean "obetuko"! Enuke "lardaskatuko" esan nai.

L. MITXELENA



ANAITASUNA. Suplemento de la Hoja «Anaitasuna» de Guipúzcoa. III urtea. Núm. 34. Agostua-Irailla (8-9), 1956.

Lenagokoak merezi izan zigun iritzi ber-bera merezi izan digu Bizkaiko "Anaitasun" núm. onek. Ariña, txairua. Benetako aldizkari labur, errikoia. Olako aldizkari bati dagokion bezelakoa.

Ba'dakit, lengoan beste onenbeste esan nualako, batzuren batzuek asarretu zirana... Orren euskera zatarra darabilen aldizkari bati ez nion nunbait olako arrera onik egin bear... Nik, ordea, "Anaitasunaren" beste alderdi on askoren aldean, ez bait-nion aren euskera mordolloari jaramonik egin. Ezta oartu ere. Nunbait, bertso-berri ta

bertsolari-artearen ibilli ta ibilli, ondatu egin zait neri euskal-belarria... Dana dala, ez noa esandokoaren itz-erdi bat ere aldatzera. Ez nago ortarako bizarrean. Bañan bai zer-edo-zer explikazio ematera. Guztion onerako.

Irakurtzalle zuzenak igarri zezakean, nik aldizkariaren euskerari ikuturik egin ez niona. Ez onerako, ez txarrerako. "Anaitasunaren" *aldizkaritasuna* ikutu nuan nik. Eta ez da inor, *aldizkaritasun* ori "Anaitasunari" ukatuko dionik. Gaien aukera, zatiaren ugaritasuna, bakoitzaren neurri ederra, gazi-geza, arintasuna, grazia... Guzti orrek, egia esan, neri grazi aundia egin zidan. Eta orixe izan zan guztia. Eta ez nion besteri jaramonik egin... Eta oraingoan ere berdin gertatu zait.

Bañan, naiz ta orduan ukitu ez, gaur ortarako eretia etorri zai-gun ezkeron, on izango da bein betiko alkar aditu dezagun. Adiskideki.

Bizkai'ko "Anaitasuna" ez det uste nik, Euskera *jasotzeko* danik; ezta Euskeraz inor *erakusteko* ere; Euskerari *eusteko* baizik, galtzear dagon lekuan eusteko, oxta-oxta Euskeraz *irakurrerazteko*. *Jasotzeko* balitz, "Anaitasunaren" egilleak Euskera garbi-garbira joko luteke. Ba'dakite orrenbeste. Bañan baita berak dakite gaur gure Izkuntza maitea norañoko galtzeko arraixkuan dagon ere zenbait lekutan, erderaz nun-naitik inguratutik. Guk baño obeto dakite. Eta olako es-tueran, jo duten era ortara jo bear dutela baderitzote —Eibartarrak ci duten bezela, beren euskera, erderaren ertz-ertzeraño eraxi bear dutela baderitzote— zer degu guk zer-esanik? Berek dakite zer ari diran. Eta beste batek beste iritzi bat badu, ondu dezala aien marka.

Guzti ori Euskera "lurrean arrastakatzea" dala? Berek "irakur-garri" egitea dala deritzote... Ezagutzen degu guk beste norbait —eta ez da edonor— Euskerari eutsi-bear larri ontan —eutsi-bear *tragiku* ontan— euskerazko *rumbak*-eta barra-barra egiteari ekin diona. Bes-telako euskal-eresi ederrak ez omen-dira gaurko gazteentzat "kanta-garri" ta. Eta ederki egiña, ola dan lekuetan.

Beste oar bat oraindik. Bizkai'ko "Anaitasuna" ez da *euskaltza-ileentzat*. —*Rumbak* ere, ez noski—. Euskaltzaleak Jaunari eske-rrak, ez dute "Anaitasuna" irakurri bearrik; ezta "Anaitasunaren" egilleak ere euskaltzaleentzat idatzi bearrik. Bear bada, Bizkai'ko "Anaitasuna" ez da *baserritarrentzat* ere. Gipuzkoa'koa bai, egiña da-gonez, baserritarrentzakoagoa da. Bizkai'koa beste malla bateko eus-kaldun batzuentzako da. *Kale-kumeentzako*. Euskera, erderaren atza-parretan itotzeko zorian dagon kaleetako umeentzat. Gero ta geiago bait-ditugu Euskalerrian olako kalé ta olako erriak. Kale-kumeen

sail onek ez zuan orain arte bere aldizkaririk. “Anaitasuna” sortu dute San Frantzisko'ren Seme jatorrak Bilbao'n, utsune ori betetzeko. Utzaiegun pakean beren arloan lan egiten. Berek dakite zertan diarduten. Ez dezaiegun guk azpi-janik egin, Jainkoarren! Lagundu deiegun baizik! Geiegikeriren batzuek egin-da ere —nork ez ditu egin iñoiz, batzuek alde batera ta besteak bestera?— barkakizun dira diranak.

Euskera jakintsua nai dutenek, or daukate, jakintsu askoa, *Eusgo-Gogoa*, ta orain baita *Yakin* sortu-berria ere. Elizakoaia nai dutenek, or daukate *Arantzazu*-ta. Era-guzietakoa nai dutenek, *Egan*. Baserritarrek, berriz, naiz Gipuzkoa'ko *Anaitasuna*, naiz Iruñe'ko *Zeruko Argia*. Eta kale-kumeak, Bizkaï'ko *Anaitasuna*. Ez dezaiegun bati bakerreri ere muziñik egin. Geure gustukoak ez badira ere, utzaiegun pakean bederenik, lan egiten. Izan gaitezen guztiontzako biotz-zabaldun, eta ez ain iritzi-estuko.

Eibartarren Euskera aipatu degu lentxuago. Tipikoa bait-da, izan ere, eibartarren euskera. Aretxen antzeko bait-da gañera “Anaitasunarena” ere. Galdera bat gai oni buruz: zer iritzi bear diogu eibartarren euskerari? Ez dala Euskera-eredua? Sobera dakigu. Bañan obe ote-litzake batere ez egitea ola egitea baño? Ez al-da, beti ere, obe, “egitea”, nolanaï egitea, batere ez egitea baño? Obe litzakela “garbi” egitea? Sobera dakigu ori ere. Bañan askotan “obea” “onaren” etsai izan oi bait-da. Zer aurreratzen degu, “obe” ta “garbi” crren billa gabiltzan artean, len egiten “dantxo” ura galtzen bazai-gu? zer aurreratu degu? Ez al-da arlo sarigarria, dan pixka orri eustea? bretxa ori betetzea? al dana egitea? Zer iritzi bear diogu arlo apal eta garratz oni? Zer da obe, ez daukagun “obeari” itxedoten egotea, ala daukagun pixkari sendo eustea...? egan dijoazen uso-taldeai sareak zabaltzea? ala eskuan daukagun usotxo bakarrari arduraz eustea?

“Sareak zabaltzea” esan det; ez bait-dezaket esan “uso-talde guztia arrapatzea”. Ai, bageneza! bañan bai al-dezakegu?

Begira: Izkuntza, izkuntza bizia —gizarte-gauza bezela— ez dago iñor baten eskuan; ezta iñungo Akademi ta Izkeltzaindiren eskuan ere. *Iñor* guztiak gora-behera, izkuntza orok bere bidea jarraitzen du. Nai ta ez. Gizarte-gauza izan. Eta gizarte-gauzak, izarrak zeruan bezelaxe, beren legeak dituzte, gizon bakoitz iñoren eskuetan ez dau-den lege bortitzak, Gizarte-jakintzak, ots, Soziologiak, aztertzen dituan legeak. Bañan “azertu” bakarrik. Gutxi, oso gutxi dezake gizon bakoitzak lege oien gain. Eta dezaken pixkak ere, ba'ditu bere legeak. Olako gauzetan ez da naikoa, Agindu bat ematea. Agindu

ori gora-behera, Gizarteak bere bideari, bere legeari jarraituko dio. Izkuntza, izkuntzaren bizia ta bideak, ez ditezke zuzendu Agindu baten bidez. Ezta berrogei Aginduren bidez ere. Gai ortan egin ditek pixkatxua, zabalkundearen bidez egin oi da. Eta zabalkundeak, len ere esan det eta, zabalkundeak ere bere legeak ditu. Bat batez-ere: Gizartean zerbait egin nai bada, *centros de interés* deritzanak sortu bear dirala. Ots, erakarrigarriak, makurgarriak sortu bear dirala iritxi nai danaren alde. Gizartea, makurgarri oien indarrez dabil beti. Eta makurgarri oien izaerarik bearren-bearrenekoa, erretasuna da. Gizartearen ibiltze guztia, erretasun-barruan dabil. "Obea", berriz, ez da izan oi erreza. Gaitza baizik. Orregatik da esana, len aipatu degun arako esakun ura: "Obea, askotan onaren etsai".

Obe litzake uso-talde guztia arrapatzea; bañan talde guztia arrapatzea baño errezago bait-da bakar bati atxikitzea; talde osoaren ondotik gabiltzala, geldi giñezke bat ere gabe. Euskera osoa iritxi naiean gabiltzala, geldi giñezke gaur, zenbait lekutan, degun Euskera-erdi ori gabe. Orregatik da len esan dedana: deguntxoari lenbaitlen ta atzaparka—tragikoki—lotu bear gatzazkiola. Bestela, zenbait lekutan, galduak gerata. Ez degula lan zallegirik erriaren leporatu bear. Ez degula itsutu, txoratu bear, egan dijoan "obearekin". Bear ditugula ta oso bearrak gañera, Anaitasuna" bezelako —nola esango degu *bien-posibilista?* ditekentiarrak, ditekenezaleak.

Bertsolariak ere aipatu ditugu lentxuago; bertsolariak eta bertso-berriak... (aiek galduerazi bai-didate neri, erderakadak nabaritzeko ta sentitzeko len nuan zentzu guztia). Galdera bat gai onj buruz ere: Zer arrera egin bear diogu, A. Zabala batek laister argitara nai duan Bertso-berri-sail ikaragarriari? "Anaitasuna" zerbait bada-ta, aiek ere izango bait-dira bat-txo... Ez ote-dira aiek ere, Euskera "lurrean arrastakatzeko" izango? Euskerari kalte egiteko, alegia? Lengo batean norbaiti entzun nion bezela: Aita Kardaberatz batek, alegia, etziola Euskerari kalte besterik egin bere *Eliz-liburuekin*... Eun urtean gutxienez baserriko jostundegietan irakurtzen (euskeraz irakurtzen, gaur ez bezela) irakurtzen erakutesko erabilli izan zan liburu kutuna, Euskerarentzat kaltegarri...? Nora goaz irizpide oiekin? Jaunak: Zer egin bear degu Bertso-Berriekin...?

Bukatzeko. Nik oso ondo arkitzen det, San Frantzisko'ren semeak, or arj duten arlo beartsu ortan jardutea. Beti ola egin izan dute. Frantziskotarki. *Fratres minores*, ots, "Anai txikienak" deritzate. Eta Bizkai-aldean diarduten arlo ori ere —beren "Anaitasunaren" arlo ori ere— olakoxea da: arlo txikia —txikiena—, arlo

beartsua, arlo arlotea... Ondo dijoakio olako arlo ta lantegi apala aien oial latzezko jantzi latzari. Utzaiegun pakean. Emaigun esker, obeto.

Eta orra, nik ere eman, zor nuan esplikazioa. Ona? txarra? Nola-nai ere, beti biotza eskuan.

M. LEKUONA



ZERUKO ARGIA. 21 urtea. 1956,ko Azaroa. 33 zenbakia.

Beste Frantziskotar batzuen Aldizkaria au ere. AA. Kaputxinoena. Eta benetan eskergarria, bera. Eta gero ta obeto egiña. Iñoiz gexa-antza izan badu, gaur guk oso gatzdun ta poliki jantzia arkitzen degu. Bixia. Gero ta gai geiago ukitzen ditu. Eta esku trebez uki. "Ikasi ezazu" guretzat oso zati egokia da. Liburuena ere, bear bezela dator, bizi. Elerti-zatia, beti bezain polit. Eliz-gaiak beti ere ornituen eta sakonen. Zeruko Argiari dagokion bezela. Izenpeak ere gero ta ugariago. Eta ori ondo. Ez bait-da naikoa, gure lanak argitaltzeko Aldizkaririk ez daukagula-ta lantua jotzea. Ditugunai emalegun gure laguntasun, gure izenpe, gure lan.

Jarrai bide ortatik.

M. LEKUONA



KRISTIÑAU KATEZISMOA. Itxaropena Argitaldaria. Zarauz, 1956.

Bapatean eta ikusi utsez, ez dit sobera atsegiñik ematen neri "Kristau-Ikasbide" berri bat geiago gure artean ikusteak. Bildurra bai; bildur aundia. Len ere lanak eman zituan, egin bear ta, egin genduana errian sartzeak. "Beste bat geiago?". Ori izaten da nere

bapateko biotz-ostikada olakoetan. Egia da, Villasante'k bere Itzaurre mardularekin ardura ori gañetik kendu diguna. Bañan bapatean eta ikusi utsa beste gabe, orixe nabaritzen det nik nere barruan, kristau-ikasbide berri baten aurrean.

Oraingoan, ordea, "Kristiñau Katezismo" berri au ez da Gotzai-Aginduz errietan sartzekoa. Eta, ardura au gure gañetik bota degun ezker, esan dezagun lasa-lasa zer-edo-zer iritzi-antzera gai oni buruz, Katezismo-gai oni buruz.

Eta lenengo izan bedi, "bat geiago" arri dagokiona. Pedagogiaren izenean etortzen zaizkigu, Katezismo berri bat bear litzakela dioten guztiak. Bañan nik uste, ez dutela Pedagogiaren lenengoetako oñarria gogoan eukitzen askotan ola mintzaten diranak. Pedagogia jatorraren lenengoetako oñarria, "textoak txitean-pitean aldatzen ez ibiltzea" da. Besteak beste, batez ere Katezismo-gaiean da oñarri bear-bearrekoa "aldatzen ez ibiltze ori". Beste Jakintzak, "nor-berraren jakintzak" dira, ots, Jakintza personalak. Bañan Katezismo-jakintza, ez da Jakintza personala; gizarte-kutsu aundia ere ba'du. Legeak-eta izan oi duten izaera gizartetarra du Katezismoak. "Formula sakratu bat" dala esango nuke nik. Eta olako "formulakin" ezin ibilli giñezke esan oi dan bezela, "katua bere umeakin" ibilli oi dan antzera. Legeak eta Konstituziñoak... eta Katezismoa ere bai, bein egin bear dira. Oraindik ez dira berrogei urte, orain deguna egin zala. Pedagogiak egin al du geroztik olako aurrerapenik? oñarri guztiak autsierazteko añaako aurrerapenik?

Katezismoak gizarte-kutsua duala esan degu. Orra beste kutsu oietako bat, eta ez nolanaiko garrantzikoa. Ikasteen. Kristau-ikasbidea ez du umeak norberak bakarrik ikasten; asko ta asko —baserrietan batez ere— "etxean" ikasten du, etxean, "familiar", etxe-koekin batean; eta orrek, batez ere ba'dakigu zer esan nai duan: etxeko guztiok "bat" jakitea, eta ortarako txitean-pitean aldatzen ez ibiltzea. Atzo entzun nuan, ain xuxen, baserritar baten iritzi auxe gai ontan: "Dotriñik" bat ere ez ikasteko etsaiak sortu duan atarmenturik ederrera "dotriña berria dala". Baserritarra zan au ziona. Kristau-ikasbidea etxean ikasten dan baserri aietakoa. Eta lengo "berritzeari buruz mintzaten zan... Bañan ura bearrezkoa zan. Eta zail ta guzti, nolapait sartu zan. Jainkoarren! ez gaitezela sar beste "berritze" geiagotan!

Bañan ba'dakigu, ezer berritzera ez datorrena guk eskuartean daukagun au. Ala ere, beste zerbait geiago ere esango nuke nik Katezismo-gai onixe buruz.

Orain artean erabilli izan diranak, "ego-zentrikoak" dirala dio

Itzaurre-egilleak; eta Katezismoak, "Kristo-zentrikoa" bear lukeala... "Bi estutakoa" izan bear lukeala esango nuke nik obeto; "bi eskutakoa": "Kristo-zentrikoa" esku batetik, eta "ego-zentrikoa" bestetik. Bañan guzti ori nola egin ez bait-liteken olako liburu txikian, nik au esango nuke oraindik: Ez Katezismoak, *Katekesisak* izan bear duala "bi eskutakoa", Katekesisak berak. Katekesisa, berriz, ez bait-du Katezismoak bakarrik osatzen; Katekesisa Katezismoak alde batetik eta Katekistak bestetik osatzen dute. Katezismorik ederrena, libururik ederrena ta osatuena egin-da ere, ezin kendu dezakegu, ezin utzi dezakegu alde batera Katekistaren egiteko ta arloa —Apaizaren egiteko ta arloa, batez ere—. Apaizak egin bear du, osatu bear du, Katekesisaren "Kristo-zentrikotasuna".

Katezismorik ederrenean ere, beste aldetik, ezin utzi dezakegu alde batera "ego-zentriko-aldea". Morala batez ere, *essentialiter*, bere muñetaraño ego-zentrikoa da. Eta Dogma ere ez dago gaizki "Ego-zentrikoki" erakustea; ez dago gaizki gure Jesus "guretzat" zer izan dan eta zer dan erakustea. Egia, ori ez da izango gauzaren "alde bakarra"; bañan "alde bat" bai, eta ez txarra.

Emen dagona, auxe da: an, Alemania'n sistema berriren bat sortu dala-ta, beste gabe, ez degula guk gure lengo zaharra zokoratu bearrik. Dala "ego" dala "Kristo-zentriko".

Orixen Katezismo omen eskola berriari buruz esan nai nuana. Zentzu ederrezko zer orixe.

Gañerakoan, darabillan euskerari buruz zerbait aurkatu bearrik izango nuke, "Katezismo ofizial" izateko sortua balitz. Nik ondo arkitzen det *Anaitasunean* "oñezko" euskera xumea erabiltzea. Bañan beti ere nere iritzia litzake, Katezismo ofizial bat, ez dala kalekumeentzako Aldizkari bat bezela; itzal aundiagoko beste zer-edo-zer baizik. Egokitasun ta dezentzi aundiagoko beste Liburu bat baizik... Len daukagun Kristau-ikasbidea guk ala egin genduan.

Beste gauzatxo bat ere esango nuke oraintxe. Pedagogiaren Pedagogi bearrez, ba'dakigu zenbait pedagogok zer dioten galde-erantzunai buruz. Galdearen azkeneko itzekin erantzuna astea dan gauza egoki ta errezgarria umeentzat. "Bai ba: ola, galdeak berak ematen bat-dio erantzunaren asiera; eta erantzunaren asiera ematea erreztasun aundia ematea da umearentzat...". Bañan nik uste baitdet, "asiera emateak" aña ta geiago errezten ez ote-duan umearen lana, ritmoak, galde-erantzunen arteko ritmoak. Umeari "soka-muturra" ematea, ona da, egia. Bañan galde-erantzunak elkarren artean ritmo eder batez lotzea, paralelismo eder batez berdinkatzea, ez al-da, soka-muturra ematea bezain on ta obe ere? Ikusi dezatela pedagogoak.

Ritmoa diot; eta rima gañera. Rima bukaeran —bertsotan ari baiginean—; eta ritmoa, paralelismoa, gerri-gerrian... Erderaz ez arren, euskeraz ederkj bete bait-diteke, galdeak eta erantzunak ritmo berbera izate ori. Eta, ain zuzen, gure iritzian, euskera jatorrean orixe da, ortantxe dago erantzun orok berez duan joskera: bere galdeak duan ber-bera.

Gañerakoan eusko-eliz-literaturarentzat ondo, oso ondo dator liburuxka au. Abejondaiola A. Berriatua'ri! Dirudianez, ta berak ez dion arren, berari zor diogu-ta olako esku-agiri ederra.

M. LEKUONA



ADRIEN GACHITEGUY. Les basques dans l'ouest americain.
Editions Ezkila. Belloc. URT. B. P.

Adrien GACHITEGUI aldudarra da, Californian egonikako artzai baten semea; orrengatik egin aal izan du liburu bat xarmagarrria California eta errialde aietako euskaldunen berriak emanez.

Hortarako artu du balota bizkarrean eta luma eskura eta joan zaigu toki urrun aietara beretara eta han kurritu lurralde eta eremu gaitzak, izigarriak, euskaldunak ikustatu naiez.

Liburuak ba ditu berrehun orrialde urbil, bere photo ederrekin.

Mintzo da leenik joan direneko dembora zaar aietaz, leen euskal-amerikano-en Historio pitta bat emanik. Gero mintzo zaigu probintziak, eskualdeka, sakabanatuak daudezin gure anaien izenak eta gañeratekoak xeheki emanez.

Nevada, California Idaho (errialde huntaz guttiegi), Wyoming, Arizona-ko euskaldunen bizi tokiak erakusten digu; RENO-n adibidez zembat nafar edo baxe-nafartar dauden; zembat bizkaitar BOISE-n, eta ala ala LOS ANGELES inguruan, PUENTE-n, BAKERSFIELD-en, eta abar.

Ba omen dira FRESNO-n bi bizartegi euskaldun. LOS BANOS iriko alkatea ere gutarra. SAN FRANCISCO-n latsagiak (soiñekoen xuritegiak) eta iriko jardina xuberotarren eskuetan omen daude. RENO-n, iri famatuegi hortan adi bidez, ba dituzu ZORTZI Hotel euskaldun.

Eta ala aunitz xehetasun eta zertzelada balios ematen dizkigu; nola bizi direan, zer lanpideak dituzten, zebat direan, euskarak nola irauten duen, erlisioneko oiturak eta usaiak zer nola gorde dituzten edo ez. Itz batez, iraupen luzeko eta ats andiko estadistika mamitsu eta aberatsa.

Frantses atsegin eta aldika hunkigarri den batean ematen dauzkigu mila berri zeatz, alderdikeri mikorik ere gabe, ezpaizaio nabari apeza denik egilleari erlisioneko gora beeraz mintzo denean ere. Euskaldunek irakurtzea merezi du eta ez direnek alaber berdin, Euskalerriko berri jakin nai ba dute.

A. I.



Fulton Sheen. RELIGION SIN DIOS.

Sheen Apezpikuaz edozein gauza jarri aurretik, oso idazle bizkorra dela esan bear da; ta, alde onetatik, ez du neke aundirik pasako bere azken liburu onetan barrena abiatuko denak. Erraz azaltzen du bere pentsamentua, ta liburuko arian sartu ezkerero, nekez utzi diteke Fulton Sheen'en azalpen jarraikia.

Bi zatj ditu liburuak. Lenbizikoan, Jainkoari buruzko gaurko kontzetuak aletzen ditu argiro ta jakintsu, aipamen guziak eraskin batean zeatz bilduz. Eta bigarreanean, "tomismoaren argitara", egungo erlijiokeri oriek guziak urratu nai ditu, egiazko gogaiak eta tradizioak lengoratzen dituela.

Lenego zatjan, W. James, Alexander, Whitehead, Russell, Croce, B. Smith, J. Huxley, eta beste zenbaiten iritziak dakazki. Auen iritzi oriek orrialde gutxitan aurkeztu arren, beti lortu du Sheen'ek beren teorien guna egoki erakartzea. Eta, itz gutxitara bilduta, au da Ameriketako Apezpikuaren ustez guzien mamia: benetako Jainkoaren ukaera. Gizonagan ezarri ta finkatu nai baita soillik Aren izatezioa.

Jainkoaren kontzetu oker eta uskor auen jaterria billatzen du gero, ta Lutero, Descartes, eta Kant'en filosofian arkitu uste du. Zati onetan ederki azaltzen dizkigu iru auen joerak, Erlijio ta Jainkoari buruz bereziki; eta, Sheen'en ustez, etziran beroriek ondo

konturatu beren okerren larritasunaz. Baña denborak jakiñerazi digu ondoreetan.

Azalpen au, eta berebat ere tomismoarena, maixu bikain baten azalpen argitsuak dira, ta lan onurakorra da irakurtzea.

Oneraño, ortaz, eragozpenik ez dago, ta zorionak ematen dizkiogu Sheen jaunari.

— Esan dugun bezela, errefutatzeke zatia dugu bigarrena. Laburki, bañan argi, zeatz eta sakon tomismoa azaldu ondoren, oñarriztat auxe arturik, ondoreak ateratzen asten da egillea, eta gaurko filosofoen okerra erakusten digu.

Alere, apalkiro bederik, “baña” batzuek jarri nai dizkiogu Sheen jaunari bigarren zati onetzaz.

Geien-geienetan jatorrizko akats bat izaten dute errefutaerak: beste oñarri batetik eraiki oi dirala; ta, ala gertatzean, indar guzia galdu oi duela arrazoiamentuak. Zeren bestearen oñarriak, asieratik eta bidez urratu baño leenago, baztertu egiten badira besterik gabe (edo aaztu, berdin da au eta), nork bere bidetasuna erakusten du, bai, bañan ez besterik.

Eta, errespetuz orretan datza ain zuzen F. Sheen'en akatsa. Polemika-liburu geienen akatsa, alegia.

“Cual es el valor de la filosofía de la naturaleza fundada en la ciencia empirica” zatiari (8 gn. kapitulua, 213 gn. orrialdean) ezin baietsi dakioke iñola. Bere iritzi osoa, tomista baten postuladua besterik ez da. Oñarriztat San Tomas arturik, postuladu baten jarraipenak dira bere konklusioak oro. Uts auxe du zazpigarren kapituluak, eta gañerakoak ere berdin.

Orrengatik, liburuko bi zatiak, bi “zati” dira, benetan, eta ez bi “atal”; eta tomista ez den batentzat zer-ikusirik ere ez duten zatiak. Iñarrosi egiten dute tomismoaren bidetasunak eta barne-indarrak, egiazki; baña probatu, ez dute ezer probatzen. Beste plau batean jartzen da, bada, F. Sheen asieratik (San Tomas'enean, esan dugu). Beraz, nor bere plauan geratzen da azkeneraño; bai maiseatuak, eta bai maisealaria bera ere.

Eta goazen bigarren akatsarekin.

Galgarri deritzagu Elizan nabaitzen den joera bati: erdi-dogma bat biurtu da tomismoa. Badakigu ezetz, ori ezin gerta ditekela; eta filosofian, Egiatik baztertu arte beñipein, nai-ta-ezko onarkizunik ez duela kristauak. Bañan oinbeste mendetan zear “betiereko filosofia”, ta Elizaren “filosofía ofiziala” tomismoa izan dela-ta, badirudi onen filosofiaren aurka joateko, kristautasuna galdu ta irten-edo bear dela Eliza beretik.

Ta, dirudienez, geroz ta aukera gutxiago du tomismoak Egia osorik azaltzeko.

Gaurko Fisikak batez ere (Einstein, Planck, Heisenberg'enak) dardaratu egin du gaiaren ezaguera. Ta naiz-eta aren irakaspenak oso erlatibuak eta igikorrak ba dira ere (ez dugu onetzaz duda izpirik), kontzetu zaar asko il bide-dira betirako: sustantziarena batez ere.

Auxe egin zuen Copernico'k Astronomian. Zergatik ez Fisikan gaurko jakintsuak? Zerbait berri jakin dugu segurki gaiari buruz, eta ezin aaztu diteke au.

Liburu mamitsua eman digu F. Sheen'ek. Baña gogozago irakurriko genuke orain "beste" bigarren zati bat.

Ez dugu uste, gañera, egungo gizon egartiari San Tomas zaionik egokiena. Zergatik ez gera katolikuak beste bide batetik abiatzen? San Agustin, esate baterako, gertuago dago gugandik zalan-zik gabe, San Tomas Akino'koa baño.

TXILLARDEGI



«EUSKO-GOGOIA» ETA «EUSKERA»

"Euskal-aldizkari bakarra" ez ezik "euskal-aldizkarien erregea" —itsuen errian okerra errege—, ots, "Euzko-Gogoa" irakurtzen duenak aurki dezake azken zenbakiaren 115'gn. orrialdean onako izen au daraman lantxo bat: "Euskera. Euskaltzaindiaren lan eta agiriak. 1956". *Western* batean bezala, baiña 20-30 lerrotan, U. jaunak, lantxo orren egilleak, zuzentzen ditu oker franko: gaiztoak igesi dijoaz, gezurrezko euskaltzaleak —ardi-larruz jantzitako otso maltzurak— lotsagarri gelditzen dira, garai berriz U. jaunaren adorea, kemena, buru jantzia eta biotz gartsua. Astiñaldi ederra eramán dute batzuren batzuek neróni ere, esateak lotsatzen nau, urruti enaizelarik.

Enioke nik iñolaz ere kendu nai U. jaunari garaita eder orrek utzi dion poza: bere saria merezi du langille zintzoak. Beldur naiz orratik, etsai izugarriak eta erraldoj itzalak apurtzen dituelakoan, ez ote den ardi otxan eta aize-errotekin borroka ibilli.

Mancha'ko zaldun ibiltariaren ibillera berriak —luma darabil oraingoan armen ordez— onelaxe asten dira: “Azkenik eskuetara zait Euskaltzaindia'ren aldizkaria: ao bete aginekin utzi nau, damurik. Zortzi idazlanetatik bi soilik euskeraz, Altube ta Lekuona euskaltzain iakintsuenak, alegia. Dirudinez, zenbaiten iritzian, euskera zaitzeko biderik ederrena erderaz idaztea bide da. Nik, beintzat, eztut aien begietatik argia ikusten, ala bearrik”.

Burrundara bizian etorri da eraso, baiña zaparrada atertu ondoan leen bezain lasai ari dira ardiak belarretan. Zergatikoaren galde dabillenari arrazoi franko eman dakizkioke. “Euskera zaitzeko biderik ederrena erderaz idaztea dela” uste duten “zenbait” oriek, ona bat, euskeraz ere idazten baitute: “zenbait” orietatik iruren idaz-lanak orrialde auexetan irakur ditzake U. jaunak eta orietatik baten lan luze bat “Euzko-Gogoa”-n bertan, bere purrustalditik ez oso urruti. Ortaz gaiñera, aaztu egin zaio nonbait U. jaunari esatea ainbeste mindu duten erdal-artikulu orietatik bi iztegi-tankerakoak direla: Lafon jaunarena bata, Azkue zenarena bestea. Oriek zeäro txarrestekotan, txarretsi ere bearko ditu, bere buruari uko egin nai ezpadio, munduan diren euskal-iztegi guztiak edo ia guztiak. Azkue'renean, Lhande'renean, López Mendizabal'enean, esate baterako, euskal-itzen adiera erderaz azaltzen baita. Bestela esan, erdal-liburuak baitira U. jaunarentzat eta orrenbestez euskaldun jator batek, agi denean, ukitu bear elituzkeanak.

Esanak axialari dagozkio. Mamiari begira dizaiogun. “Euskera”, Euskaltzaindiaren aldizkaria, ezta iñoiz euskera utsez agertu. Or azaldu dira, gogoangarrienetatik bat edo beste aipatzeko, Azkue'ren “Morfología vasca” osoa —ezta laburra— eta Altube'ren “Erderismos” eta “El acento vasco”, euskeraren kaltean bear bada U. jaunaren ustez. Eta ezta iñork aditzera eman, nik dakidanez, “Euskera”-k, bigarren agerraldi onetan, bere oiturak aldatuko zituenik. Etzuen, bada, U. jaunak besterik itxedoteko eskubide andirik; aoa bete agiñekin gelditu bada, eztizkio iñork agin oriek aoan sartu.

Esatera noan erdaldun batek ere —euskalaria bera, eta Euskaltzaindiaren urgazlea— idazten duela or, baiña obe dut ez esan. U. jaunak ezpaititu gogoko euskalariak: “Euskalariak baino areago euskaldun eta euskaltzaleak bear ditugu, noski baino noskiago, beste nonbait idatzi nunez.”

Adimen aberatsa bear gizonak orren antzeko burutapen bat izateko! Orrelakorik bein bederen izan duena lasai il diteke, esan baitetzake arako arek baiño eskubide öbez: “Non omnis moriar”. Eta

utsa balitz bezala esaten digu U. jaunak "nonbait" idatzi zuela! Ez ote du gelagorik merezi? Burutapen garai guztiak bezala, bakuna da, ximplea, zoroak ere igerriko liokeana. Bi gizon-mota baizik ezta, gauza nabariagorik: euskalariak batetik, euskaldun-euskaltzaleak bestetik. Nortzu dira euskeraren etsai? Euskalariak. Nortzu laguntzaille? Euskaldun-euskaltzaleak. Akaba ditzagun, beraz, leen baiño leen euskalariak eta pake ederrean biziko gera aurrerantzean euskaldun-euskaltzaleok.

Baiña, eskarmentua duenak daki, burutapenik arrigarrienak ez-tira beti zuzenenak: auts blurtzen zaizkigu maiz astiroago aztertu ezkerok. Norbaitek galda lezake: Zergatik ez esan "Apaizak baino areago euskaldun eta euskaltzaleak bear ditugu"? Edo: "Medikuak baino areago", edo "zapatariak baino areago"? Berdintsu litzake esatea: "Emakume beltzeranak bear ditugu ezkongaiak baiño geiago".

Gauza ageri xamarra da zapatariak euskaltzaleak direla batzuetan, eta besteetan ez. Orobat apaizak, medikuak eta euskalariak. U. jaunak ori ikusten ezpadu, badu, ezagun da, makurren bat begietan. Elioke batere kalterik egingo mediku euskaltzale edo ez euskaltzale batengana luzatu gabe joateak.

Nik, egia esan, kale-garbitzaille edo zatar-biltzaille izatea naiago nuke, baiña enaiz damurik ez kale-garbitzaille ez zatar-biltzaille: euskalaria naiz, edo obeto esan euskera batez ere gogoan duen linguista. Ori da nere lanbidea eta ori nere irabazpidea. Dakidanez, eztiote iñori soldatarik ematen ez euskaldun delako ez euskaltzale. Obe bai, neretzat beintzat, euskaldun naizenik ezpailirakete ukatuko. Eztu gure lanbidea, aditzea dudanez, iñongo elizak eskumikatu ez iñongo legek debekatu. Beraz, nerean ariko naiz orrelakorik ezten bitartean edo U. jaunak illeroko euskaldun-soldata ordaintzen eztidan bitartean: ugari xamarra bearko du izan gaiñera, familia mantentzea gero eta zaillago baita. Badakit gauzak zearo aldatuko direla U. jauna gobernari edo —zein bidetatik dabilen eztaikit— Aita Santu egiten duten egunean, baiña bear bada eztagu ori biar goizean ikusiko.

Buskerari lau orrialde ostu dizkiot "Euskera"-n. Zergatik? Burutapen bat izan nuen. Etzen, noski, U. jaunari gogoratzen zaizkionen parekoa. Uskeri bat zen, egia esan, eta iñorena geiago nere baiño. Erderaz adierazi nuen. Euskaldunek, nik uste —orrelako gauzak irakurtzeko gogoia duten euskaldunek—, erderaz bada-kite; irakurtzea nai nukean zenbait erdaldunek, berriz, ezta-kite euskeraz.

Oker nengoen bear bada eta artikulutxo orren berria, gutxi ajo-la badu ere, geiago barreiatuko zen euskeraz egin baldin banu. Zorioneko zenbaki orretan, adibidez, bada Tovar jaunaren erantzun bat; Corominas jaunari zuzendua dago. Ark eztu ontzat artzen onek *abaraka* euskal-itzari ematen dion jatorria. Gauzak bear bezela balira, euskeraz egingo zukean agian bere lantxoak. Errazago zitzaio-lako eta, batez ere, euskerazkoa izan ezkeror Corominas jaunak bere arrazoiak aiseago eta argiroago adituko zituelako. Jokabide orren gaiñerako alde onak ere bereala nabarmenduko zirakean. Ura poza arako *abaraka*-ren jatorriaz kezkatan dauden amar-ogei-ren bat linguistena, artikulua orren *separata* edo *tirages à part* direlakoak euskeraz ikustean!

Zergatik eztiogu ONU-ri eskatzen euskera bear-bearrezko izkuntzen artean edukitzea? Nik ez tut uste euskaltzetasuna eta zentzua elkarren etsai direnik. Orrela uste banu, leenago egingo nioke uko euskaltzetasunari zentzuari baiño.

Egin dezagun euskaldunen batek asmatzen edo aurkitzen due-la egun edo biar Einstein'ek fisikan edo Fleming'ek medikutzan asmatu edo aurkitu dutenen pareko zerba it. Eztugu berealakoan ikusiko, izpiritu-gaietan saiitzen diren euskaldunek maiz alde giten baitute guregandik —ez ote ditugu bein baiño geiagotan gerok uxatu?—, baiña eztugu irudimena estuegi lotu bearrik. Zein izkuntzatan emango luke berria? Euskeraz ematea, ez ote litzake mutua artea oiulari?

Euskeraz mintzatuko balitz, kaltea besterik eluke egingo: bere buruari aurrenik, jakintzari gero, munduko eri guztiei sendagairen bat asmatu badu, eta abar. Onik elioke iñori egingo, ezta euskerari ere. Ezpailuke iñork euskeraz ikasiko bere lanak irakurtzearren. Zer erakutsiko luke, gaiñera, euskeraz idatziaz? Gauza dela euskera, alegia, orrelako gaiak adierazteko? Ez aal dira itzuli orain berriro San Agustin'en "Aitorkizunak"? Ez ote lituzke norbaitek, bear izan ezkeror, Einstein'en idazlanak ere itzuliko? Ezta, bada, gaitasun ori egiztatu bearrik: ageri-agerian dago. Orrelako idazlanak irakurtzeko gogoak eta bear bizia sumatzen duen jendea bear genduke.

Eztu orrek esan nai gai oriek euskeraz erabilli bear eztirenik. Baiña bi gauza dira, eta arras bereziak, jakintza irakastea eta jakintza aurrera ztea, edo aurrera zi-naiean ibiltzea, gizon ikasi asko jakitza eta billatzaillea zearo ezberdiñak diren antzera. Munduan barrena dabilzan esku-liburuak, euskaldunen ikasbiderako, itzul-tezari eta aien gisakoak antolatzeari ezin obeki derizkiot. Baiña ja-

kintza-arloan billa ari denak ezer berririk euskeraz adierazi? Zertako? Kontatzen dakienak eztu orrelakorik egingo.

Suezia,ko "Studia Linguistica" aldizkariaren azalean irakur ditezkean itz auker eskeintzen dizkiot U. jaunari: "Alemanez, ingelesez, espanyolez eta frantsesezko idazlanak bakarrik jasoko dira". Beren izkuntzak eztu, beraz, lekuri or. Eta Suezia ezta Euskal-erria eta orrelako oarrak eztera an bakarrik agertzen. Arrotz guztiak ero sortu ote ditu Jainkoak, eta gu bakarrik zuur?

Goazen aurrera. U. jaunaren artikulutxoa, orrialde batekoa izanik, mamitsua da eta ezta oraindik agortu. Auek dira bere itzak: "Gatozen. arira. Ele-eder-euskeraren ioskera dala-ta, idazten digu Altube buru-zuriak, berak oi dun sakon eta argi. Euskal-itx iatorren orde mordoiloenak erabilten asiak ditugu bazterretan. Orain, berriz, *zenbait euskaltzainek* (letra larria nere da) euskal-ioskera bera gainazpikatu ta itzulipurdikatu nai lukete, ageri danez. Burubide oker orren aurka ari da gure Altube".

Emen eztago ukatzerik: neroni nauzute euskaltzain orietatik bat. Enioke nik iñori kenduko, eta U. jaunari iñori baiño gutxiago, kritikarako eskubidea, nere kaltean bada ere. Baiña kritikak baditu bere legeak, eta lege oriek eztera beti gaizki-esatea izan ditezkean bezain atsegina. Jorratzen diren obrak irakurri ere egin bear dira, kritikatuak dionaz jabetu bear da eta irakurleari, kritikoaren iritziaz gaitzera, eman bear zaio zeazkiro besteak dionaren berri.

Esate baterako, eztaikit non ikasi duen U. jaunak zer *nai dugun* euskaltzain geralakook. Eztut uste gure barrena, Jainkoak bezala, irakurtzen duenik eta eztu esaten zein dokumentutan azaldu dugun "euskal-ioskera bera gainazpikatu ta itzulipurdikatzeko" borondate ori. Gure bidetik ibilliaz ori baiño okerragoak gertatuko lirakeala uste izateko eskubide osoa du, baiña ez guk orrelakorik *nai dugula* esateko. Ortarako "ageri danez" bat baiña lekuko obeak bear dira.

Nor dira, edo nor gera, *zenbait euskaltzain oriek*? U. jaunak dotore baiño dotoreagotzat edukiko ditu zear-esan eta aipamen izkutu oriek, baiña munduan barrena egiten den kritikak aspaldi utzi zion "ikusimakusika" ibiltzeari. Aurtzaroa joan zitzaigun. Igerketaz bada ere, pentsa dezakegu "zenbait" eta "lukete" oriek ezterela *figura rhetorica* utsa. Bat baiño geiagor ari da, beraz: bitaz gutxienez. Euskaltzainak ainbeste ezteren ezkeror, Aita Villasante izango dugu noski bigarrena?

Bada, nere ustez, irakurleak, geiago ezpadaki, eztu ortik argi-

bide zuzenik aterako. Zer ikusirik duten puntuak auexek dira, deritzadanez: 1) itzalditxo bat egin nuen bein, gero argitara emana, Oihenart'en olerkiei buruz; 2) itzalditxo orretan, bizpairu itz sartu nituen bidenabar "Axulartar" zirelakoen kontra, Aita Villasante'ren kontra batipat; 3) ori zela-ta aipatzen nuen Altube jaunaren "Erderismos" ez berak finkatutako legeak mugatzen saiatzeko, baizik nere ustez gutxi edo geiago mugatu-bearrak zirela adierazteko. "Euskera"-n, nik esanari erantzun dio Altube jaunak, Axulartarrak eta Aita Villasante, oso oker ezpanago, zearo alde bat utzirik.

Aita Villasante'rekin nuen auzia labur azalduko dut. Axular eta bere jarraitzaileak onek nai zuen bezala eredutzat artu ezker, enuen uste nik sintaxis-aldetik erabat alda zitezkeanik. Zuzen nengoen ala ez, bestek esan beza. Argi eta garbi dago nolana ere ez giñala Aita Villasante eta ni iritzi batekoak. Pekatu asko genituen apika, baiña nork bereak. Eta "Euskera"-n Altube jaunak inor astindu bada, ni astindu nau, eztitu *zenbait euskalziain* astindu.

U. jaunaren azken-itzak ipiñiko ditut orain: "Lekuona'k, berriz, deikia edo bokatibua nola erabili bear dugun aditzera ematen digu, oso ta gozo. Bi idazlanok pozarren irakurri ditugu. Erderazkoen iritzia emateko nor ezker, euskera iraunerazteko, edertzeko ta zabaltzeko bidea erdera danik ezpaiteritzagu, bestalde".

Erderazkoen iritzia emateko nor ezker. Zer esan nai du ateraldi orrek? U. jaunak erderaz eztakiela? Eztut uste. Orrelako gauzak arrotzen bati-edo esan dakizkioke, baiña emen elkarren berri badakigu. Erderazkoen gaiak bestelakoak, esoteriko orietakoak, direlako? Ezta ere. Esaterako, Altube jaunak euskeraz darabillen gai berbera darabil erderaz Aita Villasante'k, iritziak bat ez etorri arren. Bati buruz iritzia emateko gauza bada, beraz, gauza ere da besteari buruz mintzatzeko.

Nik—neronen burua obeki ezagutzen dut besterena baiño—zenbait gai ukitzen dituzten idazlanak, ezer balio baldin badute, irakurri egiten ditut, naiz euskeraz egon naiz irispidean dudan edozein erderatan; beste zenbait sailletakoak, berriz, eztitut irakurtzen ez erderaz ez euskeraz, ezin-utzizko eginkizunen batek beartzen ezpanau. Jende zentzudunak orixe berbera egiten zuelakoan nengoen: oker, dirudienez. Ero-etxeetako maizterren egitekoa da ori bear bada. Jende zuurrak mamiari baiño geiago begiratzen bide dio izkuntzaxalari.

Nere gogo eta naia aotan artu duten ezker, zillegi izan bekitt neronen mingaiñez adieraztea. Euskal-kultura nai nuke, kultura

orrek euskera mintzabide duela. Orretarako, nik uste, kulturarako gogo bizia duen jendea bear genduke aurrenik, eta gaiñera euskaltzalea. Gogorik eztuena eztut nik gutxietsiko: esku osoa du nai çuena aukeratzeko. Ortan ere, "berez bear Villabona'koa": euskaldun eta euskaltzale izatea ezta aski. Baiña gogodunek gauza bat bederen eska dizaiokete "euskera lantzen" ari diren gogogabeei: pakea.

Bestela, zorioneko euskera landu-bear orrekin, iru motatako idazlanak sortuko zaizkigu soil-soillik: a) lan "sakonak" *pour épater l'étranger*, b) "A, gure Euskera ederra!", c) "O, gure Euskera gaxoa!" Eztute euskaltzale guztiek idazten jardun bearrik. Denek bat-batean filosofiaz mintzatzen asi bearrik ere ez. Badago lanik aski euskaltzaleentzat ortaz kanpora euskera gordetzeko eta zabalatzeko. Gogo-gaiztozko lanak eztio iñori onik egingo, eta euskerari iñori baiño gutxiago.

"Zenbait euskaltzain" oriengana nator berriz ere. Esan dudanez, nere itzalditxoan egin nuen garaiean alde batetik zebillen Aita Villasante eta bestetik, oso bestetik, nenbillen ni. Zer dela-ta elkar ar-erazi digu U. jaunak? Gure iritzien ezberdintasuna gutxitu egin du denborak, egia esan. Baiña, dakidanez, bein bakarrik adierazi du ori Aita Villasante'k, ainbeste aldiz aipatu dugun "Euskera"-ren zerbaki onetan, ain zuzen ere. Damurik, gutxiagok uler dezaten-edo, erderaz eman du bere iritzi berria. Nondik daki, bada, U. jaunak —*hispanica non leguntur*— "zenbait euskaltzaiñen burubide okerraren aurka" ari dela Altube, erderazko lan ori irakurri ezpadu? Eta nondik daki burubide ori, Aita Villasante'ri dagokionez, okerra denik "erderazkoen iritzia emateko nor ezpada"?

Utzi ditzagun itxurakeriak lagun-arteaz beintzat: eztakit kanpotarrei ziririk sartuko diogun —kanpoetan ere jendea ernatzen asia omen da—; etxekoei ez, beiñipein. Utzi ditzagun quijotekeriak, zentzatzeko ordua badugu-ta. Utzi dizaiogun, gere buruak edertze-ko edo, akullu-bearrik eztutenak akullatzeari. Ken dezagun, arren, burutik euskera. Mintza gaitezen ontaz edo artaz —euskeraz, bai, orduak eta gaiak eskatzen duten guztietan—, baiña gaiari begira eta ez izkerari bakarrik.

Ez lau orrialdek, ez laurogeik, ez laureunek eztiote euskerari gora edo beera andirik egingo, bearra bearrik eragin ezpadu. Izkuntza bat —eta euskera ezta besteak ez bezalakoa— ezta mintzabide bat besterik. Zerbaitetarako da, zerbait adierazteko, ez bere txilborrhari begira egoteko. Zenbat eta geiago idaztea, obe. Eta besterik ez? Egia esan, etxeko liburutegirako liburuak metroka erosten dituzten aberastu-berrien neurriko burubidea iruditzen zait ori.

L. MITXELENA

OLENTZARO, KALERRE TA SUBILARO

Urkijo Mintegi-ko Solasaldia (20-XII-1956)

Ba-dira ogei ta amalau urte Olentzaro'zaz berri batzuek lenengoz argitarazi nituela (1). Geroztik ez naiz bide ortan maiz ibilli. Bañan aurzaroko gertaerak gogoratzea maite bai dute zaarrak; nik ere Olentzaro eta bere inguruak berritzeaz eta astintzeaz atsegin artuko det benetan.

I

Asi gaitezen agirienetik.

Edozein gaietan, izena da azalena eta agiriarena. Beraz, lenengoz, itz bi Olentzaro'ren izenazaz.

Olentzaro'k ez ditu nun-nai izen berdiñak. Toki batzuetan *Olentzaro*; besteetan *Subilaro*, *Kalerra*, eta, eta.

Bañan Olentzaro'ren egitea eta antza duten izenak edaturik daude, bai Gipuzkoa'ko itxasaldean eta Beterrin, bai Nafarroa'ko iparraldean.

Olentzaro deitzen diote Orexa'n, Lesaka'n eta Arakil'go errietan.

Olentzero Donosti'n, Oyartzun'en, Irun'en eta Bera'n.

Orentzago, Zarautz'en.

Onentzaro, Lizartza'n.

Orantzaro, Leitza'n.

Orentzero, Bera'n.

Orontzaro, Andoain'en.

Onontzaro, Berastegi'n eta Larraun'en.

(1) *Eusko-mitología* (Bilbao, 1922).—*Esquema de distribución geográfica de algunas creencias y ceremonias relacionadas con las fiestas populares* («Anuario de la Sociedad de Eusko-folklore», II. Vitoria, 1922).

II

Olentzaro'ri nor dan edo zer dan igertzen al diogu?

Isasti, lezoarrak, amazazpigarren mendean zionez, *Olentzaro* deitzen omentzioten eskualde artan Gauon-gauari, eta itz orrek "lagun onen garaia" edo "onen aldia" adierazten omentzuan (2). Iritzi bera agertu zuan Azkue'k ere (3).

Ez dirudi ordea bidezko uste orrek. *Olentzaro*, *Orentzero*, *Olentzaro*, *Onontzaro* eta *Orentzago* beste bide batez eldu zaizkigula iduri zait.

Itz orren zatiak: *olen* eta *zaro*. Bigarren au ba-dakigu zer dan: "aldi" edo "garaia", alegia. Auzia ordea "*olen*" ezaz dabilkigu.

Ba-dire, gure artean, *olen* ori lenago Frantzia'n "oleries" deitu oi zielazko jaien izenetik sortu zala diotenak —Aita Etxalar (4) eta Caro Baroja (5). Izan ere, eleiz-otoitzetan, Abenduko zazpi birlelo aundienak O dute beren asieran eta birlelo oiek erabiltzen diren garaia *Oleries* deitu oi zioten.

Ba-da beste iritzi bat ere: *Olen* erderazko *Noel*'dik sortua dala esaten digu Altube'tar Seber'ek (6).

Olentzaro'ren aditzera Gipuzkoa'ko itxasaldean eta Beterri'n eta Naparroako iparraldean dabil edatua. Neronek bildu ditudan berriaz gañera, Lekuonak (7) Azkue'k (8) eta Caro-Baroja'k (9) argitaratu dituztenak lagundu diate, batez ere Olentzaro nun dabillen eta zer dan edo nor dan jakiteko.

Olentzaro'ren izena baño askoz geiago zabalduak daude ordea berari ezarriak dabiltzan sinismen eta oitura geienak.

Olentzaro urtegarai bat da. Au zan noski bere lenengo esan-naia. Bañan erri batzuetan gizajantzi bat eman diote eta giza-iduriko izakitzat daukate. Gauon gaez agertzen omen da. Begi-gorri, odolartuak dituela, diote Zarautz'en. Aurpegi illun, ikatzez beztua, El-duain'en. Urteak zenbat egun Olentzaro'k ainbeste begi eta oraindik bat geiago dituela uste dute Larraun'en. Ikazkiña dala, Oyartzun'en.

(2) *Compendio historial de la muy noble y muy leal prov. de Guip.* (San Sebastián, 1850).

(3) *Euskalerrriaren Yakintza*, I, 223-230 (Madrid, 1985).

(4) Disertación sobre el análisis e interpretación de los nombres toponimicos vascos («Geografía general del país vasco-navarro. Navarra», I, Barcelona).

(5) *Olentzaro* («Revista de Dialectología y Tradiciones populares», 1946, cuaderno 1.º).

(6) *Fonética y etimología euskéricas* («Eusko-Jakintza», I, 38-Bayonne, 1947).

(7) *Fiestas populares. Oyartzun* («Anuario de la Sociedad de Eusko-folklore», II, 12-16)

(8) *Op. cit.*

(9) *Op. cit.*

Ote-sorta bizkarrean eta igitaila eskuan, bildurgarri agertzen dala esaten dute Berastegi'n. Andrea ere ba-dueia, diote Oyartzun'en. Jale eta edale neurrigabea dala, Zarautz'en, Oyartzun'en eta Lizartza'n. Gauon-gauean menditik jexten dala eta, kezuloan bera, etxera sartzen dala, esan oi dute Lizartza'n, Elduain'en eta Berastegi'n. Kezuloak garbi nai dituela, eta, ala ez badaude, etxeokoi burua mozteten diela, Elduain'en.

Etxekoak, gauon-aparia eginda, oera juaten diranean Olentzaro sukaldean sartzen omen da eta Olentzero-enborra'ren suan berotzen: ala diote Oyartzun'en. Edo bere ote-sortari su eman eta aren suan berotzen omen da, Berastegi'n diotenez.

Erri batzuetan Olentzaro'ren iduria —lastozko gizon bat— egiteko oitura dute, batik-bait Leitza'n, Oyartzun'en, Arakil'en eta Lesaka'n. Eta iduri oi bizkarrean eramanez, eskean etxez-etxe ibiltzen dira, egunaz umeak eta gauaz larriak.

Oyartzun'en mutillak, beren arteko bat jazten dute Olentzero —aurpegia ikatzez beztua, ezpañetan pipa, argia eskuan—; bera kaiola batean jarri eta etxez etxe erabili. Bera'n, Pasaya'n, Andoain'en eta Elduain'en oitura bera zuten.

Larraun'go errietan Olentzaro'ren iduria kezuloan zintzilika egoten da, igitaila eskuan eta txapela buruan, gauerdiko mezaondorarte. Lesaka'n, Leitza'n eta Arakil'en berriz leio batean jartzen dute. Eta gero —Lesaka'n beintzat— lastozko Olentzaro ori erriko plazan erre oi dutela, dio Caro-Baroja'k.

Olentzaro albistari bat dala, Jesús jaiο dalazko berria dakarrela, digute Bera'n eta Oyartzun'en.

Oyartzun'go gazteak —Gauonetako eskean dabiltzanak— au abesten dute:

“Olentzero juintzaigu
mendira lanera
intentziyuarekin
ikatz egittera;
adittu duenian
Jesús jayo dela
lasterka etorri da
parte ematera.

Onen antzekoa da Donosti'n Baroja'tar Pio'k bildu zuen abesti bat ere (10).

Iñoiz gizon izugarri bat dirudi Olentzaro'k. Burua mozten omen die kezuloa garbitzen ez duten etxekoai (Elduain). Baita baraua austen duten aurrai ere (Larraun):

“Onontzaro begi gorri
txaminira da etorri;
austen baldin badegu barua,
Orrek lepua kendu guri.”

Abesti batzuek Olentzaro sabelkoj ezin-ase bat azaltzen digute. Ara Oyartzun'en eta Lizartza'n zer diguten:

“Orra, orra
gure, Olentzero:
pipa ortzian duela
exerita dago.
Kapoyak ere battu
arrautzatxuakin
biar berendatzeko
botil arduakin.”

“Olentzero guria
ezin degu ase:
osorik jan dizkigu
amar zerri gazte:
sayeski ta solomo
makiña bat este:
Jesus jayo dalako
kontsola zattezte!”

“Olentzero guria,
portuna tristia,
arropak saldu dizka
bere emaztiak.”

“Olentzero buru-aundiya
entendimentuz jantziya:
bart arratsian ustu digu
amar arruako zagiya.
Ay, urde tripraundiya!”

Bera'n, Caro-Baroja'k dionez, au abesten dute Gauon-gauean Olentzaro-eskean dabiltzanak:

“Olentzaro
buruaundiya
entendimentu gabia,
juan den gabian
edan duela
amar erruko zagia.
Ai urde trip'aundiya,
sagar ustelez bettia!”

Lesaka'n ere berdin abesten dute Olentzaro'zaz eta, azkenik, bere iduria erretzen (11).

Larraun'en moskortzat daukate Olentzaro. Ara zer dioten:

Ononzaro begi-gorri
Non arrapatu duk arrai ori?
Bart arratseko amaiketari
Zurriolako arroketa.

Arraiak moskorkeria esan nai baitu, leku batzuetan beintzat (12). Abesti bera aditu izan zuan Baroja'tar Pio'k Donosti'ko karriketan (13).

Beste erri batzuetan urtezarrez egiten dute su berezia (Araba'n). Gazeo'n eta Onraitan bizpauru etxetakoak su aundi bat pizten dute apalondoan. Su ortan gaztañak erretzen dituzte eta berak jan. Bitartean mutilkoak zagi zarrari su eman eta, makilla baten muturrean zintzillik dituztela, ibiltzen dire oyuka esanez: *erre pui erre*, "quéma-le el culo a año viejo".

Garayo'n mutillak lastozko gizaiduriak egiten dituzte. Urte zararren iduriak direla ta, gaeuz su ematen die, oyuka esanez: *erre pui erre*.

Amarita'n ere zagi bat erretzen dute eta bitartean au abesten: "*Erre pui erre*, a quemar el culo a Putierre".

Salvatierra'n eta Alegria'n *Galerre* deitzen zioten urtezarren iduriari, eta bera erretzen.

Ullibarri-Ganboa'n eta Argomaniz'en berriz. *Kalorre*. Eta "*erre Kalorre*, a quemar el culo al año" esanez sua zeriola erabiltzen zuten, Baraibar tar Federiko'k zionez.

Beraz Gipuzkoa'n eta Nafarroa'n Olentzarori loturik dauden zenbait sinismen eta oitura Olentzaro'ren izena eta ezaguera baño geiago edatuak dabiltz Euskalerrian.

Badirudi Olentzaro (ikazkiñ eta igitaidun gizona) iragan dan urtea dala, *Kalorre* bezela.

III

Olentzaro'kin badute zer ikusi Sara'ko *Suilaro*'k, Arakil'go *Xubilaro*'k, Uharte'ko *Xularo*'k eta Zaraitzu'ko *Sukaro*'k; *denak* gauonetako urtegarai adierazten bai dute. Uharte (Mixe)'ko umeak eskea egiten dute esanez:

(12) Azkue (Resurrección Maria). *Op. cit.* .

(13) *Op. cit.*

Xiularo laro eguna
Haurren barur eguna
Zazpi izar yelgueta
Haurren askal-orena.

Izen oek, beren egitez, *subil* eta *aro* dituzte beren sustraitzat. *Aro* eta *aro* berdiñak dire. *Subil* berriz zuaitzaren gerria edo adar lodia da. Ataun'en *sunbilla* deitzen diogu.

Gauonetako sunbillari Oyartzunen *Olentzero-enbor* esan oi dio-
te; *Onontzaro-mokor*, Larraun'en; *Gabon-ubil*, Antzuola'n eta
Abadiño'n; *Gabon-mukur*, Bedia'n; *Gabon-zuzi*, Zegama'n, *Gabon*,
Trespuentes'en; *Porrondoko*, Salvatierra'n; *Subilaro-egur*, Aezkoa'n;
Suklaro-egur, Zaraitzu'n; *Sukubela*, Liginaga'n.

Sunbil ori Gauon-gauean sutan jarri oi dute Euskalerriko etxe as-
kotan: Llodio'n, Trespuentes'en, Salvatierra'n, Bedia'n, Otxandio'n.
Arratia'n, Abadiño'n, Plazentzia'n, Antzuola'n, Zegama'n, Oyartzun'en,
Eskiroz'en, Eraso'n, Arakil'en, Zaraitzu'n, Liginaga'n, eta, eta.

Eskiroz'en eta Elkano'n iru sunbil jartzen dituzte: bat Jainkoari,
bestea Andre-Mari-ri, irugarrena etxeokoi. Eraso'n eta Arakil'en ga-
ñera etxeokoi danai sunbil bana jarri oi die eta eskalearentzat bes-
te bat.

Trespuentes'en jartzen zuten gauon-sunbilla, idi-uztarde batek
sartzen zuan sukaldean eta urte guztian sutondoan irauten zuan; La-
rraun'en gauon-egunean eta gauongauetz sutan edukitzen zuten;
Llodio'en eta Salvatierra'n, urtezar arte; Arratia'n, Otxandio'n eta
Zaraitzu'n, gauon-gauean bakarrik.

Olaeta'n, urtezar-gauean pizten dute pago-sunbil bat eta bere on-
doan erretzen dute erabat aurreko urtezarrez piztu zutena.

IV

Sunbil orrek, gauon-gauetz edo urtezarrez sutan egon dalako, in-
dar berezia du. Oyartzun'en bere sutan aparta egiten edo eratzen
dute. Antzuola'n eta Abadiño'n ere berdin; eta gañera, apalondoan,
etxeokoi danak bere inguruan berotzen egon oi dire.

Elduain'en su aundia egiten dute gauon-gauetz; bestela Olentza-
ro, igitañ bat eskuan, kezulotik bera jexten dala uste dute eta etxe-
koak il.

Ezkiroz'en Jainkoarentzat gauon-gauetz piztutako sunbilla, etxe-
ko atalarrian jartzen dute urteberriz, edo bestela Salanton-egunez,
eta bere gañetik etxeokoi abereai ibillerazi. Orren bidez urte berrian
abereak ez direla, ezbearrez, galduko uste dute. Oitura bera zuten lē-
nago Oyartzun'en eta Arakilen ere.

Salvatierra'n sunbil orrek ekaitz'gaiztoak urruntzeko indarra duela-ta, odei aserre bat alderatzen dalarik, berriro sutan jartzen dute.

Otxandio'n eta Arratia'en, zezena duten etxetako oitura berezia au da: egur bi jartzen dituzte sutan gauon-gaueko apalgaraiian; mutur banatatik erretzen dire zerbait; gero bietan luzenari mutur-errea pitza eta beste egurra pitzaturan gurutzatu; gurutze oi zezenaren kulluan ezarri. Zezenak ez omen du *maminpartidu* dalazko gaitzik urte guztian izango.

Aezkoa'n sunbilla edo bere txingarrak gorde oi dituzte. Bei bati errapea gogortzen bazaio, aien suak ematen duan keaz lurrintzen diote.

Olaeta'n urtezarrez, apalondoan, sunbilla sutatik ikulura eramaten dute eta bertan utzi, abereetatik gaitzak aldendu ditzan.

Amorebieta'n uste dute erbiñudeak ez diela etxekoai kalterik egingo, ezta ere beren abereai, gauonetan sunbila pizten badute. Ez diote suari iltzera uzten gau ortan: bestela etxekoen bat urte barruan ilko ote dan bildur bai dire.

Gabon-mukurra edo bere ikatza etxean gordetzeko oitura dute bediatarrak: orrek etxea bedeinkatzen omen du-ta.

Liginaga'n gauon-sunbillak ardiai ume-urraxeak sorerazten diela uste dute.

Ibarruri'n gauon-gauez sutondoan egiten dan autsa Doneztoan egunean soroetara eraman oi dute eta lurrean gurutzetara zabaldu, pixtiak akabatu ditzan.

Eraso'n, bat iltzen dalarik, bere gauon-sunbilla ondoan lagun jartzen diote.

Beraz Olentzaro-enborraren ezaguera ere izen au baño askoz geiago edatua dago Euskalerrian.

V

Olentzaro ez da toki askotan aipatzen dan itza; baiñan berari ezarririk dabiltzan sinismen eta oiturak ba-dire nun-nai, naiz Euskalerrian eta naiz erbestean, batikbait indoeuropatarren errialdeetan.

Sinismen eta oitura oek loturik daude, ez gauon-gauari bakarrik, baita urtezarrari eta Done-ibane-aurreko gauari ere.

Donibanez egin oi diren suak, etxekoen eta beren abere eta gauzen alde, gauon-gauekoak bezela, indarra badutela siniste zabaldua da. Urtegarai bietako siniste eta oiturak egite berekoak.

Donibane-aurreko gauean Zegama'n zagia makillan zintzilik erabiltzen dute mutillak sua dariola, eta bere pikaz etxetako atea bezetu, urtezárrez Amarita'n Gazeo'n eta Onrait'a'n bezela.

Durango'n eta Lizartza'n berdin erabiltzen dituzte zagiak.

Larraun'en ere zagia su-ta-gar erabiltzen dute eta bere pikea ontzi batean biltzen itzautzek sendatzeko.

Berastegi'n iru kûso, arbisoroan egonak, erretzen dituzte eta beregañetik jauzika ibiltzen dire.

VI

Olentzaro urtearen azken-aroa da, Subilaro bezela.

Olentzaro —ikazkiñ eta igitaidun gizona— iragan dan urtea da-la dirudi, Kalerre bezela.

Olentzaro —basotik eldu dan albistaria— eguberriaren eta urteberri'ren iragarle bat da.

Olentzero-enbor edo Sukubela eguzkia sorrerazteko eta indartze-ko indoeuropatarren errialde guztietan pizten zuten sunbilla da. Eguzkiaren itzulmugan atontzen eta pizten zituzten suak, oen bidez eguzkia berritze arren (14). Sua eguzkiaren antzeko izaki bat bai da, suaren indarrez eguzkia eraendu nai zuten, lurra bizierazi eta gaizkin guztiak aldendu (15).

Olentzaro'k, orain batik-bait, Jesukristoren jaiotza iragartzen digu. Erri batzuetan albistari oni, Kristoren iragarleari, Mairua deitzen diote; beste batzuetan berriz Jentilla. Ara nola asi zan Kristoren sortzea Euskalerrian iragartzen lenengoz, Aralar'ko artzai bategen esan zidanaz:

Martxabaletako zelaian dantzan omen zebiltzan jentillak beren jai-egun batez. Sortaldetik agertu omen zan laño ikusgarri bat; eguzkiak ainbat argi zabaltzen omentzuan. Lañoa urreratzen eta jentillak bildurtzen. Ba omentzuten zaar jakintsu bat beren txabolan. Deitu ari. Betazalak eroriak bai zeuzkan, ezin ikusi. Jaso omen ziozkaten betazalak. Lañoa ikusi zuelarik, deadarka asi: "Sortu dek kixmie; gure azkazia galdua dek. Jauzi nazazute mallotik bera".

Kixmie, jentillen izkuntzan, tximua omen da: izen orrezaz Jesukristo adierazten omen zuten.

(14) Carl Clemen. *Religionsgeschichte Europas*, I, 177). (Hidelberg, 1926).

(15) Leopold. von Schroeder, *Arische Religion*, II, 198-240 (Leipzig, 1923).


(16) Barandiaran (José Miguel de), *Esquema de distribución geográfica de algunas creencias y ceremonias relacionadas con las fiestas populares*. («Anuario de la Sociedad de Eusko-folklore», II, 134. Vitoria, 1922).

Lañoa urreratzen zijoan; jentillek beren maisua mallotik amilkatu omentzuten bere aginduz eta berak lañoaren aurretik iges sartalderuntz. An, Arraztaran'en, arripilla baten azpian sartu omen ziran azkeneko jentillak beren azken-obian.

Oraindik toki artan dago jentillen obia. Jentillarri du izena.

Beraz orain esan gentzake aspaldi, 1922'n urtean, gai ontaz azaldu genduen: Olentzaro'zaz Euskalerrian dabiltzan sinismen eta oiturak, antziñako erligio baten aztarnak direla: batzuek indoeuropatarren unkitzez emen sartuak; besteak bertan aziak (16).

BARANDIARAN'GO J. M.



P I O B A R O J A

Pio Baroja il berria dugu. Il berri ori mingarria izan da guretzat alde guztietatik.

Eztagokigu guri, Jainkoari eskerrak, norbaitek Baroja'ren "auzia" dei lezakeana erabakitzea. Auzi ori gureak baiño esku obetan dago orain.

Zergatik, bada, asi bear dugu emen Baroja eta Baroja'ren obra aipatzen? Ezta gaitz erantzuten. Gizakiak eta giza-lanak neurtzeko eta sailkatzeko bide asko daude: onak eta gaiztoak berez ditzakegu, Azken Juizioan bezala, edota atsegin zaizkigunak eta iguin ditugunak, edota dotoreak eta zarpazuak...

Bada, ordea, beste neurkera bat. Neurri orren bidez neurtu ezker, gizakiak eta giza-lanak, direnak direla, bitarakoak dira bakarrik: andi eta txiki.

Anditasunak edo txikitasunak eztute ikuskizun andirik ontasun eta gaiztotasunarekin edo beste edozein "tasun"-ekin. Napoleon ontzat daukate batzuek, gaiztotzat besteek: eztiote, ordea, anditasunik ukatuko ez aldekoek ez etsaiek. Lapurra bazen ere, etzen nolanaiko litxarrerero kaxkarra, lapur andia baizik.

Orobat Baroja. Eztut orrenbestez esan nai Napoleon'en neurrikoa dugunik literaturan. Ezta ere, ordea, edozein idazle txaldanen parekoa. Deus gutxi balio izaten du gai orietan kidekoen usteak gerokoenaren ondoan: egingo nuke orratik eztela emendik berreun urtera zearo galdu Baroja'ren liburuen entzutea.

Anditasun orrek badu ajola guretzat, euskaldunontzat. Gizon andi franko sortu da gure artean, aski eta geiegi erri koxkor bantentzat. Ez, ordea, neurri berean sail bakoitzean. Oraintxe arte ez gera geiegi nabarmendu, nolabait esan bear-eta, kultura-saillean.

Ori dela-ta, gutakoren bat gaillendu bada lanbide orretan, ezin zokora **dezakegu**, gauzak astiro ikusmiratu gabe beintzat.

* * *

Gurea ote dugu Baroja? Gure artean jaioa denik, ezin uka. Deus gutxi da ori, orratik; geiagorik nai genduke.

Frankok bear bada eztaukate guretzat. Zenbatek eztakit, ezpaitut alderdi bakoitzeko iritziak kontatu. Baiña, nolana ere, bana-ka batzu baiño geiago dira.

Bat enatorkien arren, eztitut nik besterik gabe gaitzetsiko. Baroja borrokalaria zen eta borroka borrokaren eske dago beti, orain berriro Fausto Arozena'k erakutsi digun bezala. Etzituen ez itzak leundu ez gorrotoak estali. Eta mindu dituenak eztira gutxi gure artean, iru edo lau alderditakoak gaiñera.

Baroja'ren ezin-ikusiak ugariak eta iraukorrak ziren. Ona zenbait, nabarmenenez ezer esan gabe: Donostia, juduak, Ego-aldeko amerikanoak, iztun ederrak, Goethe, Papini, amalaudunak, arte berrria eta erabat 1930'tik onera gutxienez egin diren gauzarik geienak. Eta egoskogorra zen bere maitasun-gorrotoetan, emengo edozein baserritar jator bezain egoskogorra. Beste aldea erakusten saiatuko zintzaizkion, entzungo zizun itxuraz beintzat, baiña... bai, zera!: leengo lepotik ark burua.

Baiña, bereizgarri billa bagabiltza, oberik aurkitu bear: ezta alegia naikoa egoskogor izatea, zerbait laguntzan badu ere, euskaldun ona izateko.

Eztabaida onen oiñarriak finkatzeko, emendik asiko naiz: Euskalerrria —edo Espaiña edo Frantzia edo onelako beste edozer— itz bat baiño geiago dira, baiña ez gogoeta bat, idea bat, baiño askozaz geiago. Euskal-errria maite uste dugunok eztitugu maite orrenbestez neurri berean Euskal-errian diren edo izan diren zer guztiak. Batzu bizi maite ditugu, eta orietan datza gure euskaltzaletasuna; beste batzu epelkiro; zenbait, bost ajola zaizkigu; beste zenbait, berriz, iguin ditugu biotzez. Geiago da, eta onetara eldu nai nuen: bi euskaldunek eztituzte beti gauza berberak neurri berean maite; are geiago, onek maite duena gorrotagarri izan diteke beste orrentzat.

Nere ustez, Baroja'k Euskal-errria maite zuenik ezin diteke uka: maite zituen gure zeru-lur-itsasoak, maite gure jendea, gure izaera, gure gizabidea, gure mintzaera euskeraz ala erderaz. Ori begien bixtan dago. Baroja'ren liburuak zabaltzen nekatu nai ezituenak, irakur beza Luis S. Granjel'ek, *Boletín*-ean (IX, 155-167 eta

363-387) argitara eman duen lan zeatza. Or azaltzen baitira Baroja'ren euskal-sustrai luze-sakonak.

Ori bai: Euskal-erriari zion atxikitasunaren oinarrriak etziren osoro euskaldun askorenak, ezta agian euskaldunik geienenak ere. Eta orrexek lausotu ditu zenbaiten begiak.

Ezpekit esan maitasun ori kalterako izan ditekeanik. Semea lañezaz betetzen duen gurasoak, galbidean jartzen/ du maiz asko: gorroto ote du orrenbestez? Maitasuna arima-barruan agertzen den —edo agertzen ezten— gertakaria edo griña da. Galgarria izan ditekete, baiña maitasun alare, gorrotoa onerako, baiña gorroto alare, izan ditekean bezalaxe. Ondore onek eztute maitasun biurtuko.

Baroja'ren euskalduntasuna aitortu berria da —edo salatu berria— gutxien uste genduen aldetik.

Milan'go "Corriere della Sera"-n azaldu da, oraindik orain, Salvador de Madariaga'ren artikulu bat. Ona zer dion, besteren artean:

"Sortu duen lurraren gisakoa da eusko-gogoa: mendarte mearrez betea. Euskal-errixketako bideek, mearrak izanik, eztiote lekurik uzten gurdi bakar bati baizik; euskaldun baten buru-muiñetan ere, orobatsu, ezin ditekete idea bakar bat baizik koka. Irutara gerta ditekete au. Unamuno'k beti bat zuen buruan: Jainkoak izan bear zuela, nai ta ez, berak, Migel de Unamuno'k, betiko bizia goza zezan. Idea au darabil beti Unamuno'k: gora ta beera, noveletan, amalaudunetan, saioetan, drametan... eztu iñoiz laja. Non aurki besterik?

"Bigarren gisa, Maeztu'rena. Aldatu egiten du onek bere gogoeta bost urtetik bost urtera... Onelaxe ezta ezbearrik gertatuko bere muiñetako bide mearretan. Ezpaita aldian gurdi bat besterik ibiliko.

"Irugarrena, Baroja'rena, onek ezpaitu bere bizian idea-susmorik izan. Ken ezazute edozein *boutade*-kutsu, eta garbi ikusiko duzute. Ideen beldur da, izurriaren bezala."

Auxe ere bada! Emen genbiltzan Baroja'k euskalduntasuna mezei ote zuen, baiña sari baliotsuren bat zelakoan, eta ona non datorrigun bestea. Onek opa dio Baroja'ri euskaldun izatea: nola, ordea. Badirudi irain biurtu dela izen ori onen aotan.

Madariaga delako, ez gera ainbeste arritzen. Euskal-deitura duelarik —eta odol tantoren bat edo beste ere bai, noski—, ez gaitu geilegi maite euskaldunok. Eztu gaitzerikoa, edo uste txarra, iñoiz ixillik eduki. Beretzat, euskaldun esan ala buru-gutxiko esan, dena berdin.

Zearo oker dagoenik enuke esango. Unamuno'z diona, adibidez,

zorrotza izanik, eztabil jo-mugatik urruti. Unamuno'z kanpora ere maiz agertu izan dira munduan euskaldun asmobakarrak, "begibakar"-en antzera itza eratzea zillegi bada.

Zearo zuzen dagoenik ere ez, ordea. Gisa ortako erabateko iri-tiak *boutade*-antzta geiago dute besterik baiño. Bai baitirudi emen Madariaga zentzuduna Baroja buru-ariñaren bideetara labaindu zaiguna.

Denetatik bada Euskal-errian, Galizia'n edo nonnai bezala, bizkorrik eta tontorik. Zein diren ugariago, an eta emen, bakoitzak ikus beza.

Eztut nik uste, eta ezin dezake zentzuz jantzitako gizonek uste izan, euskalduna sortzez, izaeraz, beste inor baiño gogo-mearragoa denik. Ez ote zaigu ordea arima pixkaren bat estutu, izaeraz ez, azieraz baizik? Azieran izan ditzakegun utsak garbieroago ikusiko genituzke apika gere buruaren edertasunari ain ederretsirik bizi ezipagiña.

* * *

Gatozen berriro Baroja'gana. Zertan da andi? Libururik geienak novelak ditu. Novelagille andi dugu ortaz?

Askorentzat, bai, baiña... Zerk egiten du novelagillea novela-gille gailen? Gaiaren ari luzea esku trebez biurritzeak, irakurlea ari muturraren zai eta berebat, ustegabeko biurguneak direla-ta, adi-adi egon dedin? "Montecristo'ko Kondea" baiño oberik gutxitan sortu da orduan. Baroja, nolana ere, etzen iritzi ortakoa eta ezta bide ortatik ibilli. Madariaga'k dionez: "Bere novelak puska gaizki josjak dira, neurri eta itxura jakiñik eztutenak. Nola asi ta non buka, nork daki? Pertsona berberak: beste lokarririk ez. Gertakariak eta irudiak aldi eta alde batean biltzeak ematen dioten batasun-erraiñua beste batasunik gabeak".

Ori ezpada, beste ezaugarri bat badu novelagille garaiak: gizaki biziak sortzen ditu, eta itzal orien biziak eztio batere zorrik ezur ta mamizkoen biziari. Orrelatsu gertatzen da, esaterako, Baroja'k ain maite zuen Dickens'ekin: Pickwick, San Weller, Micawber, Uriah Heep, Bumble, Pecksniff, ez ote dira edozein Mikel Agirre edo Pedro Pérez bezain gizon?

Bada, ontan ere ezta beterik agertzen Baroja'ren neurria. Jendea erruz, txingurria bezala, dabil bere noveletan, baiña jende ori ezta geienetan itzal-pilla besterik. Aipatzen dira, zer edo zer esaten zaigu aiei buruz, eta ezerezak jaten ditu. "Pasan y se van", bere anai Ricardo'ren liburuari deritzan arabera. Eztute laino igeskor crik inoren gogoan kabia egiteko astirik izaten.

Egiazki, pertsona bat da beti nagusi Baroja'ren liburuetan. Bazuetan —“Juventud, Egoaltria” edo “Las horas solitarias”—, eztu izengoitirik: Pio Baroja deritza. Besteetan, berriz, izenak aldatzen dira, baiña izanak ez. Zalakain ausarta ezta noski Baroja beldurtia, baiña bai Baroja goseak amets duen amets-ezkurra. Eta, gizon ez gizon, gizonago derizkiot nik beintzat Silvestre Paradox'i Zalakain'i baiño.

Alaz guztiz ere, gizonaren deabruzko sorginkeria! Baroja dugu beti aurrean; Baroja'k ikusiak, entzunak, egiñak, pentsatuak irakurtzen ditugu: “uste dut nik, nere iritzia da, iruditzen zait...” Dostoievsky gogoko du, Goethe ez; Mozart bai, Wagner ez; Azorin bai, Valle Inclán ez; impresionistak bai, kubistak ez. Gaurko irakurlerik geienak ez ditu aspertu etengabeko lelo orrek: gerokoekin zer gertatuko, ezin esan. Kontatzen dituen gertaerak uskeriak dira sarri, iritzi burutsuago ta osoagoak entzun genitzake... Zerk irakurerazi digu, bada, Baroja'k bein ta berriro, itz gutxi gora-beera, marmarrean eman digun berriketa?

Auxe da José Pla'k esaten duena: “Baroja'ren novelak, bear bezala kimatu ezkerro, diren direnean agertzen zaizkigu: lurralde, gizairudi eta giroen andana luzeak. Onela kimaturik, ezin-obeak dira, paregabeak, bikaiñak... XX'garren mendean, Iberia'ko Saint-Simon izango zen, aur-gisako novelak egin bearrean bere oroitza-penak —luze baiño luzeago, ala estu korapillaturik— idatzi izan balitu. Okerreko bidetik jo zuen”.

* * *

Oroitza-pen oriek etzituztekean aatik orrenbeste irakurle lilluratu, gilleagan beragan zerbait maitagarri idoro ezpalute. Ez-titu bere utsak geiegi gorde: berekoia, gaizki-esalea, betixu xamarra, estua, ausardi gutxikoa azaltzen zaigu. Baiña bazuen besterik. Barren-barrengo ixuria kristau-ixuria zuen, eta etzuen ortik Nietzsche'k makurtu. Onbera agertzen zaigu, urrikaltsua; txiki, otzan, ixil, paketsuen adiskidea. Etzituen alferrik ain maite Dickens, Dostoievsky eta Verlaine.

Ipar-aldeko gizon ezea zen: Ego-alde legorrek etzuen geiegi kilitkatzen. Betiko eguzkiak gogait-eragiten zion. Naiago zuen giro aldakorra, Bidaso-aldeko maiz goibeltzen den zerua, euri-ondoko eguzkiaren irriparre bustia. Zentzuak ez ezik, aren barrena ere ezetasun billa zebillen, Ipar-aldean negar-euriak eta parre-eguzkiak oratu duten umore lañotsuaren billa.

* * *

Euskal-idazleoi ere eskeintzen digu zerbait Baroja'k. Gure lurraldea iñor gutxik bezala ikusi du, aurrenik: Pierre Loti eta, beste gisara, Lizardi kendu ezker, nor aldera lekiok? Orrialde luzee-tan eman digu maitekiro gure lur-barren eta itsas-aldearen irudia, ain zeatz eta bizia.

Amaika aldiz aotan artu izan den Baroja'ren idaz-tankera aipatu nai nuke azkenik. Euskaldun total izanik, biziro iguin zuen gatzeleraz "casticismo" delakoa. Irakurri gabe utzi zituen, nonbait esan duenez, Egaña'ren paper batzu aietan "Holgárame yo muy mucho" edo antzeko zerbait aurkitu zuelako. Orrelakoak ezin-eramana, ordea, gaurko euskaldunik geienok badugu erderaz ari geranean. Aita Larramendi'rena da guretzat arritzekoa: euskeraz ain jator egiten zuelarik etziokan iñork igerriko, izkribuz beintzat, erderaz mintzatzean emengoa zenik. "Holgárame yo muy mucho" baiño okerragoak ere —jatorragoak, alegia— aise itzurtzen zitzaizkion.

Retorikari eta itz-jarioari lepoa biurtzen saiatu zen beti Baroja. Etzuen lan ariña artu retorikari, arako erensuge ari bezala, lepoak moztu-ala sortzen baitzaizkio. Bere izkera arrunta, nolainai josia, ezta bear bada dirudien bezain erraz jaioa: beste batzuek itz arroak antzez josteko adinbat neke eraman zuen agian. Baiña onek gutxi ajola du. Berezkoa izan ala nekez landua, ondoreak ditugu aurrean. Ezta guretzat maisu txarra. Bai baitirudi zenbait aldiz, luzaroan oean egoteak aspertu duen eria bezala, eztugula, euskeraz ari geraia, egoera lasairik aurkitzen. Leen, esaldi luzeetan barrera zalan-tzarik gabe murgiltzen ziren euskal-idazleek etzuten orrelako kezkarik. Orain berriz, bide berrien billa eta labur-bearrez ari geranok errenka gabiltza sarritan, oiñetako estuegiak min ematen baligute bezala.

L. MITXELENA



ZINEMA

PICNIC. (*An American Tragedy*), Theodor Dreisser'en liburua, Joseph van Sternberg'ek eraman zuen zinemara aspaldi xamar; gero eta azkena pittin bat gozatuta, duela urte gutxi, George Stevens'ek ("A Place in the Sun", emen "Iguzkian lekua", "Iguzkitan" izan bearrean, biurtu zutena). Oraingo "Picnic"-ek, orren arabera, "An American Comedy" deitzea merezi luke.

Orrela da, izan ere. Gaia, oker ezpagaude, komedia batetik artua da. Komedia ere XVIII'garren mendekoek ontzat emango zutekena, egitekoak 24 ordu barrukoak baitira. Eta gertakizunak Ipar-Ameriketako gertatzekoak dira, ez beste inon. Eztugu, egia esan, Ameriketako berri askorik, gere txokotik aldendu geran aldi bakanetan Bilbao'raino edo eldu baikera, geienez ere. Baiña zinemari eta gizartearen ere sarri, geiago balio du itxurak izanak baiño. Eta itxurak guri ango iruditzen.

Mamia laburkiro azal diteke. Bizikalargun gelditua den emakume batek alaba zaarrenagan dauka uste osoa, arengan ikusten du bere burua gazteturik. Eluke nai gerta lekion berari gertatua. Itz batean, erri artako gazte dirudun batekin ezkondua ikusi nai luke. Ezta, gainera, ametsa: bada an orrelako gazte bat, eta gazteak ez-tu beste gogorik.

Gauzak orrela direla, beste gazte bat agertzen zale, arlote ezin-egon eta ajolakabe orietakoa. Aberatsaren billa etorria da, lagun zaarrak baitira, baiña beste norbaitekin egiten du topo adisdidea-rekin baiño leenago. Onak gogoko duen neskatzarekin, alegia.

Besterik esan bear ote da? Zenbait ixtillu gora-beera, maitasuna beti garai. Utziko ditu neskatzak aberatsaren ondasun ugariak, al-

de egingo du amaren etxetik, norapait, arlotearen ondotik. "Zoa-zen lekura joango naiz ni ere".

Orrenbestez, ordea, eztitugu aipatu film orretan ageri diren zabaldegi eguzkitsuak, jostalluzko etxetxoak, eliz-torre gisako gari-biltoki zurien andana luzeak. Eztugu esan gertaera oriek erriko jaietan gertatzen direnik, eta eztira jai oriek emengoen antzekoak. Eztitugu aipatu ingurukoak ere, eta inguruko jendea maiz nabarmentzen da, neska-mutil gazteen poz-naigabeak aaztuerazteko adiña. Ezta, labur, Sinclair Lewis'en "Main Street" —eztena ere falta zaio— baiña badu guretzat gisa orretako zerbait.

Joshua Logan zuzentzailearen alde, aski da gauzatxo bat esatea: "Cinemascope" delakoak, oi ez bezala, gaiak berak eskatu duela dirudi. Antzezleriak, oso trebe: William Holden, ainbeste aldiz ("Union Station", "Sunset Boulevard", "Sabrina") erakutsi duena baduela aurpegi polita baiño geiago balio duenik, Rosalind Russell, eta gaiñerakoak. Kim Novak leen ikusia genduen, "Pushover"-en ("La casa número 322", emen), baiña kolore txuri-gorritan pan-poxagoa dirudi.

A STREETCAR NAMED DESIRE. (*"Un tranvia llamado Deseo"*). "Negargarri ta lazgarri aiek ikustean zertako kupitu nai dugu, geurok iasan nai ez genuen miñez? Alare ikusleok samindu nai dugu, ta samin ori zaigu atsegin." San Agustin'en itzak dira, Orixe'k itzuli berriak. Etzaigu bakarrik atsegin malko xamurretan lasaitzen den miña; maite dugu, gaiñera —izu-ikaraz maite—, iñoren negarrak arinduko eztuen oiñaze gordin errukigabea.

Tragediak, politikak bezala, eztu iñoiz biotzik izan, ez leen ta ez orain. Eta Tennessee Williams'en antzerkia ezta besterik. Tebas'ko erregejauregiko pillareen orde New Orleans zaarreko etxebarru zarpazua, soingaiñeko zuri apaiñen orde elastiko izerdituak, baiña mamia ezta batera aldatu. Gure aldiak beeratu egin du tragedi-lekua, gurenganagotu. Gure gisako gizakien arte an sortzen da orain, gure etxeetan bizi, gure jantziz jantzia.

Emakume orrek, gugana agertu baiño leen, tranbean sartu baiño leen, etsia emana du: ikusleok jakiñaren gaiñean gaude. Azpian artu du oiñak zomorro argala eta eztu lajako zearo zukutu arte. Iñoiz zerua argitzen dela badirudi, igespiderik irekitzen bazaio iñondik, eztira irudipenak besterik. Ondasunak eta gaztetasuna galduak ditu. Ondamenditik itzuri, arreba ezkon-berriaren etxean aurkitu nai gordelekua. Zapaltzen ari den oiñak eztu ez presarik ez errukirik, oarkabean ari baita. Zapaldua oartzen da,

poliki-poliki, nai ezpadu ere. Azkenean, ero-etxera abiatzean, berekin darama arrebaren etxeko pakea.

Emakume gaxoaren etsi-bearra Vivian Leigh'ek adierazten digu: gidari, Elia Kazan. Orren ondoan, beste guztiak, Marlo Brando bera ere, eztira laguntzailleak baizik.

NAPOLEON. Film onen berriak aspaldidanik etortzen asiak ziren. Onenbeste kostako zela, orrenbeste lagun agertuko zirela, one-lako edo alako lekutan filmatzekoa zela, eta antzekoak. Andi-garestiak eztirela beti on dakitenak etzeuden ain pozik.

Gero, jendartera agertu zenean, asi ziren marmarrak. Garbi ageri zen gaizki-esaleak ugariagoak zirela ontzat zeukatenak baiño. Ikusi ondoren, gerok ere errazago makurtuko giñake gaizki-esaleen aldera.

Utsak, uts nabarmenak, axal-axalean azaltzen dira. Sacha Guitry, dirudienez, "Napoleon" zinemaratu bearrean aurkitu da berak Talleyrand izan nai zuelako. Eztu gaizki egin Talleyrand'ena, begiak itxirik eta aoa zabal, *bon mots* direlakoak darizkiola. Eskeini digun ingurutzoko dantzariak prozesio batean dabilzala dirudite, edo meza nagusia ematen. Zurrun, buru-iritzi, Historia'ren belarrira ixurtzen dituzte beren esan sonatuak: Cambronne'rena frantsesez utzi digute emen. Arkaitz berberak ikusten dira borroka-leku guztietan, naiz Marengo izan, naiz Austerlitz, naiz Eylau. Napoleon'en soldaduek ezute gerra maite, ezta lasterka ibiltzea ere. Ezтитеzen neka, astiro-astiro aurreratzen dira, jira-bira polit bat eginda noiz etzango. Maria Walewska'k Napoleon'i azkenean esaten dizkion itzak lotsatu edo nazkatu gabe entzuteko, gorra bear da izan edo belarriak estaliak eduki. Denak aipatzen asi ezker, ezkenduke berealakoan bukatuko.

Alaz guztiz ere, neke andirik gabe ikusten da film au, ia goz. Oi ez bezalakoa delako, kolore atsegiñak dituelako, jantziak, tresnak, lekuak egokiak direlako. Eztakit ongi. Historia ikasteko, edo ikasia gogoratzeko, liburu bat irakurtzea baiño errazago delako, bear bada. Baiña beste iturririk eztuenak eztu asko ikasiko Napoleon'ek emen edo an eraman zituen jipoiei buruz.

Ezagun askoren artean, Garat-Luis Mariano ere aurkitu dugu. Pozik egongo dira Luis Mariano bere guztizkotzat daukatenak; Garat-zaleak, bear bada, ez beste ainbeste.

MAS DURA SERA LA CAIDA. Ukabilkak, mutur-jokak, badi-tu aldekoak eta etsaiak. Etsaia genduen, etsaia ere amorratua, euskal-idazle jator bat aipatzeko, Luzear zena.

Izan genduen Gipuzkoa'n ukabilkari trebe, edo gutxienez sendo, bat. Gure kideek gogoan daukate, noski; gazteagoek ere badute agian aren entzutea, ezpaitzen ez idazlea, ez pintatzaillea, ez beste nolanaiko etxekalte orietakoa. Mutur-jokalari ori ipintzen zigungun, bada, Luzer'ek begien aurrean beti: "Eztuzute Olako ikusi berterik. Jo ta jo, muiñak urtu dizkiote. Mintzatzen ere aaztu zaio".

Iritzi ori geiegizkoa iruditzen zitzaidan. Borroka-mota orrek bazituen, nere ustez, alde onak ere. Or, batez ere, artzen ikastea, dirukontutan ez bezala, zaillakoa baita ematen ikastea baiño. Uka-bilkadak bear bezala —sumiñez itsutu gabe, alegia— "jasotzen" ikasi duenak, ezta alajaiña gutxi ikasi. Ba ote zekiten beste ainbeste arako Grezia'ko zazpi jakintsu aiek?

Mark Robson'ek Luzear'en sermoia dakar, zorrotzago eta aserreago esana. Ortaz mintzatu zitzaigun "The Champion" ("El idolo de barro") gogor artan eta ortaz mintzatzen zaigu orain.

Sinesgogor batzu agertu dira emen: ez omen ditezke iñon, ez Ipar-Amerika urrutietan ere, gisa ortako gauzak gertatu. Eztakit. Dirua erruz omen dabil, eta diruak eragin ditu leenago ere ori baiño okerragoak.

Dena dela, egia ala gezur, filmak ezta utsik. Argentina'ko zokoren baten arrapatu duten "Toro Moreno"-ren ibillerek —irabazle parregarri eta galtzaille zintzo— biziro kezkatzen gaituzte. Humphrey Bogart'ere, makur antzeko gizon zuzena, or daukagu. Eta azkenean, bear bezala, onek daramate saria, diruaren orde z kontzientzia garbia besterik ezpada ere. Izan ere —nork ukatuko?—, ez omen da aberastasun oberik.

L. M.

Bai-baitator urrundik
Gabonetarako
seme zarra: bidean
elurpe du oro;
etxeko sutondoan
bixkortu-ezkero,
ikus aren ezpañen
parreantza gozo!

LIZARDI



MARI BELTXA

Baroja'tar Pío'ren «Vidas sombrías» - eko ipui bat
(Ayalde'k euskeratua)

Baserri beltz atadian, ire anaitxoak besoetan, bakarrik gelditzen aizelarik, zertan pensatzen dun, Mari Beltx, zeru its eta urrungo mendiei begiratzean?

Mari Beltx deitzen diñate —*Maria Beltza*— Errege-egunean jaio intzalako, orretxegatik.

Beltza iri! Bildotx garbitu-berriak bezain zuri aizen orri! Eta orail ere bai, udarako urrezko gariak antzo.

Zaldi-gañean ire etxe-aurretik igarotzen naizela, ni ikusi ta gorde-egiten aiz. Nigandik izkutatu-egiten aiz... jaio intzan goiz otz artan, lenengoz besoetan artu iñunan mediku zar onengandik izkutatu...

Ongi gogoratzen naun. Sukaldean itxoegiten giñunan, laratz-ondoan. Ire amona —begiak malkoz, pentsakor suari begira— iretzako arropak berotzen ari unan; ire osaba-izeba, Aristondo'tarrak, eguraldi ta uztaz mintzatzten; ni ire ama begiratzera sarri joaten io-gelara... sapaetik zintzilik artaburu-sortak zeuzkan lo-gelatxo batera. Eta ire aitak, Joxe Ramon ogi-puska orrek, intzirika zegoen ama zaintzen zuen bitartean; nik landa nekuskiñan; elurrez bete-beteak itunan mendiak, eta aidean, onat-arat, zozo-taldeak.

Azkenean, luzaro itxoegin-ta, mundu ontara etorri itzan, negar ta negar. Zergatik negar-egiten din kristauak jaio ta bereala? Aurrean agertzen zaion bizia baño gozoagoa ote dun lengo ezereza?

Bai, oiu garratzetan aurkeztu intzan bizira. Erregeek, ire etortzea jakitean-edo, txanpon bat, "duro" bat, jarri ziñaten, iretzat gertutako txanoan. Agian, lan-ordañaz neri emandako "duro" bera unan...

Eta orain ni igarotzean, zaldj zarrakin pasatzen naizenean, izkutatu-egiten aiz. A! bañan ni ere, iñoiz, zugatz-artean gorde-ta, iri begira egoten natzain... Eta ba al dakin zergatik? Esango ba-nin, par-egingo uken... Ni, medikuzar au... ire aitona nintzaiñaken au... Bai, esango ba-niñan, par-egingo uken...

Ain eder iruditzen i neri! Esaten ditzen, alegia, Eguzkiak arpegia beltzatu dinala, eta giarregi dunala bular-aldea; ba-ziteken; bañan begiak, ordea, udazkeneko egunsenti bareak bezain xamurrak ditun, eta ire ezpaiñak gari-soroetako amapoleen kolore bera diñate

On eta atsegiña aiz, gañera. Orain dala egun batzuek, astearte zala-ta, peria izan unan, oroitzen? Errira jetxiak itunan gurasoak, eta i etxe-inguruan gelditu intzan, anaitxo besoetan.

Aurra aldarte txarrekoa unan, eta ik, alaitu nairik, beiak erakusten izkionan. *Gorriya* eta *Beltza* zelajian zeudenan belarra jaten, arnas-ots-egiten alaiki, korrika baldarki, isats luzeakin ankak astintzen.

Eta ik ume mukizuari:

—Ara *Gorriya* .. bei txatxu ori... adar oriekin; galdetu ezaiok, maitia: zergatik itxitzen ditun begiak, begi ain aundi ta zozo crik? Ez mugi isatsa.

Eta *Gorriya* urbiltzen zitzainan, bere ausnar-abere-begi tristee-kin begira, eta ille-kixkur-kopeta ik pallakatzeko burua eskeintzen ziñan.

Gero, beste beiarri ondoratu-ta:

—Au *Beltza* dek... um! Bai beltza...! Bai gaiztoa...! Au ez diagu maite. *Gorriya* bai.

Eta aurrak irekin batean:

—*Gorriya* bai.

Bañan umore txarra zuela gogoratu-ta negarrez asi unan.

Eta ni ere negarrez asi niñunan, ez zekiñat zergatik. Agureok, noski, aurren biotza bezelakoa diñagu-ta...


Eta ire anaia ixil-arazteko txakur jostallu erakusten ionan, baita lurra-mokoka ari ziran olloak ere —ollar arroa aintzindari zutela— eta batetik bestera zebiltzan zerri motelak.

Aurra ixiltzen zanean, pentsakor gelditzen intzan. Urrungo mendi urdiñei begira engoen, bañan ezer ikusi gabe. Eta zeruko odei zuriei, eta mendia estaltzen zuen orbel, eta zugatzen adar murritzei ere begira egonarren, deus ez unan ikusten.

Zerbait ba-ekusen, bai, bañan ire arima-barnean, amets eta maite-miñak sortzen diran izkutu-lekuetan...

Gaur, ni igarotzean, egundo baño kezkatuagoa arkitu aunat. Zugatz baten enbor-gañean eseri-ta, gogoa eroria, menda-ostroa aoan unala.

Esaidan, Mari Beltx, zertan pensatzen dun, zeru zurbil eta urrungo mendiei begiratzean?



JUAN RAMON JIMENEZ

Ona emen euskeratuta aurtengo Literatura'ko Nobel Saria irabazi duan Juan Ramon Jimenez olerkariaren poesi batzuek. Baita beraren "Platero ta biok" liburutxo zoragarriaren zatitxo baten itzulpena. Olerkien biurketa Nemesio Etxaniz'ena da, ta "Platero ta biok"-en zatiarena berriz B. Ametzaga'rena.

I

Lore batzuen lurrin-utsa...
Eguzki epel-gorritan
negarrez dago baratzea,
ta etxea intzirika.

Ire usaia ditzen loreak;
gorrixka-zurbil kaxkariñak,
ire gorputz loratuaren
itzal-larrosa-idurira.

Larros illa, gaur betillun;
atzo alai, emengoa
etzanean otza, eguzkiak
urrez zekarrenean maite-loa!
Atzo..., ire soin-larrosa unan,
nere ta lore, seda zuriz
jantzia etxe betean...
Gero...

Jaungoiko maitea!
lore batzuen lurrin-utsa...!
nerekin dedan lurrin au
ire usai izanik, i ez aizena,
mutu, goibel, illun dena...

Ai, emakume joanak
darion lore-lurriña,
utsik gelditzen danean
etxe, baratze ta anima!

II

Oial gorri-zurixkak algara zerioten
nakar-beso aietan. Maitale ero, aizeak
jolas zegian aren estalkitxo urdiñaz;
eraztunetan suzko euzki bat dirdaitzen zan

Artan, albazkatzean, aizeak mugatu zun
aren bularren obo utsal goxabera
—ikurrin zuri arek zuan makil bikaña—;
aren begien lore ederrak begira neuzkan.

Ta ondartza bustian, bion gogapenen
korapillo ezta nabarmentzen bezela,
nere urrats aundien lorratz ozen-pixuak,
aren txiki-ixillekin nasten ziran tarteka

III

Aur aingeruen jantzian
agertu zan aurrenengo;
ta, aurra lez, maite izan nuan.

Gero, iñundiko soñekoz
jazten asi zan; eta nik
begira nion gorrotoz.

Erregin parpalla arro
egin zan. Nere sumiña
ta biotzeko amorro!

Baña erazten asi zan;
ta nik par-irri negion.

Lengo aingeru-jantzian
gelditu zan; ta uste osoz
ezarri nion begia.

Erantzi zun estalkia;
ta agertu zan soil-gorririk...
Ai, nere bizi-griña, olerki-uts
erantzia, betiko neria!

Oi, oroipen ezkutuak,
oroitza-baratzetatik
kanpora geltituak!

Gabaz, bat-batean, bizi
ernetzen diran loreak,
basamortuko landare-gisa,
ego-aldeko izarraren eran.
—aztutze otzak, duan
grifñarik nagusiena—
bizitza-atal goxoenak,
ia oartu gabe
zoaztenak!

Elkor
oi-diran bideak;
mirariz, beingoan,
udaberri biurtutako
oroitza-zelai aztuak!

BIDEKO LOREA ("PLATERO TA BLOK")

"Bai dekala aratza, Platero, ta bai dekala yaioa, bideko lore au! Taldeak oro igarotzen dituk aren ondotik —zezenak, auntsak, moxalak, gizonak— ta ura, ain samur eta aula, beti diagu tente, goxo ta txairo, aren esi illunean, ifõngo zikinkeriz kutsutu gabe.

Egunean-egunean, aldapa astean, zearbidea artzen diagunean, ik ikusi duk bere leku muskerrean. Orain ba-dik bere alboan txo-riño bat, gu urbiltzean goratzen dekana —zergatik?—; ala beterik zegok, edontziño bat antzo, uda-odei baten ur garbiaz; orain erle baten lapurreta naiz inguma baten edergaillu aldakorra onartzen dik.

Lore au egun gutxi biziko dek, Platero; aren oroia, ordea, betiko diakegu. Bere bizitza ire udaberriko egun bat bezelakoa, nire bizitzako udaberri bat bezelakoa izango dek. Ene! zer emango niokek nik udazkenari, Platero, yainkozko lore onen orde, ura izan zedikan, egunero, gurearen eredu xaloa?"

* * *

Ar beza Andaluzia'ko olerkari aundiak gure zorion apala.

SARIKETA

Gipuzkoa'ko Diputazioaren "Julio de Urkijo" Euskal-filologi-mintegiak Eguerriekiko antzerkientzat eratu zuen sari-
ketara (ikus *Egan* 1956, 3-4, 13'gn. orrialdean) 23 lan agertu
dira, esan bezala ekitaldi bakarrekook.


Antzerkiak irakurri ondoren, onela banatu dira sariak:

1) Leen saria, 3.000 pesetakoa, "Arrasate'n ditu sustarrak"
ikurradien "Eguberri-aizeak" antzerkiarentzat. Egillea: Ma-
nuel Ziarsolo, Bilbao'koa. Zerbaki onexetan eman da argi-
tara.

2) Bigarrena, 1.000 pesetakoa, "Seaska-inguruan" deritzan
antzerkiarentzat. Ikurra: "Bakea ta maitasuna". Egillea:
Agustin Zubikarai, Ondarroa'koa.

Saririk eraman ez tutenetan, ez tira gutxi aipatzea merezi
dutenak. Batez ere, bi: Ondarroa'ko Arkotxa eta Martija'tar
J. A.'ren "Gabon-gabontzeta" eta Zurutuza'tar Jose Luis'en
"Gabon gaueko gazi-geza".

Aipagarriak dira gaiñera onako beste auek: Antonio Arga-
rate'ren "Zotzean bizia", Sabin Berasaluze'ren "Mesia, Iain-
koaren promes", Eusebio Erkiaga'ren "Pake eguna", Etxa-
niz'tar Nemesi'ren "Maite ere... neurriz", eta Estanislao Urru-
zola'ren "Eskalearen Eguerria".



EGUBERRI-AIZEAK

ANTZERKIA ITZ-NEURTUZ

EKINTZA BAKARRA

Bi antzez irudi

IKURTZAT

Arrasaten ditu sustarrak

ANTZEZLARIAK

SAN JOSE.—Berari iagokon era artako jantziaz.

BIRGINA.—Berari iagokon era artako jantziaz.

MINISTROA.—Berari iagokon era artako jantziaz.

BARREGARRI.—Aldi artako erritar bat.

LUZIFER, ASMODEO, BELZEBU.—Irurak deabru jantzita.

ARTZAIK.—Amar-amabiko taldea, artzai iantzita. Euron tar-tean BELTRAN, LORENTZO, ARITXA, GABRIEL ta TOMAS izango dira itz egin bear dutenak.

KANTARIAK.—Tajusko talde bat. Ez dute irten bearrik. Barnean kantatzen bai dute.

EKINTZA BAKARRA

Antzokiak Nazaret aldeko etxalde bat irudiko du. Esker-eskubitan kaleak naiz ateak. Oiala altxatzean, antzokia utsik da, ta barnean urrengo kanta au deramate:

Kantariak.—Zeruko Erregek nai zun bezela
Orra ezkontzea egiña;
Senar, Joxepe arotz apala,
Emazte, Maria Birgiña.
Laran laran lan

.....

LENBIZIKO ATERALDIA

(San José ta Birgiña azaltzen dira. Astiro ta eztitsu itz-egingo aule).

San Jose.—¡Zoriontsu naiz! ¡Zorioneko!
Zurekin alkartu naizelako
Eskar beroa gorderik det nik
Ontzat eman dun Jaunarentzako.

Birgiña.—Zorioneko nazu ni ere
David'en seme zeran Joxepe
Zeru-deiari utsik ein bage
Egin bai-nazu zure emazte.

San Jose.—Ainbat zorion... ¿nundik nik; nundik?
(Angeruak erantzungo du barrendik).

Angerua.—¿Nundik? Doe guztia, ¡zerutik!

San Jose.—Zeruak orla nai dula
Orla izan dadilla.

(Barnean kantatuko dute).

Kantariak.—Jose'ren emazte da
Birgiña kutuna
Edertasunez denak
Arritu dituna.
Pozgarri zaigu guri
Zuen batasuna
Ortik datorgulako
Zoriontasuna.

Birgiña.—Irukoitz Donearen Seme bakarra
 Arren aitu zaiguzu gure negarra!
 Zatoz Sorkaldeko eguzki berua,
 Gogoraziaz guri, Adan zan itxua.
 Adan'ek egin bai zun itxurik pekatu,
 Aren da gure utsak damu ditugu;
 Parkamenik, bearba, ez degu meresi,
 Errukior zeranez gutaz kupi zadi.
 Igarle jakintsuak iragarri zuten
 Sortuko zala Iaun bat ziurki Belen'en;
 Bera izango zala gure Salbadore
 Garbi utziaz denok orbanik bage.
 Dontzella bategandik jaiotzeko dala...
 ¿Nor izango ote da, Iaun orren Ama?

BIGARREN ATERALDIA

Lengoak eta angerua

(Angerua irtengo da ego ta guzti).

Angerua.—Agur milla bider, Birgiña Maria!
 Ni naiz zerueta albiztaria.
 Berri andi bat dakart an goian emana
 Zeu zerala izango Iainkoaren Ama.

Birgiña.—Ezagutu ezpa'det egundo gizonik
 ¿Nola jaiio diteke Iaun ori nigandik?

Angerua.—Ez dezu zertan jarri batere dudarik;
 Ezta zeruarentzat ein-eziñekorik.
 Ezpanak Iaun Altsuak igitu bai ditu,
 EGIN BTE esanik, egiña da: ¡Kitu!

(Joaten da).

Birgiña.—*(Begiak eta besoak zerurantz jasoaz).*
 Zeu zara nere Iauna; mirabea naiz ni.
 Zure asmoa nigan, nai bezela bedi.

San José.—*(Kezkati).*

Aurdun nabaritzen det nere emaztea;
 Orrek piztutzen dida barneko kezkea.
 Neskaso bat ain garbia
 Zeralarik zu, Maria
 ¿Nola diteke?
 ¡Oi, oi, oi ene!

Ez derizkiot zugaz emen gelditzea;
Baña ezingo al bizitzea
Zu gabe Maria
¡O! ¡au naigabea!

(Lo antzo etzaten da).

IRUGARREN ATERALDIA

Angerua agertzen da

Angerua.—Utzi zazu, Joxepe, buru-auste ori;
Biotzeko samiña pozez bete bedi.
Zure emazteari ezingo aurkitu
Orbanik txikiena, garbia bai duzu.
Gizonaren burua adimenez urri,
Iaunaren aginduak ezin dauz igarri;
Espiritu Santuak indarra emanik
Jesus sortuko zaigu Birgiñea gandik.

(Angerua alde batetik eta San José ta Birgiñea bestetik, jua-
ten dira).

LAUGARREN ATERALDIA

Ministroa ta Barregarri

(Biok batera azalduko dira; eta paper bat irakorri Ministroak
esango du:)

Ministroa.—Mundu guztiko emperadore Zesar Augusto andiak
Agintzen digu aurkeztuteko bere mendeko guziak.
Bakotxa berak ordain daizala tokatzen zaizkan nekeak

Barregarri.—Burukominik aztuntxoena eman oi dizkit diruak.
Nere izena Barregarri da; barregarritzko leluak!
Nik nenk be diru apur bat ba nu
¡Agur zuen aginduak!

Ministroa.—Barregarri ta negargarri
Lotuak dira aginduari
Urkamendia ezarko zaio
Ordaintzen eztuanari.

Barregarri.—¡Auxe dek bizi-modua!
Agintariak mauka egin,
Erriak ordain dirua;
Ez naizela ni konprome,
Ene lagun Ministua.

Zesar orri ordain baño len
Afaldutera nijua.
Urkamendiri parre egiteko
¡Ederra "esperimentua"!
Laraj larari lara lirilaro
.....

(*Juaten dira Ministrua ta Barregarri, au kabriola bat edo beste egiñaz*).

BOSGARREN ATERALDIA

San Jose ta Birgiña azaltzen dira

San Jose.—Goazen Maria, goazen Belen'era,
Zesar'ek eskatu duna ordaintzera.

Birgiña.—Borondate andiaz jarten naiz bidean;
Pozik jarraituko det zure ondorean.

San Jose.—Emetik Belen'era bidetxo luzea.
Nekatuko zera-ta... ¡auxe naigabea!

Birgiña.—Etzaite naigabetu, senartxo maitea;
Agindu egin dute gu ara joatea.
Bete dezagun Iaunaren borondatea
Pozean biurr dedin zure naigabea (*Ba doaz*).

(*Barnean kantako dute*).

Kantariak.—Belen'era dijoaz Jose ta Maria
Jesus dutelarikan euren gidaria.
Jarrai, maiteak, jarrai, aurrera bidea;
Zuzen juango zerate, ezin da galtzea.

(*Kanta orren bitartean, antzokiko oiala aldatuz, Belen inguroa azalduko da ostatuarekin eta abar*).

SEIGARREN ATERALDIA

San Jose ta Birgiña berriz azalduko dira.

San Jose.—Iaunari zor dioguz eskerrak, Maria,
Urreratu bai degu Belen'go uria.

Birgiña.—Eperik ezta, Joxep, betetzen eztanik;
Laster jaioko da Jesustxu nigandik.
Pozez detan biotz au ezin iat kabitu
Eztitasun gozoa daroat nabaitu.

San Jose.—Nere ustez gabilta, apur bat berandu.
¿Izango ete degu Belen'en ostatu?

Birgiña.—Ostaturik ezpa'da Belen'go urian
Iaungoikoa ba'degu lekutxu guzian;
Ordua eldu da, ene senar maitea,
Sein onek jaio bear du, jo zazu atea.

(*San Jose'k ostatuan atea jo ondoren, adi gelditzen dira. Kanta
au aituko da barnean:*)

Kantariak.—San Jose deika dago
Ostatu-atean
Ama Birgiñarekin
Sar-nairik barnean.
Laister jaio bear du
Iainkoak lurrian,
Ostaturik ezpa'da,
Txabola batean.

(*Kanta onen ondoren, ezta-baida au aituko da ostatu barnean:*)

Ostataria.—¡Amutil! ¿Ez al dek aitzen, mutil?

Morroia.—Oge barruan nazu biribil-biribil.

Eman nazu bakea, egon zaite ixil!

Ostataria.—Ez al dek aitu?

Zori gaiztoan artu eindudan, nere etxean kriadu!

Morroia.—Lo egiten itxizu, oindik goiza ezdezu.

Une onetan oean naiz da, enaiz ongi berotu.

(*Berriz atea jotzen du San Jose'k.*)

Ostataria.—¡Ara, norbait da atean!

Morroia.—¡Gu ongi gaude ogean!

Ostataria.—Laister ezpa'aiz altxata, aterako aut makillaka.

Morroia.—Makillaka naiz agaka, morroiak logurea dauka.

San Jose.—Senar-emazteak gera, ez arren leiatu
Bear dan lan-saria, ordainduko degu.

Morroia.—Zuentzat ostaturik ez degu emen;
Sarr zaitezte beraz bazterren baten.

San Jose.—Belen'en ostaturik guretzat ezpa-da,
Esan eizkuzu arren nun igaro gaba.

Morroia.—Or dago portale bat, uriaz ateti;
Iskuzu lo-egiten; zoazte emetik.

Birgiña.—Besterik ezpa'degu, guazen ba bertara;
Iaungoikoa dan tokian, ezta ezer palta.

(*Portalean sartuko dira. Bereala kanta aituko da barnean.*)

Kantariak.—Pekataria poztu dedilla,
Poztu dedilla zerua;
Portale baten jaiorik dago
Mesias gure Iainkua.
Zeruarentzat gloria dakar,
Gizonarentzat bakea,
Ondasun denak izan oi-duan
Eztitasunez betea.

ZAZPGARREN ATERALDIA
Luzifer, Asmodeo, Belzebu, Barregarri.

(*Luzifer demonioa irtengo da sua dariola.*)

Luzifer.—Izanik inpernuko printzipe andia,
Demonio guzien agintaria.
Ni orain, indar gabe, ni orain loturik
Aur bat baster baten jaiogaitik.
Luzifer arro, andi ta zekena!
Nun dek orain ire indar-kemena?
Naigabe garratzak, oñaze andiak
Kixkaltzen didaz errai guziak.
Irigi bedi lurra, iruntzi nagi
Samin andiagorik ez det nik nabari.
Nire inpernua, nik badakit nun den.
¡Ortxe barnean dago, ortxe Belen'en!
Ez nuke nik iñoiztxo esan nai egirik;
Andra bat ortxe dago bedeinkaturik.
Dontzella dagoala, Semea egin dau;
Nik ezin ulertu det misterio au.
Bertan da agure bat, ez mundukoa
Gura neukean baño santuagoa.
¡Ortxe naiz ni ziara galdua!
¡Orra nun galdu dan nere burua!
Baña... portalean jaio dan orri
¡Guda egingo diot orain eta beti!
¿Nun aiz, Asmodeo? ¿Nun aiz, Belzebú?
Estuasun onetan lagundu eiztazu.
¡Lagundu inpernua! ¡Lagundu, lagundu!
¡Erodes gure lagun, laister izangogu!
¡Garra! ¡Sua! ¡Gerra ta amorrúa! ¡Aurrera inpernua!

*(Sarata batzuen ondoren Asmodeo ta Belzebu deabruak ager-
agertzen dira.)*

Asmodeo.—Luzifer andi kementsua: ez adi estutu;
Ire alde etorri gaituk Asmodeo ta Belzebu.
Baal, Belial, Lebiatan ta beste antzeko jentea
Atzean dituk, dakardela ire estandartea.
¡Zabal dezagun ba'da gerra!
¡Gerra mundu guzitik!
¡Gerra jaio dan Aur orreri!
¡Gerra gaurko gabetik!

Belzebu.—Gure kaltez ba'datorr, Beretzat txarrago;
Amaikatxo naigabe pasatzeko dago;
Neu be iokatuko naiz al detan neurrian
Gurutzatu dagien Golgota mendian.

*(Barregarri azaltzen da, eta deabruak an daudenik oartu gabe,
erriarengana zuzendurik asiko da:)*

Barregarri.—Ementxe natortzue; ez nator asarre;
Ongi baño obeki ein det sabel bete.
Ministroak, uts-utsik eraman sakela;
Nik, berriz, urdallean bost libra okela.
Arrain ta marraskillu, intxaur ta gaztaña,
Sagar, ogi ta mispil-ustelak nai aña.
Edana zer izan dan nai ba'zute iakin,
Errezto edan ditut sei pitxar txakolin.
Bapo ibilia naiz ian-edanarekin;
¡Or konpon daitela Zesar, deabru zarrakin!

*(Une onetan "¡braun!" sarata egingo dute deabruak eta Barre-
garri oartzen delarik izitzen da esanaz:)*

Deabruaren arima ala zer da ura?
Orrein inguroan ez det egon gura.

Luzifer.—Tripazai orrek zer du esateko guri?

Asmodeo.—Ikus dezagun, bizkarra ote dun lodi.

Belzebu.—Zaudete apur baten; lodi naiz argala,
Zaparradea ezta izango makala.
Gertu dezagun orain ortako bidia
Probatu dezan orrek inpernuko ogia.

Barregarri.—Ixil zaitetze; eman nazute pakea,
Nai ezpaldin ba'zute ezurrak austea.

Belzebu.—(Biziki.) Nor aiz ba i?

Barregarri.—(Irriz.) Kikirriki!

Asmodeo.—Zer gizon?

Barregarri.—Or konpon!

Denak.—Eman, emon! jo ta emon; lo ez egon!

(*Jotzen dute ta lurrera eratzi. Ondoren iru deabruak aldetzen dira.*)

Barregarri.—Auxe dala Zeledon, artu bai ta ez emon!

ZORTZIGARREN ATERALDIA

Barregarri, artzaiak, angerua ta Sendi Donea

(*Artzaiak arkume bat edo beste ekarriko dute lepoan eta katku esnea eskuan. Artzaiak azaltzen dira kantuz:*)

Lan, labaraba lan, labaraba lan, lan lan lan.

Beltran.—Auxe da auxe! Txarles gurea ordirik datza.
Batzuk atxurra esan oi dute, beste batzuk lebatza;
Sabel barnean korapilloa, barnean berriz mataza;
Emazteari esango diot, laister ezpa'zera altxa.

(*Jeikiko da "Barregarri" ta saltaka asi.*)

Barregarri.—Laran larara raran lararan.
Labarabarabaran labarabarabaran.

Lorentzo.—Esaik mutil; modu orretan zerk arabil?

Barregarri.—Iru deabruk erruki baga.
Lasta-sakua bainitzan ala
Astindu deustez estiak
Mediku baga sendatu zaidaz
Dituden ezur guziak.

Gabriel.—"Matasanoen" eskuan
Kontuz ibili munduan
Osasun ona duana ere
Sartu oi dute zuluau.

(*Angerua agertuko da kantatuz: "¡GLORIA IN EXCELSIS DEO!"*. Arritzen dira artzañak, eta banan-banan esango dute:)

Lorentzo.—Ene lagunok... zer ete degu arako misterioa?
Txoritxoak lez egoak dakartz, gozoa bere aoa.
Zorionean alkartu gera guziok toki batera;
Angeruzko ejerzitoak, jetxi dirade lurrera.
Egundo bere ez det ikusi nere bizitza guzian
Zu bezelako gizon ederrik gure Belen'go mendian.

Beltran.—Angerua dek; ez dek gizona
Orren abegi ederrak!
Ziur-ziurki garaitzen ditu
Zelaietako eperrak.
Kantari asko arkitzen dira
Jerusalen'go temploan;
Doñu eztitsuagoa dabil
Angeru onen aboan.

Barregarri.—Beltranikotxo ortxe dabilizu eleizetako kantari;
Erleak eztu ezta egin astoarentzat janari.

Aritza.—Berau ikusi detan unetik orra ene pentsamentua
Zeruetako gloriagaitik utzi nai det nik mundua,
Lekarotz baten bizi nai nuke, otoi beroak egiñik
Bedarra jan da ura edanez, antxe neu bakarr-bakarrrik

Barregarri.—Mutil au laister egingo zaigu santu andi eta altsua
Alboan palta iakionean ardautxoaren zatua.
Aritxabatxu maitea; iakin zak nere ustea
Penitentzia egite ori eztala intxaur saltzea.

Tomas.—Betaurrekoak iarri egizak, Txarlesikotxo laztana;
Esan egidak zer misterio etorri zaigun gugana.

Gabriel.—Onen aboko mintzo gozoa aditu detan puntuan
Argitasun bat nabaitu det nik nere biotz barruan.
Artzain ez iakina nintzan ni; biurtu naiz "sabio"
Nere ustez mundu guziak, zuri bat eztu balio.

Barregarri.—Berriketea ugari dizu Gabrieliko gureak
Biar goizeko beste alderantz itzuliko dik aizeak.
Sekulan iñok eztu ikusi onen antzeko konturik
Nere ustetan laguntxo denok osoan daude ordirik.
Ez al dezute egosi oindik arratsaldeko saltzea?
Txakolin orrek lausotu diote euren begi tartea.

(*Angeruarengana zuzendurik.*)

Orain jolasak alde bat utzi eta jo zagon arira:
Zuri begira nere lagunak oso lelotu dira.
Egazti-antzo azaldu gizon arrigarritzkoa,
Iakin al leike Belen-aldera ekarri dezun asmoa?

Angerua.—Ni naiz, zeruetako launaren angerua
Zerutik dakartzuet gaur berri eztsitsua,
Pozez ase zaitetze, Belen'go pastoreak;
Asi dira zabaltzen zeruetako ateak.
Dontzella bategandik jaio zaigun Umeak
Osoan bete ditu Iainkoaren legeak!
Dontzella dontsu onek izena du Maria.
Erakutsiko digu sortu dan eguzkia.
Iaungoikoa, ume; Ama, birgiñea;
Orra jazokun bat, berdiñik gabea.
Iru Errege Mago izarran atzean
Bisitatzera datoz ganbelu gañean.
Gogo onez diranak euren ondorean
Pakean bizi nairik Aurraren mendean.
Erregek urrun datoz, gu gaude urrean
Jesus adoratzeko prestatu gaitean.
Eta pozez guziok Jauntzat aitortzean
Auspaz jarriko gera Beraren aurrean.

(*Erdi-erdiko ate biribilla irikiko da, ta antxe agertu Sendi Donea: Jesus seaskan, Ama Birgiñea exerita ta San Jose zutik bere makilla loratuarekin. Jesusen jaiotzari dagokiozan zertzelada geientwoenak jarri bitez. Asto-idien irudi, lasto ta abar.*)

Sendi Donea agertu danekoxe, urrengo kanta ori abestuko da bizirotan ta angeru ta artzaiak belaunikatuko dira. Artzaiak bi lerrotan zabalduko dira, angerua erdian aurrenen jartzen delarik.)

Kantariak.—Jesus, Jose, Maria!
Guregaitik odola emango dubana
Ezta beste biotzik baizik Jesus'ena
Eta gu salbatzeko, kenduaz obena,
Auspaz adora zagon biotzik onena.

Ama Birg.—Adoratzan zaitut Jaungoiko zeranez;
Laztan egiten dizut Semea zeranez.

San Jose.—Zeruak eta lurak Zeureak izanik
Nola etorri zera mundura billosik?
Auxe da auxe! Jauna ukullu baten
Guri apaltasuna erakustearren!
Arri ta orma utzi dezu Zuk mundua
Arrituta baita ere kantari zerua!

Gabriel.—Baimena emoiguzu Amatxo maitea
Adoratu dezagun auspaz Zure Semea;
Zeruko Erregea dala ba'dakigu
Angeruan aotik aitua bai degu.

Ama Birg.—Artzaitxuok, etorri zaitzte barrura;
Zuek konsolatzeta da Onen ardura.
Otoi egiñaz asi zaitzte eskatzen
Jesustxok ezpaitaki ezertxo ukatzen.

*(Angerua Jesus'en ondora juango da, ta Bera zaintzen gelditu
zutik.)*

(Artzañak eskintza egiten asiko dira.)

Gabriel.—Gutxiagaitik parkatu,
Emon gurea ba'degu;
Zure Seme Jaun orrentzat
Esne pitin bat dakargu.

Ama Birg.—Ez orregatik estutu;
Borondatea ba'dezu,
Borondate on ori Onek
Laister ordainduko dizu.

Barregarri.—Emon-gurea, emon-gurea;
Emon-gurea, nerea:
Zerbait ekarri nezaken neuk be
Jan ezpanuben guzia.
Emon-gurea, emon-gurea...
Auxe bai dala lotsea!
Ganora gabe len gastatuta
Zer emon ez izateā.
Bestekaldetik jazo zaitana
Mirarrietan andia:
Nundi ta nola eztakidala
Kendu zait neke guzia.

Ama Birg.—On-izate guzia zerutik,
Jaun onen eskuetatik.
Biotz-biotzez eman elozuz
Eskar beroak Beroni.

Barregarri.—Utsik ba'nator parkatu;
Borondatea bakuzu:
Beti-betiko izango naiz ni
Ama-Semeon kriadu.
Eskartxu eske naukazu,
Ez arren orain ukatu:
Jesusikori bear diot nik
Billantziko bat kantatu.

Gabriel.—Zuk billantziko bat kantatu eta
Nik kabriolak dantzatu.
Jainkoa gizon egin zaigu-ta
Mundua pozik daukagu.

*(Portaleko atea itxiko da ta antzez-tokian artzañak lotuko dira
bakarrik dantzari ta kantari.)*

Artzañak.—Eguerri-olentzaro, ganera Gabon;
Gau ontan egin zaigu Jainkoa gizon.
Au miraria!
Gora Jesus, José ta Maria!
Baita zerua,
Arako degu asmo osua.
Poztu gaitезan,
Dantzari bertan sartu gaitезan,
Dantzari bertan sartu gaitезan,
Laran laran, laran laran laran.

*(Kantari ta dantzari antzerki-tokiari ostera bat emanез, ezker-
eskubitako atetik ateratzea dijoazala, oiala geldika itxiko da.)*

AMAIA

PUBLICACIONES
DE LA
REAL SOCIEDAD VASCONGADA
DE AMIGOS DEL PAIS
Delegada del Consejo Superior de Investigaciones Científicas en Guipúzcoa)



- MONOGRAFIA DE D. XAVIER MARIA DE MUNIBE, CONDE DE PEÑAFLOIDA, por Gregorio de Altube.
LA EPOPEYA DEL MAR. por M. Ciriquiain-Gaiztarro. (Agotado).
PASADO Y FUTURO DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA, por José María de Areilza.
HISTORIA DEL MONASTERIO DE SAN TELMO, por Gonzalo Manso de Zúñiga y Churruca.
ELOGIO DE D. ALFONSO DEL VALLE DE LERSUNDI, por Joaquín de Yrizar.
BREVES RECUERDOS HISTORICOS CON OCASION DE UNA VISITA A MUNIBE, por Ignacio de Urquijo.
LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS Y LA METALURGIA A FINES DEL SIGLO XIII, por Manuel Laborde.

REVISTAS

- BOLETIN DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS.
Ejemplar suelto: 20 Ptas.
Suscripción anual: 60 »
EGAN: Ejemplar suelto: 10 Ptas.
Suscripción anual: 35 »
Suscripción anual conjunta a BOLETIN Y EGAN: 80 Ptas.
MUNIBE.—Revista de Ciencias Naturales.
Número suelto: 10 Ptas.

Redacción y Administración: Museo de San Telmo

SAN SEBASTIAN



ESCELICER, S. A.
SAN SEBASTIAN